According to Coller (2005), when the research questions are "how" and "why", it is necessary to carry out a case study methodology. This is based on the analysis of a concrete situation, under the pretext of understanding the object of study and interpreting differences with others. According to Yin (2002), this is an empirical research, which aims to place a real, contemporary phenomenon in context, using reliable sources. The choice of two cases: Bilbao and Barcelona, allows us to understand similarities, differences and patterns of the two specific contexts. This provides the opportunity for a comparative analysis to identify patterns and highlight relevant similarities and differences.

Thus, for data collection, first, qualitative techniques were used, specifically in-depth interviews, in order to obtain first-hand data and gain a deeper understanding of the experiences, perspectives and perceptions of the subjects involved in each case study. A total of 37 interviews were conducted, distributed among the participants selected for each case study, following specific selection criteria related to the personal and professional trajectories of each individual. Thus, the profiles are divided into different categories that are firstly considered as potential informants in order to identify and respond to the variables that have been constructed throughout the theoretical section. In this research we found a wide spectrum of profiles ranging from former mayors of both cities, to technical, institutional or political profiles, and even profiles related to academics, activism and social movements.

These interviews have been conducted using a semi-structured script that allows for a broad exploration of the issues of interest, while providing space for participants to contribute with their own ideas and perspectives. The choice of this qualitative technique is based on its ability to capture the self-reflective voices and experiences of

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

the individuals and collectives in each of the case studies. In this way, the interviewees have been carefully selected not only for their specific profile, but also for their path and their link to the urban trajectories and changes in each of the cities.

In addition to interviews, in order to obtain data for later interpretation, first and second degree sources have been used. On the one hand, first-degree sources refer to books with original information, academic publications or official documents. Second-degree sources, on the other hand, are those that interpret or analyse the previous ones. These sources provide a broader theoretical and empirical context and allow us to contrast and support the findings obtained from the interviews. Quantitative analysis has allowed us to use the data to identify patterns, trends and frequencies relevant to each case study. In this sense, the documentary analysis is not only based on the reading and analysis of countless articles, interviews or newspaper reports, but also on all the different types of documentation such as plans, projects, regulations, etc. that appear throughout the research, some of which are included in Annexes II and III. It is work that is sometimes not shown in this type of work, but which requires a lot of time and dedication to obtain conclusive results.

2. RESEARCH OBJECTIVES

The main objective is to demonstrate how the spatial fixation of neoliberal tendencies at the local scale produces, through strategies of destruction and creation at the spatial and institutional level, specific urban regimes which, by altering the regulatory strategies of such creative destruction, can be modified. In this sense, the aim is to identify the socio-spatial transformations that have occurred over the last three decades in Bilbao and Barcelona through the processes of unequal development and creative destruction. **In this sense, we will try to find out why, but mainly, how the paths of the two urban regimes converge until 2015 and diverge from that moment onwards, provoking ruptures and continuities in the dynamics of each urban regime. (GO)**

Thus, we consider several central concepts in our research, from which certain more specific objectives derive, and which we would like to briefly outline. To do so, we will follow the explanatory guidelines established in the previous section. First, we take up the concept of social space. In this case, we will try to understand, point by point, the evolution of social space in cities, how these spaces have been produced and commodified, focusing especially on the spatial dynamics that have marked the 1990s onwards **(SO1)**.

Linked to the previous objective, we focus on the implications and consequences of uneven spatial development, especially in cities. This leads us to the need to identify, on the one hand, the see-saw variations that certain urban spaces and neighbourhoods have undergone in specific cities; and, on the other hand, to understand both the differentiation (through segregation and territorial inequality) of spaces and neighbourhoods in the centre-periphery axis determined by the Uneven Spatial Development (USD) theory. Thus, we will explain and identify urban inequalities and imbalances **(SO2)**.

In this way, through the approach of the (social) production of urban space and the contributions of USD theory, we will understand the reasons and class relations behind the capitalist restructuring of urban space and cities, and will ultimately be able to see whether it has reinforced the gap between different social groups, or, on the contrary, offer the opportunity to generate alternatives.

Moving on, we look at what is known as "Actually Existing Neoliberalism", the aim of this is to test the extrapolability of glocal neoliberal tendencies. To this end, we discuss the question of whether glocalisation strategies exist and, similarly, what should be parametrising, turns out to be territorially specific variegations. Thus, in short, we aim to identify the specific ways in which neoliberalisation tends to act, producing policies

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

and strategies that are reproducible in different places. Conversely, we also aim to find the tendencies that allow for the existence of variegations in neoliberalism, and to see how they interact in consonance with dynamics at broader scales. **(SO3)**

Moving forward in the structure of the research, another purpose is to understand new governance, moving away from innocent debates and focusing on more mature critiques, both in time and content. We will not attempt to construct a model or a qualifying surname for the forms of governance that result from this study, but rather, the aim in this case, will be to go through the different theoretical models and to understand the interactions between these prototypical forms and the specific realities in relation to the paths of (counter-)neoliberalisation in both cities. In this case, we will make use of the contributions made by urban commons studies and, previously, by the new institutionalism and collaborative governance theories **(SO4)**.

In this way, we will also take into consideration the different contributions that have been made in the last 10 years from schools related to democratic innovations. As we mentioned when explaining the structuring of the thesis, we focus on the opportunities and limits offered by participation and its embeddedness, the possibility of democratic assemblage and the direction of governance (metagovernance and colibration). Our intention here is to see how far these go in the cities we are studying, i.e., to see how far they can go in deepening the processes of building alternatives and provoking counter-liberalisation scenarios, especially in Barcelona **(SO5)**.

Connecting the second specific objective related to space, and the latter related to the accessibility of state systems to subaltern actors, we are faced with a new purpose, that of analysing the trends that strategic-spatial selectivities have had over the period under study. **(SO6)**

All this, in the end, leads us to the need for an analysis of the historical trajectories of cities. In this sense, with an emphasis on inherited history and structures, we are forced to reflect on path dependence theory. Our historiographical review of the last decades in the two case studies allows us to construct a critical view that will help us to glimpse the capacities and resistances offered by the specific trajectories of the places themselves. **(SO7)**

Thus, to summarise, we could state that our research aims to try to extend Harvey's (2005:87) challenge of understanding how local transformations relate to broader trends by identifying turbulent flows of uneven geographical development that are produced through processes of neoliberalisation (Brenner et al., 2010). In this sense, the theory of space will give us clues and explanations of why cities today play a

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

fundamental role in the production and reproduction of the global tendencies of financial neoliberalism.

As we have already said, the aim is to establish a link between theories and studies related to economic policy and current governance structures. In other words, the aim is to put the mercantilist logics of glocalisation to speak, and to understand how neoliberal variegation occurs through the structures of local states, producing different forms of governance, and continuously modifying each urban regime, updating its forms in a way that is in line with neoliberalisation, or, on the contrary, may even establish new methods and structures in the direction of counter-neoliberalisation.

With all this, we aim to provide a new approach to the theory of urban regimes and their empirical analysis. We consider it important to recognise the construction of an analytical framework that not only takes into account the classic axes of study determined by classical political science, but following the most recent steps of authors such as Davies, Blanco, Imbroscio, etc., we will try to apply the new theories and points of view to two practical cases in order to obtain new results.

3. RESEARCH QUESTIONS AND HYPOTHESES

The questions we wish to answer in this research deal with the relationships, connections and networks between the local and the global. In this sense, the question to be answered could be something as generic as: how, or in what way, do global economic trends affect and structure themselves over time at local scales? and vice versa, since we consider that these connections produce multidirectional ions. But, as we have already seen in the explanation of the specific objectives, these questions, in addition to running the risk of falling into hackneyed topics, would be too abstract, and would not be in line with another of the transversal objectives of this research, which aims to shed light on debates that have traditionally tended towards academic theorisation and not so much towards practice. Therefore, being more concrete, we will try to answer some more specific questions:

- **What are the continuities and ruptures in the trajectories of the urban regimes of Bilbao and Barcelona before and in the aftermath of the global financial crisis, and how are they explained?**
- **What are, and how and why do they occur, the variations in the correlation of social forces that have contributed to the rupture, or not, of the trajectory of neoliberal urban regimes in the period following the global financial crisis in Bilbao and Barcelona?**
- **How has, if at all, the global financial crisis shaped the processes of urban regimes of Bilbao and Barcelona, and why?**
- **What role have local municipality governments played in facilitating or rejecting changes to the urban regimes of Bilbao and Barcelona, how and why?**
- **Who were and which has been the trajectory of the stakeholders involved in the processes of urban regime change or continuity in the post global financial crisis, and why?**

Behind these questions lies the interest in answering the different general and specific objectives mentioned in the previous point. And although they are not answered in a schematic way as a result or conclusion in the last section of the document, after reading the whole thesis we consider that they are sufficiently answered. Similarly, we believe that these objectives, from which the research questions presented here derive, manage to build an almost deductive line of research that culminates in the synthesis of the following hypotheses:

Hypothesis 1: The change in the correlation of social forces enables a change in the regulative idea and in the urban regime that may allow a reversal of the glocal strategies of deepening neoliberalisation and creative destruction.

- Sub-hypothesis: The change of urban regime in Barcelona has made it possible to reverse the ways in which the deepening of variegated neoliberalisation acted spatially and institutionally, while in Bilbao, the continuation in the trajectory of the urban regime does not imply a change in neoliberal strategies.
- Sub-hypothesis: the new urban regime that began to take shape in 2015, in addition to slowing down the dynamics of neoliberal glocalisation, has made it possible to implement strategies of counter-neoliberalisation.
- Sub-hypothesis: the unstable correlation of forces leads to an absence of rootedness of a hegemonic vision of the local state, which is not accompanied by state projects and strategies. This opens up possibilities for regime change.

Hypothesis 2: the rupture in the trajectory of urban regimes produces alterations in the strategic selectivities of local governance, favouring more collaborative models that bring democracy closer to citizens.

- Sub-hypothesis: participation without embeddedness and without an opportunity democratic assemblage alters neither the path of the urban regime, nor the dynamics of strategic selectivity.
- Sub-hypothesis: path dependency systematically reproduces selectivities and blocks to some extent the creation of new regimes.
- Sub-hypothesis: the alteration of strategic spatial selectivities allows for the reversal of USD dynamics, leading to a restructuring of capitalist urban space.

Hypothesis 3: the urban trajectories that have defined the two urban regimes of Bilbao and Barcelona have advanced in parallel until their rupture in Barcelona in 2015.

Sub-hypothesis: The dynamics of creative destruction have been going on in parallel, with their moments of *roll-back* and *roll-out* in the two cities until 2015.

Sub-hypothesis: Specifically, the 2011 legislature in both cities is framed in a moment of alignment with the dynamics of variegated glocal neoliberalisation

and a re-concentration of power in local government authorities characterised by austerity.

Hypothesis 4: the economic-financial crisis of the late 2000s is not the only explanatory variable that provoked an imbalance in the correlation of forces that has made it possible to change Barcelona's urban regime?

Hypothesis 5: the rupture of the urban regime in the case of BCN does not imply a return of local government power or a genuine rescaling of the statehood, but rather a new role of collibration and meta-governance of urban governance networks led by the municipal government.

- Sub-hypothesis: This leadership does not imply a reconcentration of power *ad hoc* in the figure of the mayor, but rather seeks to open up new ways of public-community collaboration that bring decision-making power closer to the citizens, democratising governance networks.

ATAL TEORIKOA

I. BLOKEA: OINARRI TEORIKOAK. *PATH DEPENDENCE*-AREN GARRANTZIA

1. ESPAZIO SOZIALAREN ONTOLOGIA

Il y a politique de l'espace, parce que l'espace est politique.

Henri Lefebvre (1974).

Espazioaren azterketa, zalantzarik gabe, beharrezkoa da interpretazio-paradigmatik egungo koiuntura³ ulertzeko. Zenbait zientzia-diziplinan, astronomian edo fisikan adibidez, *espazioaren* definizioaren inguruko adostasunak lortu ahal izan badira ere kontzeptu filosofikoa problematizatzeko beharrik gabe, gizarte-zientzietan zaila da hau operazionalizatzea. Egia esan, espazioa, nagusiki Chicagoko Eskola⁴ Ekologiko

³ Ikuskera gramsciarrari erreferentzia eginez. Koiunturak gizartean sortzen eta erreproduzitzen diren indar eta botere erlazio kontraesankorrei egiten die erreferentzia. Beraz, harreman ekonomiko, sozial eta politikoen garapen irregularra ezagutzea eskatzen du.

⁴ Chicagoko eskola, XX. mendearen hasieran Manchesterreko Eskolaren ondorengo gisa hasi zen itxuratzen, hirigintza eta hiri ikasketetan batez ere. Eskola amerikarraren ekarpen handienetarikoa hiriari unitate zentzua ematea izan zen, hau da, berezko zatiketa ukatu eta oso bakarra bezala aurkeztu zuten. Horrela, hiri "laborategi soziala" balitz bezala hartu zuten eta ikerketak immigrazioaren, mestizajearen eta talde arteko gatazken inguruan ziharduten. Hala ere, nahiz eta hiriaren alde sozialean arreta jarri zutela iruditu, egia esan, espazioaren orden funtzionalena nola lortzea ikertu zuten gehien. Honek kritika ugari balio izan zizkien, izan ere, sistema ekonomikoa alde batean uzteak eta espazio urbanoa modu objektiboan, hau da, lekuz leku trukagarria balitz bezala ulertzeak, zeharkako irakurketa ekar zezakeelako. Hiri sistema neutrotzat hartzen duen ikuspegi honi Hiri Ekologia deritzogu, hainbat ezaugarri ekologiko ikertzen baititu, hala nola, ekolodentsitatea, dimentsioa eta heterogeneotasuna. Eskola honen klasikoan artean Robert E. Park (eskolaren fundatzailearik ezagunena), Ernest Burgess edota garaikideagoa izan zen Erving Goffman azpimarratu ditzakegu (Azpurua, 2005).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Klasikoaren ikuspuntutik (Lezama, 2014), hasiera batean gauza huts bat bezala aurkeztua eta aztertua izan da, ondoren objektuek eta izakiek okupatzen dutena. Espazioaren irakurketa geometriko eta tekniko honek, alde batetik, egunerokotasuneko bizipenak alde batera uzten ditu, eta, bestetik, kapitalak erregulatzen dituen arauekin ez ikusiarena egiten du, naturalizatzen ditu. Nabarmentzekoa da hau ez dela beti irakurketa zabalduena izan. Henri Lefebvre (1974) filosofo frantsesaren arabera, XIX. mendetik aurrera bihurtzen da espazioa gauza matematikoa eta neurtua, egunerokotasunaren dimentsiotik urrun. Lefebvre beraren tesiei jarraituz, espazioaren irakurketa historizista bat aitortzen dugu, non hiru espazio aurkezten diren garai historikoaren arabera: *espazio absolutua*⁵ (natura, espazio natural hutsak edo giza jarduera gutxi jasan dituztenak, biziraupeneko nekazaritza eta artzaintzako jarduera tradizionalak kasu), *espazio historikoa* (greziar eta erromatar hiriena eta aurrekapitalista, hiria kapitalaren metaketa primitiborako espazio pribilegiatu gisa) eta *espazio abstraktua* (garaikidea). Horrela, Lefebvrek industrializazioaren hastapenetan eta kapitalismo globalaren hasieran jartzen du bere arreta guztia, izan ere, momentu hau izango litzateke, bere ustetan, klase sozial ezberdinek partekatzen zuten espazioa (espazio absolutua hasiera batean eta historikoa lehen gizartearen ondoren), *espazio euklidiar*⁶ eta abstraktu bihurtzen den unea.

Asimilazio honen aurrean, zenbait autore, adibidez Jean Lojkine, Manuel Castells edo Lefebvre bera aurretik, Georg Simmel (1927), espazio-kontzepzio horren neutraltasuna zalantzan jartzen hasi ziren, tradizioz *espazio geografiko* (edo *ekonomiko*) gisa ere ezaguna izan zenari kritika eginez, lurraldeari dagokionez objektiboa, arrazionala edo neurgarria zen horretatik haratago sakontzen ez duen kontzepzio murriztailea bezala ulertzen baitzuten. Alde batetik, Simmelek (ibid.) espazioaren garrantzi soziologikoa

⁵ Espazio honek giza esentziari, hots. naturari, egiten dio erreferentzia. Horregatik, beste bi espazioetan ere badago, baina kantitate txikiagoan. Zenbat eta gehiago kolonizatu eta okupatu espazio hau gizakiek, orduan eta gutxiago izango da absolutua, espazio geroz eta historikoago eta erlatibizatuago batean bilakatzen. Lefebvrearentzat, bere lehen egoeran, aldi berean espazio zibiko eta erlijioso bat da, non geroko gizartearen sinboloak finkatzen dituzten errito eta zeremoniak ospatzen diren (Baringo, 2013).

⁶ Geometrian, bi dimentsioko edo hiru dimentsioko espazio bat da, non Euclides (K.a. 300) matematiko greziarrak garatutako geometria euklidiarraren bost axiomak eta postulatuak aplikatzen diren. Behin-behineko zirriborro batean, geometria euklidiarra, eskuarki, bigarren mailako eskoletan irakasten den geometria lau eta solidoa edo ukigarria da. Halaber, dimentsio kopuru mugatua duen espazio bat da, non puntuak koordinatuen arabera izendatzen diren (bat dimentsio bakoitzerako) eta bi punturen arteko distantzia formula baten bidez ematen den. Espazio fisikoaren kontzepzio bakarra izan zen 2000 urte baino gehiagoz, eta, askotan, berau aztertzeko abiapuntua izaten jarraitzen du.

nabarmendu zuen, bi dimentsio identifikatuz: fisikoa, materiala eta bizigabea bezala; eta soziologikoa, antolamendu sozialaren dimentsioa bezala. Egia da Chicagoko Eskolak bereizketa hau aurrerago hartuko lukeela hiri-ekologian aplikatzeko eta datu eta estatistika hautemangarriak lortzeko. Baina Simmelek, horretaz gain, espazio soziologikoaren funtsezko bost ezaugarri identifikatuko lituzke, gerora espazio soziala ulertzeko eta teorizatzen erabilgarriak izango direnak (Edith, 2013), eta gaur egungo espazioa konprenitzeko oinarriak ezarriko dituztenak.

Lehenik eta behin, espazioaren izaera eksklusiboa nabarmentzen da, bi gorputz ez baitira gai leku bera partekatzeko. Praktikan, horrek, besteak beste, estatuaren, nazioen eta erakundearen arteko lurralde-gatazkak ekarriko lituzke. Bigarrenik, espazioaren kontzeptua desneutralizatuz, Simmelek espazioa zatitu eta mugatu egiten dela proposatzen du. Banaketa hori, istripu naturaletatik baino, prozesu sozialetatik eratortzen da, hau da, interakzio soziala (edo honen falta), izango litzateke mugak baldintzatzen dituenak, eta ez espazio fisikoaren ausazko formek. Beraz, autorearen arabera espazioa konstruktua sozial bat izango litzateke. Simmelek, gizartearen iruditeria kolektiboaren eraikuntzan, espazioaren garrantzia azpimarratzen du, denboraren kontra. Filosofo alemaniarrak espazioak oroimenean eta gizarte multzoen egituraketan duen finkapena aipatzen du. Hasieran aipatutakoari dagokionez, Simmelek honakoa ere argudiatzen du: behin modernitatearen gailurra ukituta, espazioa antolatzen moduak aldatzen direla, eta, ondorioz, espazioa bultzeko eta hautemateko moduak ere aldatzen direla. Adibide moduan, Erdi Aroan zegoen ohiturarekin adierazten du, garai horretan etxei eta baserriei izen bat jartzen zitzaizkien, eta Euskal Herrian tradizio horrek bizirik dirauen arren, Aro Modernotik etxebizitza gehienak zenbakitutako blokeetan daude antolatuta. Laugarren puntuan, Simmelek distantzia espaziala gizarte-harremanen baldintzatzaile gisa definitzen du. Horrela, hurbiltasunak, haien artean hurbil dauden egitura sozialen estrukturan oreka ezartzeko joera duela dio. Azkenik, mugatuta egon arren, espazioak mugikortasunerako eta gizarte-desplazamendurako benetako aukera hartzen du bere baitan, eta hori are bereizgarriagoa da egungo gizarteetan.

Ezaugarri horiek izan ziren espazio euklidiarra kritikatzeko lehen urratsak. Horrela, nozio horren aurrean eta alternatiba gisa, soziologo eta hirigile batzuen artean, *espazioa* zeozer *soziala* zela ideia inguruan antolatzen hasi zen kritika (Choay, 1966; Crozier, 1965; Ledrut, 1968; Castells, 1972), hautemate horrek honako ebidentzia sinple honi egiten dio erreferentzia: espazioa, gizakiarekin aldi berean existitzen den heinean, haren eragina du sozialki eta historikoki. Hortaz, espazioa, sistema jakin bat egituratzeko rol garrantzitsua betetzeaz gain, sistemaren zati ere badela baieztatzen dugu (Lefebvre, 1972). Orain arte aipatutakoa oinarri hartuta, espazioa gertaeren bitarteko edo

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

edukiontzi bakan bat izatetik, eraldaketarako objektu eta helburu ez ezik, interakzio sozialeko subjektu aktibo izatera ere pasatuko litzateke.

Simmelek erabilitako antzeko ildo batetik, Lefebvrek (1974) espazioaren hurbilketa teorikoak "teoria bateratu" batean elkartzen saiatuko zen, eremu fisiko, mental eta sozialak bilduko zituen teorian, hain zuzen. Horrela, "triada kontzeptual" bat eraiki zuen, *praktika espazialez, irudikapen-espazioez eta espazioaren irudikapenez* osatua. Horiek izango lirateke, azken beltzean, espazio soziala osatuko luketenak.

Hasteko, Lefebvrek *hautemandako espazioa* edo *espazio fisikoa* identifikatzen du eta zuzenean *praktika espazialarekin* lotzen du. Espazio horrek, fisikoki haztagarriak dena, "praktiko-sentikorra den oro eta naturaren pertzepzioek definitzen dute" (ibid.: 87), bizitzako gertakari ohikoenei egiten die erreferentzia, hots, egunerokotasunari eta gizakien habitat sozialeko berezko lekuetan egunero egiten diren praktikei (pertsonei bakoitzak, talde barruan, espazio hori erabiltzen eta praktikatu du). Horrela, espazioaren erabilera jakin horrek, bertan beste praktika batzuk egitea eragozten du. Delgadoren arabera (2013), hiri baten testuinguruan, praktika espazialak kale eta plazetan gertatzen dena garrantzitsua da, hau da, herritarrek eta oinezkoek horiei ematen dizkieten erabileretara hain zuzen.

Bigarrenik, *bizitako espazioa* edo *irudikapen-espazioak* ditugu. Kasu honetan, *irudikapen-espazioak, espazio fisikoak* esanahia duten lekuetan bihurtzen dituztenak dira, hau da, iruditeri-kolektiboan irudiak, oroitzapenak eta zentzumenak hartzen dituzten espazio fisikoak. Espazio hori, zalantzarik gabe, eremu mentalean kokatuko litzateke. Delgadok (2011) azaldu duenez, biztanleek eta erabiltzaileek okupaturiko espazioa izan arren, diskurtso teknokratikoak klandestinoki zeharkatzen du; diskurtso horrek artista, idazle eta filosofoak, zientzialariak, planifikatzaileak eta hirigileak biltzen ditu, deskribatu besterik egiten ez dutela sinetsita. Espazio horietan, edozein motatako botereak ezartzen dituen arauen eta bizitza sozialaren adierazpenen arteko konfrontazioa dago. Azken batean, "espazioaren irudikapen nagusien menpe dagoen espazio kualitatiboa da, baina desertzioak eta desobeditzeak inspiratzen dituena" (Delgado, 2013: 2).

Azkenik, *pentsaturiko espazioa* edo *espazioaren irudikapena* dugu. Ziur aski, Lefebvreren kontzepturik eztabaidatuena eta zailena izango da, espazio hori aurreko bien arteko batasuna eta bereizketa dela proposatzen baitu. Alde batetik, *pentsaturiko espazioa, irudikapen-espazioa* eduki gabeko espazio batean murrizten saiatzen da, apartekotasunik gabeko espazio batean, bizi izandakoa, ikusgarri baino ez bihurtzen. Horrela sortzen da "espazioaren gardentasuna", irtengunerik, harridurarik eta alterazio publikorik gabeko espazio sozial bat erakusten duena. Bestalde, *hautemandako espazio*

berri bat sortu nahi du, espazioaren forma eta erabilerak aldatuz. Horrela, *pentsatutako espazioak* bi espazioen gainetik egon nahi du, irudikapen-espazioak moderatuz eta hein batean geldiaraziz, eta praktika espazialak sortuz edo aldatuz.

Lefebvrek dio hiru espazio motak eta horien eremuak (fisikoa, mentala eta soziala) elkarri lotuta daudela ezinbestean, bakoitzak besteen inplikazioak oinordetzan hartu dituelako, eta haien arteko harremanak etengabe aldatzen direlako *modu trialektikoan*. Ezin dugu esan eremu mental huts bat, hau da, harreman sozialez eta pertzepzio fisikoez kutsatuta ez dagoena, existitzen denik; bestalde, kontuan izan behar dugu eremu sozialean sortu eta aztertuko ditugula gertakari sozialak, baina baita ingurune fisikoan ere. Azkenik, esan dezakegu espazio fisikoa, hasieran aipatutako ikuspegi arrazionaletik objektiboa izan beharko litzatekeena, bizitako eta pentsatutako espazioen ondorio gisa ulertu daitekeela, hauek baitira, hain zuzen ere hautemandako espazio fisikoa egituratzen eta moldeatzen dituztenak.

Espazioa "soziala" da

Horrela, bada, espazio logiko-epistemologikoari dagozkion jatorrizko ikerketatik igaroko ginateke, gizarte-praktikatik interpretatzen duenera, espazioa fenomeno sentigarriek okupatutako zerbait bezala ulertuta, irudimenezkoa, proiektuak eta proiektzioak, sinboloak eta utopiak baztertu gabe. Hori dela eta, Lefebvrek (1972) proposatutako espazioari buruzko hipotesiak eta kritikak aitortzea gustatuko litzaiguke, espazioaren kontzeptua beste estadio batera igotzeaz gain, espazioaren kontzepzio sinplifikatuei buruzko hausnarketa kritikoa ekarri baitzuen.

Lehenik eta behin, Frantziako egileak zalantzan jartzen du espazioa ahistorikoa eta interpretagarria izan daitekeenik, behintzat bertan eta honekin loturiko bizipenak eta gertaturikoak kontuan hartu gabe. Lefebvrek agerian utzi zuen egungo errealitatean ezin dela, prozesu historikoetatik eta ideologiatik kanpo utziz, kontzeptua absolutizatu. Ildo beretik, Lefebvrek hiru printzipiotan oinarritutako ideologia azaltzen du gaurko egoera ulertzeko (Lefebvre, 1976):

1. Praktika koherenteari (ekintzari) hiri-plangintza (edo "hirigintza") deituko litzaioke. Batzuetan enpirikoa bada ere, eta askotan aurrez zehaztutako zientzia baten kontzeptuak eta metodoak aplikatzen baditu ere (demografia, ekonomia politikoa, geografia, etab.), ebaluazio orokor batetik eta diziplinarteko datuetatik eratortzen da. Hala ere, zientzia eta praktika-teknikoko prozedura desberdin horiek aldeztu aurretik eratutako

edozein zientziak (ekonomia politikoak, esaterako) erabiltzen dituen bezala lantzen ditu.

2. Urbanistek, edo horietako batzuek behintzat, beraien ekintza profesionalaren azterketa metodikoa egiten dute. Epistemologia, hots, ezagutza-eremu (*savoir*) oso bat eratzeko helburu inplizitu edo esplizituarekin ordena teoriko baten azterketa egin ohi dute. Honek ezagutza-multzo bat jasoko luke. Lefebvrek, gainera, teoria epistemologikoaren asmo honek bere mugak gainditu egingo zituzkeela nabarmendu zuen, adibidez, beren burua "ulertzen eta egiten duten espazioko nagusi eta jauntzat" (1972: 29) eta gizarteak espazio gisa ulertu eta definitu behar duenaren sortzailatzat hartzen duten zenbait arkitektoekin ikusten den bezala, ustezko egia eta arrazoi absolutua gauzatu. Espazio hau "huts eta garbi bezala definitzen da, zenbaki, proportzioen eta urrezko zenbakiaren leku nagusia, adibidez. Bisuala da, eta, beraz, marraztua, ikusgarria; berandu populatzen da gauzez, biztanleez eta 'erabiltzaileez'" (ibid.).
3. Azkenik, adierazten du gogoeta teoriko hori espazioaren zientzia batean datzala, dela zientzia globala (gizarte osoaren eskalan), dela tokikoa (etxebizitzaren eskalan edo "habitataren" eskalan).

Bigarrenik, lehen hipotesiarekin lotuta, Lefebvrek planteatzen du espazioa lanaren eta lan-banaketaren ondorio eta emaitza baino gehiago dela. Filosofo frantsesaren arabera, irakurketa honek espazioa produktu hutsa balitz bezala hartzen du, non ekoiztiko objektuak eta espazioa okupatzen duten elementu arruntak batzen diren. Ulerkera honek espazio beraren teorizazioa alde batera uzteko arriskua dauka, deskribapen simple bati heltzen dion heinean. Lefebvrek, espazioa gertaeren kateamendu simple gisa bezala irakurri beharrean, alderdi soziala eta horrek ekarriko lukeen guztia ere kontuan hartzea proposatzen du. Aurrerago, Doreen Massey (2004) geografo britainiarrak lanaren banaketaren kontzeptuari nola heltzen dion ikusiko dugu, kapitalismoan espazioak nola sortzen eta erreproduzitzen diren azaltzeko, kapitalaren logiken bidez. Era berean, Masseyk adierazten du espazioa *erlatiboa* eta *erlazionala* dela, hein handi batean gure interakzio eta harremanen emaitza delako. Horrela, Lefebvrek proposatutakoaren ildotik, berak uste du espazioak berez ezin duela gizarte-arlotik independentea den existentziarik izan, eta ezin dela bukatutzat edo itxitzat hartu (Massey, 1999).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Masseyk oso ondo sinplifikatzen ditu, 3 printzipioren bidez, bere "teoria erlazionalaren" oinarriak.

- Lehenik eta behin, espazioa gizartearen baitan ematen diren erlazioen emaitza zuzena dela adierazten du, baina baita erlazioak ez egotearena ere, hauek baztertzen edo ukatzen diren heinean. Espazioan sortzen diren sareak, loturak, elkartrukeak eta konexioak konplexuak dira; izan ere, arlo pertsonaletik hasi (etxeko edo pertsonen arteko harremanak, esaterako) eta finantza-korporazioen edota nazioarteko ekintzaile kontrahegemoniko globaletaraino doaz.
- Bigarrenik, espazioaren aniztasunaren dimentsioa nabarmentzen du. Kasu honetan, neurri batean, Simmelek proposatutako *esklusibotasun* printzipioaren aurka eginez, Masseyk gauza bat baino gehiago aldi berean leku berean existitzea ahalbidetzen duen dimentsioa aitortzen dio espazioari. Aniztasuna ezinbesteko baldintza da gizarte-harremanak eta, beraz, espazioa bera existitzeko. Horrela, "space and multiplicity are mutually constitutive" (Massey, 2009: 19).
- Azkenik, aurreko bi premisak kontuan hartuta, Masseyk espazioa etengabeko sortze prozesuan dagoela baieztatzen du. Garrantzi handia ematen die denborari eta prozesu historikoei, horiek baitira, halaber, gizarte-espazioaren oraina eta etorkizuna modelatzen dituztenak. Alde horretat, "*etorkizungarritasuna*" barne hartzen duen kontzeptualizazio honek aldaketarako ateak irekitzen ditu, eta, ondorioz, espazioaren dimentsioa politikan sartzen da, politikak etorkizuna aldatzeko aukera ematen duen neurrian.

Masseyk espazio erlazionalari buruz proposatutako oinarriak aipatu ondoren, Lefebvrek proposatutako hirugarren eta azken hausnarketarekin amaituko dugu. Honek "burgesiaren tranpa" moduan identifikatuko lukeenari egiten dio aipamen. Kontzeptu filosofikoaren (lehen hipotesian azaldua) eta espazioa produktua bezala ulertzen duen hipotesiaren arteko erdizkako interpretazioa da. Espazioa, adiera guztien arteko bitartekari gisa aurkeztuko litzateke, botere politiko-ekonomikoa duenaren mesedetan, manipulatzeko tresna politiko bihurtuz. Ildo horretan, botere horrek espazioaren kontzepzio hori erabiliko luke nahitaezko kohesioa inposatzeko eta sistemaren balizko kontraesanen aurrean koherentzia-sentsazioa emateko. Prozedura hau eremu mentalean gertatuko litzateke, diskurtso nagusiaren helburu bihurtuko litzatekeen eremuan. *Bizitako espazioa* espazioaren teorikoengatik teorizatua, manipulaturia eta moldaturia izango litzateke. Lefebvrek premisa hori onartzen du, eta espazio honi *espazio abstraktua* deitzen dio, "gizarte-errealitatearen konplexutasunetik urruntzen dena eta,

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

ustez argigarriak eta koherenteak diren diskurtsoen bidez, produktu amaitu eta isolatu gisa aurkezten dena; horren ondorioz, produkzio-prozesuetatik eta haiekin batera ekoizpen-, menderatze- eta ustiapen-harremanetatik bananduta agertzen da" (Lefebvre, 1974:15).

Tilleyk (1994) honako taula honetan bereizten du espazio sozialaren (gizarte-harremanen emaitza dena, azken batean) eta *emandako espazioaren* (fisikoa edo absolutua, egoera naturalean, eta ondoren, giza ekintzaren eta diskurtso hegemonikoaren ondorioz *abstraktu* bihurtua izan denaren) arteko desberdintasun kontzeptual hori:

Taula 1: Espazio moten arteko ezaugarrien ezberdintasunak

ESPAZIO ABSTRAKTUA	ESPAZIO SOZIALA
Edukiontzia	Bitartekoa
Deszentratua	Zentratua
Geometria	Testuingurua
Gainazala	Dentsitatea
Unibertsala	Zehatza
Objektiboa	Subjektiboa
Solidoa	Erlazionala
Totalizatua	Destotalizatua
Kanpoko	Barnekoa
Sistema	Estrategia
Neutrala	Ahaldundua
Koherentzia	Kontraesana
Denboragabea	Denboraduna
IDEALISTA	MATERIALISTA

Iturria: Egileak egina Tilley (1994:8) oinarritua.

Tilleyk proposatzen du espazio abstraktua irrazional gisa tratatzea, bere defentsan dagoen diskurtsoa egungo egoerarekin kontraesanean baitago. Hala eta guztiz ere, "arrazionaltasunaren" ezaugarria lehen zutabeari egotzi nahi diogu; izan ere, espazioa gertakarien edukitzaile soil gisatzat hartzen duten diskurtsoek, espazioa bera neutralizatzea dute helburu. Argitu behar dugu espazioari buruzko bi diskurtso horiek erabat kontraesankorrak eta kontrajarriak izan arren, modu dialektikoan bizi direla gaur egun.

Puntu honetara iritsita, eta espazioa sozializat eta gizarte-harremanen emaitzat hartzen duen argudioarekin amaitzeko, egokitzen jotzen dugu Bourdieuren *espace social réifié*⁷ teoria gogora ekarriz boterearen desorekei buruz hausnartzea. Filosofo frantsesaren arabera, espazioa interakzio sozialaren emaitza bada, gizarteak berak dituen botere-desberdintasunen eta -asimetrien arabera izango da erreproduzitua, eta era berean, hauek erreproduzituko ditu *habitus*aren bitartez, aurreago ikusiko dugun bezalaxe. Horrela, Lefebvreren “burgesiaren tranparen” ideia antzera, espazio sozialak espazio abstraktuari buruz egin ohi den irakurketa baldintzatzen duela planteatzen du; beraz, klase nagusiaren diskurtsoen eta botere-eragileen bitartez, espazioak bere baitan menderatze eta botere formak naturalizatuko ditu. Horrela, neurri handi batean inkontziente gisa txertatutako zatiketa eta oposizioetan espazializatutako gizarte-egitura horiek, botere-egiturak erreproduzituko lituzkete. Bourdieuk, orduan, gauza bihurtutako espazioari buruz hitz egingo digu, objektu bihurtutako espazio sozial bezala. Argudio honen arabera, unibertso sozial zein politikoa sortutako aurkakotzak edo kontraesanak, neurri batean, botereak duen arbitrariotasun ezaugarri hori, natural moduan aurkezten den zerbaitetan eraldatzen duten mekanismo gisa diharduten gailu espazialei esker erreproduzitzen dira. Horiek horrela:

L'espace social tend à se retraduire, de manière plus ou moins déformée dans l'espace physique, sous la forme d'un certain arrangement des agents et des propriétés. Il s'ensuit que toutes les divisions et les distinctions de l'espace social (haut/ bas, gauche/droite, etc.) s'expriment réellement et symboliquement dans l'espace physique approprié comme espace social réifié. (Bourdieu, 1997: 162).

Espazioaren ekoizpena: boterearen egitura espazialak

Orain arte egindako ibilbidea aintzat hartuz, agerian geratu da espazioa gizarte-harremanen emaitza dela, eta modernitatean eta, are gehiago, bizi garen kapitalismoaren hegazkortasun garai honetan konplexutasuna hartzen duela. Lefebvre hasieran ukatu bazuen ere, eta espazioa produktu gisa baztertzen zuela iruditu arren, azkenean ekoizgarria den *produktu sozial* bat dela onartu egin zuen (Lefebvre, 1974). Espazioa, modu naturalean (*espazio absolutua*) eta gizakirik gabe, ez litzateke zertan *produktu* bat izan, ustekabeko emaitza baizik. Beraz, ondorioztatzen du espazio soziala (manipulatua, abstraktua eta erlatibizatua) produktu (soziala) edo eraikuntza sozial konplexu bat dela (balioetan eta esanahien eta alterazioen ekoizpen sozialean

⁷ "Espazio sozial egokitua" terminoa ere erabili izan da.

oinarritua), eta praktika eta pertzepzio espazialei eragiten diela. Horrela, espazioa, edozein produktu edo merkantzia izan gabe,

ya no puede concebirse como pasivo, vacío, como no teniendo más sentido que —al igual que sucede con los otros «productos»— ser intercambiado, consumido o suprimido. En tanto que producto, mediante interacción o retroacción, el espacio interviene en la producción misma: organización del trabajo productivo, transportes, flujos de materias primas y de energías, redes que distribución de los productos, etc. A su manera productiva y productora, el espacio entra en las relaciones de producción y en las fuerzas productivas (mejor o peor organizadas). Su concepto no puede, pues, aislarse y quedar estático. Se dialectiza: producto-productor, soporte de relaciones económicas y sociales. (Lefebvre, 1974:55).

Argi izan behar dugu, ildo hau jarraituz, espazioa produktu soziala dela. Horren haritik beraz, ez da natura modifikatuaren⁸ ekintza hutsa gisa planteatzen, ezta kultur zehatz baten emaitza gisa ere. Kasu honetan, bigarren naturaren (gizarte urbanoa) produktua izango litzateke, gure naturarena hain zuzen. Produktu moduan ez du zertan gauza edo objektu simple bati erreferentzia egin, are gehiago, erlazio multzo bati egiten dio aipamen (Martínez, 2013). Hemen gakoa espazioaren produkzio sozialean dago, hau da, espazioaren zentzuan, kontzeptuetan eta kontzientzian, aldi berean ere produkzio fisikotik bereizi ezina dena, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Lefebvrek (ibid.) espazio-eremuen eta espazioaren triada kontzeptualaren (hautemandakoa, bizitakoa eta pentsatutakoaren) bitartez eraiki zuen bere teoria. Harentzat, espazioa sortzeko prozesua (denboraren dimentsioa sartzen saiatuz) eta produktua (produzitutako espazio soziala) zatiezinak dira. Izan ere, gizarte bakoitzak, bere une historikoan eta bere egoeraren arabera, bere espazioa sortu izan du, eta hala jarraitzen du izaten, ez modu dialektikoan (fisikoan eta sozialean) hasieran ikusi dugun bezala, baizik eta modu trialektikoan, espazioaren irudikapenen, irudikapen-espazioen eta praktika espazialen bitartez. Horren barruan sartzen da, halaber, “burgesiaren tranpa”, eta ekoizpen espazialaren baldintza ideologikoa agerian uzten du.

Horregatik, jarraian espazioaren ekoizpenaren eta boterearen arteko erlazioari erreparatuko diogu. Bourdieu-rekin ikusi dugun bezala, Schmitten arabera (2003), gizarteek ez dute aurrez ezarritako ordenarik, baina eboluzioaren arabera ordenatzen dira, espazioaren eta boterearen arteko koinplikazioen bidez, arau zehatzak eta ordena espazial, sozial, juridiko eta politiko interdependentea sortuz. Historia- eta denborajalkitze horren arabera, espazio-egitura sortzen eta erreproduzitzen doa. Ildo honetatik,

⁸ “Natura modifikatuaren” kontzeptuarekin Neil Smithek (1984) –Lefebvren obren aditua–, landutako “naturaren” teoriari egin nahi diogu erreferentzia. Ikusi dugunez, kapitalismoan natura *hutsa* topatzea gero eta zailagoa da. Izan ere, Smithen iritziz kapitalismoaren globaltasunak ez du “arroka bat ere ez bere lekuan utzi”.

esan genezake indar-harremanak berak direla gizarte-espazioaren egitura osatzen dituzten indar-harremanak erreproduzitzeko eta indartzeko joera dutenak. Horrela, baieza dezakegu gizarte-ordenaren legitimazioa ez dela nahita bideratutako propagandaren edo inposizio sinbolikoaren emaitza, pentsa daitekeen bezala. Lefebvreren ideiarekin jarraituz, legitimazio hori zera da, eragileek gizarte-espazioaren egitura reifikatuak⁹ aplikatzen eta errepikatzen dituztela, egitura horietatik ateratzen diren pertzepzio- eta hautemate-egiturak, mundua agerikotzat eta homogeneotzat hartzeko joerak bultzatzen dituzte (Bourdieu, 1987). Botere-harremanen erreprodukzio-eremu horretan sortzen dira espazioa eta sen ona ekoizteko borroka¹⁰.

Puntu honetan, Lefebvreren pentsamenduaren eta De Certeuren (1990) erresistentzia-eta botere-ikuskeren arteko antzekotasuna azpimarratzea beharrezkotzat jo dugu. De Certearentzat espazio soziala boterearen manipulazioen menpe egongo litzateke estrategia zehatzen bitartez. Foucaulten panoptikoaren ideia erreferentzia gisa hartuta, estrategiak botere-helburuak eta erabatekotasuneko helburuak dituzten ekintzak izango lirateke, harreman espazialekiko interesa dutenak, baina modu isolatu eta ezkutuan aritzen direnak, espazioa irudikatzen saiatuz haren gainean iruditegi espezifikoak ezartzeko. Bestalde, taktikek (estrategiek inposatutako legediaren menpe jarduten dutenak), botere espazioen bitartez, botererik ez dutenen mesedetan egoera eraldatzeko aukera luzatzen dute, ez bailitzateke eraldaketarako espazio propiorik existituko.

De Certeuren ustez, Foucaultentzat bezala, boterearen eta boterearekiko erresistentziaren arteko gatazka iraunkorraren emaitza da espazio soziala, orientatzen, iragankor bihurtzen, kokatzen eta funtzionarazi egiten duten esku-hartze eta kalkuluen emaitza, hain zuzen. Eragiketa horietako bakoitzean, alde batetik, indar hegemoniko eta diziplinari batek jarduten du, eta, bestetik, honi kontrajartzen zaion beste batek. Hala ere, Salcedok (2008) azpimarratzen duenez, Foucaulten ustez espazioa diziplinaren adierazpena eta boterearen mikrofisikaren ariketa besterik ez da; De Certeauk, ordea,

⁹ Reifikazioaren zentzua aurrerago ikusiko dugu, baina komenigarria da jakitea reifikazioak, sinplifikatuz, espazioa gauza bihurtzen den momentuari egiten diola erreferentzia, nahiz eta ezinezkoa izan merkantzia huts izatera murriztea. Atal honen amaieran berreskuratuko dugu eztabaida sakon hau.

¹⁰ Bere zentzu gramsciarrenean:

La concepción del mundo que es absorbida de forma acrítica por varios medios sociales y culturales en la cual la moral individual del hombre medio es desarrollada. El sentido común no es una concepción única e idéntica en tiempo y espacio. Su característica fundamental es que es una concepción en la cual incluso en el cerebro de un individuo es fragmentaria, incoherente e inconsecuente, en conformidad con la posición social y cultural de aquellas masas a la cual esa filosofía pertenece. (Gramsci, 1981: 419).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

bertan bizi direnen eguneroko praktiken ondorioz, botere hori iraulia eta haren esanahia aldatua izateko aukerari ateak irekitzen dizkio.

Premisa horretatik abiatuta, interesgarria da Doreen Masseyk (1999) botereari buruz egin zuen interpretazioa, dagoeneko azalduta dagoen "teoria erlazionala" oinarri hartuta. Erreferentzia moduan, lehenik, Bourdieuren suposizioa eta botere egituren konfigurazioa hartuz, eta, ondoren, Foucaultena, zeinarentzat boterea goitik behera erabiltzen den, baina modu erlazionalan funtzionatzen duen; Masseyk, boterea espazioa eratzea ahalbidetzen duen mekanismoa dela baieztatu zuen. Bestalde, Masseyk (2004), gizartearen sorrera eta eraikuntza ulertzeko, espazialtasunari erreparatu behar diogula mantendu zuen. Une horretan aurkeztu du "botere-geometrien" ideia, hau, espazioa boterez josita dagoela eta,aldi berean, botereak beti dimentsio eta efektu espaziala duela azaltzeko saiakera bat baino ez da. Hala, beharbada Simmelen (2009) postulatuen eragin pean¹¹, logika hori bera ezartzen du, bai toki mailarako, bai maila globalerako.

Ikuspegi honetatik, botereak harremanak sortzeko moduak diseinatuz jardungo luke. Horrela, espazio soziala "botere-geometria" batzuen bidez sortu eta ekoiztuko litzateke, harreman eredu despereko ugariz osatuta. Masseyk Londresek Erresuma Batuko gainerako leku eta lurraldeekiko duen botere zentralitatearen adibidea erabili zuen, praktikan "espazio soziala" dei genezakeena sortzen duten hainbat eremutan aurkeztuz:

In the United Kingdom, for example, it is quite possible to discern power-geometries in politics, in the economic sphere through the geography of the relations of production and distribution, and in the cultural formation. It is also undeniable that the three —each of them strongly peaking in the south east corner of the country— feed off each other and reinforce each other. The spatial centralisation of all of these power-relations in London is one of the cardinal facts of British society. It is a crucial aspect of the national democratic deficit. Most parts of the country barely have a voice. (Massey, 2009: 18).

Era berean, adierazi dugun bezala, botere-geometria horiek espazio-maila guztietan ager daitezke. Globalizazio neoliberalaren ondorio diren desberdintasun ekonomikoaren amildegiei eusten dieten boterearen geografia irregularrak, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, nazioartean ematen ari denaren adibiderik nabarmenena baino ez dira. Horrela, bada, globaltasuna ezin da ulertu lokal mailatik kanpo dagoen dimentsioa balitz bezala, aitzitik, tokiko planoan dauden loturetan desberdinetan oinarrituko litzateke, toki bakoitzak bere lotura espezifikoa baitu espazio globalarekin.

¹¹ Gogoratzearen, egile honen arabera, erakunde sozial eta politiko handiek kokaleku bat behar dute espazioan, batez ere haien interesen mesedetan jardungo duten menderatze-mendekotasun harremanak gauzatzeko eta ziurtasun minimo batzuk lortzeko.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Kasu honetan, Marx erreferentziatzen hartuta, ekoizpenaren bi kontzepzioen arteko bereizketari buruz: ekoizpena zentzu hertsian eta ekoizpena zentzu zabalean; jarraian, ondasunen ekoizpen materialean zentratuko gara. Hau da, espazioa ideologiaren eta harremanen ekoizlea eta erreproduzitzaila dela ulertuta, hurrengo paragrafoetan arreta berezia jarriko dugu espazioaren produkzioan, ondasun material gisa, ez baita haren erabilera-balioa, truke-balioa baizik, garrantzitsuena¹², hau baita, azken batean, gizarte kapitalista eraentzen duen indarra.

Boterea espazio sozialean eta haren ekoizpenaren maila guztietan ondorioak dituen erlazio gisa aurkeztu ondoren, David Harveyk (1990) azpimarratzen du, zenbat eta botere handiagoa izan, orduan eta ahalmen handiagoa espazioaren ekoizpenean eragiteko. Haren ustez, espazioaren gainean gauzatzen den boterea, bai haren kontrolean, bai ekoizpenean, espazio-denbora faktoreen eta diruaren aldagaiaren ondorioa da. Ondorioz, Harveyk diruaren, espazioaren eta denboraren arteko harremanak botere sozialaren baliabide elkarlotu gisatzat aitortzen ditu.

Empiezo por la conexión más simple. El dinero mide el valor, pero si preguntamos en qué consiste el valor en primera instancia, advertimos que es imposible definir el valor sin decir algo acerca de cómo se asigna el tiempo de trabajo social. [...] Recíprocamente, aunque el dinero representa tiempo de trabajo social, el surgimiento de la forma dinero configuro el significado del tiempo en formas importantes y específicas. [...] Al mismo tiempo, a partir del trazado de los mapas del mundo, comienza a insinuarse la posibilidad de formas de apropiación del espacio para usos privados. El trazado de los mapas tampoco era ideológicamente neutral. (Harvey, 1990; 252-253).

Beraz, dirua edukitzeak espazioa eta denbora kontrolatzea ahalbidetzen du, espazioaren eta denboraren gaineko botereak onura ekonomikoak ekartzen dituen bezala. Atzera begiratze historiko bat eginez, Harveyk ekonomia kapitalistan, oro har, moneta-ekonomia duten gizarteetan, espazioa merkantzia bihurtzen dela deskribatzen du. Salgaiak inoiz baino azkarrago saldu badaitezke distantzia handiagoetan, gero eta merkatu berri gehiago ireki daitezke. Horrela, diruak eta denborak espazio soziala menderatzen eta kontrolatzen dutela erakutsi nahi dugu (Harvey, 1979).

¹² Marxen hizkuntza erabiliz, pertsonak, norbanakoak edo taldeak dira, espazioa erabiltzen dutenak, erabilera ematen diotenak eta bereganatzen dutenak, azken batean, erabilera-balioa ematen diotenak. Baina, botere instituzionalek eta kapitalak sortzen dute, eta truke-balioari ematen diote lehentasuna, hau da, merkataritza-balioari. Aurrerago ikusiko dugunez, fordismo keynesianotik eredu neoliberalera pasatzerakoan, erabilera-balioa ahulduz joan zen, eta truke-balioa gailenduz.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Lefebvrek baieztatzen du gizarte kapitalistetan, non ekoizpen-erlazioetan espazio sozialaren gain eta ekoizpen-bitartekoen gain botere asimetriak dituen klasearteko dominazio bat ematen den, gizarte horien antolaketa eta espazio sozialaren ekoizpena, produkzioaren mende egongo dela, bai zentzu zabalean, bai zentzu hertsian. Hala Lefebvrek (1974) hiri kapitalistako espazio urbanoaren anbigualentzia nabaria bat hauteman zuen, alde batetik, erabilera-balio gisa (ekoizpen-bitarteko gisa¹³), eta, bestetik, kanbio-balio gisa (kontsumo-produktu gisa) baitihardu. Horiek horrela, produktu sozial bat ez ezik, gizarte-ekoizpenaren eta -ugalketaren prozesuaren baldintza eta bitarteko ere bada. Beharrezkoa da espazioa ekoizpen-bide eta merkantzia gisa identifikatzea (ondasun izatetik, kapitalismoan, ekoizle komertzial izatera pasatzen den heinean), erabilera-balio gisa eta truke-balio gisa, espazioa kapital mota bat gehiago bihurtuz.

Orain arte azaldu duguna hobeto ulertzearen, interesgarria iruditzen zaigu gizarte-praktikan espazioa nola produzitzen den aurreratzea.

Taula 2: Espazioak, prozesu espazialak eta hauen egituratzea

Praktika espazialak espazio sozialean	Subjektuak	Objektuak	Jarduerak/ Ekintzak	Espazio sozialaren ekoizpena
Hautemandako espazioak/ Praktika material espazialak (esperientzia)	Gizarteko kideak, familia, langile klasea.	Kanpoko mundua, kokalekuak, posizio espazialak, hiri garraiorako ibilbideak eta sareak, tokikoa eta globala lotzen dituzten lekuak, eguneroko bizitzako espazio banalizatuak, espazio desiragarriak eta ez desiragarriak.	Pertzepzioa, eguneroko errutinak, harreman sozialen erreprodukzi oa, ekoizpena.	Azpiegitura fisikoen ekoizpena (garraioa eta komunikazioak: ingurune eraikiak; hiri berritzea, etab.); azpiegitura sozialen lurralde antolaketa (formalak eta informalak)

¹³ Hiria, hiri-espazioa eta hiri-errealitatea ezin dira pentsatu ondasunen kontsumo-lekuen (merkantziak) eta ekoizpen-lekuen (fabrikak) batura gisa. Espazioa osatzen duten truke-sarea eta lehengaien eta energiaren fluxuak ere espazioak baldintzatzen ditu. Horregatik, hiri, eskualde, nazio edo kontinente baten kokapen espazialak ekoizpen-indarrak areagotzen ditu, ekipoez eta makinek fabrika edo enpresa batean egiten duten bezalaxe (Lefebvre, 1976).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

<p>Pentsatutako espazioa/ Espazioaren irudikapenak (imajinazioa)</p>	<p>Konfrontazioa espazioa: Adituak, zientzialariak, planifikatzaileak, arkitektoak, teknokratak, ingeniari sozialak</p>	<p>Ezagutza, seinaleak, kodeak, irudiak, teoria, ideologia, planoak, boterea, mapak, garraio eta komunikazio sistemak, espazio abstraktua eta ez-lekuak (merkantziak, jabetza pribatua, merkataritza zentroak, dirua, bankuak, merkatuak, lan espazioak).</p>	<p>Pentsatzea, kalkulatzea, irudikapena, eraikitzea</p>	<p>Kartografia sistema berriak, irudikapen bisuala, komunikazioa: "diskurtso" artistiko eta arkitektoniko berriak. Semiotika</p>
<p>Bizitako espazioa/ Irudikapen espazioak (pertzepzioa)</p>	<p>Espazioa modu pasiboan biziduten biztanleak eta momento zehatzetan espazio zehatz baten erabilpena egiten duten erabiltzaileak</p>	<p>Bizitza soziala, artea, kultura, irudiak, sinboloak, hitzik gabeko ikur eta zeinu sistemak, irudiak, oroitzapenak.</p>	<p>Bizitza, eguneroko bizitza eta bere jarduerak</p>	<p>Proiektu utopikoak; alegiazko paisaiak; zientzia fikzioaren espazioa eta ontologiak; artisten marrazkiak; espazioaren eta lekuaren mitologiak; espazioaren poetika, desioaren espazioak</p>

Iturria: Egileak egina Harvey (1990, 244-245), Fuchs (2019, 138) eta Lefebvre (1974) oinarritua.

Xehetasun urbanoa eta hiri-espazioaren produkzioa

Honaino, Lefebvrek proposaturiko teoria espaziala jarraitu dugu, eta teoria horren bidez, filosofoen artean zein geografoen artean eztabaidagai dirauten zenbait kontzeptu argitzen saiatu gara. Gogoeta hori beharrezkotzat jotzen dugu aurrera egin ahal izateko eta gure testuingurua ulertzeko. Era berean, laburpen gisa, komenigarritzat jotzen dugu Lefebvrek (1974: 382) espazio sozialari buruz proposatutako printzipioak biltzea:

- Lehenik eta behin, esan dezakegu autore frantsesarentzat, espazioa gainegitura instituzional eta ideologikoen multzo baten parekoa dela, nahiz eta askotan kamuflatuta aurkeztu: hau da, sinbolismoak, esanahi-sistemak eta gehiegizko

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

zentzumenak agertu arren, neutraltasuna, hutsalkeria, uko egite semiologikoa eta orokorrean, hutsa (*emptiness*) balitz bezala aurkeztu ohi da.

- Bestalde, espazio horrek klase sozialen arteko banaketa, produkzio- eta jabetza-erlazioen erreprodukzioa (lurzoruaren eta espazioaren jabetza, lekuen hierarkizazioa, kapitalismoaren arabera sareen antolaketa, klase-egiturak, eskakizun praktikoak) jasaten ditu.
- Beraz, tresna politiko gisa baliozta dezakegu, gizartearen kontrola ahalbidetzen baitu, eta, aldi berean, antolaketaren arabera, ekoizpen-bitarteko bat delako. Zibilizazioaren hasieran eta lehen gizarteekin, natura berak produkzio-indarren artean rol nagusia betetzen bazuen ere, orain espazioa da naturaren funtzioa desplazatzen duena eta hura ordeztzen duena. Hala, bizi garen ingurunea, hiria eta hiri-aglomerazioak, obrak eta produktuak izatetik, produkzio-bitartekoetan bihurtu dira, etxebizitza hornituz, lan indarraren erlazioei eutsiz, etab.
- Hala eta guztiz ere, badira espazio desberdin baten proiektua bultzatzen dezaketen erresistentziarako zirrikituak eta birtualtasunak, kontrakultura baten espazioa izan edo egungo espazio "errealari" aurre egingo dion alternatiba utopikoko kontra-espazio bat izan.
- Beraz, esan dezakegu espazioa produktu pribilegiatu gisa agertzen dela, batzuetan soilik merkantzia kontsumigarri gisa (joan-etorriak, bidaiak, turismoa, aisia), eta beste batzuetan hiri-aglomerazioetan, produktiboki kontsumituta (makinak bezala), tamaina handiko gailu ekoizle gisa hain zuzen.

Esan bezala, espazioa eta honen ekoizpena horrela teorizatzeak, zentzu berezia du hiri postmoderno¹⁴ egungo garaiko funtzionamendua eta espazio-antolaketa ulertzeko momentuan. Erreduantea izan arren, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) arabera, 2015etik munduko biztanleriaren % 54 hirietan bizi da, eta zifra hori ia % 75era iristen

¹⁴ Bertan, malgutasunak, desindustrializazioak, geopolitikak, iragankortasunak eta espazioak denboraren gain duten garrantzia eragiten dute (Harvey, 1990:372). Ildo horretan jarraituz, "postmoderno" kontzeptua Harveyk planteatzen duen moduan eta Bauman-en (2000) "modernitate likidoaren" zentzuan erabiltzen dugu. Autore horiek, alde batetik, Lyotard-en performatibitate ironikoa (bere *La condition postmoderne: rapport sur le savoir* obraz trufatzera eramanez), eta, bestetik, Habermasen balio ilustratuen kontserbadorismoaren artean posizio argia hartu beharrean, ikuspegi zabalago batetik kontzeptualizatzen saiatzen saiatu izan dira.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

da Europako biztanleriari dagokionez. Gogora dezagun datu horrek hiriguneei bakarrik egiten diela erreferentzia, eta landa-eremuaren eta hiri-eremuaren artean mugagabeak diren eremuak alde batera uzten dituela.

Horrela, espazio soziala gero eta gehiago hiri-forman gauzatzen dela baieztatu dezakegu. Lefebvreren espazioaren eta gizartearen irakurketa historizistari jarraituz, ekoizpen-modu (edo gizarte) bakoitzak bere bizitzaren baldintzak "produzitzen" dituela egiaztatuko dugu. Baldintza hauen arabera, ekoizpen-modu jakin batek "ya no parte de presupuestos para llegar a ser, sino que él mismo está presupuesto, y, partiendo de sí mismo, produce los supuestos de su conservación y crecimiento mismos" (Marx, 1978: 421). Horrela, baieztatu genezake:

Esquemáticamente hablando, cada sociedad ofrece su espacio propio como 'objeto' al análisis y a la explicación teórica general. ¿Cada sociedad? Sí, cada modo de producción con algunas de sus relaciones de producción específicas, con sus variantes apreciables. [...] Cada modo de producción posee *ex hypothesi* su propio espacio, su espacio apropiado, pues inevitablemente un nuevo espacio se produce durante la transición de un modo de producción a otro. (Lefebvre, 1974: 91-105.).

Honela, ekoizpen modu feudaletik gaur egungo kapitalismora, trantsizio¹⁵ ugari egongo lirateke.

Azpimarratzekoa da "ekoizpen-modua" terminoa ekoizpen-indarrek, ekoizpen-harremanek eta produkzio-prozesuaren ahalmenek zehazten duten kategoria bat dela (Chau, 2006). Horren harira, prozesu ekonomikoen eta espazioaren erabileraren bidez ekoizpen-moduen bilakaerak, espazioa gizartearen produktua eta ekoizlea dela azaltzeko balio digute. Poulantzaren arabera (1969), ekoizpen-moduetan hiru osagai nabarmenduko lirateke: politikoa, ideologikoa eta ekonomikoa, lurralde-egiturak aldatzen dituen espazio-forma eta -funtzio baten bidez erlazionatuta.

Hiri-espazioaren eraketari eta ekoizpenari erantzuteko, industrializazioan eta ondoren metaketa malguaren agerpenean jarri behar dugu arreta (Harvey, 1990). Lefebvre (1968) autoreak "hiri-problematika" deitu zuenaren hasiera urbanizazio-prozesuan kokatuko zuen. Hiriak industria baino lehenago egon baziren ere, hala nola ekialdeko hiria (Asiako ekoizpen-moduari lotua), hiri zaharra (grekoa eta erromatarra, esklaboaren esplotazioari lotua) eta, ondoren, Erdi Aroko hiria (harreman feudalek zuzendua, baina lurraldearen feudalismoaren aurkako gatazka etengabea). Industrializazioaren hasierarekin

¹⁵ Argitu behar dugu trantsizio horiek ez direla "puruak", hau da, ekoizpen modu jakin batetik bestera igarotzean, biak aldi berean gertatzen direla denbora luzez, batez ere, gizarte egitura berria sendotu egin behar delako eta klase sozial berrien egituraketa, zaharkitua eta hegemonikoak izango direnak, aurrez aurre jarri behar direlako (Poulantzas, 1969).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

eta berriaz industrialia zen burgesiaren agerraldiarekin sortu zen lehen kapitalismo konkurrentziala. Une horretan, industriaurreko hirietan eta aurrekapitalistetan sortutako industria-aglomerazioek hiri horiek aurretik zuten izaera urbanoa narriatu zuten, eta aurreko espazioarekin hautsi.

Prozesu bikoitza baino gehiago, bi zati dituen aldaketa-prozesu bera dugu aurrean: lehenik industrializazioa, eta, ondoren, industrializazioak eragindako urbanizazioa, hau da,

crecimiento y desarrollo, producción económica y vida social. Los dos aspectos de este proceso son inseparables, tienen unidad, pero sin embargo el proceso es conflictivo. Históricamente, entre la realidad urbana y la realidad industrial hay un violento choque. (Lefebvre, 1968: 23).

Aipatu dugun bezala, industrializazioak, *hiriaren iraultza*¹⁶ (“urbanoa” denaren iraultza bezala) ekarri zuenak, aurreko hirietan zegoenaz bestelako espazio bat sortu du. Izan ere, Erdi Aroko hiriek eta ondoren hiri komertzialek egitura ekologikoa garatu zuten, eta egitura horrek ez zuen zerikusirik lan-indarren segregazio funtzionalarekin, prestigioaren zentro sinbolikoaren egituraren irudikapen espazialekin baizik, gizarte hierarkikoen balioei zuzenean erreparatzen zietenak (Sjoberg, 1960). Industria-iraultzarekin gertatu zen eraldaketa, lehenik eta behin, hirien kanpoaldean gertatu zen, eta, gero, hiri zaharrean zeuden funtzioak desagertu ziren. Hiri-espazioaren egituraketa berriaren ezaugarri nagusia ekoizpen-indarrak berrantolatzeke gaitasuna izan zen, ekoizpen-ahalmenari dagokionez. Hots, mekanizazioaren, aldaketa teknologikoaren eta ekoizpen-eskalako ekonomien probetxua lortzeko helburuarekin, hiri industrialetan ekoizpen-indarrak hasi ziren izaten antolamendu espazialaren mendeko aldagaiak. Mugatzaile geografiko eta sinbolikotik mugatzaile funtzionalera igaro zen (Castells, 1972).

Ekoizpen ahalmenaren berrantolaketa honetan, Adam Smithek “lanaren banaketa” gisa deitutakoak pisu handia du (orratzen adibidea). Nahiz eta Paleolitoan lanaren banaketa

¹⁶ "Hiriaren iraultza" (≠ Hiri-iraultza) deituko diogu gaur egungo gizartean gertatzen diren eraldaketen multzoari, hazkunde- eta industrializazio-arazoak nagusi ziren garaitik, hiri-problematika nagusi izango den garaira arte igarotzea markatzeko. Trantsizio horretan, hiri-gizarteari dagozkion konponbideak eta ereduak bilatzea lehen planora igaroko da. (Lefebvre, 1970). Edward Sojak (2000), bere aldetik, "Hirugarren Hiri Iraultza" gisa identifikatuko luke, lehen industria-iraultzarekin bat eginez, "naturarekiko haustura" gisa definitzen du, izan ere, urbanizazioak, ekoizpena bermatzeko, naturak exijitzen dituen moldaketen menpe egoteari utzi ziolako. Manufaktura-industriaren sektorerantz egindako aldaketaren ondorioz, naturarekiko egokitzapen-lotura horiek gero eta hutsalagoak bihurtuz joan ziren, ustiapen-harremanitsu bat sortu arte hiriaren eta haren ingurune naturalaren artean.

primitiboa existitu artisau, biltzaile eta abarren artean (Mumford, 1961), 1776an Adam Smithek *The Wealth of Nations* liburuan aurkeztu zuena ekoizpen-harremanak goitik behera aldatuko zituen. Lanaren banaketaren kontzepzio honen bitartez, produktu jakin bat ekoizteko prozesuaren zati bakoitza isolatu egiten zen, produktu guztia hasieratik amaierara egiten zuen artisau-langilearen ordeztuz, oinarrizko eragiketa kateatuetan lana deskonposatzen zuten langile kolektiboak jarritz. Aurrerago Marxek ekoizpen kapitalistako alienazio-faktoreetako bat bezala identifikatuko zuen.

Gero eta zabalduagoa zegoen industrializazioan, lanaren lurralde izaerari eta izaera espazialari buruz hausnartzeko ahalegin batean, Marxek lanaren banaketa gertatzen zen 3 eskala garatu zituen (Smith, 1984): alde batetik, *lanaren banaketa orokorra*, jarduera nagusiak bereiziko lituzkeena, hala nola industria eta nekazaritza; bestetik, *lanaren banaketa partikularra*, hau da, zatiketa orokor horien sektoreetan dauden azpi-banaketak; eta, azkenik, *lanaren banaketa zehatza*, hau da, tailerrean, fabrian edo edozein azken eskalatan gertatuko litzatekeena, Adam Smithen lanaren prozesu espezifikoerri erreferentzia eginez. Bereizketa hori ekoizpen kapitalista industrialaren forma espezifikoaren garapenetik sortzen da.

Honela, Marxek honako hau zehaztu zuen: "garatutako lanaren banaketa ororen oinarria, merkantzien elkartrukearen bidez, hiriaren eta landaren arteko banaketa da. Esan daiteke gizartearen historia ekonomiko guztia antitesi honen mugimenduan laburbiltzen dela" (Marx, (1867 [1975])). Bereizketa hori lehendik ere David Ricardok egin zuen, XIX. mendearen hasieran, nazioarteko eskalara estrapolatuta –aurrerago ikusiko dugun bezala, ingurune fisikoaren eta merkataritza-geografiaren baldintza bereizgarrietan oinarrituta–, espazialtasunaren eta lurraldetasunaren aldagaiek lanaren eta ekoizpenaren banaketan duten garrantziaz jabetu zen britainiarra.

David Ricardoren puntua "abantaila naturalen" edo konparatiboen ikuspegian oinarritzen zen, hau da, herrialde bakoitzeko espezializazioen arteko desberdintasunetan. Diferentzia horiek, alde batetik, afera naturalengatik izan zitezkeen, hala nola lehengaiak erauzteko aukera eta erraztasuna, ibaiak edo itsasoa bezalako garraiobideetara jotzeko aukera izatea, etab.; eta, bestetik, faktore eta ezaugarri sozial eta instituzionalengatik, hala nola lanaren kualifikazioagatik, sistema politikoagatik edo kolonialismotik eratorritako botere geopolitikoagatik izan zitezkeen (Harvey, 2014).

Lanaren nazioarteko banaketa izango da, azken batean, leku batean edo bestean mota diferenteetako ekoizpen-unitateen eraketa ezarriko duena. Kokapenaren arazoa beraz, ekoizpen-jarduera bakoitza espazioaren zein puntutan jartzean datza. Honek, produktu, lehengai, merkantzia, eta abarren ekoizpen espezifikoan espezializatutako lurralde eta

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

eskualdeetan zatituko luke espazioa, hau da, espazioaren heterogeneotasuna arrazionalizatuko luke.

Industrializazioan zehar, ekoizpenaren espazio-banaketa horiez eta lanaren espazio-banaketa zehatzaz gain, Europako potentziek kolonien eta metropoli kolonizatzaileen arteko aldeak ezarri zituzten; izan ere, kapitalek zehaztutako espazio-eremuetan kontzentratzeko joera izan zuten, zirkulaziorako erraztasunak eta ekoizteko aukera zabalak zituzten eremuetan hain zuzen (López eta Rodríguez, 2010). Beraz, onar dezakegu ekoizteko moduak, zalantzarik gabe, espezializazio funtzionala eta aldakorra garatzen duela, bai eta hirien arteko lanaren nazioarteko banaketa ere; hain zuzen ere, garai historiko horretan langile gehienak biltzen ziren toki nagusia izan ziren (hiriak), eta, lehen ikusi dugun bezala, hirigintzaren hedapena eragin zuen, espazio-ekoizpen sozial gisa.

Baina esan beharra dago, gaur egun, lanaren banaketa ez dela industrializazio goiztiarreko urte horietan gertatu zen bezalakoa. Industrian finkatutako ekoizpen-kapitalak hirien espazioa antolatzeke eta Europako kolonien gaineko nagusitasuna (eta iraungitzea, desjabetzearen bidezko metaketaren bidez) iraunarazteko balio izan bazuen (Harvey, 2006), XX. mendearen bigarren erdialdean, Asiako eta Erdialdeko Amerikako herrialde “periferikoetara” mugituz, kapital horrek herrialde (horietako batzuk aurrekapitalistak) ekoizpen zentro berrietan¹⁷ bihurtzeko balio izan zuen. Mendebaldean, kapitalaren kontzentrazioa *FIRE*¹⁸-en sektorean eta sektore kultural, teknologiko eta intelektualeko monopolio korporatiboetan kokatu zen. Printzipio eta joera horiei aurrerago helduko zaie, *garapen irregularrari* buruzko analisiarekin.

Egiaztatu dugunez, industrializazioak hirigintza produktu izatera eramango luke, baina baita espazioaren indar ekoizle izatera ere. Industriaurreko gizartearekin amaitu eta hiri-gizartea¹⁹ eta, azken batean, hiri-espazioa edo *hiria* eraiki zuen industrializazioak izan zuen eragina azaltzeko, Lefebvrek “inplasio-leherketaren” metafora fisikoa erabili zuen. Mugimendu hori honela laburbilduko litzateke:

¹⁷ Bitxia bada ere, industrializazio horrek, Bangladeshen kasuan bezala, pobrezia betikotzea eta pobreenen aberastasunik eza ekarri zuen. Harveyk (2014) adierazten duen bezala, translazio-mugimendu hori lehengaiak erauzten zituzten herrialdeetan gertatutakoaren antzekoa izango litzateke, atzerriko elite ekonomiko batek errentak eta etekinak atxikitzen baititu bi kasuetan.

¹⁸ Ingelesezko inzialak: Finance, Insurance and Real Estate (Finantzak, Aseguruak eta Ondasun higiezinak). Marxek “kapital ez-emankorra” bezala izendatuko lukeena.

¹⁹ Termino batzuek (“Hiri-gizartea”, “hiri-ehuna” edo “ehun urbanoa”, adibidez) ez dute hiria eraikinez beteriko zati eraiki moduan irudikatzen, hiriak landa-eremuarekiko duen nagusitasunaren adierazpenen multzoei egiten diote erreferentzia (Lefebvre, 1970).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Una enorme concentración (de gentes, de actividades, de riquezas, de cosas y de objetos, de instrumentos, de medios y de servicios) en la realidad urbana, y el inmenso estallido, la proyección de fragmentos múltiples y dispersos (periferias, arrabales, residencias secundarias, satélites, etc.) (Lefebvre, 1970; 24).

Kanpoalderantz zein barrualderantz izandako leherketa horiek bestelako hiri-egitura bat sortzen hasiko ziren, hiriak (ehun urbano mamitsuetan bihurturik) industria-lokalizazioen eta lan-banaketaren oinordekoak bihurtuz. Gainera, hiri-mailako metaketak hazten jarraituko zuen, lan-indarraren erreprodukzioarako premiazko ondasun eta zerbitzuak behar zirelako, eta horrek kontsumo-unitate bat izatera eramango zuen hiria bera (Freysenet, 1977; Lefebvre, 1974).

Urbanizazio-prozesu honetan, Lefebvrek nabarmendu zuen hiriak eta hiri-espazioak eguneroko erabilera-balioa galtzen duela, eta truke-balioak, berriz, gora egiten duela.

Con la industria se ha producido la generalización del intercambio y del mundo de la mercancía: el uso y el valor de uso han desaparecido casi enteramente, no persistiendo sino como exigencia del consumo de mercancías, desapareciendo casi enteramente el lado cualitativo del uso. Por otra parte, a medida que desde entonces se fue imponiendo el 'orden general regido por la lógica de la mercancía', el suelo afirmó su condición de mercancía, lo que significa que, desde entonces, el espacio —indispensable para la vida cotidiana— se vende y se compra. (Lefebvre, 1972: 75).

Honela ere laburbil dezakegu:

El *suelo* (absorbiendo la ciudad y la agricultura, como se podía prever desde el siglo xix, y generando nuevos sectores como el ocio); el *subsuelo*, es decir, los recursos ocultos en el fondo de los mares y las tierras, energías, materias primas; y, por último, lo que podría llamarse el *sobre-suelo*, y esto es, los volúmenes, las construcciones en altura, el espacio de las montañas y el de los planetas. El espacio, la tierra, el suelo no han desaparecido, absorbidos por la producción industrial; todo lo contrario, una vez integrados al capitalismo se afirman como elementos o funciones específicas de la expansión capitalista. Extensión activa que supone un salto adelante de las fuerzas productivas, de las nuevas modalidades de producción, pero en el marco del modo y de las relaciones de producción capitalista. Es decir, esta extensión de la producción y de las fuerzas productivas se acompaña de una reproducción de las relaciones de producción en la cual la ocupación entera del espacio preexistente y la producción de un nuevo espacio no pueden ser indiferentes. No sólo el capitalismo se adueña del espacio preexistente, la Tierra, sino que tiende a producir el propio. Esto lo logra por y a través de la urbanización, bajo la presión del mercado mundial, al amparo de la ley de lo reproducible y de lo repetitivo, anulando las diferencias espacio-temporales, destruyendo la naturaleza y el tiempo natural. (Lefebvre, 1974: 360).

Horrela, espazioaren erabilera-balioak gero eta garrantzi handiagoa galdu zuen, merkantzia bezala zuen truke-balioaren mesedetan, eta hiri-espazioa merkantilizatzeari eta partzelatan zatitzeari bidea eman zitzaion, zatika saldu eta globalki okupatu ahal

izateko. Horrek esan nahi du hiri-espazioaren ekoizpena gero eta gehiago gainbalioaren erauzketaren logikek arautzen dutela, "la ciudad, o lo que queda de ella, o en lo que ella se convierte, sirve mejor que nunca a la formación de capital, es decir, a la formación, la realización y la repartición de la plusvalía" (Lefebvre, 1970; 51). Ildo beretik, Françoise Choayk (1986) *hyposignifiant* terminoa erabili zuen hiriek, hiri-espazioek duten funtzio sinbolikoari zentzia eta esanahia kenduz, ekoizpenaren logiken eremuetarantz izan zuten bilakaera azaltzeko.

Ildo beretik, Lefebvrek, Marxen kapitalaren zirkulazioaren teoretan oinarrituta, egungo gizarte kapitalistetan dauden hirigintza ereduetan, hiri-plangintzak eta higiezinaren sistemak "kapitala espazioan finkatzen" dutela ondorioztatu zuen. Halaber, egile frantsesak higiezinaren sektorea (espekulazioa eta eraikuntza) kapital-zirkuitu berria balitz bezala aurkeztu zigun, industriarekiko paraleloa dena eta kapitalak krisi-garaietan erabiltzen duena. Une honetan, hain zuzen ere, kapitalak hiri espazioaren ekoizpenean finkatzen dira eta bertan jartzen dute interes guztia; ondasun higigarrien industria-ekoizpenak, berriz, irabazi-tasa moteldu eta hazkundera gelditzen du, kapital gehienak aipatutako sektore ekonomikoan inbertitzen baitira.

Horrela, eraikitako espazioaren ekoizpena aldi baterako sendabide bihurtzen da kapitalaren zirkuitu industrialeko gainmetaketa arazoetarako²⁰. Horrek, lefebvriar tesiaren arabera, bigarren metaketa zirkuituak (aipatutako *FIRE*-ena hain zuzen ere), oinarritzko zirkuitu industrialak ordezkatzeko dakar. Lefebvrek hau idazten zuenean hirigintza eta higiezinaren espekulazioa oraindik osatu gabe bazeuden ere, bere tesiari ezin zaio iragarpen argizat jo, hobe esanda, identifikatutako joera bat izango litzateke. Horregatik, Harveyk (1982) goiztiartzat joko du bigarren mailako kapital-zirkuituak (espekulazioan eta eraikuntzan oinarritutakoak), industria-ekoizpenean oinarritutako lehen zirkuitua gainditu izanaren ideia, baina, hala ere, ez du ukatzen joera hori gaur egun nagusi izan litekeenik. Bestalde, bigarren zirkuituan areagotu daitekeen krisirako joerak lehenengoaren egonkortasuna mehatxatzen²¹ duela onartzen du, beraz, bigarren mailako kapital-zirkuito hau, garapen eta krisi kapitalisten patroiekin sinkronizatuta

²⁰ (Lehenengo) Produksio-zikloetako soberakinen desplazamenduak obra publiko handiak eta etxebizitzaren eraikuntza moduko lurralde-konfigurazioen bitartez eman daitezke. Horrela, bigarren mailako zirkuitua kontsumo kolektibo eta pribatuko ondasun espazialen konbinazio batek osatuko du (López eta Rodríguez, 2010).

²¹ Hori gertatu da, hein handi batean, finantza-kapitalak hazkunde-ispilu bat sortzen duelako inbertsio-eskaintzen mekanismoen bidez; horren ondorioz, eraikuntzaren sektoreak eraiki egiten du eta etxebizitzaren kontsumoa handitu egiten da, biak ere neurritz kanpo, eta gehiegizko inbertsioa eta zorpetzea eragiten du (Ullán, 2015).

dagoena, espantsio-kontrakzio ziklikoko prozesu baten moduan ikusten du (Stanek, 2011).

Aipatu behar da, hirigintzak edo urbanismoak, kapitala finkatuz eta bigarren mailako metaketa-zirkuituak indartuz hiri-espazioa ekoizten duela tesia kontuan hartuta, bigarren zirkuituan ematen diren krisialdiek edo balorizazioak ez dutela industria-lerro jakin baten gainbehera eragiten, zirkuitu primarioan gerta litekeen bezala, baizik eta eskualdeei, hiriei, zonaldeei zehatzei edo auzoei eragiten diela (López eta Rodríguez, 2010). Bigarren mailako zirkuituaren kapitala hirietan eta geografian xurgatzeak dituen ondorioei buruz hurrengo atalean sakonduko dugu.

Amaitzeko, azpimarratu nahi dugu, industrializazioaren eta hirigintzaren garapenaren bidez, espazio sozialak eta, gaur egun, espazio urbanoak, merkataritza-izaera izateaz gain, izaera instrumentala ere baduela. Hau da, espazioaren trantsizio historikoa ikusi ondoren, honen produktioa ikuspegi ekonomikotik ikusi dugu. Honen bidez, espazioari logika produktibista bat ezartzen zaio eta hiriaren eraikuntza kapital-metaketarako indar geografiko nagusi bihurtzen da. Espazioaren ikuspegi produktibista hau ekoizpen eredu kapitalistan eta haren ideologiaren arabera ematen diren gizarte-harremen erreproduzitailea da, eta, azken batean, erabilera-balioa (egunerokoa) duten hiri-konfigurazio sozioespazialak husten saiatzen da, honek dakartzan ondorio guztiekin. Hala, bat gatz Castellsen baieztapenarekin (1972), bere ustez industrializazioak eta hirigintzak ez zuten hiria indartzea lortu, are gehiago, gizarte-sistema instituzional eta nahiko autonomo gisa desagertu zen, helburu espezifikoaren inguruan antolatuta.

Espazioa "egituratutako egitura egituratzailea", merkantzia ala biak?

Honaino proposatutakoaren ildotik, Sojak (1989:7) "espazialtasuna" zer den azaltzeko erabilitako definizioa aurkeztu nahi genuke: "A social product (or outcome) and a shaping force (or medium) in social life". Honek esan nahi du espazioa ekoizle ekoiztu gisa ikusi beharko litzatekeela, hots, eztabaidagarria baina aldi berean determinatua, sinbolikoki irudikatutako zerbait bezala, baina estrukturalki ere antolatuta (Urry, 1991). Honekin esan nahi dugu espazioak ez direla soilik azal-mailan esperimendatzen (ekintza-mailan), baizik eta gorputz osoetan ere eragina dutela (egitura-mailan), hau da, espazioak ez dira soilik ekintzaren emaitzak edo ekintzaren erreferentzia puntuak, aitzitik, erakunde gisa, ekintzak egituratzen dituzte.

Ildo beretik, Martina Löwek (2016) Giddensen "egituraren eta ekintzaren dualtasuna" aipatzen du bere teorian. Aipatutako guztiarekin bat etorritik, Löwek espazioak ez direla

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

modu bakanean existitzen deskribatzen du, ekintzan beran sortzen baitira eta egitura espazialak ekintza aurregituratzten duten erakunde historikoetan²² txertatuta baitaude.

One of the most exciting ideas in contemporary economic geography is that industrial history is literally embodied in the present. That is, choices made in the past – technologies embodied in machinery and product design, firm assets gained as patents or specific competencies, or labour skills acquired through learning – influence subsequent choices of method, designs, and practices. This is usually called ‘path dependence’... It does not mean a rigid sequence determined by technology and the past, but a road map in which an established direction leads more easily one way than another – and wholesale reversals are difficult. This logic applies to industrial locations as well. (Walker, 2001: 126).

Espazioak, beste hitz batzuetan esanda, ekintza moldatzen du eta era berean, ekintzagatik moldatuta dago, eta, ondorioz, Löwek, Giddensen teoria zabaltzeko, espazioaren materialtasuna egitura-mailan sartu behar dugula dio. Espazioaren dualtasunari buruz proposatzen duen ikusmoldeak, espazioak botere egituratzailea duten ekintzaren produktu gisa ulertuko lituzke²³ (Löw, 2008).

²² Hemen *path dependence theory* edo bidearen/ibilbidearen mendekotasunaren teoriaren garrantzia aitortu behar dugu. Kontzeptu honek esan nahi du orainaldian hartu beharreko erabakiak (instituzionalak, ekonomikoak, sozialak eta bestelakoak), aldez aurretik edo iraganen hartutako esperientzien eta erabakien mende daudela (Arthur, 1994; David, 2000). Interesgarria iruditzen zaigu, historiak espazioen eta lurraldeen garapenean duen garrantzia aitzinera dakarrelako. Argudio nagusia, geografia ekonomikora ekarrita, paisaiak iraganeko garapenearen legatuak heredatzen dituela da, eta legatu horiek eragina dutela egungo eta etorkizuneko garapenean. (Massey, 1984).

²³ Hori azaltzeko, Löwk (ibid.) adibide oso argigarri bat erabiltzen du Jerusalemgo Erosten harresiari buruz. Josef Talen esperientzia bat jasota, Löwk espazio bat denboraren poderioz nola aldatzen den azaltzen du. Hasteko, hasiera batean, Erosten harresia kale estuek, harrizko bloke handiz estalitako horma batek eta goian zeru urdineko zirrikitu estu batek osatzen zutela adierazten du. Espazio modernoak, ordea, Erosten harresiaren aurrean zabalduko plaza handi batek osatzen du. Plaza handi hori maiz joaten diren turistez eta pertsonen beteta egon ohi da. Erosten harresiko harriek, sinbolikoki eraikuntza espazialaren elementu esanguratsua osatzen badute ere, ez dute eraginik berez, soilik eman zaion antolamenduan baizik. Löwk (ibid.) Talen, espazio zaharreko eraispenean ondorioz otoitzaldia nola aldatu den kontakizuna jasotzen du:

La estrechez del espacio confería a los bloques de sillería un aspecto aún más grande y poderoso ante el pequeño ser humano que estaba a sus pies. En este lugar sólo se podía rezar a un Todopoderoso que se cernía inalcanzable sobre la inconmensurable piedra. [...] Naturalmente, los bloques de sillería son los mismos, pero el nuevo entorno ha cambiado su lenguaje. El amplio espacio que los ha liberado de las estrechas calles dirige su eco de duelo en el plano horizontal y no hacia el cielo, dando a la oración un significado diferente.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Irakurketa hori interesgarria izan daitekeen arren, ez ditugu ahaztu behar espazioaren neutraltasuna ukatzen zuten Lefebvreren tesiak. Egia da aktoreek, praktika espazialaren bidez, espazioak sortzen dituztela, baina espazio horiek, egunerokotasunean oinarrituta, logika kapitalistaren interpretazio bat baino ez dira izango.

Si es deplorable ver la vida cotidiana y el mundo de vida como algo fuera de la circulación del capital, entonces tenemos que conceder que todo lo que ocurre en el lugar de trabajo y en el proceso de producción y consumo, está de alguna manera atrapado dentro de la circulación y acumulación del capital. Casi todo lo que actualmente comemos y tomamos, como también lo que usamos, escuchamos, vemos y aprendemos, viene hasta nosotros en forma de mercancía y es transformado por las divisiones del trabajo, la búsqueda de nicho de productos y la evolución general de los discursos e ideologías que ponen de manifiesto los preceptos del capitalismo. Es solamente cuando la vida diaria ha sido abierta totalmente hacia la circulación del capital y cuando los sujetos políticos tienen su visión casi enteramente circunscripta con una concepción arraigada [embedding] en que la circulación del capital puede funcionar con significados afectivos y con legitimidad como su soporte. Bajo tales circunstancias el cuerpo se convierte en una "estrategia de acumulación" y todos vivimos nuestras vidas debajo del signo de esta condición. Esto es verdad incluso para aquellas poblaciones tratando de subsistir con menos de dos dólares por día y quienes están usualmente vistos y tratados como si fueran poblaciones descartables y redundantes. (Harvey, 2006: 79).

Postestrukturalismo geografikotik itzulginguruka ibiltzeak, pentsarazi egiten digu ea posible den espazioa gainegituratzat hartzea (Murdoch, 2005), klase batek bestea menderatzeko tresna izan baitaiteke. Hau, noski, ideien eremuan gertatuko litzateke, baina ez lioke "produkzioako gizarte-harreman guztien isla" izateari utziko (Gramsci, 1948: 46), ezta egituren (jabetza-harremanena, besteak beste) isla izateari ere.

Espazioa gainegituraren ondorioztat hartzen duen marxismotik eratorritako suposizioaren aurrean, Lefebvrek, espazioa, egungo gizartean produktua den heinean, ekoizpenaren parte dela proposatu zuela ikusi dugu. Horrela, espazioa harreman sozial eta ekonomikoen, lan banaketaren eta indar produktiboen euskarri eta ekoizle izango litzateke. Gainera, espazioa bitartekaria da beste hainbat arlotan, jabetzarekin dituen harremanak argi daude, baina merkataritza-trukeekin, erakundeekin, kulturarekin eta jakintzarekin ere harreman estuak ditu. Kapitalismoan espazioa (batez ere industrializaziotik aurrera, hirigintzaren ondorioz) saldu eta erosi egiten da, truke-balioa eta erabilera-balioa ditu. Horrela, Lefebvrek ez du onartzen inolako hierarkiatan koka daitekeenik, eta "espazioaren kontzeptua (soziala) eta espazioa bera "oinarri-egitura-gainegitura" sailkapenetik kanpo geratzen direla" (Lefebvre, ibid.: 56) adierazten du.

Ildo horretatik, eta puntu honetara iritsita, onartzen dugu espazioak gizarte-harreman guztiak biltzen, moldatzen eta politizatzen dituela. Baina ezin dugu ahaztu ekoizpen-sistema kapitalistan espazioa merkantilizatu egiten dela, jakina, ez badugu produktu

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

estatiko, pasibo edo hutstzat hartzen, ezin izango dugu truka daitekeen edo kontsumitutako objektu soil bat bezala hartu. Horregatik, espazioa modu bateratuan ulertzen dugu, ikuspegi historikoa duten elementu fisiko, mental eta sozial guztiak kontuan hartuta.

Ikuskera honek urbanizazio-prozesua pixka bat gehiago ulertzeko eta globalki eta tokian tokiko hiri kapitalistetan jarduten duten dinamika sozioekonomikoak testuinguruan kokatzeko balioko digu. Kapitalismoak bigarren mailako zirkuituranzko kapital-fluxua areagotzen duenean, espazioaren truke-balioa handitzen da, erabilera errealdaren balioaren kaltetan. Modu honetan esango dugu hiri-espazioa lurzoru trukagarri, zatigarri eta homogeneo bihurtzen dela, eta beraz, Sharon Zukinekin (1995) bat etorritik, ekonomia sinboliko nagusiaren eraginpean dagoela.

Horrela, laburpen gisa, Sojak (1985) espazialtasunari eta honen ber-teorizazioari buruz dituen premisak nabarmentzen ditugu, harreman sozialen eta espazialen arteko lotura erakusten baitute.

Lehenengo premisa espazialtasunaren eta giza agentziaren arteko lotura aitortzea da. Hau da, izatea, kontzientzia eta ekintza nahitaez espazialak dira (ezin dira definitu edo zehazki existitu espazioan azaleratu gabe), eta "espazioan" ez ezik, "espazioan zehar" ere badaude, hura modelatuz eta etengabe eboluzionatzen ari den espazialtasun baten bidez modelatuta. Bizirik egoteak berekin dakar, berez eta ezinbestean, espazioaren ekoizpen sozialean parte hartzea. Sojak azpimarratzen duenez, espazialtasunaren eta giza agentziaren arteko harreman hori "kontingentea" da, bata bestearengandik bereizita egoteak, gizabanakoek haien espazialtasunean eragina izatea, eta alderantzizkoa ere, ahalbidetu egiten du.

Bigarren hipotesi teorikoa aurrekoarekin lotuta dago. Izan ere, agentziaren eta espazialtasunaren arteko harremana dela eta, gizakiek beren geografia egiten dutela ondorioztatzen da, beren historia propioa nahita egiten dutela esan daitekeen bezala, baina lehenik zeuden historia eta geografietatik eratorritako konstriktzioen testuinguruan. Marxismoaren printzipio honek gizabanakoa alde sozialarekin lotzen du, eta, aldi berean, sozialki sortzen dena, sozialki berregituratu eta eralda daitekeela esan nahi du. Horregatik, bizitza sozialaren espazialtasunean ez dago zehaztapen iraunkorrik, ez eta kontingentzia aldaezinik ere, eta, beraz, beti egongo da alternatibarako aukera.

Hirugarrenik, Sojak gizarte-harremanek espazioari dagokionez garrantzi handia dutela azpimarratzen du. Horrela, garrantzi berezia ematen dio erreproduktzio sozialari ekoizpen espazialean, eta alderantziz. Poulantzassen (1978) espazio- eta denboramatrizeen edo matrize historikoen ideietan oinarrituta, espazio-denboraren

egituraketa, praktika sozialen emaitza dela baieztatu dezakegu. Hala, errealitate independenteetan, "soziala" eta "espaziala" ezin dira bereizi, biek partekatzen baitituzte eraketa- eta eraldaketa-lege berberak. Ondorioz, onartzen dugu espazioak modu sozialean sortzen duen dialektika sozioespazialak gizarte-harremanen forma materiala sortzen duela.

Gatazkez eta kontraesanek beteriko bizitza sozialaren espazialtasuna ekoiztearen eta erreproduzitzearen konplexutasun problematikoa azpimarratuz amaituko dugu. Lehiakortasunak, borroka politikoak eta norgehiagoka ideologikoen, espazialtasuna gizarte-bizitza teoriko eta praktikoaren erdigunean kokatzen dute, ontologikoki eta epistemologikoki.

Hortaz, kapitalismo industrialaren zein neoliberalismoaren garaian, espazioak merkantzia izaera hartzen badu ere, "egituratutako egitura egituratzailea" ere bada. Ikus dezagun nola lotzen dituen Bourdieuk espazio sozial eta fisikoa habitusaren terminoarekin, eta azken honek, espazioarengan eragiten dituen ondorioekin. Bourdieuren *habitus*ak paper garrantzitsua jokatzen du hemen. Soziologo frantsesaren kontzeptuari helduz, *habitusa* gizabanakoen pentsatzeko, jarduteko, sentitzeko eta hautemateko moduak baldintzatzen dituzten sozialki errotuak dauden ohiturak, trebetasunak eta jarrerak batzen dituen termino gisa ulertuko dugu. Honen ondorioz deritzogu espazioa bera dela egituratutako egitura egituratzailea. Bourdieuren premisak jarraituz, norabide bikoitza ere badago *habitusa* "egituratutako egitura egituratzailea" bihurtzen duen ikusmoldean; izan ere, *habitus*ak gizabanakoa eraikitzen du ("produzitu" egiten du), gizartearen eta kide den gizarte-taldearen balioak eta arauak inkontzienteki barnerarazten. Aldi berean, gizabanakoek eta gizarte-taldeek ere influentzia egituratzailea daukate *habitus*aren eraikuntza historikoan. Horregatik, gizabanakoak bere ustez naturala, agerikoa eta arrazionala denaren arabera jokatzen duela pentsatu arren, sozialki eraikitako *habitus* baten arabera jokatzen duela diogu (Bourdieu, 1986; 1993). Horrela, gizarte-talde bakoitzak bere espazioarekin, honen produkzioarekin eta pertzepzioarekin izango duen harremana *habitus*aren arabera izango da, bai berea, bai bere garaian espazio horrek eraiki zuenaren arabera.

Baina, habitusaren eta espazioaren arteko elkarreragin zikliko honetatik, espazioaren reifikazioa²⁴ kanpo geratuko litzateke. Lehenak espazioa egitura egituratzaile egituratua

²⁴ Kontuz, ez dugu nahastu behar espazio sozial reifikatua, espazioaren erabilera reifikatuarekin. Azken horrek gizartea osatzen duten eragileek eta talde anitzek ondasun eta zerbitzuak banatzeko eta bereganatzeko duten ahalmen desorekatuari egiten dio erreferentzia. Hau izango da hurrengo ataletan landuko dugun gaietako bat, izan ere, espazioaren garapen irregularrarekin zerikusi handia dauka.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

dela frogatzen baldin bada, reifikazioak espazioaren merkantilizazioa adierazten digu. Murgildu gaitezen bada, kapituluan zehar maiz agertu izan den bukaerako eztabaida-gai honetan.

Arestian aipatu izan dugu nola eraikitzen diren botere espazialak eta zein puntutara arte den garrantzitsua zentzu honetan espazioa produktu, merkantzia edo gauza bihurturiko zeozer gisa ulertzea. Reifikazioaren lanketa zentzu marxistan George Lukácsi atxikitzen bazaio, teoria berrietan ere oinarrituko gara ere gure garaira hurbiltze aldera. Baina hori baino lehen, atal honi bukaera borobil bat ematearren, kontuan izan behar dugu, Marxen teoriak hertsiki jarraituz, ezin dugula aho batez baieztatu espazioa merkantzia bat dela. Ageriko arrazoa dago honen atzean, merkantzia lan pribatuaren bitartez sortzen baita (nahiz eta botere harreman batzuen menpe egon), eta espazioaren kasuan, harreman sozialen emaitza dela adostu dugu.

Dena den, badaude espazioa merkantzia gisa ulertzeko aukera eskaintzen diguten zenbait lotura puntu. Batez ere bi dira espazioa produktu moduan ulertzeko eta aztertzeo aukera ematen diguten arrazoi nagusiak. Alde batetik, berriz balioaren garrantzia agertzen zaigu. Gauzen balorizazio prozesuak gizarte harreman zehatzen ondorio dira. Espazioa, beraz, gizarte kapitalistak aztertzen ditugun heinean, oro har merkantziek duten bi balio-aldagaien (truke- eta erabilera-balioen) bidez eraenduta dago. Honek esan nahi du jada, reifikazio²⁵ prozesu bat ematen dela modu merkantilizazioaren bitartez.

Bigarren arrazoi bat ere agertzen zaigu, eta esan beharra dago argudio honek nolabait espazioa eta espazio soziala ulertzeko bi moduak bateratzen dituela, egituratutako egitura egituratzailearena eta merkantziarena. Atal honi bukaera emateko, Manuel Delgadok Lukácsen teorien inguruan egindako hausnarketa mahaigaineratu nahi dugu. Espazioa gauza bilakatzen denean, toki, leku, eskualde, zonalde edo bestelako batean bihurtzen da. Hau da, superregituraren irudikapenetik aldenduz, gizakiengana hurbildu egiten da, baina botere harremanen desorekak ezkutatzuz errealitate objetibotzat aurkezten zaigu gizarte kapitalistetan. Horrela, egituratutako egitura egituratzailea izanik, non habitusak, denboran zehar, aritzeko eta izateko modu zehatz batzuk eraiki dituen eta botere harremanak erreproduzituak izan diren, eta, kapitalismoan, nolabaiteko merkantzia trukagarria bat izanik ere; espazioa, azken finean, ideologia nagusiaren hedapenerako materiala edo tresna izango litzateke. Ideologia honen bitartez, zentzu marxista klasikoan, harreman sozial errealeen mozorrotzea jazoko litzateke (Delgado, 2011). Beraz espazioaren eraikuntza eta produkzioa

²⁵ Kasu honetan *thinghood* edo *cosificación* gisa ere erabili dezakegu, zentzu zabalagoa eskaintzen baitigu

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

es material, en tanto esas ideas son actos materiales inscritos en prácticas materiales, reguladas por rituales materiales, definidos a su vez por el aparato ideológico material del que proceden las ideas (Althusser, 1974: 62).

2. EKONOMIA GEOGRAFIKOTIK ESPAZIOAREN GARAPEN
IRREGULARRAREN GARRANTZIRA

The point is that uneven development is the hallmark of the geography of capitalism. [...] The uneven development of capitalism is structural rather than statistical.[...] uneven development is the systematic geographical expression of the contradictions inherent in the very constitution and structure of capital.

Neil Smith (1984: 4)

Kapitalismoan ematen den espazioaren ekoizpenaren edo produkzioaren teoria ulertzeko, behar-beharrezkoa da kapitalismoarekin elkarreraginen duten ziklo ekonomikoak ulertzea. Kapitalaren gorabeherak, lanaren banaketa espaziala, lehialogikak eta kapitalismoaren mozkinen bilaketa geldiezinak espazioa kapitalaren beharren arabera produzitua izatea eragiten dute. Baina oszilazio-prozesu horietan, izaera lokala eta logika globala batzen dira, espazioen artean desberdintasunak sortuz. Desberdintasun hauek oro har lurraldeen, eskaleen (hirien, eskualdeen, herrialdeen...), toki espezifikoan eta kapitalismo berantiarrean ematen diren sare multinodalen garapenen arteko aldeak sortzen dituzte.

Hasi baino lehen eta sarreran azaldu dugun moduan, esan beharra dago erregulazioaren teoriaren alderdi batzuk baztertzen ditugula, nazioz azpiko eta nazioarteko mailan *espazioaren garapen irregularra*²⁶ (EGIr) azaltzeko gai ez den sistema teorikotzat jotzen dugulako; izan ere, gizarte-erregulazio nazionalean baino ez du arreta jartzen (Peck eta Tickell, 1992; Beauregard, 1997). Aurrerantzean ikusiko dugun bezala, hainbat mekanismo eta forma arautzaile daude, hala nola, tokiko eskalatik hasi eta hiriaz gaindiko dinamika sozioinstituzionaletaraino doazen arau edo egitura erregulatzailerak (Jessop et al., 1999). Era berean, erregulazioaren teoriatik barneratuz, hiri-erregimenen teoretara hurbilduko gara (Painter, 1997; Lauria, 1997).

Ikuspegi osagarri (Lauria, 1997) eta erabilgarri horiek kontuan hartzen baditugu ere, atal honetarako Neil Smithek (ibid.) *garapen irregularraren* fenomenoaren inguruan egindako teorizazioaren alde egingo dugu. Honek, Bukharinen jatorrizko logika erabili

²⁶ "Espazioa" azpimarratzen dugu, batez ere desberdintasun geografikoaren sormenari beste ikuspuntu bat emateko. Izan ere, gure ustez, desberdintasun geografikoa ez da guztiz kapitalaren metaketatik eratorriko (Brenner, 2004; Harvey, 2003; 2006; Taylor, 1993).

zuen oinarri gisa ("desberdintzapen eta parekatze mugimendu alternatiboaren"), aurrerago bere teoria garatzeko. Errusiar egilearen arabera, lehenik eta behin, "desberdintzapen espaziala", bi lekuen arteko garapen industrialaren desorekari erreferentzia eginez, bi arrazoiengatik gertatzen dela adierazten du. Alde batetik, kapitalaren kontzentrazio espazialaren eta zentralizazio sozialaren eraginez (esku gutxi espazio txiki batean, hain zuzen); eta, bestetik, zenbait azpisektoreen irabazi-tasa ziklikoaren eraginez. Biek ala biek espazioen garapen bereizia erraztuko lukete. Aipatu behar da bereizketa hori hainbat eskala geografikotan eman ohi dela, ez soilik tokiko eskalan, esaterako hiri baten auzo zehatz batean. Ondoren, parekatze mugimendua emango litzateke, honek bi lurraldeen hurbiltzerako joeran datza, batez ere baldintza sozioekonomikoen mailan. Kontuan izan behar dugu, arestiko kapituluan esan bezala, harreman sozialek berebiziko garrantzia dutela espazioaren eraikuntza materialean. Horregatik, aurrerago, gaur egun sofistikatuagoak diren eta zentralitateak eta periferiak agertzea eta desagertzea eragiten duten mugimendu pendular horien ondorioak ikusiko ditugu.

"Garapen irregularra" kontzeptua ez da inondik inora berria. Kontzeptu atzean dagoen ideia zabaldu zuen lehenetariko bat León Trotsky izan zen 1920ko hamarkadan, "Garapen irregular eta Konbinatuaren Legearen" bitartez. Errusiar iraultzaileak modu dikotomikoan aztertu zituen prozesu historikoak. Batetik, nolatan garapena modu eta erritmo desberdinean gerta zitekeen ulertu nahi zuen; eta bestetik, nola horrek, kausalki, kalitate handiagoko egoera sozioekonomiko berri bat sortzeko beharrezko baldintzak konbina zitekeen (desberdintasun-mekanismoak indartzera irits zitekeena edo, aitzitik, iraultzarako printzipioak ezartzera). Irakurketa horrek, *Iraultza Iraunkorrarekin* batera baikorregia izan bazitekeen ere, filosofo eta geografo kritiko askoren oinarriak ezarri zituen. Trotskyren (1932) teoriaren ildo beretik, Antonio Gramscik eta, aurrerago, Henri Lefebvrek geografiari, espazioari, denborari eta kapitalismoari buruz eginiko irakurketen jarraipena azpimarratu behar dugu. Azken honek, ikusi dugun bezala, espazioaren bitartez kapitalismoaren biziraupenari buruzko oinarri teorikoen haziak ezarri zituen. Era berean, Milton Santos, Eric Clark, Edward Soja edo Samir Amin pentsalari garrantzitsuak ere hazi ziren. Aminek hausnarketa garrantzitsua egin zuen desazkunde logiketara jotzeko beharri buruz, garapenaren eta metaketaren logikekin errotik bukatzeko.

Aipatutako funtsezko pentsalari eta geografo kritikoak kontuan hartuta, gure kasuan, esan bezala, Neil Smithek, eta ondoren, David Harveyk garapen irregularren fenomenoaren inguruan egindako teorizazioaren alde egingo dugu. Desindustrializazio-prozesua ulertzeko irakurketarik hedatuenak industria-ekoizpenak, irabazi-tasa handitzeko helburuarekin, ekialdera "migratu" izana izan arren; lurralde-unitateei

begira, espazioa arazoaren erdigunean jartzen duten hainbat faktore eta begirada daude. Jarraian, espazioaren garapen irregularraren logika pean, desindustrializazioa eta hiri-prozesuak barne hartzen dituen oinarritzko suposizio bat aurkeztuko dugu. Horren bidez, azaldu nahi da nola erabiltzen duen sistema kapitalistak espazioa ekoizpen-bitarteko gisa, eremu batzuk gehiago garatuz beste batzuen kontura, erakunde politikoei, lurralde-aliantei, gizarte-mugimenduei edo biztanleei balioa emanaz. Bestela esanda, garapen irregularraren teoriak, nola kapitala irabazi-tasa altuenak eskaintzen dituzten lekuetara mugitzen den azaltzen du, baita joan-etorritzko mugimendu hauek metaketa erritmoekin eta maila guztietako krisiekin sinkronizatuta dauden agerian uzten du. Kapitalaren mugikortasunak, alde batetik, irabazi-tasa altuagoak dituzten eremuen garapena areagotzen du; eta bestetik, tasa txikiagoa duten eremuen (auzoen, hirien, eskualdeen edo herrialdeen) azpigarapena (Brenner, 2004; 2009; Cox, 2002; Harvey, 2003; Smith, 1984; Soja, 1989).

Geografia komertziala, industrializazioa eta garapen irregularraren jatorria

Ziurrenik, Hegelen ibilbidea logika sozial orokor bat eraikitzeke iturri intelektual nagusia izan da gaur egungo teoria kritikoaren alorrean, desberdintasun historikoak (eta, zeharka, geografikoak ere) bereizteko eta gainditzeko prozesuetan zentratua. Hegelen dialektika, historia sozialaren eta sailkapen-prozesuen arteko harremanean oinarrituta dagoen lehenetariko logika da. Bi aldagai hauen baturak, Hegelek berak identifikatutako "gizarte zibila" osatuko luke. "Historia"ren ideia hegeliarrak modernitatearen ondorengo pentsalari eta kritiko askorentzat lehenbiziko euskarri teorikoa izan zen, besteak beste, garapen irregularraren teoriaren pentsalari klasiko batzuentzat (Löwy, 1981; Smith, 2006).

Hala ere, aurreko atalean ikusi ahal izan dugunez, Simmel (1927) da espazioaren ikuskera soziologikoaren bidez determinismo geografikoa kritikatzeko duen lehenetariko bat. Determinismo geografikoaren ikuspuntutik barreiatuz, espazioa ekoizle produzitu gisa ulertzen duen teoriak agertuko lirateke, espazioaren klabe material eta sozialak kontuan izan gabe.

Industrializazioaren lehen urteetan, eta oraindik gaur egun ere, geografoek *ingurune-determinismoa* ("environmental determinism" terminoa ingelesez) erabili zuten eremu batzuen garapena eta beste batzuen azpigarapena azaltzeko. Horrela, naturak berak, klimaren, baliabideen eta abarreko faktoreen arabera, ausaz erabakiko luke produkzio-jardueren kokapena, sektore eta azpisektore ekonomikoen ustiapenerako eta

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

merkataritzarako eskuragarritasun egokienak dituzten lurraldeetan kokatuz. Honen arabera, baldintza geografiko naturalek zehaztuko lukete, neurri handiagoan edo txikiagoan, giza jardueren mota eta kokapena, espazio hori nola eraikiko eta erreproduzituko litzatekeen erabakiz.

Aurreko kapituluari aipatutakoari berriro helduz, azpimarratu behar dugu logika horren pean “geografia komertzialak²⁷” hiri- eta industria-espazioen garapen irregularra azalduko lukeela, hau da, hainbat lehengaitatik eta garraiobideetatik urrun edo gertu egoteak azalduko lituzke herrialde eta hirien desberdintasunak. Historia- eta ingurune-determinismo batean oinarrituta, geografia komertzialak:

describió la variedad de productos provenientes de múltiples naciones y regiones del mundo, e intentó explicar los diferentes patrones de la producción agrícola e industrial sobre la base de los diferentes legados naturales (Smith, 1984; 144).

Hori baliagarria izan liteke Birminghamen hazkundera azaltzeko, Warwickshireko meatzeetatik gertu eta britainiar kanal zentralengatik zeharkatuta, baina ez luke balio Afrikako edo Latinoamerikako kolonien garapen ekonomiko eskasa (ez nulua) azaltzeko, zeren eta, baliabide naturalak izan arren, metropoli kolonizatzaileak izaten baitziren haietatik onurak ateratzen zituztenak. Esan behar dugu, pentsamendu hori balioa galtzen hasi zela garraiobideek denbora eta distantziak izapide huts bihurtzen zituzten heinean, eta modernizazioak, aurrerapen teknologikoekin, ekoizpen-indarrak handitzen zituen eta lehengaien erabilera sofistikatzen zuen heinean. Hala ere, badaude gaur egun determinismo klimatikoaren teoria defendatzen dutenak. Horien arabera, aldaketa klimatikoaren ondorio latzenak lurralde pobreenetan pairatzea, soilik aldagai naturalen azterketaren bitartez uler daiteke, harreman sozioekonomikoak albo batean utziz eta historiaren ulerkera arrazionalista egiten saiatuz²⁸.

²⁷ Terminoa XIX. mendearen hasieran jaio zen, gizarte britainiarrean, baina Georges Chisholm *Handbook on Commercial Geography* geografo eskoziarrak 1889an argitaratutako lan ezagunagatik zabaldu zen. Obra hori eta haren printzipioak, Inperio britainiarraren igoera eta espolioazio kolonizatzailearen prozesuak ulertzeko eta sustatzeko erabilitako geografia politikoaren oinarriak izan ziren, determinismoak nazioen arteko bereizketa politikoa justifikatzeko aukera aparta ahalbidetzen baitzuen.

²⁸ Honen inguruan gehiago sakontzeko begiratu *Physioeconomics: The basis for long-run economic growth* (Parker, 2000) liburua.²⁹ Gogora dezagun lehen petrolioari buruz azaldu dugun adibidea; izan ere, eremu natural zehatz batean egon arren, polimeroak, erregaiak, eta abarreko deribatu mordoak produzitzeko azpiegitura itzelak behar dira eta gaur egun hauek nonahi aurki daitezke, lurraldearekiko inolako sustraitzerik izan gabe.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Zenbait geografo komertzialen arabera, Georges Chisholm edo Halford J. Mackinder kasu, “abantaila naturalaren” printzipio honek lanaren lurralde banaketa ezarriko luke. Baina, toki jakin baten hasierako garapena –eta *path dependence*-aren ikuspegia kontuan hartuta, ondorengoko garapen sozioekonomiko eta instituzionala ere– azaltzeko balio daitekeen arren, arrazoiketa hau motz geratzen da geroko garapenaren kantitatea eta kalitatea azaltzeko orduan, jatorrizko baldintza konduktual eta fisikoan soilik oinarritzen delako (David, 2001). Izan ere, gaur egun, naturan baino, ekoizpen-indarren kokalekuan dago gakoa. Hau ulertzeko, Smithen adibide argi bat dakarkigu:

aunque la industria mundial de extracción de petróleo depende por completo de la ubicación de sus fuentes naturales, la industria petroquímica mundial no tiene la misma restricción y no se aglutina alrededor de los campos petrolíferos. (Smith, *ibid.*; 147).

Aurrerago ikusiko dugu zelako ondorioak dituen honek eta zer momentutan hasten den ekonomia politiko hori desegituratzen.

Ildo beretik, Harveyk (2006) irekitako ikerketa-ildoari heltzen diogu. Harveyk, espazio-egitura jakin batean garapen irregularra nola gertatzen den aztertzeko, hura sortzen duten metatze-legeak kontuan hartu behar direla dio. Horrek esan nahi du Lefebvreren tesi filosofikoak kontuan hartu behar direla, lehenik espazioa erlatiboki eta harremanez osaturiko gauza bezala ulertuta, aurrerago kapitalak eta bere metaketak hainbat espazio eta espazio-forma sortzen dituztela ulertzeko, lurralde-mugetatik harago. Espazioaren ekoizpenari buruz landu dugun ideia eta haren politikaren atzean dauden formak baliagarriak izango zaizkigu espazioaren garapen irregularraren egitura analitikoak marrazteko.

Horrela, bada, kapital-metaketak gutxienez bi ondorio zuzen ditu: alde batetik, hazkundera eta aurrerapena (bestela esanda: aldaketa teknologikoa) saihestezinak eta iraunkorrak izango direla lanaren ustia ketaren bitartez; eta, bestetik, krisiak saihestezinak bihurtuko direla eta soberakin-pilaketa handia izango dutela, bertako kapitala gutxietsiz xurgaezinak diren heinean. Hau kontuan izanik, EGIRRaren teoria esplizitua beharko dugu. Teoriak aintzat hartu beharko du merkataritza-trukea askoz ere azkarragoa dela gaur egun, eta horrek *espazioa denboran* konprimitzea eragiten duela (neurri batean, espazio edo ziberespazio berriak sortuz), nazioarteko transakzioak segundo gutxitan egin baitaitezke. Bestalde, ekoizpen-sisteman abantaila lehiakorren araketak sortutako dinamismo lokazionalaren garrantzia azpimarratu beharko du, baita erdiguneak eta periferiak sortzen dituen lurzoruaren erabilera monopolistikoaren funtsezko papera ere (Harvey, *ibid.*).

Parekatzea eta desberdintzapena

Esandakoa esanda, geografia komertzialaren gorakada dagokion testuinguruan jarri behar dugu, eta aipatu bezala, honen zati bat balioetsi industrializazioaren eta urbanizazio kapitalistaren hasierak ulertzeko; izan ere, kapitalaren (eta biztanleriaren) kontzentrazio- eta zentralizazio-prozesuak, neurri batean, baliabide naturalak ateratzen eta prozesatzen ziren tokian gertatu ziren. Era berean, hor gertatzen zen kapital-metaketa handiena, eta horrek, denborak aurrera egin ahala, desberdintasun naturalen lurralde-parekatzera eramango luke.

Horrela, bada, kapital-metaketa dela eta, "ekoizpen-endarren garapen irregularretik" (Bukharin, 1917) datozen diferentziak aztertuko ditugu. Bukharinen proposamena interesgarria egiten zaigu, desberdintzapenerako aktibo nagusia ez delako lehengai edo natura bera (ezta ustiatzeko lekua ere), baizik eta, lehengai horrek produktu kontsumigarri bihurtzeko egun behar dituen aurretiazko lan-prozesuak²⁹ direlako. Era berean, adierazi behar da ekoizpen-endarren garapena handiagoa izango dela hiri eta eskualdeetan, izan ere, "heredan la división territorial del trabajo anclada en las diferencias naturales" (Smith, *ibid.*); izan ere, bitartekoen kontzentrazioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da produkzio-ahalmen sozialaren ustiapena. Beraz, dagoeneko ezarrita dauden ekoizpen-lekuetan kapitalen elkartzeko espazialerako joera existitzen dela baieztatzen dugu. Lehenengo industria garapen horrek, hain zuzen, "lokalizatutako" kapitalismoaren oparotasunerako oinarriak ezarriko lituzke.

Economic development is increasingly 'systemic' and presumes highly specific conditions in the environment, in the production and use of techniques and in competencies. Whereas in Taylorist-Fordist mass production, territory mainly appeared as a stock of generic resources (raw materials, labour), nowadays it increasingly underpins a process of the creation of specialized resources. Competitiveness among nations, regions and cities proceeds less from static endowments as in classical comparative-advantage theories, than from their ability to produce new resources, not necessarily material ones, and to set up efficient configurations in terms of costs, quality of goods or services, velocity and innovation. (Veltz, 1997: 79).

²⁹ Gogora dezagun lehen petrolioari buruz azaldu dugun adibidea; izan ere, eremu natural zehatz batean egon arren, polimeroak, erregaiak, eta abarreko deribatu mordoa produzitzeko azpiegitura itzelak behar dira eta gaur egun hauek nonahi aurki daitezke, lurraldearekiko inolako sustraitzerik izan gabe.

Lehenik eta behin, naturak; jarraian, "bidearekiko mendekotasunak" (*path dependence*³⁰), horiek sortutako lanaren banaketa geografikoak; eta, azkenik, irabazien araketa eta kapitalen metatzeak, desberdintzapen espaziala eragiten dute, hots, desberdintasunak espazio geografikoen garapenean. Egoera honetan, hiriak industria modernoaren garapenean zeregin nagusia izatera pasatuko litzateke, ezagutzak ekoizteko zentro gisa (prestakuntza-puntu gisa eta lan-indarrerako baldintzatzaile gisa) (Remy, 2000), baita krisi momentuetan konponbideak probatzeko esperimentazio espazio gisa ere.

Era berean, behin desberdintzapen prozesu hau azalduta, Smithek (ibid.) bereizketaren ondoren gertatzen den parekatze espazialerako joera nabarmendu egiten du. Bitxia bada ere, ekoizpen-hazkundeak ekoizpen-indar zein kapital finko handiagoa eskatzen duenez, espazio berriak beharko dira eta ezarritakoak modernizatu beharko dira, hain garatuta ez dauden espazioak garatuenekin parekatuz. Hau da, desberdintutako espazioen kolapsoa ekidetze aldera, kapitalen mugimendu bat ematen da, oraindik ustiatu gabeko espazioetarantz, hain zuzen. Ustiapen horrek espazio espezifikoko horren egoera, desberdintutako espazioaren egoerara parekatuko luke.

Hori litzateke desindustrializazio-prozesua azalduko lukeen arrazoi nagusietako bat. Askotan hau, barne-logika nazionalen eta kanpo-logika globalen bidez gertatutako prozesu natural gisa azaltzen da (Bell, 1976; Saeger, 1997). Alde batetik, barne-arrazoiek manufaktura-ekoizpenaren une gorenera garamatzate, eta jarraian, besteak beste, zerbitzuen sektorearen aldeko bira emateagatik, jasandako gainbehera progresibora ere, hirugarren sektore horretako langileen lan-baldintzak eta hazkunde ekonomikorako joerak³¹ ez baitira aurreko garaietan bezala bermatzen (Cohen eta Zysman, 1988). Kanpoko kausei dagokienez, manufakturako enpleguaren beherakada handia, bat etorriko litzateke herrialde garatuen eta "garapen-bidean" daudenen arteko merkataritzan izandako hazkunde izugarriarekin. Horren ondorioz, Iparraren eta

³⁰ Garapen irregularra kapitalismoaren metaketarako eta krisirako aldizkako faseek bultzatutako prozesu historiko gisa ulertzen dugu, leku eta une jakin batean iraganean hartutako balio eta konpromisoak mantentzearen eta horiek debaluatzearen arteko dialektika gisa, etorkizunean metaketarako espazio berri bat irekitzen dutenak (Harvey, 1982 eta 1985).

³¹ Azpimarratu nahi dugu hazkunde ekonomiko hori ekialdeko zenbait herrialderen industrializazio periferikoko prozesuek ere ez dutela bermatzen, aski argi demostratzen da Bangladesheko kasuarekin. Teoria hau hankamotz geratzen dela nabarmen ikus daiteke herrialde horretan, izan ere, kapitalen mugimenduak herrialde pobreenetara mugitzeak, hots, industria kapitalak lekuz aldatzea, espazioen produkzioaren parekatzea ekarri zuen, baina era berean, ekoizpena esportaziora bideratzeak ez du etekinak espazioan finkatzen utzi.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Hegoaren arteko merkataritza bihurtu zen susmagarri nagusia desindustrializazio-kausen bilaketan (Škuflić eta Družić, 2016).

Marcusen arabera (1964), parekatze prozesuak espazio globalaren txikitzea dakar, desberdintasun geografikoak minimizatuz. “Dimentsio bakarreko gizakiak”, beraz, izendatzaile komun txikienari erreparatuko lioke, teknologiaren garapenak eta lehiakortasunak ezarritako baldintzak eta ekoizpen-mailak berdintzean oinarrituko litzatekeena.

Kontrajartze hau (desberdintzapen-parekatzea) Smithen “gorabeheraren teoriaren” edo Harveyren “suntsipen sortzailearen” bidez (2014) errepikatzen da denboran. Nabarmenezkoa da berdintze-prozesua laburra dela, maila globalean adibidez, mendebaldeko/iparraldeko desindustrializazio-prozesuak (suntsiketa) eta ekialdeko/hegoaldeko industrializazio-prozesuak (sorkuntza) bat egiten dutenean eman izan da. Smithen ustez (ibid.), teoria hori ustiapen geografiko kapitalistaren pendulua baino ez da. Kapitalismoaren “kanpoaldearekiko kodependentzia”ren ideia primarioari jarraituz (Luxemburg, 1933) eta kapitalaren izaera ikusita, uste dugu hau irabazi-tasa eta soberakin posiblearen jabetza handiena den tokietara mugituko dela, lurralde horiek garatuz, eta irabazi-tasa baxuagoa dutenak "azpigaratuz". Alde horretatik, irabazi handienak eskaintzen dituzten baliabideak modu desberdinean sakabanatuta egoteak, garapen irregularraren oinarritzko printzipio naturala ekarriko du (hona hemen ingurumen-determinismoak eskeinitako baliabide teoriko handiena). Baina argi utzi behar dugu baliabideak geografikoki bereizita baldin badaude, haien jabetzea, apropiazioa eta baliabideen gaineko kontrola hartzeko determinazioa estrategia espazialen mende egongo dela (Harvey, 2006).

Aldi berean, kontraesanean, garapenaren dinamikak izango dira irabazi tasa jaitsiarazi egingo dutenak, izan ere, lehiakortasunaren igoera, langabeziaren murrizteak, soldata mailaren igoerak, erakunde sindikalen agerpenak eta, oro har, produkzioaren erregulazioak kapitalaren errentagarritasuna motelduko dute. Horrela, garai modernoan, zorpetzearen bidez kanpo finantza-kontrola agertuko litzateke, kapitalaren balio-galera inposatzeko³².

Une honetan, kapitalak azpigaratutako eremuetarantz mobilizatuko joera hartuko du, lurralde hauek eskaintzen dituzten aukerak eta irabazi tasa handiagoa ustiatuz. Horrela, “gorabehera mugimendua” gertatuko litzateke, garatutako eta azpigaratutako eremuen

³² NDFren egiturazko egokitzapen-programak ikusi besterik ez dugu, prozesu honek nola lan egiten duen ikusteko. Horrela, debaluazioa lurralde eta espazio jakin batean gertatzen da, eta ez mundu osoan (2001. urtearen ondoren Argentinan gertatu zena oroigarri) (Harvey, 2006).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

artean kapitala etengabe mugitzen dagoelako, kapital-finkotik kapital-zirkulatzailerara igaroz, eta jarraian, berriro finkora bueltatuz. Azpimarratu behar dugu hori espazio-eskala guztietan gerta daitekeela. Baina Smithek dio hiri-eremuan hedatu dela gehien garapen irregularraren eredu edo printzipio hori. Baiezta genezake, agian, eskala globalean, Ekialdeko Asiako zenbait herrialde parekatze prozesu batean daudela (mendebaldeko herrialdeekin alderatuta).

Mendebaldeko hiri postindustrialen kasuei erreparatuz, alde zuzenetik azaldu dugun lez, industrializazioak erdialdeko hiria eta zenbait industria-eremu espezifiko garatu zituen, eta lanaren banaketa espaziala zehatz bat ezarri zuen (Massey, 1984). Baina, gorabeherako mugimenduak izan zirenez eta eremu horien irabazi-tasa murriztu zenez, geografikoki abandonatu eta behin behineko desindustrializazio iraunkorra gertatu zen. Eremu horien errentagarritasunak pixkanaka behera egin ondoren, lurzorua errenta potentziala (*rent gap*) handitu egingo zen. Horrek, kapitalak zentrorra, industrialdeetara eta zonalde abandonatuetara itzultzea ekarriko zuen, eta, horrela, berrurbanizazio prozesuari ekingo litzaioke (batzuetan, gentrifikazio-prozesuari ere bai), kapitala bigarren zirkuiturantz itzuliko litzatekeelako (*FIRE* sektorerara eta eraikuntza sektorerara) (Smith, 1984).

Lehen kapituluan aurkeztutako desafio teorikoa jasoz, parrafo honetan azalduko da, hain zuzen ere, kapitalismoan hiri-espazioari edo espazio urbanoari truke-balioa ematen diona. Atal honetan zehar, gentrifikazioaren adibidearekin ikusiko dugun moduan (Lehenengo grafikoa), lurralde jakin bateko zonalde eta espazio fisikoen balioa, bertako eragileen eta kapitalen banaketaren arabera definitzen da modu erlazionalean, hauek baitira, azken beltzean, elkarrekintzak eta bizitza-estrategiak egituratzen dituztenak. Baina desberdintzapen prozesuek, aukera zabaltzen dute espazioa merkantilizatzeko joera duten dinamika horietan sakontzeko eta egitura egituratzaile egituratu espezifiko berriak ezartzeko. Gorabeheraren teoriak politika-ekonomikoaren klabeen ere uler daitezke, marko teorikoaren bigarren atalean ikusiko dugun moduan espazioaren prozesuak eta estrategia arautzaileen suntsipen prozesuak eskutik helduta doaz.

Era berean, Harveyk (2006) *Schöpferische Zerstörung-en* (Suntsipen Sortzailea) kontzeptu schumpetertarra hartzen du erreferentziatzat, eta gainmetaketa krisi lokalizatuak eta ziklo kapitalisten ezaugarri suntsitzaileak honela azaldu zituen:

El ejemplo reciente más obvio de tal devaluación en occidente es Detroit; pero muchos de los viejos centros industriales en los países capitalistas avanzados han tenido que reconstruirse para escapar de la erosión de su base económica en virtud de la competencia exterior capitalista. El principio que rige al respecto es: el capital crea un paisaje geográfico que satisface sus necesidades en un lugar y momento determinados, sólo para tener que destruirlo en un momento posterior a fin de facilitar su nueva expansión y transformación

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

cualitativa. El capital desencadena los poderes de la ‘destrucción creativa’ sobre la tierra, destruyendo y produciendo continuamente nuevos espacios. Algunos sectores o grupos se benefician de la creatividad, mientras que otros sufren el embate de la destrucción. Pero esto siempre encierra una disparidad de clase. [...]El cambio tecnológico nunca es gratuito ni indoloro y su coste y el dolor que produce no se reparten por igual, por lo que siempre hay que preguntarse quién sale favorecido de la creación y quién carga con el peso de la destrucción. (Harvey, 2014: 157).

Berregituratze ekonomiko eta sozioespazialeko prozesu horiek, “irtenbide espazialen” (*spatial fix*) baliabide eta, aldi berean, emaitza dira (Harvey, 2006; Jessop, 2006; Lipietz, 1996). Terminoak hitz-joko bat ezkututzen du eta ingelesezko *fix* hitzaren interpretazioei egiten die erreferentzia. Alde batetik, “finkapenaren” zentzu literalak leku jakin batean kapitalak denbora luzaroan zehar egiten duen finkatze iraunkorrari egiten dio erreferentzia. Bestalde, kontzepzio metaforikoenak bat-bateko eta aldi baterako konponbidera edo erantzunera garamatza, berrantolaketa espazialean eta/edo estrategia espazialean oinarrituta, kapitalismoaren berariazko krisi-joerei erantzuteko hartzen diren “soluzioei” hain zuzen. Azken horien artean aipatutako desindustrializazioa eta haren ondorioak nabarmenduko genituzke (Lipietz, 1982; Jessop, *ibid.*).

Hainbat hamarkadatan, industrializazio-prozesuak kapitala Europako zenbait toki eta hiritan finkatzea ekarri zuen (*spatial fix* literala). Baina desindustrializazioan amaitu zuen industrializazioaren ondorioz gertatutako gainmetaketak, kapital industrialak krisia ekoizpena zabalduz eta berregituratuz konpontzera behartu zituen (*spatial fix* metaforikoa) (Keucheyan, 2013). Irtenbide horrek ondorio dialektikoak izango zituen, alde batetik, nazio eta/edo eskualde mailan, eta, bestetik, kanpo mailan edo maila globalean. Hau, beraz, industrializazioak ekarri zuen “inplasio-leherketa” (Lefebvre, 1970) prozesua bezalaxe, bestelako eztanda izango litzateke. Ikus dezagun nola eman zen bada.

Lehenik eta behin, barne-soluzio edo -dialektikak Estatuko, eskualdeko eta abarreko administrazioen esku-hartzea behar izan zuen, ekoizpen eredu fordistari eusten saiatzeko, aurrerago ikusiko dugun bezala. Eta, bigarrenik, kanpora begira emandako konponbideak, sistema kapitalistaren kanpo-hedapena ekarri zuen, modu inperialista batean, zeinak finkapen espazial produktibo berriak sortu zituen, debaluazioak eta *a priori* absolutuak ziren espazioak saihesteko. Horrela, baieztatu genezake “lau asiarrak” (Hego Korea, Taiwan, Hong Kong, eta Singapur), 60-90ko hamarkadetan, kanpoko irtenbide espazial berria bihurtu zirela (Keucheyan, *ibid.*).

Azken batean, “gainbalio-aukerak sortzeko ideiarekin, espazioa bera berregituratzeko estrategiak erabiltzean datza” (Franquesa, 2007) "se trataría de la utilización de

estrategias de reestructuración del espacio mismo como mecanismo para crear oportunidades de plusvalía”, hiria eta bere hiri-espazioa “hazkunde-makina” bihurtuta (Logan eta Molotch, 1987), bai barne-soluzioen bitartez, bai kanpo-soluzioen bitartez.

Honekin guztiarekin, hiri (post)inudtrialetan emandako 70-90 hamarkadetako desberdintzapen eta parekatze mugimendu alternatiboa, alegia, desindustrializazio eta lurralde horren errentagarritasun berritua, espazioaren garapen irregularraren bitartez azaldu daiteke. Industria espazioa suntsitu eta espazio berriak sortzean datzan prozesua ikus dezakegu hemen (merkantzia bezala, baina egituratutako egitura egituratzaile gisa ere). Produktiboki abandonatutako industria-guneen kasuan, hiri-hustuketa gertatzen da³³, eta, aldi berean, *real estate*aren sektorearen eta kapital-metaketaren bigarren zirkuituaren nahi eta premiako birkalifikazioen bidez, lurzorua balioa handitzen doa, edozein ekoizpen-jarduera tradizionalaz harago eta onurak lortzeko espekulazio-helburu bakarrarekin (Díaz, 2016). Modu honetan, berretsi egingo litzateke plusbalioaren zirkulazioko bigarren zirkuituak, hau da, jabetza-eskubideen eta kapital finkoetako inbertsioen bitartez lortutakoak, industria-jarduerako lehena gaintzen duela, hein handi batean behintzat (Lefebvre, 1970 eta 1974). Prozesu hori denboran hedatu da, eta, ondorioz, mendebaldeko eta iparraldeko industria-ekoizpenaren moteltzea, ekialde eta hegoalde globalean industria-inbertsioan bihurtu da. *Inpasse* horren ondoren, non espazioak, merkantzia gisa, leku batean truke-balioa (eta noski erabilera-balioa) galtzen duen, eta bestean irabazten duen, kapitalen itzulera hasiko da espazio horrek errentagarritasunari eta irabazi-tasari berriro ekiten dienean. Horregatik, kapitalismoak bere erreprodukzioa ziurtatzeko espazioa suntsitzen duela baieztatzen dugu, aurrerago sortzeko eta berriz ustiatzeko.

Kasu honetan nola hiri postindustrialek berpiztu diren interpretatzeko, “konponbide” edo “soluzio espazialak” aipatu behar ditugu. Kapitala kapital-metaketaren bigarren eta

³³ Hiri-hustuketarekin ‘notopia’ bezalako kontzeptuak azaltzen zaizkigu. Notopiaren funtsak hiriaren espazio sozialaren hustutzea irudikatzen du. Horrela definitu zuten 2016an Christine Murray eta Jonathan Glancey *The Architectural Review* aldizkariko zenbait artikulutan:

It consists in the universal creation of cities that are not human settlements, but places where capital investment lives in architecture devoid of social purpose. Notopia is where empty apartments and gated communities stand under guard while the homeless are not permitted even to sleep on the street, and are prodded or hosed down with water until they move on [...] It is a simulacrum of inhabitation, like a stage set for its players. Nothing is what it seems. The historic apartments that overlook the twisted pedestrianized lanes of Barcelona are in fact hotel rooms for weekend visitors. The towering sea-view condominiums of Vancouver are foreign investment properties bought in exchange for citizenship. Detroit’s streets of elegant gabled houses have no services, the municipal water systems long turned off.

hirugarren zirkuitura (inbertsio sozialena eta I+G+b) itzularazi egiten da, desindustrializazio-krisia geldiarazten saiatuz, eta esparru globalean beste eremu batzuk garatzearekin batera (López eta Rodríguez, 2010 eta 2013).

Lurzoruaren errentatik, "errentaren arrakala diferentzialera" (Rent gap).

Gentrifikazioaren printzipioa

Nabarmendu beharreko funtsezko gakoetako bat "lurzoruaren errenta" deiturikoa da. Ikusi dugunez, hirietan eta metropoli-guneetan, espazioa gero eta gutxiago oinarritzen da erabilera-balioaren arabera, eta aldiz, aldaketa edo truke-balioa gailentzen da. Hiri-espazioa jabetza pribatuko hamaika zatitan banatzeak espazio-pusken merkaturak sortzen ditu, eta horien prezioa (lurzoruaren errenta moduan) ezaugarrien arabera (tamaina, azaleraren forma, erabilera garaikidea, etab.) eta beste instalazio eta leku batzuekin (hiriaren erdigunea, garraioa, drainatzea, etab.) duen harremanaren arabera aldatuko da; eragileen eta inguru materialaren arteko harremanen arabera, alegia. Beraz, lurzoruaren errenta hiri-espazioaren desberdintzapen geografikoa retroelikatzeke aldagai garrantzitzuenetarikoa izango da. Hauek horrela, lurzoruaren errenta existitzen bada, kapitalak balioztatzeke baldintzak espazioan diferentziatu egiten direlako da. Era berean, Topaloven (1979) hausnarketak jarraituz, gaur egun lurzoruaren errenta existitzen baldin bada, espazioaren erabilera kapitalista eta kokapenaren gainirabaziak daudelako izango da.

Desberdintzapen espazialak lurzoruaren errentak sortzen dituen sistema honetan (eta alderantziz ere), azaldu berri dugun desberdintzapen-parekatze dinamikak, errentagarritasun potentzialeko lurzoru-errentak jarriko ditu hiri-merkatuen zirkuituan, aukera-eremuak (*opportunity areas*) sortuz. Hau da, eremuen errentagarritasunaren gainbehera progresiboaren ondoren (desindustrializazio-prozesuan gertatutakoa, adibidez), denborarekin lurzoruaren errenta potentziala handitu egingo litzateke, eta *rent gap*³⁴-erako tartea irekiko litzateke inbertsio-kapitalei atea irekiz.

Ipar Amerikako hirietako kasua jaso izan dute ikerketa interes gehienek. Smithek kasu honetan modu desberdinean identifikatzen zuen prozesua, jendea hiri zentraletik

³⁴ *Rent gap* edo "errentaren arrakala diferentziala" lurzoruaren errenta potentzialaren ("intentsitate hobe eta handiagoko" lurzoruaren erabilerearen bitartez sortua) eta lurzoruaren benetako errenta kapitalizatuaren (kapital finko debalatu baten bitartez murriztua) arteko aldeari dagokio. Lehenengoaren igoera kapitalak espazio zehatz horretan inbertitzeko duen interesarekin identifikatzen da (Smith, 1979).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

urrundu zelako, *suburb*³⁵etarantz hurbilduz, antzerako prozesua gertatu zen, baina Europan kanpoaldeko eremuek ez dute hainbesteko garrantzia izan.

La descentralización geográfica del capital por medio de la construcción de suburbios llevó al subdesarrollo de la ciudad central. El capital ha sido atraído por el rápido incremento de la renta del suelo que acompañó al desarrollo suburbano, y por eso, la ciudad central, con sus ya altos niveles de renta del suelo y, por lo tanto, bajas tasas de ganancia, ha sido privada de capital de manera sistemática. Esto condujo hacia una devaluación estable de todas las áreas de la ciudad central, ya se tratará de usos de suelo portuarios, comerciales, de almacenamiento o residenciales. En algún punto, la devaluación del capital reduce la renta del suelo de tal manera que el “diferencial” entre la renta capitalizada del suelo y la renta potencial del suelo (dado su “alto” uso) se vuelve lo suficientemente grande como para hacer posible la renovación y la gentrificación. (Smith, 1984: 201).

Hortaz, *rent gap*-aren teoriaren arabera (Smith, 1979), hiria berritzea ekoizpen-prozesu espaziala da, higiezinaren gain zuzeneko berrinbertsioa eragiten duena. Ildo horretatik, lurzoruak momentuan duen erabilera-egoeraren balio-galera efektua gertatzerakoan eta, bere kokapenaren baldintzapenagatik, balio-handitze efektua konbinatzen direnean, higiezinaren berrinbertsioa sortuko da (López-Morales et al., 2014). Smithek, azkenik, gentrifikazio prozesua azpimarratzen du hemen, lurzoru-errentaren egituraren eta *rent gap*-aren dinamiken emaitza gisa, askotan baliagarria izan daitekeena prozesu osoa ulertzeko bere azken ondorioetara arte.

Ikuspuntu honen arabera, gentrifikazioa, hirigune zehatzetan, kapitalak desinbertitzeko eta berrinbertitzeko gertatzen den prozesu gisa aztertu behar da, biztanleriaren osaera sozioekonomikoaren eredu espazial berriekin, despopulatzeko eta birpopulatzeko mekanismoak sortuz.

Hau da, ez da hiriko zenbait eremuen biziberritze gisa ulertzen, ezta, leku jakin baten gain modu altruistan gizarte-klase jakin batek hartutako moda baten moduan, “la

³⁵ Argitu behar da gatzelaniaz, zein euskaraz, hitzaren inguruan egiten diren interpretazioak ez direla ingelesez egiten direnak. Izan ere, ingelesez (britainiarra, irlandarra, iparramerikarra, australiarra edo neozeelandarra den kontuan hartuta zerbait aldatzen bada ere) hiri-geografiaren kontzeptu bat baino ez da, eta ataripea, atzeko lorategia eta garajea duten familia bakarreko auzoei egiten die erreferentzia; euskaraz, berriz, behe-auzoak edo auzo marjinalak, nolabaiteko konnotazio negatiboarekin kanpoaldean egon daitezkeenei edo barneko auzo degradatuak izan daitezkeenei egiten die erreferentzia.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

gentrificación constituye un movimiento de retorno a la ciudad, aunque este no es de las personas sino del capital" (Smith, 1996)³⁶.

Oso erabilgarria izan daiteke Smithek (1979: 543-545) proposatutako eskema metodologikoa, bost faseko sekuentzia batean oinarritzen dena, lurzorua benetako errenta kapitalizatua devaluatzeko prozesua azaltzeko. Prozesu hau, eskala handiagotan ere gerta litekeen arren, tokiko eskalan argiago ikus daiteke. Horretarako, denborarekin hondatuta izan den etxebizitza-erakin batean eta haren inguruko zonaldean gerta daitekeen prozesua azalduko dugu. Leku batetik bestera alda daitezkeen eragile eta prozesu espezifikoa gutxietsi behar ez ditugun arren, eskema honek gertaeren lotura logiko bat ezartzeko balio du, edozein kasutan lerro unibertsal gisa estrapolatu daitekeena.

1. Eraikuntza berria eta erabileraren lehen zikloa: auzo berri bat eraikitzen denean, etxebizitzaren prezioak eraikinaren balioa eta bertan egindako hobekuntzak islatzen ditu. Lehen zikloan, salmenta-prezioa eta benetako errenta kapitalizatua handitu egin dira inguruko hiri-garapenaren ondorioz. Denbora igaro ondoren, balio-galera gertatzen da estiloaren zaharkitzeagatik, narriadura fisikoagatik eta lanaren produktibitatearen hobetzeagatik (hobekuntza teknologikoak, eraikuntza-materialak, etab.).
2. Maizterrak eta jabeak: eraikuntzen pixkanakako balio-galtzeak eta zaharkitzeak inbertsio garrantzitsuak egitera behartzen dituzte jabeak, eta horrek jabe asko desinbertitzera eramaten ditu. Honen ondorioz auzoaren mantentze falta areagotu egiten da, eraikinak bigarren erabilera ziklora igarotzen dira, askotan gainbeheran dauden merkatuei lotuta dauden alokairu-etxebizitzak hedatuz. Horren guztiaren ondorioz, jabeek zailtasun handiagoak izango dituzte beren ondasunak saltzeko, eta salmenten jaitziera gertatuko da, gastuak handituz eta errentagarritasun txikiagoak sortuz. Honek guztiak esan nahi du eremu espazial zehatz horretan kapitala galtzen edo desagertzen joango dela.
3. Jazarpena (*Blockbusting*) eta kanporatzea (*blowout*): askotan, higiezinaren sektorea da bertan behera uzte hori bizkortzeko interesa duena. Higiezinaren agenteek lehenengo jabeen prezio baxuan eta lehenbailehen saltzeko esaten diete, auzoa azkar hondatzen ari dela eta etorkinak iristea denbora kontua

³⁶ Kasu honetan, "hiria" hitza modu generikoan erabiltzen dela gogorarazi nahi dugu. Smithen analisiaren arabera, uste dugu Estatu Batuetan zentzu handia duela, baina Europan, agian egokiagoa dela "auzoak" edo "metropolialdeak" bezalako terminoak erabiltzea.

dela mehatxatuz. Ondoren, *real estate* bera da familia etorkinei etxebizitzak prezio handiagoan birsaltzen edo alokatzen dizkiena, eta familia horiek dira, hain zuzen ere, etsita daudenak eta harrapakin erraza direnak. Alde horretatik, jazarpena bi norabidetan gertatuko da: lehenik eta behin, saltzaileei egingo zaie (mehatxuz eta presioz), saltzera bultzatuak izango direlako; eta, ondoren, erosleei/maizterrei egingo zaie *blockbustinga*, hondatuta dauden etxebizitzengatik ordaindu behar dituzten gehiegizko prezioengatik itota daudenei, hain zuzen. Kanporatzea marjinatutako eremuak inguratzen dituzten auzoetan gertatzen da. Auzo horiek, askotan, lehenengoan hedapenak trinkotzen ditu, eta, horren ondorioz, jabe askok beren jabetzak beste errentatzaile batzuei saltzen dizkiete eta beste leku batzuetara lekualdatzen dira

4. Finantzaketa ukatzea (*Redlining*): kapitalak balio-galerarekin jarraitzen du eta errentatzaileen inbertsioak etengabe behera egiten du. Narriadura dela-eta, desinbertsioa azkarrago joango da. Horrela, etxebizitzaren balioak eta lurzorua errenta kapitalizatuak behera egiten dute eta salmenta-prezioak erortzea eragiten dute. Jabeek inbertsio txikia egiten dutenez, finantza-erakundeek eta erakunde publikoek ez dute finantzaketak ematen, errentagarritasun tasa oso arriskutsua baita. Izan ere, finantza-erakunde eta erakunde publiko horiek sistematikoki ukatzen dituzte eremu horietarako hipoteka-zerbitzu eta -kredituak, eta mantentzerako eta konponketarako funtsak zailtzen dituzte, lurra devaluatzeko arriskuaren beldur direlako³⁷. Une horretan hasi ohi dira bandalismoa eta etxebizitzaren egituraren zatiketarik unitate gehiagotan, errenta handiagoak lortzeko.
5. Abandonatzea: utzikeria ez da gertatzen eraikinak orokorrean erabilgaitzak direlako, errentagarriak ez direlako baizik. Hori gertatzen da errentatzaileek/jabeek jada ezin dutenean kostuei aurre egiteko adinako errenta lortu (zerbitzu publikoak, zergak, komunitate gastuak, etab.). Abandonua auzo eskala oso batean gertatu ohi da. Hala, higiezinaren merkatuak hondoa jotzen du, auzo oso bat hondatuz eta horren prezioak ikaragarri


³⁷ *Redlining* basatiarena banku eta aseguratzailerik egiten dutena da, hots, finantza zerbitzuen ukatzea, baina, supermerkatuak, zerbitzu publikoak eta beharrak asetzeko erraztasunak gertu ez izatea edo zuzenean auzo edo eremu espazial zehatz batetik urruntzea ere *soft redlining* gisa hartu daiteke.

* Batzuetan, balio erreala alda daiteke eraikinak, haien egiturak, energia-errendimenduak eta abar birgaitu eta modernizatzen baldin badira.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

jaitsiz. Une horretan gentrifikazioa benetako aukera bihurtzen da (Darling, 2005).

Irudia 1: Devaluation and re-valuation of profitable urban spaces for capital



Iturria: Egileak egina Smith (1979: 538-548) eta Clarken (1995: 1491) oinarritua.

Grafiko honen bitartez, azken batean, saiatu izan garena zera da, argi eta garbi erakustea EGIlraren teoriak, kapitalak produktibitate ekonomikoa bilatzeko orduan, benetan funtsezko faktoretzat hartzen duela espazioa. Izan ere, kapitala ez baita soilik eskulan merkeagoak eskain diezazkioken onurengatik mugitzen, baizik eta espazio "berri" bat ekoizteko eskaintzen zaion aukeragatik eta espazio horretatik atera ditzakeen errentagarritasun-zikloengatik ere.

Erdialde eta periferien arteko dialektika

Ikusi dugunez, korrelazioa dago leku batean gertatzen denaren eta beste batean gertatzen denaren artean, beti daude populazio- eta ekoizpen-tendentziak sortzen dituzten harreman ekonomikoak. Baina desberdintzapenaren eta berdinketaren arteko oszilazio-prozesu alternatibo horrek, denboran zehar eutsita, desberdintasun sakon eta jarraituak eragin ditu zentroen eta periferien artean, eta, gainera, agerian utzi du

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

hainbat indar sozialen eta forma instituzionalen bitartekari papera (estatu modernoarena edo enpresa-multzoena, besteak beste).

EGIrre prozesu historikotzat hartzen badugu, ikusiko dugu kontzentrazio-eremu garatuek, kapital-kontzentrazio txikieneko espazioek jasan duten marjinaltasunaren aurrean, zentralitatea lortu dutela. Aldi berean espazio batean dagoen guztiaren elkarketak eta topaketak definitzen du zentraltasuna. Beraz, modu logikoan nabarmentzen da, zentraltasuna zera dela: elkargunea, puntu batean (espazio zehatzean) batu daitekeen guztiaren aldiberekotasuna (denbora zehatzean).

Zentroak eta periferiak, edo bestela esanda, kontzentrazioa eta sakabanatzea bereizten dituen egiturak, esan bezala, oso prozesu indartsua sortzen du: kapitalen zentralizazioa (Smith, *ibid*) azken beltzean. Oro har, kontuan izan behar dugu kapitalaren kontzentrazioak eta metaketak ere erabakitzeko boterearen kontzentrazio bat dakartela bere baitan. Orain arte aipatutako guztiaren ondorioz, kapitalak elkarren artean elkartzen edo xurgatzen dira, eta hortaz, truke balioa gero eta esku gutxiagotan kontzentratu egin ohi da³⁸.

Smithek (*ibid.*) hausnarketa hori jaso eta espazioari aplikatzen dio, eta ondorio hau ateratzen du:

La centralización espacial es la centralización física de los valores de uso [...] No es que exista un mapa o una traducción automática de la centralización social a la espacial. Pues, aunque la primera requiere de la segunda, la urgencia que apremia a la centralización social del capital se expresa en una diferenciación geográfica asociada a la concentración del capital en determinados centros de producción.

Alde horretatik, ez gara kapital-diruaren zentralizazio espazialaz ari; izan ere, finantza-eta banku-eraikin soil batzuk ez lirateke zentro berriak eraikitzeke gai izango. Ordea, arestian azaldu dugunari buruz ari gara, metatze-prozesuan zehar lanaren banaketa aurrera egiten doa eta produkzio-prozesurako behar diren zerbitzuen eta jarduera

³⁸ Kapitalen zentralizazioaren teoria nabarmena, Marxek kapitalen metaketari eta kontzentrazioari buruz egindako hausnarketaren ondorioa da. Kontuan izan behar dugu Marxen ustez, enpresa eta kapitala ia sinonimoak izanik (enpresaburua eta kapitalista), zentralizazioa industria-enpresa batek beste batzuk xurgatzen dituen gertatuko litzatekeela, monopolio bat sortuz. Monopolio horrek, azkenean, klaseak are gehiago bereiztea ekarriko luke, batzuk aberatsagoak eta beste batzuk pobregokoak bihurtuz, eta horrek, ezinbestean, proletariotzaren iraultzan amaituko luke. Gaur egun, ikusten dugu zentralizatutako kapital handiek, puntu honetara iritsi aurretik eta aginte ekonomiko eta egitura korporatibo beraren pean egoteari utzi gabe, ekonomiaren hainbat sektoretan modu erdi-autonomoan parte hartzen duten barne-banaketak sortzen dituztela (komunikabide-industriaren jabegoetan ikus daiteke).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

osagarrien kopurua handitzeko joera ezartzen da; horrek azalduko luke, preseski, kapitalak berak ezarritako ekoizpen leku zehatzetan espazialki taldekatzeko duen tendentzia.

Zentraltasunak elementu periferikoak ezabatu, eta aberastasuna, ekintza-bitartekoak, ezagutza, informazioa eta kultura pilatzen ditu. Gainera, zentralitate horiek estandarizazio bat ezartzen dute eskulanaren kostuekiko, lan-baldintza onargarriekiko, abangoardia teknologikoekiko, sindikatuen antolamenduarekiko, eta abarreko, horrek maila globalean eragiten du, eta tendentziak sorrarazi. Gainera, garrantzitsua da lurralde-unitate bakoitzaren jatorrizko egiturak aitortzea, hala nola eguneroko bizitzaren merkantilizazioaren ondorio suntsitzaileen aurkako borroka sozialak (Harvey, 2006). Azken buruan, botere handiena sortzen du, hots, botere guztien kontzentrazioa: erabaki-hartzearen boterea. Lefebvreren arabera, industrializaziotik eratorritako urbanizazio prozesuak zentralitate globalaren forma berriak ekarri zituen. Aurreko gizarteetan (aurreindustrialetan), hirigintzea oraindik garatu gabe zegoenean, ezberdintasun bat zegoen landa eta hiriaren artean, “landakoa” eta “hirikoa” izatearen artean, eta dikotomia horrek espazio-forma zehatz bat zuen, egitura eta prozesu sozial batzuen emaitza, non landa-espazioak pisu handia zuen eta hiri-espazioa ez zen merkantzia soil bat. Marxek hiriaren eta landaren arteko erlazioaren inguruan egindako interpretazioa hasiera pausoa izan daiteke garapen kapitalistan nukleoak eta periferiak nola eratzen diren ulertzeko.

Aurreko lerroetan aipatutakoari dagokionez, azpimarratu behar da zentroa kapital-kontzentrazioarako toki bat dela, eta horrek lan-banaketaren aurrerapena erraztuko duela. Baina, gaur egun, hiriak eta espazio urbanoak guztiz zabaldua daude, eta diseinu-eta informazio-guneak dira, erakunde eta instituzioen erabakiak maila globalean hartzeko guneak. Erabaki- eta botere-guneak dira, eta lurralde mugatu batean gizarte bat osatzen duten elementu guztiak elkartzen dituzte. Horrela, erabakiak hartzeko zentro honek, informazio-kanal guztiak eta garapen kultural eta zientifikorako bitarteko guztiak barne hartzen ditu. Hertsadura eta pertsuasioa bat datoz erabakitzeko ahalmenarekin eta kontsumitzeko ahalmenarekin. Horrela, bada, antolamendu-asimetria ez da kapitalaren kokapen espazial-estrategiko geografiko absolutuan soilik gertatzen, baizik eta botere-esparru zabalagoetan gertatzen da (Sheppard, 2009); eta, horren ondorioz, EGIr delakoak aktibo sozioekonomikoen, influentzia geopolitikorako formen, hegemonia politikoaren eta eguneroko bizitza-baldintzen banaketa oso polarizatua eragingo luke (Brenner, 2009).

En cada caso la relación entre la centralidad mental y la centralidad social debe ser definida. Y también deben definirse las condiciones de su final: estallido, explosión, ruptura. La centralidad se desplaza. (Lefebvre, 1974: 366).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Desplazamendu horiek etengabe gertatu ziren antzinako greziar gizarteetan, non hiri-espazioaren zentraltasunak aldatuz joan ziren, magistratuen eta buruen hemiziklotik tenplura eta, ondoren, Agorara. Horrek hiri-espazioaren eta hiri-bizitzaren erritmo edo denboren arteko lotura erakusten du. Era berean, hiri modernoak bere baitan izandako zentralitate-aldaketak ere nabarmenak dira. Parisen adibidez, azken bi mendeetan, zentroa Bulebarretik Montmartre eta Eliseo Zelaietara lekualdatu dute. Gure garaiari erreparatzen badiogu, argi dago zentralitateak desagertu egiten direla, haiengandik sortutako gehiegikeriengatik, periferiez gogaituak edota isolatuak daudelako. Horrela, industrializazioan eta sasoi fordistan zehar, industria-eskualde handiek eta inguruko industria-sateliteek etengabeko hazkunde demografikoa eta industria-hedapena izan zuten (Dunford eta Perrons, 1994; Rodríguez-Pose 1998).

Bitartean, industriaren mendeko enpresek eta enpresa filialek, *inputen* eta zerbitzuen hornitzaileak eta mendeko beste funtzio ekonomiko batzuk kanpoaldera eta eremu periferikoetara baztertu zituzten nagusiki (Scott eta Storper, 2003). Metaketa-erregimen fordistaren 1960ko hamarkadan, heldutasuna lortzen zuen heinean, joera deszentralizatzailerik hori areagotu egin zen eta enpresa handiak beren sukurtsalak leku periferikoagoetako erdiguneetan modu zabalagoan birkokatzen hasi ziren (Massey, 1984), beste zentralitate batzuk sortuz.

Laburbilduz, Lefebvreren ustez (1978), lehen hiri-zentralitatearen erdigune edo puntu gisa zehaztu zitekeena, gaur egun ezinezkoa da, zentralitatea orain zentralismo totalizatzailearekin nahasten baita. Izan ere, zentroa aberastasunak, bitartekoak, ezagutzak, kultura eta abar metatzen hasiko litzateke, eta hiriar buruzko erabakiak hartzeko boterea bere gain hartuko luketen botereen eta interesen kontzentrazio bat lortuko luke.

Edward Sojak (2000), "exopolis" kontzeptuaren bidez, hiri-espazioan zein globalean zentralitateak nola sakabanatzen diren azaltzeko balio duen teoria hau erabiltzen eta eguneratzen du. Estatu Batuetako geografoak, egungo hirietan, hiriaren magnitude fisikoaren ondorioz, erdiguneak periferietan ugaritzen direla baieztatzen du. "Exo" hazkunde horrek, kanporantzkoa, hazkundeari ez ezik, globalizazioaren aroan hiri-espazioa osatzen duten kanpoko indarrei ere egiten die erreferentzia.

Bitxia bada ere, interes kapitalistak dituzten kanpoko indar horiek zentro klasikoetan eta hiri zentrolean jartzen dituzte begiradak, eta horrek globalizazioa eta hiri-forma definitua eragiten du

como el producto tanto de una descentralización como de una recentralización, de la desterritorialización como de la reterritorialización, de la continua expansión y de una

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

intensificada nucleación urbana, de una creciente homogeneidad y heterogeneidad, de integración socio-espacial y desintegración. (Soja, ibid.: 355).

Koherentzia egituratu moduko batean gertatzen da hori, kontsumo-moduak, orain arte aipatutakoaren ondorioz, geografikoki ere bereizita daudelako aberastasun- eta botere-kontzentrazioen arabera, hau da, kontsumitzaileen boterearen arabera mundu bereizia eta kontsumo-lehentasanak garapen geografiko irregularren determinatzaile garrantzitsu gisa sartzeko dira hemen (Harvey, 2006).

Ikusi dugun bezala, fenomeno urbanoaren funtsezko puntuetako bat zentralitatea da, baina zentraltasun hori, hura sortzen edo suntsitzen duen mugimendu dialektikoarekin batera ulertu behar da. Horrela, "zentralitatearen dialektika" ez da soilik espazio zehatz batean elkartutako objektuen arteko elkarrekiko mendekotasun kontraesankorra, baizik eta zentroaren eta periferiaren arteko oposizioa, bilketa eta sakabanaketa, inklusioa (zentrorantz) eta bazterketa (periferiarantz). Edozein puntu erdigune bihurtzeko daitekeela, espazioa denboraren eskuetan eta honen mesedetan txikiagotzen ari dela esan nahi du. Arintasuna eta malgutasuna gure garaiko egitura espazialen identitateak dira.

Bestalde, produkzio-logiken arabera, zentroaren eta periferiaren, zentralitateen eta deszentralitateen arteko alde hori, nazioarte mailara estrapola daitekeela uste dugu, non eskualde edo lurralde zabalago batzuek periferiekiko kodependentzia harremana sortzen duten. Erdiguneko eta periferiako eskualdeen arteko aldeak kapitalismoaren gizarte-harremanen adierazpen materialak dira, baita, denboran zehar, hauen ekoizpenarenak eta erreproduzioarenak ere. Neurri handi batean, arestian aipatutako "gorabeheraren teoria" eragingo du mundu mailako erabakiak hartzeko puntuak leku batean edo bestean kokatzeak.

Espazioari buruzko atalean aipatu dugun bezala, pertsonen, produkzio-baliabideen eta kapitalen kontzentrazioak, erdiguneak eta area zentralak metaketa kapitalistarako eta ekoizpen bitartekoen gaineko kontrolerako aparteko lekuak bihurtzen dituzte. Botere politiko eta arautzailearen eta kontrol sozialaren jardueran aglomerazio espazialak duen eraginkortasunak, eta hurbil dauden ekoizpen-jardueretatik eratorritako metaketaren kokapenean nolabaiteko kausalitate metagarriak, urbanizazio-maila handia duten eskualde eta lurraldeak EGIRRaren eta espazioaren desberdintzapena eraketarako leku estrategiko bihurtzen ditu. Horrela, lurzoruaren errentaren zuzeneko emaitza gisa, desberdintzapen urbanoaren patroien bitartez, ardatz bitar bat eratzen da, normalean periferiako lurzoruaren errenta baxuetatik zentroko errenta altuenetara doana.

Zentralizazio geografiko hori ez litzateke existituko periferia antitetikorik gabe. Baina zentro-periferiako azaleko antolamendu geometriko honek kapitalismoaren klase-egitura espezifiko baten ondorio den adierazpen geografiko bat ezkututzen du. Sojaren

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa


ustez (1985), gizarte-egituraren eta espazio-egituraren tartekatzea, ez da bata bestearen gain, espazio burges eta proletarioen arteko banaketa agerian utziko lukeen mapeo soil bat. Lehenik eta behin, jakin behar dugu espazialitate kapitalistaren egitura hierarkikoak, eskala desberdinetan nukleoak eta periferiak dituela (Smith, 1984). Gainera, proletalgo eta burgesiaren arteko klase-mugak kapitalismoan batzuetan lausoak direnez, are gehiago gaur egun; gizabanakoak batean edo bestean esleitzeko zailtasunak existitzen diren moduan, arazoak ere badaude toki geografiko guztiak argi eta garbi “nukleoan” edo “periferian” esleitzerakoan. Kontuan hartu behar dugu, beraz, egitura antagoniko zurrun horren arintasuna. Izan ere, batzuetan, hirietako erdiguneak bezala, eremu eta eskualde zabalenak ere aldatzen dira, baina horrek ez du inondik inora ere esan nahi zentro-periferia harremanen esangura estrukturala espazio kapitalistan suntsitu egiten denik.

Comienza con la acumulación primitiva [...] que aparece como un proceso permanente en la acumulación y concentración de capital, y se expresa, en última instancia, como centralización de los capitales existentes en unas pocas manos y en su privación para muchos otros (a quienes se les ha aplicado la expropiación). Este proceso centrípeto pronto produciría el colapso de la producción capitalista, si no fuera por las tendencias contrarias que tienen un continuo efecto descentralizador. (Marx, 1894 [2013])

Marxek (1867 [1975]) adierazi zuenez, “el capital crece en grandes cantidades en un lugar y bajo una sola mano porque muchas otras lo han perdido en otro sitio”. Garapen irregularraren teoriaren oinarriak, parekatze-desberdintzapen eta desjabetze mugimenduak Marxen idazkietan hauteman ditzakegu.

Hurrengo grafiko honek, laburpen gisa, espazio eta kapitalaren harremana irudikatzen du. Gogoan hartu behar dugu, guretzat espazioa ez dela gauza huts bat, eta nahiz eta kapitalismoan merkantzia moduan tratatu, bestelako zentzuak dituela, oro har, biztanleriak (baldintza historiko eta materialak medio) eman nahi dizkionak, bizipenen bidez eta bertan bizitzearen bidez. Egituratutako egitura egituratzailea izateak espazioaren ulerkerak zabaltzen ditu.

Irudia 2: Kapitalaren ibilbideak espazioan



Iturria: Egileak egina.

Espazioaren politika berri baterantz? EGIRRAREN KRISTALIZAZIOA

Grafikoan ikusi ditugun suntsitzeko eta sortzeko, zein zentralizatzeko eta periferizatzeko une horiek, ez dira eskala bakar batera mugatzen; are gehiago, historian zehar hirien eta hiri-espazioen berrantolaketa espazialek ondorioak eta inplikazioak desberdinak izan dituzte gizarteko hainbat sektoretan, bai eta goi-mailako eskaletan ere, alderantziz ere esan daiteke, beraz, estatu-nazioekin edo eskualdeekin. Ildo beretik, aurrerago ikusiko dugun moduan, joera eta egitura ekonomiko handietan arreta jartzea beharrezkoa da, baita dagoeneko azaldu ditugun garapen irregularraren ereduengan artekari diren indarrek ere (Cox, 2002). Desberdintzapen geografikoa sortzeko eta kristalizatzeko indar desberdinek izan duten funtzioa ulertzeko, Brennerek (2010) beharrezkotzat jotzen du Lefebvreren "espazioaren politika" (1976) ikertzea, historikoki espezifiko den polarizazio sozio-espazialaren egitura azaltzeko.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

1970eko hamarkadaren hasieran, Lefebvrek plangintza espazialaren inguruko estrategia landuei buruz gogoeta egin zuen, instituzio publikoak eta oro har, Estatuak (lokalak, nazionalak edo supranazionalak) begitan izan zituen. Lefebvreren ustez, Europa, nazio, eskualde eta toki mailan, espazioan ondorio zuzenak dituen urbanizazioa kudeatzeko estatu-estrategien ugaritzeak agerian utzi zuen espazialitate kapitalistaren berezko izaera politikoa. Keynesianismo espazialaren berezko estrategia eta mekanismo instituzionalak (Brenner, 2004), oso garatuta egon ziren 60ko eta 70eko hamarkadetan Europan. Aurrerago ikusiko dugun bezala, ezagutza teknokratikoko eta botere politiko-instituzionaleko hainbat moduren mobilizazioa ekarri zuten; nazio, eskualde eta toki mailako lurralde bakoitzean, ekoizpen, truke, garraio eta ugalketa biologikoko geografiak ekoiztu, manipulatu, administratu eta arautzeko. Eta estrategia horiekin lotutako irudi teknokratikoa, apolitikoa eta neutrala gorabehera, lehen atalean aipatu duguna gogoraziz, espazioa ahistoriko eta ideologiarik gabeko gauzatzen hartu zen, bigarren mailako ondorioak sortuz eta eztabaida eskalarrak eraginez (Lefebvre, 1977; 1978; 1979).

Hala ere, espazio-plangintzako eta azpiegituretan inbertitzeko sistema nazionalizatuak zatikatzen eta berdesberdintzen ari dira, estatuak tokiko hazkunde-poloak estrategikoki birkokatzen saiatzen ari diren heinean, kapitala inbertitzeko nazioz gaindiko zirkuituen barruan, eta ez nazio-mailan auto-itxita dauden lurralde-ekonomien barruan. (Jessop, 1994; Brenner, 1998; Jessop et al., 1999). Hala eta guztiz ere, Estatuak espazialen formak, mekanismoak eta helburuak funtsean birbideratu eta berregokitu direnean ere, Lefebvrek izandako azpi-intuizioek, espazioaren izaera politiko endemikoari dagokionez, beti bezain indar handiz jarraitzen dute durundatzen. (Lefebvre et al., 2010). Marko teoriko honen bigarren atalean ikusiko dugunez, eta bide batez hasiera moduko bat eskainiz, gaur egun estatuaren (nazionalaren) indarren hustutze bat eman dela baieztatu dezakegu (Goikoetxea, 2018). Honek estrategia espazialengan eragina izan du eta horregatik, estatu nazionalaren papera aztertzea izango dugu lehenik eta behin izpidetzat. Estatu nazionalaren botere-hustutze hori (*hollowing out*), norabide bikoitzean gertatu da, alde batetik, entitate supranazionalen indartzea eragin du, baina estatu lokalak (tokiko estatuak edo hiri-gobernuak) ere bere ahalmen-boterea handitu du.

Egun, Brennerek (2004) adierazten duenez, bizi garen garai honetan garapen irregularreko eta zentro-periferia polarizazioko forma kualitatiboki berriak daude Europako eskala geografikoan (jada ez nazionala), baina hala ere, forma hauek, nazio, eskualde eta tokiko eskaletan ondorioak dituzte (Dunford eta Kafkalas, 1992; Lever, 1996; Moulaert, 1996). Garapen espazial irregularreko Europako geografia berri hauek lotura estua duten lau joeraren azalpenarekin uler daitezke:

- **“Metropolitanizazioa” eta uhartediko ekonomiaren gorakada:**

Sektore ekonomikoen eraldaketek eta azken lau hamarkadetako enpresa-metaketako estrategia berriek, hirigune eta eskualde aurreratuen eta oso garatuen, eta atzeratutako eremu periferikoen artean ezarritako espazio-banaketak indartu dituzte (Amin eta Tomaney, 1995). Gero eta hegazkortasun geoekonomiko handiagoa dagoen arren, mendebaldeko Europako metropoli-eremu nagusiek aurreko garaietatik oinordetzan hartutako bi kokapen-abantaila nagusi ustiari ahal izan dituzte: komunikazio- eta garraio-sare aurreratuen barruan dituzten posizio estrategikoak, eta kalifikazio handiko langile-kontzentrazio handiak (Dunford eta Perrons 1994; 172-3). Ondorioz, 1980ko hamarkadaren hasieratik, mendebaldeko Europako ekonomiaren barruan hiri metropolitano nagusien garrantzi estrategikoa nabarmen handitu zen. Veltzek (1996) "Metropolitanizazio-prozesu" gisa aurkezten du joera hori, eta bi zati dituela dio. Alde batetik, balio erantsi handiko gaitasun sozioekonomikoak, azpiegitura aurreratuak, industria-hazkundera, barne-inbertsioa eta eskulan-fluxuak gero eta gehiago metatzen direla metropoli-eskualde nagusietan, oinordetzan hartutako joera egituratzaileei jarraiki. Beste aldetik, erdialdeko hiri-espazioen eta hiri eta eskualde periferikoen arteko lurralde-desberdintasunak nabarmen areagotzen direla Europako ekonomia osoan. Metropolitanizazio-joera horiek Europako hiri-sistema nazionalen barruko hainbat aldaketa espazialeetan gauzatu dira azken hiru hamarkadetan. Aldaketa horiek Parisera eramaten gaituzte (kalifikazio handiko enplegu-kontzentrazioaren ardatz gisa eta Frantziako Produktu Nazional Gordinaren % 30 baino gehiagoko kontzentrazio puntu gisa) (Veltz, ibid.); Alemaniako hiri nagusietara, hala nola München, Berlin, Hanburgo edo Frankfurt (kudeaketa- eta kontrol-funtzioen kontzentrazio puntuak); Londresera (finantza-sektoreko eragile nagusi gisa) (Sassen, 1991); eta, azkenik, Randstad neerlandera (puntu logistiko eta korporatibo garrantzitsu gisa) (Dieleman eta Musterd, 1992).

Gainera, Europako Merkatu Bakarra kontsolidatzeak izan zuen garrantzia azpimarratu behar da, metropolitanizazio-prozesuan sakondu eta lurraldeen arteko desberdintasunak betikotu zituzten indar zentripetoak eragin baitzituen (Cheshire, 1999). Ildo horretatik, 1970eko hamarkadaz geroztik, Europako industria berregituratzeko prozesuek "self-reinforcing polarization of high-level Activities in well-resourced and well-connected nodes" (Dunford eta Perrons, ibid.: 173) sortu dutela egiazta dezakegu, oinordetzan hartutako egitura berberen mende. Horrela, bada, "uhartediko ekonomia" lortuko genuke, Veltzen arabera (1997:83):

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Metropolitan growth creates autonomous centres of development that benefit more from their networked horizontal relationships with other large poles, than from their traditional vertical relationships with the *hinterland*.

- **Nazioz gairik hiri-hierarkiak eratzea:**

Egia da, Europako industrializazio eta egonkortasun urteetan, ekonomia nazional bakoitzak hiri, auzo, industria-eremu eta eremu atzeratuaren barne-hierarkia oso ondo definitua zuela, eta ekoizpen prozesu fordistak zituen funtzio espezifikoak mende egon arren, estrategia espazialek, espazioen oreka bilatu izan zuten. Gaur egun, industria berregituratzeko, globalizatzeko eta Europako integratzeko prozesuek hiri-sistema transnazional berriak eratzen lagundu dute, horrela, globalki integratuak dauden hiriak gero eta estuago erlazionatzen dira, eta, aldiz, toki behartsuak eta eskualde ahulak gero eta baztertuago daude.

1980ko hamarkadan, olatu neoliberalaren eraginez, atzerriko zuzeneko inbertsioa hazi egin zen mendebaldeko Europan, fusioen eta erosketen bidez. Horrela, lanaren, ekoizpenaren eta merkataritzaren enpresa gaineko kontrola deslurratzen egin zen, kontrola transnazionalizatuz eta tokiko eskala anitzetan birlokalizatuz (Amin eta Malmberg, 1994). Garapen horren ondorioz, hiri globalen sare bat osatu da, eta kudeaketa, finantza eta kontrol korporatiboko funtzio aurreratuak zentralizatu dira (Taylor eta Hoyle, 2000). Hiri globalen ekonomia horiek, sarritan Europakoak (Londres, Paris, Amsterdam, Frankfurt, Zúrich edo Milan), lehen eskualdeko zentroetan edo hiriburu nazionalen biltzen ziren administrazio- eta kudeaketa-funtzio asko biltzen dituzte.

- **Metropoliaren arteko polarizazio berria:**

Eraldaketa sozioekonomikoek eragin dituzten lanaren banaketa espazial berriek, lehen aipatu ditugun oinordetzan hartutako garapen urbanoaren egiturak aldatu dituzte. “Lurzorua errentaren” teoriarekin ikusi ahal izan dugunez, desindustrializazio- eta berrinbertsio-prozesuak sakondu ahala, nazioarteko sistema urbano guztia, nazioarteko merkaturak eta lanaren nazioarteko banaketa berriak posizio estrategikoa lortzen saiatzen diren hiri eta eskualdeen arabera banatzen da:

Relatively stable mosaics of uneven regional development have suddenly become almost kaleidoscopic. Once highly industrialized and prosperous core regions have been experiencing accelerated economic decline and deindustrialization, while many poor peripheral regions [...] have become

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

new centres of industrial growth and expansion. These 'role reversals of regions' [...] reflect what has been the most extensive geographical decentralization and internationalization of industrial production since the origins of industrial capitalism. (Soja, 1989: 172).

Egoera honetan, hiri-landa banaketa tradizionalaren arintzea areagotuz joan da, enplegu-, populazio- eta inbertsio-mailetan agertzen diren desberdintasun urbanoen ordez (Läpple, 1985). Nazio-mailan, Erresuma Batuan, Italian edo Alemaniako Errepublika Federalean, esaterako, iparraldearen eta hegoaldearen arteko banaketaren inguruko eztabaidak ugariak dira. Diferentziazio horrek desindustrializazioaren, langabezia masiboaren eta hiri-gainbeheraren arabera eremu nazional bereko eskualdeak bereizten ditu. Gainera, tokiko eskalara begiratuz, Sojaren gogoeta ekar dezakegu aurrera. Gure kasu praktikoetan ikusiko dugunez, Bilbon eta Bartzelonan lehen industria zonaldeak zirenak, egun bestelako funtzio ekonomikoak betetzen dituzten eremuak dira. Industriaria emandako espazioak lekuz mugitu dira eta auzo zein espazio periferikoagoak okupatzen dituzte gaur.

- **Marjinazio- eta bazterketa-eremu berriak:**

Europar, nazioz gaindiko enpresek balio erantsi txikiko funtzio ekonomikoak kanporatzen jarraitu izan dute (zentzu geografikotik), hegoaldeko eta ekialdeko eremu periferiko eta erdi-periferikoetara (Hadjimichalis eta Sadler, 1995; Nilsson eta Schamp, 1996). Horrela, Portugalen, Espainian, Italiako hegoaldean, Grezian edo Polonian, langile kualifikatuen eta industria, garraio eta komunikazio azpiegitura aurreratuen gabezia duten eskualde eta hirietan ezinezkoa izan da joera ekonomiko desarautzaile neoliberalak gelditzea (Moulaert, ibid.). *Path dependece*-a eta mekanismo instituzional bermatzaileen faltak alternatibak bilaketa ere oztopatzen du.

Sintesi moduan, Brennerek (ibid.) Europako geografia berria horrela laburbiltzen du: lehenik eta behin, "metropolitanizazioa" eragin duten gaitasun sozioekonomikoen kontzentrazio handiagoa gertatu dela (kualifikazio handiko laneskua eta azpiegitura aurreratuko inbertsioak metropoli-eremu nagusietan kontzentratu direlako). Bigarrenik, gero eta bereizketa handiagoa dagoela tokiko eta eskualdeetako ekonomien artean, espezializazio berezien arabera eta munduko eta Europako lanaren banaketa espazialaren arabera. Azkenik, globalismoaren eta metropoli-mendekotasunaren arteko lotura handiagoa identifikatzen du Brennerek. Honek "uhartediko ekonomiarantzko" joera eragiten du, azken lau hamarkadetan mendebaldeko Europar sortu den espazio-(des)orden berriaren ezaugarritzea.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Aipatutakoarekin lotuta, Blanco eta Subiratsek (2008) zenbait aldagai azaltzen dituzte prozesu horiek hirietako espazioetan dituzten ondorioak ulertzeko. Haientzat, orain arte aipatutako joerek lurralde-segregazioa eta desberdintasun soziala eragin dituzte praktika urbanoan.

Taula 3: Joera espazialak "Desberdintasun soziala" eta "Lurralde-segregazioa" balioen arabera

		Lurralde-segregazioa	
		Baxua	Altua
Desberdintasun soziala	Baxua	Espazio inklusiboak	Espazio zatikatuak
	Altua	Espazioa desorekatuak	Espazio baztertzailak

Iturria: Blanco eta Subiratsen (2008;2018) oinarrituta.

EGIrraren patroien kristalizazioa

Egiaztatu ahal izan dugunez, “los patrones del DED cristalizan en la interfase entre configuraciones socioespaciales heredadas y estrategias espaciales emergentes orientadas a su transformación” (Brenner, 2009: 31). EGIrra hainbat eskalatan sortu eta erreproduzitu daiteke, tokiko mailatik globalera, eta gizarte-harreman kapitalisten kontzentrazioarekin bitartekari eta emaitza gisa agertzen da (Soja, 1985). Ildo honetatik, argudio hau planteatzen dugu: kapitalismoan eta kapitalismo berantiarrean izan ohi diren ekonomiaren tendentzia aldaketek eta, orokorrean, botere-harreman desorekatu baten markoan ematen diren gizarte-prozesuek modu zuzenean eragiten dute leku zehatz batean ematen den estrategia eta egituratze prozesu espazialean.

Beraz, kapitalismoan gertatzen den garapen irregularra sortzen duten tendentzien inguruan, kapitala metatzen duten prozesu geografikoek bere baitan duten kontraesana nabarmendu behar da. Alde batetik, sakabanatze espaziala sustatuz, espazioa zentrifugatzeko joera baitute; eta, bestetik, espazioarekiko duten mendekotasuna dela eta, kontzentrazio espaziala sustatzen dutelako. Horrek parekatze eta desberdintzapen joeretara eramango gintuzke, onurak maximizatzeko bilaketan, espazioaren birbanatzea eta, ondoren, desoreka espaziala izango litzateke.

Prozesu horiek “suntsipen sortzailearen” piztaileak dira, eraikitako hiri-espazioen narriadura fisikoari erreferentzia egiteaz gain, hainbat forma sozioekonomiko eta instituzionaletan ere islatzen dena. Ildo beretik, askotan joera horiei erantzuteko, maiz errepikatzen dira "irtenbide espazialak" espazio jakin baten barruan ekoizpenerako eta

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

kontsumorako koherentzia egituratua mantentzeko helburuarekin (Harvey, 1985b: 146). Konponketa eta soluzio horiek finituak dira beti, hau da, iraunkortasun eta egonkortasun ahula dute. Horrekin guztiarekin, kapitalismoaren geografiak aldakorrak, ezegonkorak, etenak eta desorekatuak direla ikus dezakegu.

Jarraian, kapitalismoaren egungo egituraketaren ezaugarri diren dimentsio sozioespazial nagusietan, garapen irregularraren oinarriak nola bilakatu eta gauzatu diren aztertu nahi dugu. Fordismo keynesiarraren oinordetza gisa (arestiko atalean aipatu izan duguna eta hurrengoan ere azalduko duguna), eta gainbehera-uneak ekarri zituen desindustrializazioaren ondoren, garapen irregularra, kapitalismo global ezegonkor baten geografia eta tendentzia berriak egituratzeko bitartekaria eta emaitza izan da. Estatuaren garrantzia (nazionaletik lokaleraranzko norabidean) eta honen ahalmen arautzailea zenbateraino den berreskuragarria jakiteko aukera izango dugu. Era berean, Estatu lokalak hartuko duen berebiziko garrantziaren inguruan ere arituko gara, izan ere, garapen irregularraren kristalizazioak hiri-espazioetan antzemango dira.

II. BLOKEA: NEOLIBERALISMOAREN DIMENTSIO BERRIAK. SUNTSIPEN SORTZAILEA ESTRATEGIA GLOKAL GISA

3. FORDISMO (KEYNESIANISTATIK) BENETAN IZATEDUN
NEOLIBERALISMORA: kapitalismoaren konfigurazio geografiko berriak

Neoliberalism may be a loose and adaptable term (this does not mean that) we should abandon it, any more than we should abandon the terms 'capitalism,' 'socialism,' or 'liberalism' just because they are open and contestable in meaning. Neoliberalism is semiotically loose, but designates something very specific. It represents a distinctive kind of valorization and liberation of capital. It makes economics the model of everything [including the] economization of democracy.

Wendy Brown (2018: 3)

Gure marko teorikoaren hurrengo atal hau, hasteko, Brennerek (2009) EGIRRAREN inguruan identifikatutako 4 proposamen teorikoetan oinarrituko da: parekatzea eta bereizketaren ondorio sortzen den mugimendu alternatiboan; erdigunearen eta periferiaren arteko bereizketa maila globalean; EGIRRAREN bitarteko diren indar instituzionalen garrantzian (Lefebvreren “espazioaren politika”); eta EGIRRAREN patroien kristalizazioa heredatutako egituren eta sortzen ari diren estrategia espazialen arteko trantsizioetan.

Azken bi puntu horietan jarriko dugu arreta, Estatuko erregulazio-botereetan aldaketak nola gertatu diren eta hirietako geografia sozioespazialean zer ondorio dituzten jakiteko. Eta, bestetik, Jessop eta Brennerek zenbait lanetan identifikatzen dituzten lau

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

dimentsio sozioespazialei erreparatuko diegu (Lekua edo Tokia, Lurraldea, Eskala eta Sarea). Horiek izango dira hain zuzen erabiliko ditugunak EGIRRaren gauzatzea azaltzeko.

Hortaz, kapitalismoaren geografia polimorfikoetan ematen diren EGIRRaren eboluzio-ereduak aztertu behar dira, espazio sozialaren izaera polimorfikoa modernitate kapitalistan, alegia. Horrela, aipatutako dimentsio horietan oinarrituta, zera ulertzen saiatuko gara: eraldaketa sozioekonomikoen prozesuak, azken batean, espazioaren garapen irregularraren logiken mende daudela eta kapitalismoaren dimentsio sozioekonomikoetan hainbat modutan gauzatzen direla ulertzen saiatuko gara.

David Harveyk (2005: 87) proposatzen duen "neoliberalizazioak 1970. urtetik aurrera munduan izandako aurrerapenaren mapa mugikorrak" esparru kognitibo gisa balioko digu neoliberalismoaren erregulazio- eta konpentsazio-aldaketa etengabea ulertzeko. Horrek aukera emango digu ulertzeko nola lotzen diren tokiko joerak joera global eta nazional zabalenekin, neoliberalizazio-prozesuen bidez gertatzen diren garapen geografiko irregularraren korrante nahasiak errepikatuz (Brenner, 2010).

Baina EGIRRak zenbait sozioespazialitatetan egindako kristalizazioaren azalpenarekin hasi aurretik, orain arteko esparru sozioekonomikoa aztertu behar dugu. 1970eko hamarkadatik gaur arte gertatu diren trantsizio eta desegituraketek joko-arauak aldatu dituzte. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu, lehenik eta behin, fordismo-keynesiarraren gainbeheratik, Europako paradigma ekonomikoan gertatu diren aldaketak testuinguruan kokatzea eta aztertzea; izan ere, estrategia neoliberaleri lotutako gaur egungo garapen irregularreko prozesuak, aurretik gertatutako ibilbidearen menpekoak dira (*path dependence*) (Brenner et al., 2010 eta 2010b; Dunford eta Perrons, 1983).

Un análisis del neoliberalismo realmente existente, entonces, debe comenzar por explorar aquellos escenarios donde la regulación capitalista se ha consolidado: escenarios derivados del periodo fordista-keynesiano de desarrollo capitalista, en el marco del cual se activaron por primera vez los programas neoliberales tras la crisis geoeconómica de comienzos de los setenta. Desde esta perspectiva, los impactos de las estrategias neoliberales no se pueden comprender adecuadamente mediante un análisis abstracto y descontextualizado de los méritos relativos de las iniciativas reformadoras basadas en el mercado, o de los supuestos límites de ciertas formas específicas de políticas estatales. (Theodore et al., 2011: 19-20).

Horregatik, fordismoaren sistema eta egitura geoekonomikoa aztertzen hasiko gara. Termino horrekin jada ez gara zuzenean eta soilik industria-soziologia tradizionalari buruz ari; izan ere, "fordismoa" interesatzen bazaigu, erregulazioaren teoriak terminoaren esanahiaren lausotzea egiten duelako da. Henry Fordek 1914an Highland Parkeko automobilak fabrikatzeko enpresan sartutako "muntaketa-lerroa" fabrika-sistemarekin lotuta, gaur egun, fordismoa, masa-ekoizpeneko eta produktibitatea

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

areagotzeko modu orokor bat deskribatzen duen eredu ideal bat dela esan genezake: “It could refer in narrow terms to the employment of semi-skilled labour on a moving assembly line or in broad terms to the spread of the American way of life under the impact of mass production and mass consumption” (Jessop, 1992: 43).

Jessopek fordismoaz aurkezten duen bigarren ikuskera hori, oro har, 1950eko hamarkadara arte iraun zuen eta bigarren mundu-gerraren ondoren finkatu zen³⁹, politika-ekonomikoa, aldiz, 29ko crackari erantzuteko sortu zen eta iraupen luzeagoa izan zuen (Altvater, 1992). Ikuspegi berri hori eskariaren estatu-kudeaketa berriarekin erlazionatzen dugu, baita zerga-politikekin eta kontsumo-politikekin ere, gizarte-ongizatearen⁴⁰ bilaketa etengabeagatik gidatuta (Esser eta Hirsch, 1989). Hala, Frederick Winslow Taylorek *The Principles of Scientific Management* 1911n plazaratutako liburuan iradoki ez zuen bezala, fordismoa fabrikaren antolaketa-egitura modernizatzeaz haratago doa eta Estatu nazionalaren beharra izan zuen entitate bermatzaile gisa.

Jessopen arabera (1992: 47-53), fordismoa lau ardatz nagusiren bitartez uler daiteke: sortzen den lanaren banaketaren bitartez; metatze-erregimen gisa; erregulazio ekonomikorako gizarte-egitura moduan; eta “sozializatze” modu gisa. Eskema horrek, aurrerago, fordismoaren eta post-fordismoaren edo “benetan izatedun neoliberalismoaren” arteko oinarritzko desberdintasunak alderatzeko balioko digu.

Lehenik eta behin, gorago iragarri dugunaren antzera har genezake fordismoa, hau da, lan kapitalistaren prozesu desberdin baten antzera. Ildo honetatik, fordismoak ondasun

³⁹ Lehenengo industria-iraultzaren eta Lehen Mundu Gerraren artean herrialde kapitalista aurreratuenetan nagusitu zen metatze-erregimena nagusiki hedakorra izan zen, eta ekoizpen-bitartekoen ugalketa hedatuan oinarritu zen. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, erregimen nagusia kontsumo masibo eta intentsiboaren hazkundera zentratu zen (Lipietz, 1987).


⁴⁰ Horregatik, neurri handi batean, egile askok (Neil Brenner, Bob Jessop edo David Harvey) “fordismo keynesiarra” terminoa erabiltzen dute, John Maynard Keynesek ezarritako teoria ekonomikoaren balioa nabarmentzeko, batez ere 1936ko *The General Theory of Employment: Interest and Money* liburuan aurkeztua. Horren arabera, kontsumoa da jarduera ekonomiko ororen xedea, eta kontsumorik gabe eta ondasun-eskari eraginkorrik gabe, ez dago pizgarririk, ez inbertitzeko ezta produzitzeko ere. Hori bermatzeko, keynesianismoak fordismoaren arauketa politikoa eta estatala proposatu zuen. Arazo sozial eta ekonomiko larriak, batez ere langabezia masiboa, deflazioa eta industria-ekoizpenaren etengabeko murrizketa, gastu publikoaren bidez konpontzeko aukera eskaintzen zuen. Esparru horretan, *laissez faire* liberalaren disfuntzionaltasuna ordeztzen zuten ideia ekonomiko keynesiarrak lehenetsi ziren (Hobsbawm, 1994).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

estandarizatuen fabrikazio mekanikoan oinarritutako lan-banaketaren konfigurazio tekniko eta sozialari egingo lioke erreferentzia. Masa-ekoizpenari buruz aipatzen genuena etengabe mantendu beharko litzateke, epe luzerako aurreikuspenekin, ekoizpen-erregimen antzeko bat sortuz. Ekoizpen-egitura uniforme honek ondorioak izan zituen lanaren banaketa espazialean bertan; izan ere, lanaren banaketa teknikoak, hau da, langile bakoitzaren espezializazio indibidualaren mendekoak, eragin zezakeen, adibidez, ingeniariak "a" eskualdean kokatzea, produkzioa eta diseinua "b" eskualdean, eta kualifikatu gabekoak "c" eskualdean kokatzea (Lipietz 1982), eta hortaz, garapen irregularraren hasiera eragin zezakeen.

Bestalde, fordismoa metatze-erregimen gisa uler dezakegu, hau da, egituraren erreproduzioari eusten dion erregimen makroekonomiko gisa. Fordismoaren izaerari eta logikari buruzko eztabaida batzuek, autozentrismoan⁴¹ eta zirkuitu zirkular itxian jartzen dute arreta.

Irudia 3: Erregimen fordistaren sorgin gurpila



Iturria: Egileak egin Jessopen (1992) oinarrituta.

Hazkunde-modu fordista gerta dadin, ez da beharrezkoa enpresa edo ekoizpen-adar guztiak teknika fordisten mende egotea sektore liderrek modu fordistak jarraitzen dituzten bitartean. Izan ere, masa-ekoizpenak masa-merkatu bat aurkitzeko, hazkunde baliokidea egon behar da beste ondasun mota batzuen (altzairua, petrolio, errepideak,

⁴¹ Hau da, kapitalaren zirkuitua batez ere muga nazionalera mugatzen dela.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

familia-etxebizitzak eta elektrizitatea) eta zerbitzuen (txikizkako salmenta, kontsumorako kreditua eta kontsumo-ondasun iraunkorren zerbitzuen) ekoizpenean.

Baina azterketa ekonomikoa besterik ez dirudien horrek, atzean, “erregulazio ekonomikoaren gizarte-eredu” (EEGE) batek araututako erakunde eta instituzioez osatutako egitura du. Hain zuzen ere, azpimarratu beharreko laugarren ardatzak erakunde, antolamendu-egitura, sare, arau eta jokabide-eredu guztiak bilduko lituzke, horiek baitira azaldu berri dugun metaketa fordismaren erregimenaren oinarria.

Taula 4: Fordismoaren metaketa erregimenaren erregulazioan parte hartzen duten forma instituzionalak

Soldata erlazioa	<p>Hitzarmen kolektibo lotesleak. Zuzendaritzak sindikatuei aitortzen die negoziazio kolektiborako ahalmena, eta sindikatuek, berriz, lan-prozesua antolatzeko eta estrategia korporatiboa definitzeko eskubidea ematen diote zuzendaritzari.</p> <p>Soldata produktibitatearen eta prezioen hazkundearen arabera indexatuta daude, eta aldizkako igotzeak dituzte.</p> <p>Negoziatio kolektiboak eta gutxieneko soldatari buruzko legeriak gero eta soldata handiagoak zabaltzen dizkie sektore ez-fordisteetako langileei, eta horrek erlatibitateei eta eskariari eusten die.</p> <p>Zerga progresiboen bidez finantzaturako ongizate-onura indexatuek, kontsumo masiboko arauak orokortzen dituzte gaixotasun, erretiro edo langabeziagatiko ekonomikoki pertsona ez-aktiboentzat.</p>
Enpresa ereduak: kompetentzia monopolistikoa	<p>Hainbat dibisiotako antolakuntza bereizgarria du, deszentralizaturik eta merkatura bideratua, epe luzerako plangintzaz arduratzen den batzorde zentral batek gainbegiraturik. Enpresaren jabeak ez du enpresa zertan guztiz kontrolatu.</p> <p>Enpresak fordismoan duen onura-iturri nagusia produktibitatearen eta eskala-ekonomien etengabeko hobekuntzetatik eratorritako gainbalio erlatiboa da.</p> <p>Lehia kapitalistaren forma nagusia, liberala izan ordez, monopolista da. Erregulazio modu monopolistikoek enpresak industria-sektore nazional nagusietan kontzentratzeko eta zentralizatzeko aukera ematen dute. Enpresa handien arteko lehia masa-ekoizpeneko teknologia arrazionalizatzeko estrategiek baldintzatzen dute. Estatu nazionalak industria- eta teknologia-politikak mobilizatzen dituzte beren enpresa handienek munduko merkatuan dituzten posizioak indartzeko.</p> <p>Prezioak eskariarekin aldatzen diren prezio malguen sistema batean parte hartu beharrean, enpresek, kostu-prezioen finkapenean parte hartzen dute.</p>
Moneta eta kapitalaren izaera naturala	<p>Dirua izaera fiduziariora eta nazionala dauka, eta ez nazioarteko merkataritza-diru baten izaera. Kreditu pribatua banku zentral batek hierarkikoki gainbegiraturako banku-sistema batek ematen du. Diru-eskaintza estatu-mailan araututa dago, Estatu Batuak nagusi diren Bretton Woods⁴²-en kanbio-tasa finkoen sistemaren bidez.</p>

⁴² 1944ko Bretton Woodseko akordioek dolarra erreserbako moneta bihurtu zuten eta munduko garapen ekonomikoa Estatu Batuetako politika fiskalari eta monetarioari atxiki zitzaion. AEBek munduko bankari gisa jardun zuten, ondasunen eta kapitalen munduko merkatuak korporazio handien esku jartzearen truke. Testuinguru horretan, fordismoa beste modu batera hedatu zen, estatu bakoitzak bere modalitatea inprimatzen baitzuen lan-harremanak, diru-politika eta politika fiskala eta inbertsio publikoko eta ongizateko estrategiak zirela medio. Soilik, barne-

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

	<p>Enpresen hedapena kreditu pribatua lortzearen mende dago, baita enpresaren irabazien berrinbertsioaren mende ere.</p> <p>Kontsumorako kreditua faktore garrantzitsua da familiek etxebizitza eta kontsumo-ondasun iraunkor nagusiak erosteko duten gaitasunean, eskariari eusteko ezinbestekoa.</p> <p>Estatuko kreditu-politikak eskari agregatura eta enplegu betera bideratuta daude. Kapitalaren epe luzerako inbertsio-erabakiak hazkunde makroekonomiko nazionalako eredu egonkortuek gaitzen dituzte.</p> <p>Ondasun estandarizatuen ekoizpen masiboa, publiko, anonimo eta homogeen batera bideratuta dago. Ekoizle masiboen eta eskari masiboaren artean berariazko kanalak eta <i>feedback</i>-ak ezarri behar dira.</p> <p>Publizitate masiboa, txikizkako salmenta masiboa (sukurtsal askoren txikizkako salmenta, supermerkatuak, posta bidezko salmenta), kreditu masiboa (eperako erosketak, hipoteka-finantzaketa), kontsumitzaileen interesen ikerketa, etab.</p> <p>Hala, diseinua, marketina eta produktuen arteko bereizketa marjinala funtsezko faktore bihurtzen dira masa-ekoizpena eta masa-kontsumoa lortzeko.</p>
Estatuaren eta kapitalaren arteko gobernu	<p>Estatu nazionalak asko inplikatzeko eskari agregatuaren kudeaketan, ziklo ekonomikoetan izandako aldaketak geldiariz, enplegu betea sustatuz, kontsumo masiboa orokortuz, produktu soziala ongizate-programen bidez birbanatuz eta ezinegon sozialean bitartekotza eginez.</p> <p>Estatuaren laguntza-eginkizun keynesiarren nagusitasunak, metaketa erregimenari dagokionez, ez ditu gizarte-egiturarekin zerikusia duten beste eginkizun batzuk baztertzeko. Era berean, ez ditu rol esku-hartzaileagoak baztertzeko fordismoa menderatzeko trantsizioan edo gainbehera fordistaren krisi-urteetan.</p>
Nazioarteko konfigurazioa	<p>Bretton Woods finantza-sistemak eta GATT-ak finantza-egonkortasuna eta merkataritza globala bermatzen dute, nazioartean ezaugarri fordistak transmititzen dituzten mekanismoak baliatuz. Nazioarteko "espazio arautua".</p> <p>Nazio Estatuak diru politika independentea ezartzeko gaitasuna dute AEBetako hegemoniaren testuinguruan.</p> <p>Metaketa erregimen fordistaren heltzearen, espazio ekonomiko nazionalen arteko interdependentsia globala areagotu zen nazioz gairikoen enpresen arteko lehia gero eta handiagoaren ondorioz, eta merkataritza harremanen hedapena eta dolarra munduko moneta gisa izatearen ondorioz.</p>
Espazioaren Garapen Irregularren erregulazio (nazionala)	<p>Estatu nazionalak konpentsazioko eskualde-politika eta lurralde antolamendu ekimen ugari aurkezten saiatzen dira, bertako nazioetako zenbait eskualdeetan ematen ari den polarizazio sozioespaziala arintzeko helburuarekin, industria eta biztanleria lurralde nazional osoan zabalduz. Hala ere, mundu mailan garapen irregularren ereduak AEBetako hegemonia globalaren eta Gerra Hotzaren geopolitikaren azpian geratu ziren.</p>

Iturria: Egileak egina Brenner (2004); Jessop (1992; 1999); Lipietz (1987); Peck eta Tickell (2008); Swyngedouw (1997) eta Theodore et al.-en, (2011) oinarrituta.

Gizarte-erakundeek erregulazio ekonomikoan duten funtsezko zereginetan erreparatzen duen azterketa honen bidez, testuinguru sozialak erreproduzio ekonomikoaren produkzioan dituen makineriaren eta engranajeen garrantzia erakutsi

mailan klase-harremanen egoerarengatik, eta kanpo-mailan, munduko ekonomian estatu berak zuten hierarkia-posizioak eta dolarrekiko kanbio-tasek mugatuta. Fordismoaren nazioarteko hedapena, beraz, nazioarteko erregulazio ekonomiko-politikoko esparru berezi baten barruan gertatu zen, bai eta konfigurazio geopolitiko baten barruan ere, non AEB gailendu egin ziren aliantza militarren eta botere-harremanen sistema oso espezifikoko baten bidez (Harvey, 1990).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

dezakegu. Eta, bide batez, agerian uzten dugu Estatuak kapitalismo fordistan hartzen duen erregulatzaile papera.

Azkenik, Jessopen aldagaiak jarraituz, fordismoak “sozializazioa” (*societalization*) dakar bere baitan, hau da, erakundeen integrazioaren eta gizarte-kohesioaren lorpena. Horrek esan nahi du, lehen, aurrefordismoan, langileak ekoizle gisa bizi baziren eta beren premiak biziraupenaren bidez asetzen bazituzten, fordismoarekin, bi joera berri agertu zirela. Alde batetik, familia nuklearren etxeetan kontsumo pribatua areagotu zen, masan ekoiztako oinarritzko produktu estandarizatuen kontsumoa hain zuzen. Eta bestetik, estatu burokratikoak estandarizatutako ondasun eta zerbitzu kolektiboen hornidura izan zen. Azken joera horrek, lan-indarraren erreprodukzio sozialaren sozializazio maila handiagoa islatzen du, baita eredu fordistaren kostu-indibidualak zein gizarte-kostuak kudeatzeko ahaleginak ere.

“Sozializazioaren” beste dimentsioetako bat berorrek eraikitzen duen eredu espaziala da; izan ere, produkzioaren antolamenduarekin hertsiki lotuta zegoen hiri-bizitzaren izaera aro fordistan (Scott, 1988). Fordismoak industria-eskualde zentralen hazkundera ekarri zuen, industria-hiri txikiagoen sareez inguratuta eta metropoli-eremu handiak eraikiz. Eskualde horietan enpresa fordistak, lehengaien erauzketarako enpresak eta hauen hornitzaileak ziren nagusi, gehien bat merkatu globalerako masa ondasunak ekoizten zituzten eskulan migratzailea edo atzerritarra erabiltzen zuten enpresak hain zuzen. Erregimen fordista garatu zen heinean, enpresak gero eta eskala globalagoan hasi ziren jarduerak esleitzen, hornidurak lortzen eta merkatuak bilatzen.

Azpimarratu behar dugu fordismoarekin lotutako biritza politikoaren forma espezifikoak logika ekonomikotik bereizten zirela nolabait. Estatuaren esku-hartzea berrantolatu egin zen, programazio ekonomiko-sozialaren, toki mailako estatuek kontsumo kolektiboan eta gizarte ongizatean zuten indarraren areagotzearen eta administrazio-diskrezio handiago baten bidez, EEGE fordista errazteko.

Sindikatuak eta enpresaburuen elkarteek funtsezko zeregina zuten kudeaketa ekonomikoan eta gizarte-ongizateari buruzko negoziazio politikoan; eta alderdiek kapitalaren eta lanaren arteko konpromiso fordista onartu zuten heinean, *catch-all* alderdietan bihurtu ziren, nahiz eta klase alderdiak (batez ere European) oraindik presentzia handia izan.

Hauteman dezakegunez, ongizate-estatu keynesiarraren formek eta funtzioek ondorio garrantzitsuak izan zituzten fordismoaren dinamiketan. Estatu nazionalaren zeregina funtsezkoa izan zen sistema fordistaren luzapenean eta mantentzean.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Egia esan, estatu-nazioaren zereginak entitate moduan berebiziko garrantzia izan zuen ekoizpen modu fordistaren berezkoak ziren malgutasun mikroekonomikoaren moduak (nahiko mugatuak) konpentsatzeko, soldata-harremana eta lan-merkatuko politikak kudeatuz eta eskari agregatua bideratuz. Horrek eskaintza eta eskaria orekatzen lagundu zuen, merkatu lehiakorretako aldaketa zikliko bereizgarririk gabe. Gainera, gorabehera ekonomikoen egonkortasunari eutsiz eta hazkunde egonkor eta kalkulagarria ziurtatuz, enpresa forditek gero eta etekin handiagoak lortzeko aukera izan zuten, eta ekonomia nazionaletan berrinbertitzera bultzatu zituen.

Bigarrenik, produktibitatearen hazkunderan, soldaten hazkunderan, eskariaren hazkunderan, irabazien hazkunderan eta inbertsioaren hazkunderan errotutako hedapen potentziala islatzen duen 3. Grafikoari erreparatuz, Estatuak funtsezko zeregina izan zuen kontsumo-ondasunen eta kapitalaren industrien integrazioan. Azpiegitura-proiektuetan inbertitu zuen, eskalako ekonomiak sustatu zituen nazionalizazio- eta fusio-politiken bitartez, kontsumo masibo fordista sustatu zuen etxebizitza- eta garraio-politiken bitartez, eta kontsumo masiboaren arauak orokortu eta zabaldu zituen lan-merkatuetan esku hartuz eta negoziazio kolektiboaren bidez.

Bestalde, onartu behar dugu jarduera horietako askok lotura estua dutela erregulazio fordista beraren izaerarekin. Baina hala ere, bereziki garrantzitsua izan zen hemen Estatuak “sindikalismo arduratsuari” emandako laguntza eta negoziazio kolektiboari, enpresa handien finkapenari eta elkarte komunitarioari emandako babesa. Era berean, hazkunderako eredu fordistaren nagusitasunak ahalbidetu zion Estuari, kapital antolatuaeren interesak eta lan-harremanen tirabira baketsuak, enplegu osoko eta gizarte-ongizateko programa batean batzea. Azkenik, fordismoarekin lotutako “sozializazio” eredu hori sendotu ahala, ongizate-estatuaren mekanismoek, gizarte-arazoak konpontzeko balio zuten. 1960ko eta 1970eko hamarkadetan (enplegu sozialaren hedapen masiboaren garaia) Estatuak aplikatutako ongizate-politika asko erregimen fordistaren hazkunderengatik eman ziren, oro har honen merkantilizazioarengatik, urbanizazioarengatik eta burokratismoarengatik (Jessop, 1994).

Sistema fordistaren logika arautzaile hori nolabait eskala nazionalen errotutako ongizate keynesiarreko Estuetan errotuta egon bazen ere, sistema erregulatzailea berriaz errotutako nazioarteko ordena batean ere oinarritzen zen. Kontuan hartzeko moduko afera da hau, izan ere, orain arte irakurritakoa, agian soilik AEBetako ereduari esleitzen zaion prozesua izan daitekeelako, nahiz eta Europako potentziek ere antzeko eredu jarraitu (Taula 5 ikusi). Hau esanda, fordismoaren mendeko EEGEa nazioaren eta globalaren arteko interfasean egituratu zen nagusiki, Bretton Woodsen akordioetan oinarritutako AEBen botere ekonomiko, instituzional eta politikoarekin (Peck eta Tickell,

2008). Dena den, Bretton Woodseko akordioek moneta-zirkulazioaren gainean ezarritako kontrol-maila, ezin zen jalgitzen ari zen kreditu-sistema globalarengan ezarri. Enpresa transnazionalen hazkundeak eraginda, eta arautu gabeko Europako merkatuak garatuta, kreditu-sistema globala sistema pribatizatua bihurtu zen, kontrol politiko-instituzionalaren tiramenetik harago (Walter, 1991; Swyngedouw, 1992). Kapital pribatua, gero eta gehiago oinarri ez-arautu baten gainean hasi zen zirkulatzen, eta pixkanaka Estatu nazional keynesiarrek makroekonomiaren bultzatzaile nagusietako baten kontrola galtzen hasi ziren: interes-tasen ezarpena hain zuzen. Hori izango litzateke, aurrerago ikusiko dugun bezala, erregimen fordistaren eropenerako arrazoietakoa bat (Altvater, 1992).

Jessopen arabera (ibid.), fordismoa aztertzeke modu honek abantaila bat du: oinarri mikro-sozioekonomikora hurbiltzeke aukera ematen duela; beste ordena instituzional batzuetan, hala nola, sistema politikoan edo bizitza kulturean fokalizatzen direnak, erregimenak berak dituen ondorio orokorrak aztertzeke eta *meso* mailako aurrealdintza instituzionaletara eta ondorio makroekonomikoetara hurbiltzeke posibilitatea difusoa ematen duten bitartean.

Gizarte fordistaren paradigmak hiru zutabetan oinarritutako aurrerapenaren ikuskera bat eskaintzen zuen: aurrerapen teknikoan (langile intelektualek baldintzarik gabe bultzatutako aurrerapen teknologiko eta tekniko gisa ulertua); gizarte-aurrerapenean (enplegu osoaren mugak errespetatuz, erosteko ahalmenaren aurrerapen gisa ulertua); eta estatu-aurrerapenean (interes orokorraren bermatzaile gisa ulertua, interes indibidualen mehatxuen aurrean). Eta aurrerapen hirukoitz horrek gizartea batuko zuela uste zen, bilaketa kolektibo baten oinarri duinak sustatuz (Lipietz, 1994).

Orain arte aipatutakoak, neoliberalismoa azaltzeke oinarri izango diren ezaugarri komunak dira. Baina aipatutako egileek egindako azterketa orokorregia da, aitortu behar dugu, esan bezalaa, AEBetatik datozen diskurtsoek hegemonia handia dutela. Horregatik, eta ezaugarri komunak egon arren, Tickell eta Peckek (1995) identifikatu zituzten fordismo formak (keynesiarrak⁴³) nabarmendu nahi ditugu. Gure kasuak aztertzeke espezifikotasun hauek ere erabakigarriak izango baitira.

⁴³ Keynesiarra dela adierazi nahi dugu herrialde bakoitzaren izaera nazionalagatik eta kasu bakoitzean Estatuaren funtzioari buruz dagoen hausnarketa espezifikogatik.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Taula 5: Fordismoaren aldaera taxonomiko nazionalak⁴⁴

Erregimen fordista motak	Ezaugarriak	Adibideak
Fordismo klasikoa	Masa kontsumoa eta ekoizpena ongizate estatu sozialdemokratak izenpetua.	AEB
Fordismo malgua (flex-fordism)	Deszentralizatua, estatu federalistetan. Kooperazio itxia kapital finantzario eta industrialaren artean, enpresen arteko lankidetzak ere erraztu zuen.	Mendebaldeko Alemania
Fordismo akastuna	Kapital finantzario eta produktiboaren integrazio desegokia nazio mailan. Egitura politiko arkaikoa eta oztopatzailea.	Erresuma Batua
Estatu fordismoa	Estatuak protagonismo handia izan zuen produkzio masiboko baldintzak sortzeko, industriaren estatuaren kontrola barne. Estatu ekintzailea.	Frantzia
Fordismo atzeratua	Eskulan merkea muin fordistaren ondoan. Estatuaren esku-hartzeak funtsezko eginkizuna izan zuen 1960ko hamarkadan industrializazio azkarrean. Batez ere, Estatu Espainolaren kasuan, diktadura frankistaren ondorengo Estatuaren hastapenak ahalmen gutxiako erakundeak eraiki zituen.	Italia, Espainia
Fordismo periferikoa	Tokiko batzarrak fordismoaren ondoren esportazioez jarraituak. Estatu egitura autoritarioak demokraziaren aldeko mugimenduekin batera. Fordismoaren metatzeko sistema imitatzen saiatu dira, dagokion gizarte erregulazio eredurik ezean.	Mexiko, Brasil
Arrazako fordismoa	Langilerian dualismoa. Gutxiengo pribilegiatuek Ipar Amerikako lan baldintzak eta soldatak dituzte, baina biztanleriaren gehiengoak "super-esplotazio" bati eutsi dio.	Hego Afrika (Apartheid bati eutsi dio)
Taylorismo primitiboa	Lan prozesu taylorista lan eskaintza ia amaigabearekin. Ustiapen odoltsua eta plusbalioaren erauzketa izugarria. Estatu diktatorialak eta tentsio sozial handia.	Malaysia, Bangladesh, Filipinak
Fordismo hibridoa	Mozkinetan oinarritutako hedapena taylorismo moldatuan oinarrituta. Barne merkatu nahiko	Japonia

⁴⁴ Sakonago ikusteko Boyer (1986; lehenengo koadroa).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

	itxia, gizarte segmentazioa eta ongizate estatu garatua. Zeharkako soldata-indexazioa ⁴⁵ .	
--	---	--

Iturria: Tickell eta Peck (1995: 362).

Desberdintasun posibleak egon arren,

the post-war years saw the construction of an international regulated space, comprised of a constellation of nation states linked one to another through reciprocal flows of money, goods and services, complemented by a set of international institutions which existed to manage the process of adjustment within the international economy. (Leyshon eta Thrift 1997; 70).

Hala ere, sistema fordista-keynesiarrak nazioarteko dimentsio jakin batzuk bazituen ere (baita azpinazionalak ere), haren eraikuntza-bloke geografiko funtsezkoenak bat zetozen eraketa politiko-ekonomiko nazionaletan eta hori da hain zuzen guri interesatzen zaigun ikuspegi mikro-sozioekonomikoa.

Ezegonkortasun fordista eta krisiaren lehen zantzuak

Espero bezala, fordismoak zekartzan onurak ez zeuden ondo bananduta egon eta herrialde batzuek ez zituzten teoriako errebenio horiek ikusi. Lehenik eta behin, soldata-harreman fordistak, lehen esan bezala, soilik sektore ekonomiko eta estatu nazional jakin batzuetan funtzionatzen zuen. Onuradunak, gorpila (3. grafikoa) puntu bakar batean ere eteten ez zen lurraldeak izan ohi ziren, eta aurrerapenak, eskaria masa produkzioa ahalbidetzen zuten eskala handiko inbertsio teknologikoekin bat zetozen herrialdeetan izaten ziren. Ekoizpen-arrisku handiena zuten sektoreek soldata txikiak eta lan-segurtasun gabezi handiak izaten jarraitu zuten. Horrela, sektore monopolistikoek egonkortasunerako joera izan zuten, eta sektore “lehiakorrek”, aldiz, desegonkortasun handia pairatu zuten (Harvey, 1990). Irregularitasun eta desberdintasun horiek gizarte-tentsioak areagotu zituzten, gizarte-mugimendu handiak

⁴⁵ “Indexatu” inflazioaren arabera doitzea esan nahi du. Egungo Japonia bezalako herrialdeetan, non inflazioak Orako joera duen (edo deflazio egoeretan bizi diren), ekonomiaren prezioak eta soldatak gelditu egin ohi dira. Ustez, ekonomia kapitalistan inflazio txikiak –% 1.5 eta % 5en artekoak– egokienak dira jendea kontsumitzera animatzeko, batez ere datorren urtean biztanle horien diruak gutxiago balioko baitu. Hortaz, inflazioak Ora jotzen badu, kontsumoa eta inbertsioa estimulurik gabe geratuko dira, diruak bere prezioari eutsiko diolako. Horregatik, kasu hauetan, langile publikoen soldaten igoera zeharka indexatu egiten da, hots, ez da zuzenean inflazioarekin indexatzen, baizik eta % 1.5 eta % 5 artean igotzen saiatzen da.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

eragiten. Biztanleriaren parte baten poztasun-eza, neurri batean, masan kontsumitzeko gai ez izateagatik eta debeku edo ukazio materiala jasateagatik etorri zen.

Baina, atsekabe eta ageriko tentsio guztiak gorabehera, erregimen fordistaren pieza zentralak tinko mantendu ziren, 1973ra arte behintzat. 1973ko atzeraldi akutuak eskemak astindu zituen, metatze-erregimenean trantsizio-prozesu azkarra hasi zen orduan.

Beste metaketa-eredu bat (hasteko “neoliberalismoa” deituko dioguna) eraikiko lukeen krisiarekin jarraitu aurretik, EEGE kontzeptuari heldu behar diogu berriz ere, erregulazioaren intentsitatearen arabera krisiaren arrazoiak hobeto ulertuko baitira. Ildo horretatik, gogora dezagun EEGEak metaketa prozesu kapitalistari datxezkion krisi-joerak egokitu, bitartekari izan eta normalizatzeko balio duela, bestela erregimenaren erortzea gerta bailiteke. Ildo horretatik, Tickell eta Peckek (1992) azaldutako erregulazioaren teoriaren hiru krisi mota identifikatzen ditugu:

- *Mikro-krisiak*, batez ere kontsumo-ereduen aldaketetara egokitzen ez diren edo ekoizpen-prozesuaren eraldaketei erantzuten ez dieten banakako unitateei edo kapital-zatikiei eragiten diete. Metatze-erregimenaren fase guztietan egon ohi dira, eta garrantzi teorikoki mugatua dute. Mikro-krisiek, merkatu-ekonomietako prozesu normal eta iraunkorrak, lidergo-aldaketak, kudeaketa-akatsak, eskaera-aldaketak eta abar adierazten dituzte, eta oparotasun handiko testuinguru batean gerta daitezke, makro-krisirik nagusitzen ez denean (De Vroey, 1984).
- *Krisi koiunturalek*, ekonomiaren atzeraldi ziklikoa islatzen dute. Krisi horiek metatze-sistemaren eta EEGEaren arteko batuketa baten testuinguruan konpon daitezke, eta horrek doikuntza “txikiak” eskatzen ditu, hala nola lanaren banaketa espazialaren aldaketa (Oberhauser, 1990) edo eskala txikiko aldaketa instituzionalak. Krisi koiunturalak garrantzitsuak izan daitezke metatze-erregimenaren egonkortasunerako, unean uneko zailtasunek “zirkuituaren batasuna” ahuldu aurretik aldaketak aurreikusteko beharra ezartzen duelako, honek hein batean sistema erne mantentzea errazten du (Lipietz, 1987).
- Azkenik, EEGEa delakoa metatze-sistemara egokitzen ez denean gertatu ohi dira *egiturazko krisiak* edo *krisi estrukturalak*. Krisialdi horiek, hasiera batean, koiunturazko krisizat har daitezke, baina EEGEak krisiak konpontzeko dituen mekanismo arruntak, ezgai eta desegoki samarrak izan ohi dira. Egiturazko krisia gertatzeko bi arrazoi daude: lehenik eta behin, garatzen ari den metatze-sistema bat EEGE desegoki batek geldiarazi dezakeenean (adibidez, 1930eko

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

hamarkadako kraka edo “depresio handia” AEBen). Bigarrenik, metatze-sistema baten potentziala amaitzen edo frustratzen denean, nagusi den EEGE baten ondorioz (adibidez, fordismoaren krisia) (Aglietta, 1979; De Vroey, 1984; Lipietz, 1987). Egiturazko krisia EEGE osagarri batek babesten duen metatze-erregimen berri bat garatzen denean bakarrik konpondu daiteke. Hala ere, honek ez du esan nahi metatze-sistema batek, egokitutako EEGE bakarra duenik: krisia bukatzeko irtenbide posible batzuk daude eta emaitzak kontingenteak dira.

Azken gogoeta honekin batera, argi utzi behar dugu praktikan ez dagoela metatze-erregimen perfekturik, ezta sistema itxi edo perfekturik ere.

Reliance on sharp distinctions between phases has been criticized for falling prey, in its worst applications, to a logic of binary contrasts between, say, rigid or collective ‘old times’ and flexible or individualistic ‘new times’ [...]. It is claimed that such a logic produces overviews based on arbitrarily derived guiding principles and universal claims based on partial truths, thus denying the key aspect of history as a complex and heterogeneous project of many determinations. (Amin, 2000: 3).

Historiaren konplexutasunari eta bere izaera heterogeneo intrintsekoari muzin egin gabe, egia esanez, 1960ko hamarkadan fordismo globalean zenbait arazo hautematen hasi ziren. Bigarren Mundu Gerrak kaltetutako herrialdeak (Japonia eta Mendebaldeko Europa, nagusiki) suspertzen hasi ziren eta garapen-puntu gorenean zeuden. puntu horretan hasi ziren lehenengo saturazioak barne-merkatuetan, eta horrek bilaketa bizia eragin zuen merkatu berriak irekitzeko eta ekoizpen-soberakinei irtenbidea emateko. Une horretan gertatu zen

the first big push by multinationals into offshore manufacturing (particularly in South-East Asia), brought a wave of competitive Fordist industrialization to entirely new environments, where the social contract with labour was either weakly enforced or non-existent. (Harvey, 1990: 141).

Lehenengo atalean azaldutako espazioaren politika ekonomikoa eta estrategien bidez azaldu daitekeen prozesua da hau, izan ere, azken batean, kapitalek espazio berrien errentagarritasuna bilatzen baitzuten, aurrerago errentagarritasun berrien bila bueltatzeko. Harrezkero areagotutako nazioarteko lehiak zalantzan jarri zuen AEBek sistema fordista globalean zuten hegemonia, dolarra devaluatuz eta Bretton Woodseko akordioak erorpenera arte zabukatu. Orduan, moneta finkoaren trukearen orde, aldaketa flotatzailearen hegazkortasuna ezarriko litzateke. Moneta finkoaren truke-eredua katerik gabeko truke aldakorragatik ordezkatu zen.

Suposa dezakegunez, fordismoarekin amaitu zuen krisia bi mailatan uler daiteke: estatu-eta nazioarte-maila desberdinduan. Alde batetik, estatu nazional bakoitzean izaera

espezifikoa izan bazuen ere, herrialde kapitalista garaikide gehienek egiturazko krisietan ohikoa den disfuntzio bat izan zuten metaketa intentsiboan (hau da, gehiegizko metaketa bat). Bestalde, nazioartean, Estatu Batuetako hegemonia ahuldu egin zela ikusi zen, baina, gainera, aldaketak egon ziren ekonomia nazionalen arteko egitura hierarkikoan eta disrupzioak nazioarteko moneta-sisteman. Hori agerian geratu zen metaketa erregimen fordista egituratzen zuten ardatz hauetan (4. Taulan agertzen diren hurrengo aldagaietan) (Brenner, 2004; De Vroey, 1984; Harvey, ibid.; Jessop, 1992 eta 1999; Peck eta Tickell, 2008).

- **Produkzio-sistema:** produkzio- eta kontsumo-ondasunen industriren hedapenak produktibitatea handitu zuen, oro har, sistema osoan. Are gehiago, esan genezake produktibitatea izan zela hazkundearen giltzarria, baita erakunde erregulatzailena ere. Beraz, sistemaren eragozpenak produktibitatearen moteltzearen ondorioz gertatu ziren, zentzurik zabalenean. Adibidez, industria-sektoreetan aurrerapen teknikoak edo teknologikoak amaitu zirenean (muntaketa-lerroa) edota zalantzazko bideragarritasuna eskaintzen zuten hobekuntza berriek⁴⁶ (robotizazioa) eskatzen zituzten aldaketa kualitatiboak. Ekoizpen-modu berri bat ezartzea, beraz, prozesu luze eta mingarria izango litzateke, lehenago abangoardiatzat hartzen ziren enpresen arrakasta ziurtatuko ez lukeena.
- **Soldata-harremana:** ikusi dugunez, adostasun sozialean oinarritutako soldata-harremana nahiko etengabea eta egonkorra izan zen. Ustiapen eta menderatze kapitalistaren ezaugarriei inoiz uko egin ez arren, nolabaiteko onarpena zegoela esan genezake. Soldata errealean igoerak, produktibitatearen igoerak, langabezia-tasa txikiak, langileek masan kontsumitzeko aukeraren samurtzea, eta aseguru eta prestazio sozialek, nolabait ezkututzen zituzten lanaren mendetasunaren, lan-intentsitatearen eta esplotazioaren trapu zikinak. Hitzarmen sozial honek klase borrokaren printzipio antagonikoak suntsitzen zituen, izan ere, bake sozialak eta klaseen arteko “lankidetzak” aukera ematen zuten kontsumitzaileen merkatua sortzeko eta mantentzeko.

Arazoa, Mendebaldeko Europan, produktibitatearen dezeleraziorik antzeman ez zenean hasi zen. Soldata errealek izan ziren desazelerazioan lehenak, horiek gelditu ostean, atzeranzko norabidea hartu zuten; eta jarraian, langabezia piztu egin zen. Harreman soziala ezaugarritu zuen adostasuna legitimaziorik gabe

⁴⁶ Enpresentzat erronka handia da hori, berrikuntzari, inbertsioari, lantegietako gizarte-harremanen aldaketei eta abarri dagokienez.

geratzen hasi zen, eta klaseen arteko botere-desorekak areagotu egin ziren. Langileen eta sindikatuen eskubideak zalantzan jarri ziren apurka-apurka eta sumindura soziala areagotuz joan zen.

- **Estatuaren eginkizuna:** lanerako indarraren kudeaketa, diruaren eta finantzen kudeaketa, eta ondasun kolektiboen hornidura, gastu publikoa izugarri handitu zuten. Hazkunde-tasa behar bezain handia eta langabezia-tasa behar bezain txikia zen bitartean, egoerak egonkor jarraitu zuen. Baina baldintza horiek desagertu zirenean, zerga-krisia gertatu zen. Estatuak gastu handiagoak izaten hasi ziren: oro har, gizarte-segurantzako sistemen finantzaketa-beharrak izugarri handitu ziren, eta Estatuak krisiari lotutako gastu berriak hartu zituzten haien gain, hala nola industria-politika eta krisian zeuden enpresentzako finantza-laguntzak. Defizitak finantzatzeko kostuak eta interes-tasak handiak zirenean, kezka handiak agertu zitzaizkien Estatuari, ez baitzuten defizitak murrizteko aukerarik ikusten deflazio metagarririk sortu gabe.
- **Prezio- eta inflazio-maila:** krisiaren aurreko urteetan, eta “fordismoaren urrezko garaia” delakoa amaitu zenean, inflazioa progresiboa izatetik metagarria izatera igaro zen. Aberastasunaren birbanaketak izango zituen ondorioen beldur, gizarte-talde asko indexazio-neurrien bidez babestu ziren. Horri gehitu behar zaio, berez, inflazio-maila jada handia zela eta etengabe handituz joan zela. Horren ondorioz, kalkulu ekonomikoak eta, honenbestez, inbertsio-erabakiak, gero eta zalantzarriagoak bihurtu ziren. Nahiz eta diru-fluxu nominal itzelak egon, baliteke enpresek epe luzera beraien proiektuen ekoizpen-kostuak ordaintzeko ahalmenik ez izatea. Estatu-gobernuek inflazioari erantzuteko eta politika murriztaileei ekiteko beharra sentitu zuten, eta horrek, jakina, martxan zeuden joera deflazionarioei eusteko ahaleginak oztopatu zituen.
- **Irabaziak eta errentagarritasuna:** desazelerazio egoera honekin, bistakoa da irabaziak murriztu egin zirela eta errentagarritasunak behera egin zuela, batez ere, ekoizpenaren desazelerazioaren ondorioz. Egoera hori gorabehera, hasiera batean enpresek inbertsio eta hobekuntza teknologikoen aldeko apustua egiten jarraitu zuten, baina epe luzerako finantza-konpromiso horiek eta uholde-inflazioak aurrezpen-kopuru handiak irabazi nominal lasterren espekulazio-eragiketarako egitera eramanez zituzten, inbertsio produktiboa albo batean utziz. Desinbertsio honek zorpetzea handitzera eramanez zituzten enpresak. Hala eta guztiz ere, merkataritza-aurreikuspenak onak ziren, eta bankuek erraz handitu zezaketen kreditua. Ondorioz, ekoizpen-ondasunen eskaria gorenera iritsi zen, eta noizbehinkako itoguneak gertatzen hasi ziren. Teoria klasikoak iradokitzen

duen bezala, kredituz finantzaturako ekintzen prebentzio-eskaria ere handitu zen. Horrek guztiak elikatu zuen inflazioa, hain zuzen. Hala ere, euforia eta akidura azkarreko aldizkako oasien ondoren, esperantzak laster ilundu ziren.

Hortaz, gehiegizko gaitasun ekonomikoa agertzen hasi zen. Pixkanaka, agerian geratu zen inbertsio-erabaki berri batzuk gaizki pentsatuta zeudela. Gaitasunaren erabilera murriztuak edo desprobetxamenduak salmenten diru-sarrerak murriztera behartu zuen, eta orokorrean, zorrak ordaintzeko zailtasunak sortu ziren. Finantza-krisi baterako baldintzak egon baziren ere, hau ez zen lehertu, metaketa zabal batean gertatuko litzatekeen bezala. Azken buruan, banku zentralek mailegu-emaielen papera bete zuten. Zorrak birprogramatu zituzten. Gobernuak hankamotzei lagundu zieten gehiegizko ekoizpenagatiko eta eskaera-atoniatagatiko deflazio metagarria saihesteko. Hala, lehentasunak sakonki aldatuko ziren, bai bankuentzat, bai enpresentzat. Orain, likidezia-ratioak berrezartzeak zuen erabateko lehentasuna. Ondorioz, inbertsioak jaitsi egin ziren, ekoizpena moteldu egin zen eta langabezia izugarri handitu zen. Enpresen zorpetze gero eta handiagoak eta finantza-kostuen hazkundeak inbertsio-ahalmenaren krisia eragin zuten ingurune inflazionista batean (Lipietz, 1985).

Krisiaren zergatia(k) lantzen d(it)u(z)ten eztabaidek kontuan izan behar dute egitura osatzen duten elementuak erlazio zirkular baten barne daudela sartuta. Horregatik, gure ustez, krisia geroz eta intentsiboagoa zen metaketa-estruktura osoaren haustearen ondorioz gertatu zen, haren osagai bakoitza paraleloki ahuldu baitzen. Akidura partziala faktore batetik bestera transmititu zen, eta, beraz, azalpen monokausalak ez lirateke egokiak izango. Petrolioaren *shocka* eta horrek mendebaldean izan zituen ondorioak katalizatzaile izan zitezkeen; izan ere, ezegonkortasunaren testuinguruan, inflazioa are gehiago handitzea eragin zuen, baina, hori gabe ere, metaketa intentsiboa zaila izango litzateke. Ondorioz, sektoreen arteko interdependentzia alde batera uzten duen eta aldagai baten gainean modu isolatuan jarduten saiatzen den edozein azalpen oro porrotera bideratuta dago (De Vroey, ibid.). Oro har, 1965etik 1973ra bitartean, gero eta argiago ikusi zen fordismoa eta keynesianismoa ez zirela gai kapitalismoari datxezkion kontraesanei aurre egiteko (Harvey, 2014). Gehitzekoa da nazioarte mailan, elkarrekintza internazionalak krisiarengan izan zuen eragin aplikatzailea.

Izan ere, nahiz eta fordismoaren krisia nabaria izan, metatua baina ez erabatekoa, berehalako atzeraldi batean endeka zitekeen. Ulertzeko beharrezkoa litzateke nazioarteko dimentsioa eta gobernu- eta enpresa-erreakzioak gehitzea.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Gorago aipatu dugun bezala, 1960ko hamarkadan, Japonia eta Europako produktibitate-mailak (bereziki Mendebaldeko Alemania eta Frantzia) bat egin zuten AEBetakoarekin. Une hartatik aurrera, Estatu Batuetako merkataritza balantza defizitarioa izan zen. “Xenodibisa”⁴⁷ izandako dolarra, merkantzia/urre gisa hartzeari utzi zion 1973an Richard Nixonen administraritzak. Gainera, kapital produktibo gisa aintzat hartzeari utzi zitzaion, AEBek zuten lehiakortasun ezagatik. Era berean, AEBetako kapitalak atzerriko inbertsio ahalmena galdu ahala, dolarrak behera egin zuen moneta guztien aurrean. Munduko ekonomiako hiru polo lehiakorren arteko merkataritza ardatz hirukoitzeko gerra moduan ebazten hasi zen, batzuen eta besteen atzeraldia eta hedapenak elkarlotuz. Gainera, petrolioaren krisiak Estatu Batuak ez ziren beste herrialdeei nolabaiteko kontrola berreskuratzeko aukera eman zien.

Inflazioaren eta mehatxuzko krisi egoera honen aurrean, ugazabak eta gobernua soldatapekoen erosteko ahalmena murrizten saiatu ziren, soldaten gaineko presioa eginez eta kreditua murriztuz. Ildo hori jarraituz lortutako lehen emaitzak 1974an izan ziren eta munduko eskariaren depresioa eragin zuten, inbentarioen murrizketa katastrofikoarekin batera, krisiaren lehen atzeraldi handiaren aurrean egongo ginatete jada. Hala ere, 1975eko bosturtekoan, langileen eta sindikatuen erresistentziak lehen austeritate-uholde hori hein batean iraungi zuen (Harvey, 2006). Bereziki, ongizate-estatuaren egonkortzaile automatikoek espiral depresiboa saihestu zuten, eta, langabeziak gora egin arren, kontsumoaren egonkortasuna bermatu zuten (Boyer 1982). Izan ere, 1975erako susperraldi orokor bat egon zen, kredituz finantzatutako petrolioaren kenkariak munduko benetako eskaria biderkatu zuelako.

Honek adierazten digu Estatu nazionalak oraindik ere bazutela arautzeko eta esku-hartzeko ahalmena, eta, nolabait, egoera ekonomikoak kontrola zitzaketela, bai European, baita AEBetan ere. Ildo horretatik, ideia nagusia, batez ere AEBetan, keynesianismoa baliozkotzat hartzea izan zen, baina European gauzak desberdintsu joan ziren. Hainbat naziotan zatituta, industria-mailan ondo konpontzen zela zirudien, baina Estatu nazional bakoitza bere merkataritza-balantza zaintzera behartuta zegoen. Horrela, Europako herrialdeak, elkarren artean, “erregulazio lehiakorrek” egoeran zeuden, eta horrek, batik bat, barne-keynesianismoaren eraginkortasuna arriskuan jarri zuen. Tentsio ekonomikoek eragindako moteltasun hori laster orokortuko bazen ere, momentuz ingurune mesedegarriagoa zuten munduko herrialde batzuetan “munduko keynesianismoan” sinesten zuten oraindik. Azken horren adierazpenik ikusgarriena fordismo periferikoaren hazkundera izan zen (5. Taulari erreparatu) (Oberhauser, 1990).

⁴⁷ Jaulkipen-herrialdetik kanpo dauden herrialdeetako dibisa-merkatuetan zirkulatzen edo negoziatzen den moneta.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Dena den, azpimarratu behar da kanpoaldeko eredu fordista, hots, periferikoa, oso ahula izan zela; izan ere, berehalako lan-prozesuan soilik ezarri zen guztiz, eta modu partzialago batean soldata-harremanetan. Osagabetasun horrek gutxitan eragiten zituen kontsumo-arau fordista berriak eta berritzaileak. Munduko eskariaren bilakaerarekiko menpekotasun handiarekin, Hegoaldeko herrialde kopuru oso mugatu bati baino ez zitzaion heldu. Eta onura itzelak ekarri beharrean, barne-egiturak desegonkortu zituen, estropezuka eragindako modernizazioan murgilduz.

Europako iparraldeko herrialdeetan, kontsumoa produktibitatearen hazkunde motelaren eta industriako lan-indarraren murrizketaren mehatxuetatik urrun mantentzeko, ongizate-estatua mantentzearen kostua enpresen ekarpenetan ere oinarritu zuten, baina ez modu solidario batean. Alabaina, enpresek dibidenduak banatzeko zituzten zailtasunek baldintzatuta, ongizate-estatuak bermatutako errenta iraunkorrak sostengatutako lan-indarraren produkzio-baldintzak liberalizatuz joan ziren. Horregatik, enpresak beren langileekin zituzten kontratu-betebehar zurrunetatik askatzen saiatu ziren, eta lan-merkatuaren liberalizazioari ekin zioten, neoliberalizazio-egoera berri baterako hurrengo urratsak ezarriz

Horrela beraz, enpresak praktika eta esperimentu liberal “malguagoak” probatzen hasi ziren (Storper eta Scott, 1990). Lehenik eta behin, soldata-negoziaziorako egitura kolektibo tradizionalak lausotu zituzten, eta pixkanaka-pixkanaka banakako negoziazioaren orde z barreiatuak izan ziren. Bigarrenik, eskulana gero eta ekoizpenaren jarduera gehiagotara hedatu zen, eta horrek fordismoak eta lanaren banaketa tayloristak sortutako lan-mugapen zurruna bukatu zuen. Hirugarrenik, enpresek, kanpoko doikuntzen eta eskariaren aldaketen mende, lan-indarraren eskaria aldatu zuten. Oreakarako estrategia tipikoen artean, hauek zeuden: lanaldi partzialeko langile gehiago erabiltzea (horien orduak eskariaren arabera doitu zitezkeen), enpresaren eskaera-zorroaren arabera langileak kontratatzeke eta kaleratzeko joera handiagoa, eta azpikontratazioaren erabilera handitzea. Garapen horien ondorioz, gero eta lan-indar segmentatuagoa lortu zuten, eta kapitalari aurre egiteko langile boterea are gehiago ahulduko litzateke (Tickell eta Peck, 1992).

Fordismoaren krisia: postfordismoa eta neoliberalismoa

Ikusi dugun bezala, 1970eko hamarkadaren hasieran, aldaketa politiko eta ekonomiko izugarri batzuek talka-uhinak bidali zituzten Ipar Atlantikoko sektorearen lurralde-garapen fordistaren konfiguraziora. Horien artean, zehatzago, honako hauek sartu ziren: Bretton Woodseko moneta-ordenaren kolapsoa, 1973ko petrolio-krisiaren eztanda (eta

ondoren 1979koa), berriki industrializatutako herrialdeen lehia ekonomikoaren areagotzea, masa-ekoizpeneko industria fordista tradizionalen gainbehera, langabeziaren igoera masiboa, kontsumo masiboko merkatu fordisten saturazioaren gorakada (ongizate keynesiarreko Estatu nazionalen krisi fiskala (Armstrong et al., 1991). Garapen horiek nabarmen desegonkortu zituzten erakundeen arteko akordioak, horien gainean antolatu baitzen ordena politiko-ekonomiko fordista-keynesiarra: soldata-harremanaren erregulazio nazionala eta monetaren eta merkataritzaren nazioarteko erregulazioa, aipatutako beste batzuen artean (4. Taulari erreparatu). 1973an Bretton Woods sistemaren kolapsoaren ondorioz gertatutako finantza-merkatuen eta kreditu-sistema globalen desarautzeak nazio-mailan antolatutako moneta-politiken eta eskariaren kudeaketaren bideragarritasuna ahuldu zuen.

Bitartean, ekoizpenaren globalizazio areagotuak, kapitalen arteko lehiak eta finantza-fluxuek, ongizate-estatu nazional keynesiarrek beren lurralde-ekonomiak espazio ekonomiko itxiak eta ia autarkikoak balira bezala kudeatzeko zuten gaitasuna murriztu zuten (Agnew eta Corbridge, 2006; Jessop, 2003).

Testuinguru horretan, Estatuko erregulazioak kontrolatzeko gai ez ziren deflazio⁴⁸ aurreratuko baldintza orokorretan, aldaketa teknologikoa, automatizazioa, produktu-lerro berrien eta merkatu-hobien bilaketa, lan-kontrol leunagoak zituzten eremuetaranzko sakabanatze geografikoa, fusioak eta kapitalaren birak bizkortzeko neurriak agertu ziren, biziraupenerako estrategia korporatiboen lehen planoan (Harvey, 1990).

Aurrerantzean “metaketa malgua”⁴⁹ gisa identifikatuko duguna (Moulaert eta Swyngedow, 1989; Harvey, 1990), aipatutako ekintzen bitartez forma hartzen hasi zen.

⁴⁸ Deflazioa sortzeko arrazoiak bi izan daitezke: alde batetik, eskaria murriztu egiten denean; eta bestetik, gehiegizko hornidura dagoenean, hau da, merkatua xurgatzeko gai ez den eskaintza handitzen denean. Bi kasuetan prezioak jaitsi egiten dira. Bestelako ondorioak sor ditzake, haien artean, kontsumoaren desestimulazioa (jaitsierarekin kontsumitzaileek eta inbertsoreek tentuz jokatzen dute, prezioak gehiago jaitsiko direlakoan), honek noski aurrezkiak handituko litzuzke (gainera diru horrek balio handiagoa izateko aukera dauka). Era berean, zorraren benetako balioa handituko litzateke eta langabezia areagotuko litzateke, enpresen diru-sarreraren murrizketa medio. Ezaugarri horiek guztiak bete izan ziren 1970-1980ko hamarkaden trantsizioan.

⁴⁹ Ekoizpen malgua terminoak metaketa malgua eta espezializazio malgua kontzeptuekin bat dator. Espezializazio malgua kapitalarentzako oso baliagarria izan daiteke, metaketa malguko baliabideak lortzeko modu erraza den heinean. Emaizak, orokorrean, soldata jaitsieretan, lan-segurtasunik eza handitzean eta, kasu askotan, aurretik zeuden lanpostuak eta onurak babesteko moduen deuseztatzean laburbildu daitezke (Harvey, 2007).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Fordismoaren zurruntasunekin zuzenean erkatuta dagoen ekoizpen eta erregulazio erregimen berria eraiki zen. Malgutasunak garrantzi handia du lan-prozesuei, eskulan-merkatuei, produktuei eta kontsumo-ereduei dagokienez. Baina gurera ekarriz, espazioari beste zentzu bat ematen dion terminoa daukagu hemen.

Se caracteriza por la emergencia de sectores totalmente nuevos de producción, nuevas formas de proporcionar servicios financieros, nuevos mercados y, sobre todo, niveles sumamente intensos de innovación comercial, tecnológica y organizativa. Ha traído cambios acelerados en la estructuración de: desarrollo desigual, tanto entre sectores como entre regiones geográficas, dando lugar, por ejemplo, a un gran aumento del empleo en el «sector de servicios- así como a nuevos conglomerados industriales en regiones hasta ahora subdesarrolladas (como la «Tercera Italia», Flandes, los diversos Silicon Valley, para no hablar de la vasta profusión de actividades en los países de reciente industrialización). Ha entrañado además una nueva vuelta de tuerca de lo que yo llamo “compresión espacio-temporal” en el mundo capitalista. (Harvey, 1990: 171).

Munduko atzeraldi ekonomikoak, herrialde hiper-garatuetan, 1980ko hamarkadara arte iraun zuen, eta desindustrializazio-prozesuak eskualde industrializatu zaharrenean hedatu ziren. Hazkunde-tasek behera egiten jarraitu zuten hamarkada horretan, baita estrategia arautzaile monetaristek eta neoliberallek enplegu betea sustatzeko, eskariaren kudeaketa instituzionalizatzeko eta gizarte-ongizate nazionala bermatzeko formula keynesiar tradizionalak ordeztzen zituztenean ere. Oro har, joera horiek iragarri zuten garapen erregimen fordistaren desegitea, Ipar Atlantikoko eta mendebaldeko eremu osoko erregulazio-ordenaren oinarria izan ziren eskala arteko eta erakunde arteko irtenbideen/konponbideen kolapso sistematikoa.

Hurrengo lerroetan, arestiko lerroetan iragarri dugunari forma emango diogu. Bestalde, 1970eko eta 1980ko hamarkadetako eraldaketa politiko-ekonomikoen (eta eskalarrek) sistema arautzaile keynesiarra eta haren forma espaziala ezegonkortu zuten moduak laburbilduko ditugu, mendebaldeko Europan ezarri zirenak, eta erregulazio kapitalistarekiko ikuspegi alternatiboak mugiarazteko espazio politikoa ireki zutenak. Testuinguru horretan, garrantzi berezia dute berregituraketa politiko-ekonomikoko lau prozesuk, elkarren artean oso lotuta badaude ere, haien artean ezberdinak direnak (Brenner, 2004).

1. Masa-ekoizpeneko industriaren gainbehera eta berregituratzea:

Hazkuntza-dinamika fordista oinarritzen zuten masa-ekoizpeneko industria tradizionalak, hala nola altzairua eta burdina, produktu petrokimikoak, makina-erremintak, etxetresna elektrikoak, ontzizintza eta antzekoak, murriztu egin ziren 1970eko hamarkadaren hasieran, nazioarteko lehia intentsifikatuaren, merkatuaren saturazioaren eta aldaketa teknologiko azeleratuaren konbinazio

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

baten ondorioz (Lipietz, 1987). Langabezia-tasak izugarri igo ziren planta itxiera, kaleratze eta industria-birkokatzeen olatua Europar mendebaldeko ekonomietan zabaldu zenean (Coriat eta Petit, 1991). Masa-ekoizpeneko modu berrituek eta “neofordistek”, azkenean, aipatutako sektoreen barrualdean kristaldu ziren Europako hainbat manufaktura-eskualdetan, baina hauen industria-ekoizpena eta enplegu betean zuten partaidetza nabarmen murriztu ziren, fordismoaren goiko aldiari lotutako mailekin alderatuta.

Taula 6: 2005. urtera arte galdutako industria enplegu kopurua zenbait hiri eta eskualdetan

Hiriak	Denboraldia	Galdutako industria enplegu kopurua
Leipzig (Hiria)	1989-1996	87.000
Bremen (Eskualdea)	1970-2003	55.000
Sheffield (Hiria)	1971-2004	86.000
Belfast (Hiria)	1973-2001	51.000
Bilbo (Gune metropolitanoa)	1976-2001	67.000
Bartzelona (Eskualdea)	1976-2001	36.000
Torino (Probintzia)	1971-2005	171.000
Saint-Étienne (Gune metropolitarra)	1977-2001	29.000

Iturria: Power et *al.* (2010) eta INEko Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuetatik abiatuta.

Aldaketa horien ondorioz, Europako garai fordistan gora egin zuten eskualdeetako askok, luzaroko krisiak bizi izan zituzten, langabezia masiboarekin, gizarte-asaldurarekin, azpiegituren narriadurarekin eta degradazio ekologiko zabalarekin (azken hau batez ere kutsadura handiko industria astuneko guneak husterakoan sumatu zen) (Albrechts eta Swyngedouw, 1989). Nahiz eta ekoizpen-sistema fordista mendebaldarrak desagertu ez, manufaktura-sektorean industria-lehiakortasunari eusteko baldintza sozio-instituzionalak sakonki berregituratu ziren, eta beste egituraketa geoekonomiko bat eraiki (Benko eta Dunford, 1991; Martinelli eta Schoenberger, 1991).

Garapen horiek arazo handiak izan zituzten garai fordista-keynesiarrean eraikitako lurralde-birbanaketa ereduarekin eta egituraketa espazial politikoarekin. Kontuan izan behar dugu keynesianismo espazialaren estrategietako bat, azpigaratutako eskualdeetan, zein puntu geografiko estrategikoetan, subsidio publikoak birbanatzea izan zela. Bigarren Mundu

Gerraren ondorengo urteetan, mendebaldeko eskala handiko eskualde industrialetan, industria-garapen etengabea eta gizarte-oparotasuna arazorik gabe aurreikus zitezkeen. Europako fordismoaren krisiaren ondoren, eskualdeen/hirien arteko parekatzea espazialaren ideia hori gero eta konplexuagoa bihurtu zen. Oro har, lurralde-garapen konfigurazio berri bat gauzatzen hasi zen, non, estrategia nazional keynesiarraren hutsune baten ondorioz, hiriak lanaren banaketa espazial supranazionalen barruan kokatzen hasiko ziren. Aurrerago modu zehatzago batean ikusiko dugun bezala, horrek, erdigune-periferia ardatzaren barruan, lurralde desoreka modu berriak sortzea ekarriko zuen, eta, azken batean, EGIr eredu berriak sortuko zituen, hiriak erregulaziorako funtsezko eragile gisa berregituratuz. Garai erregulatzailer sendoagoak irrikatuz, 1970eko hamarkadan, Europako mendebaldeko zenbait herrialde garatuz, espazio- eta lurraldearen-garapen irregularra orekatzen edo arautzen jarraitzeko asmoz, gainbeheran zeuden industria-hiriak lurralde-politika birbanatzaileak aurrera eramateko eremu apropostzat hartu zituzten, haien egitura administratiboa eta produktiboa birmoldatuz (Gómez, 2007; Lekue, 2022). Hala ere, geldialdi ekonomikoak irauten zuen heinean, eta aurrekontu nazionalak are gehiago estutzen ziren heinean, maila nazionalen berdintze espaziala sustatzearen bideragarritasuna zalantzan jarri zen (Peck, 2012; Davies eta Blanco, 2017).

2. Produkzio sistema malguen azelerazioa:

Ikusi dugunez, industria-sektore klasikoa, krisiak jota, ekoizpen-sistema malgu eta doituetan oinarritutako industria-sektore berrien ordezkatu zen, dena den, horrek ez du esan nahi historikoki leku edo espazio industrializatu berdinetan eman zirela pauso hauek. Oro har, diziplina anitzeko eskulanaren erabilerak eta azpikontratazioetan oinarritutako harreman zerratuetan, zein epe laburreko kontratuetan, egituratutako lanaren banaketa sozialaren hedapenak (Storper eta Scott, 1989), eragin handia izan zuten industria-ekonomia aurreratu guztietako lan-praktiketan eta industria-antolamenduan (Moody 1997; Scott eta Storper, 1992). Estrategia horiek egun ezagunak egiten zaizkigun lanaren banaketa espazial berriak eraikitzea eragin dute, hauetan, aginte- eta kontrol-funtzioak leku berean zentralizatuta daude, hautatutako kokapen zehatzetan hain zuzen. Ekoizpen-instalazioen hautaketa espazialaren logika, hornidura globaleko akordioak direla medio, kanporanzko sakabanatzean oinarritzen da. Antolaketa-aldaketa horiek informazioaren teknologia aurreratuen bitartez ahalbidetu dira (Castells, 1997; 1999), bai eta dagoeneko ezaguna den espazio-denboraren konpresioaren bidez ere (Harvey, 1990).

Munduko ekonomiaren beste eremu batzuetan bezala, mendebaldeko Europako testuinguruan, ekoizpen malguko sistemen kristalizazioaren lehengo pausoak “industria-barruti neo-marshalliarren”⁵⁰ deiturikoetan hautematen hasi zen, hots, tradizioz enpresa txiki eta ertainez menperatutako tokiko ekonomietan eta masa-ekoizpeneko teknologiek onarpen gutxi zuten tokietan (Sabel, 1994; Scott, 1988). Honek eraikiko zituen industria-gune berriez gain, ekoizpen-sistema malguk eta goi-mailako teknologiako industria-klusterrek ere garrantzi handia hartuko zuten Europako hiri handi eta ertainen barruan eta hauen inguruneetan, tradizio industrial pisutsua izan duten hirietan, ordea, lehenago aldi traumatiko jakin batetik igaro behar izan zuten: desindustrializazioarena.

Horrek keynesianismo espazialaren ahuleziak erakusten ditu nolabait; izan ere, konpentsazio- eta birbanaketa-estrategia erregulatzailerak ez dira nahikotzat jotzen, eta haien konponbide eta soluzio erregulatzailerak ez dira eraginkorrak, ez behintzat epe laburrera begiratuz.

3. Europako esparru ekonomikoaren globalizazioa eta integrazioa:

Ikerketa osoan zehar agerian gera daiteke nazioarteko tendentziek eragin nabaria dutela espazio murriztuagoetan, beraz, ezin dugu oraingoan esparru internazionala alde batera utzi. Egia esan, Europako ekonomia espaziala maila supranazionalen eta globalean integratu da. Europar Batasunak (EB) eta Europako Ekonomia Erkidegoak (EEE), muga-zergen abolizioarekin batera, Estatu kideetako ekonomien arteko nazioarteko merkataritzako eta atzerriko inbertsio zuzeneko prozesuak bizkortu zituzten. Kapitalaren mugikortasuna are errazagoa izan zen, bai transakzio-kostuak murriztuz joan zirelako, bai eta mende berri hasieran, Europako merkatu-kuotak bereganatzeko enpresen arteko lehia areagotzen zuen moneta bakar berriari esker (Leyshon eta Thrift, 1996).

Era berean, atzerriko inbertsio zuzena (ez euoparra) handituz joan da zonaldean, eta Europako korporazio nagusiek beren jarduerak nazioartekotu

⁵⁰ “Industria-barruti neo-marshalliarren” ezaugarriak honela laburbil daitezke. Alde batetik, atmosfera edo industria-giroa deritzona aurki dezakegu, gizartearen eta ekoizpenaren arteko elkargune bat, non tokiko komunitateak hartutako erabakiak industriaren presentziarengatik baldintzatuta dauden, eta aldi berean, harreman ekonomikoak gizarte-harremanek baldintzatuta dauden. Bestalde, industria-jardueren osagarri diren jarduera ekonomikoak aurrera eramaten dituzten enpresen arteko lanaren banaketa zabala izan ohi da, espezializazio aurreratua eta espezifikoa ezarritik (Amin and Thrift, 1992; Tappi, 2001).

dituzte, Ipar Amerikako, Japoniako edota Europako bertako atzerriko inbertsio-iturri zuzen garrantzitsuetan bihurtuz. Europako enpresen arteko mugaz gaindiko bat-egiteak, eskuratzeak eta aliantza estrategikoak ere, 1980ko hamarkadatik aurrera, nabarmen areagotuko ziren, gaur egunera arte (Amin eta Malmberg, 1994).

Europako, Ipar Amerikako eta Asiako enpresa nagusiak, Europako ekonomiaren merkatu-posizioengatik, elkarren artean oldarkor lehiatzen diren heinean, esan dezakegu, azken hamarkadetan, antolaketa- eta geografia-berregituraketa masiboen olatu bat martxan egon dela mendebaldeko Europan. Garapen horien ondorioz, EBko interesak gero eta zuzenago txertatzen ari dira mundu mailako sare deszentralizatu batek eratutako nazioz gaindiko kapital korporatiboaren “hiperespazioan” (Swyngedouw, 1989).

Keynesianismoaren lurraldeen arteko desoreka, batez ere, hazten ari ziren hirigune industrialen eta landa-periferia nahiko azpigaratuen arteko banaketa eredu batean plazaratu zen, nahiz eta irtenbideak bilatu eta espazio-banaketa erregulatzeko saiakerak egon maila naizoleko gobernuek aginduta. Hala ere, 1980ko hamarkadaren ondorengo globalizazio- eta europeizazio-patroiek, lurralde-antolaketaren piramide eredia ezegonkortu zuten, Europako eta mundu mailako lan banaketa espazioetan txertatu baitziren. Horrez gain, hainbat lurralde nazionaletan kokatutako metropoli-eskualde handien arteko harreman horizontalen sakontzea dinamika honen sustatzailea izan da (Veltz, 1997). “Uhartedi ekonomia” honen barruan, ohikoa bihurtu da hiri-metropoliak haien berehalako eragin-eremuetatik deskonektatzea eta nazioz gaindiko hiriarteko sareetarantz jotzea (Tomàs, 2023). Testuinguru geoekonomiko berri honetan, lurralde nazional bakar baten barruan hedapen-efektuak sortzeko proiektua gero eta malkartsuagoa bihurtu da. Ekonomia nazionalen lurralde- eta funtzio-koherentzia ahuldu denez, globalizazio- eta integrazio-prozesu europarrek polarizazio sozioespaziala eskala espazial anitzetan areagotzeko aukera izan dute, eta era berean, polarizazio hori arautzea helburu zuten estrategia politiko nazionalak ahuldu dituzte (Veltz, 2002). Eskalen indar-orekaren aldatze honi “birreskalamendua” deituko diogu, izan ere, aurrerantzean ikusiko dugun bezala, hirietan, hots, eskala lokalean, eta eskala globalean jarri baitzen arreta, eskala nazionalaren boterea birreskalatuz.

4. Ongizate-estatu nazional keynesiarraren krisia:

Honekin guztiarekin azken puntura iritsi gara. Krisi ekonomikoak, Europako ongizate-sistema nazional keynesiarretan zalantza sozio-instituzionalak eragin zituen (Jessop, 2002). Enplegu betea, prezioen egonkortasuna eta hazkunde iraunkorra eten egin ziren, eta langabeziak, zor publikoaren igoerak, azpiegituren eta zerbitzu publikoen narriadurak eta Estatuko aurrekontuen (eta, bereziki, gastu sozialen) murrizketek aurrekoak ordezkatu zituzten (Harvey, 1989). Horri erantzuteko asmoz, erregulazio-esperimentu postkeynesiar berriak abiatzen saiatu ziren, hala ere, kasu drastikoenetan Reagan-Tatcher ardatzaren ondorio neoliberalak gailendu ziren. Dena den, oro har Europan, 1980ko hamarkadaren amaieran, alde batetik, gerraosteko ongizate-estatuaren zimendu instituzionalak higatzen hasi ziren, eta bestetik, estatu-erregulazioko erregimen zatikatuagoa, mailakatuagoa eta merkatura bideratuagoa ezartzen hasi zen (Cerny, 1995). Horrela, aurretiko birbanatze-helburuak, egiturazko lehiakortasuna, lan-merkatuaren malgutasuna, kudeaketa publiko eraginkorra eta etengabeko berrikuntza sustatzearen mende geratu ziren.

Sozioespazialtasunaren alorrera eramanez, gizarte- eta lurralde-desberdintasunaren gerraosteko ikuspegia zalantzan jarriz, desoreka hau hazkunde makroekonomiko egonkorrerako oztopoa ote zen galdegin zioten askok beren buruari. Espazio-desberdintasunak, gero eta gehiago aurretiko baldintza saihestezin gisa eta merkatuak bultzatutako hazkundearen ondorio gisa interpretatu ziren, *ius propium*eko erregulazio-arazo gisa ikusi beharrean. Horren ondorioz, eskala nazionala jada ez zen ezinbestean lurralde eta espazioaren garapen irregular kapitalistaren erregulazioa aurrera eraman behar zuen maila prioritariotzat joko (Brenner eta Theodore, 2016). Beraz, 1970eko hamarkadaren amaieran, argi geratu zen, nazio-ekonomia itxien barruan urbanizazio, industrializazio eta politika espazial orekatua sustatzeko eta, orokorrean, EGIrra arintzeko proiektu nazionala, metaketa erregimen fordista beraren garaikidea izan zela (gogoan izan Taula 4). Hau da, eskala nazionalaren krisiak eta birreskalamenduak, esan bezala, estatu lokalak edo hiriak jarri zituen erdigunean, bai erregulazio erregimena aurrera eramateko, hori bera ere berrituz; baita, azken batean, EGIrraren erregulaziorako aukera berria (eskala lokaletik) aurrera eramateko

Aldaketa horien ondorioz, metatze-erregimen fordistatik metatze malguko erregimenera, postfordismora eta ezaguna dugun neoliberalizazio prozesuetarantz

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

igaroko gara. Prozesu hauek merkatua gizarte-antolamenduaren oinarri gisa birkokatzea funtsezkotzat jotzen dute, politika keynesiarrei aurrez aurre aurka egiteko estrategia bat beharrezkotzat hartuz. Friedrich Hayeken Austriar Eskola, alemaniarra (Ordoliberalismoarena) edo Milton Friedmanen Chicagoko Eskola izan, guztiek premiazkoa ikusi zuten ekintza politikoa Estatuaren paper erregulatzaileraren desegitea eragiteko (Peck, 2008). Ideologia neoliberalak gizartearen sakoneraino sartuko litzateke, keynesianismoaren berezko ongizate orokorra pentsamendu arrazional indibidualetik ulertu ezin daitekeen subjektibitatea dela onartuz. Ildo horretan, ikusi dugun bezala, gobernuen parte-hartzearen mugatzea defendatuko litzateke, pribatizazioa, desarautzea eta ekonomiaren desnazionalizazioa sustatuz. Estrategia hori gauzatzeko, ezinbesteko bi mekanismo egongo lirateke. Alde batetik, beharrezkoa litzateke biztanleek premisa teorikoak beren gain hartzea eta oinarri neoliberalak arrazional gisa barneratzea. Bestalde, politika ekonomiko neoliberalak ezinbestean babestuko lituzkeen esparru juridiko bat beharko litzateke, Estatuaren eskumenak baino lehen merkatuaren interesak defendatuko lituzkeena, hain zuzen (Ahedo eta Telleria, 2020).

Premisa horiek Europan sartu ziren eta modu natural eta mailakatuan hedatu ziren fordismoaren krisia pairatzen ari ziren gobernuak okupatuz. Estatu nazionalak 1980ko hamarkadara arte izan zuten botere arautzailearen ahultzea ikusi dugun arren, merezi du adieraztea ortodoxia ekonomiko monetarista eta neoliberal berriaren hedapen globalak inoiz baino eragin ideologiko indartsuagoa izan zuela (Harvey, 2007).

El complejo formado por Wall Street, el Fondo Monetario Internacional y el Departamento del Tesoro estadounidense, que vino a dominar la política económica [...] fue capaz de convencer, embaucar y (gracias a los programas de ajuste estructural administrados por el FMI) coaccionar a muchos Estados de los países en vías de desarrollo para emprender la senda neoliberal. (Harvey, *ibid.*: 100).

Garraio- eta komunikazio-kostuen murriztea, herrialdeen arteko mugen murriztea Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) akordioekin batera (besteak beste, Muga Zergei eta Merkataritzari Buruzko Akordio Orokorra, GATT ingelesez), lagungarri izan ziren oso kapitalaren mugikortasun geografikoan. Ildo horretan, kapital-fluxuen irekiera handiagoa bilatzen zuen ofentsiba neoliberalak presio gogorra egin zien Estatuari, hauen negozio-giroaren kalitatea (zerga txikiak enpresa handiei, malgutasunak kontratazioetan, etab.) arrakastarako baldintza erabakigarritzat har zezaten. Horiek horrela, Nazioarteko Diru Funtzak (NDF) eta Munduko Bankuak (MB) “neoliberalizazio-mailaren indizea” hartu zuten herrialde baten negozio-giroaren kalitatea neurtzeko neurgarri gisa, ondorioz, erreforma neoliberalak aurrera eramateko Estatu guztien gaineko presioa etengabe areagotu zen.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Orokorrean, inbertsio (eta atzerriko inbertsio) gehien eskaintzen zuten herrialdeek negozio-giro hobea zuten, eta horrek eskualdeen eta herrialdeen arteko garapen irregularra ekarri zuen ostera ere. Finantza-merkatuek berrikuntza- eta deserregulazio olatu indartsua gozatu zuten nazioarte mailan.

Fordismoan sortutako tendentzietatik suertatutako postfordismoak harekiko haustura ekarri izan du. Hortaz, postfordismoa bere baitan trantsizio bat izanik, fordismoa definitzeko erabili izan ditugun ardatz eta ezaugarrietan eragindako aldaketen bitartez laburbil daiteke (Jesosop, 1992): malgutasuneranzko joera duten lan-prozesuak; barne-merkatura bideratutako ohiko hazkunde-eredua, munduko eskarira eta etengabeko berrikuntzara bideratua dago orain (Peck eta Tickell, 2008); aurreko atalean puntuz puntu aztertutako EEGEak, eskaintzaren eta eskariaren logikek eta produktibitatearen beharrek agintzen dutenari egingo dio men, termino malguagoak egokituz ardatz erregulatzailer berrietan; eta, azkenik, "sozializazio" fordistaren desagerpena eta ekoizpen fordistako zentro zaharkituen galtzea, merkataritza-barruti eta esparru komertzialen ordeztuak aldatuko lirateke.

Horregatik, bat gatz Brennerekin et *al.* (2010b: 331), neoliberalizazioa honela ulertzen baitute: "joera historikoki espezifikoa, lerroduna, hibridoa eta, era berean, merkatuaren diziplinari lotutako berregituraketa erregulatzaileraz irregularki garatua "una tendencia históricamente específica, pautada, híbrida y desarrollada desigualmente de reestructuración regulatoria sujeta a la disciplina de mercado". Gidalerro horien arabera, neoliberalismoak praxitik hasiko luke bere ibilbidea, beraz, nahitaezkoztzat jotzen dugu "benetan izatedun neoliberalismoaren"⁵¹ kontzeptua aurrera ekartzea, izan ere, neoliberalismo terminoak berak tentsio bat sortzen du neoliberalismoaren eta neoliberalizazioaren zehaztaperen artean. Azken horrek prozesuari egiten dio erreferentzia, hots, estrategia arautzaile edo erregulatzaileretan egitura sozioekonomiko berriak eta dinamika berriak suntsitu eta sortu dituzten politika eta eraldaketa neoliberaleri egiten die erreferentzia, suntsipen sortzailearen logikak jarraituz.

Benetan izatedun neoliberalismoa

Fordismoaren krisiak, postfordismoak, zein ideologia neoliberalak proposatutako joera berriak aurkeztu ondoren, jarraian, Harveyren proposamenari jarraituz (2005:87),

⁵¹ Ingelesez "actually existing neoliberalism" gisa ezagutzen denaren itzulpen literala. Nolabaiteko erreferentzia batean, Samir Aminen (1989) "actually existing capitalism" kontzeptuari buelta bat ematean datza, terminoak eguneratuz. Aipatzekoa da kontzeptua, ia modu satirikoan, "actually existing socialism" kontzeptuaren kontrajartzea dela.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

“1970aren osteko munduko agertokian neoliberalizazioaren aurrerapenaren mapa mugikorra” sortzeko lan malkartsuari ekingo diogu. Argi izan behar dugu, fordismoaren kasuan bezala, ez dagoela definitzeko modu ezta ezaugarri unibertsalik; izan ere, neoliberalizazioa ez zen soilik leku (nazional) batean asmatu hertsapenaren, lehiaketaren, ikaskuntzaren, imitazioaren edo beste edozein mekanismoren bidez gertuko lurralde zabalagoetara proiektatzeko. Esan genezake, aitzitik, antzekotasun handiagoak dituela etengabeko (ber)mobilizazio, animazio eta indarberritze erregimen multipolar batekin, bai esku-hartzean eta erregulazioan huts egin duten aurreko boladen porrotengatik, bai izaera idilikoko ikuspegi estrategikoengatik (Peck, 2009:38).

Neoliberalismoak proposatzen duen erregulazio-egitura berria ulertze aldera, Brenner et al. (2010; 2010b) neoliberalizazio prozesuen hiru dimentsio analitiko nagusiz osatutako ikuspegi bat aurkezten dute. Ikuspegi horrek neoliberalizazioaren hedatze bidea ulertzeko aukera ematen digu, eta, gainera, aurrerago oinarri analitiko gisa balioko digu, suntsipen sortzailearen ibilbideak eta neoliberalizazio prozesuen garapen irregularrak interpretatzeko, gure hiri esparru kognitiborako funtsezkoa izango dena.




Lehenik eta behin, "esperimentu erregulatzailerak" nabarmentzen dira. Hauek toki batean gauzatzen diren proiektu espezifikoak ematen diete erreferentzia, batez ere maila lokalean, eta horien helburua merkatuaren interesak botere instituzionaleko egitura guztietan murgiltzea da. Proiektu horiek suntsipen- (merkatuaren interesak kontrolpean mantentzen zituen akordio arautzaileen egiturarena) eta sorkuntza-uneak eragiten dituzte (izan ere, merkatuaren forma erregulatzaileraren mesedetan egongo den azpiegitura politiko-instituzional berri bat hedatzen baitute) (Brenner eta Theodore, 2002; Peck eta Tickell, 2002).

Bigarrenik, politika neoliberalen prototipoak leku, lurralde, eskala eta sare berrien artean azkar hedatu direla nabarmenduta, "jurisdikzio arteko araudi-transferentziako sistema" gisa (*systems of inter-jurisdictional policy transfer*) eraikitzen dira. Sareak sortzen dituen garapen neoliberalaren dimentsio transnazionalari ematen diote erreferentzia hemen, testuinguru espezifikoetan baina estrapolagarrietan arazoei eta krisi erregulatzailerak *konponbide* moduan erantzuteko balio duena. Hala eta guztiz ere, ez dezagun ahaztu politika prototipiko horiek forma, eduki, harrera eta ondorengo bilakaera jakin bat duten testuinguruetan aplikatzen direla, eta horrek askotariko eta aurrez jakin ezin daitezkeen ondorioak eragin ditzakeela (Peck, 2010). Esperientzien transferentzia horiek, azken batean, prozesua legitimatzen dute, partekatua baita, eta horrek proiektu neoliberalak sendotzeko balio du, bai espazioan, bai erakundeetan.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Azkenik, neoliberalizazioaren alderdi parametrizantearen garrantzia azpimarratzen da. Izan ere, neoliberalizazioaren ezaugarria da jarduera politiko-instituzionalak mugatzen dituzten joko-arau jakin batzuk ezartzea (nazioz gaindiko erakunde-akordioak, lege-sistemak eta berriazko marko erregulatuak), batez ere merkatuaren interesak defendatzen dituzten arautze-parametroetatik atera ez daitezkeen. Hona hemen akordio neoliberalizatuen eta merkatu-diziplinako akordioaren eraikuntza, ezarpena eta erreproduzioa, hainbat araubidetan (MME, NDF eta MB) antzetzten direnak.

Irudia 4: Neoliberalizazio desartikulatutik neoliberalizazio sakondura

	BERRESTRUKTURAZIO ERREGULATZAILEAREN DIMENTSIOAK		
	ESPERIMENTSUA ETA SAIKERA ERREGULATZAILEA	PROTOTIPOEN TRANSFERENTZIA ARAUEMAILEA	ERREGIMEN ARAUEMAILEAK ETA PARAMETRIZAZIO PROZESUAK
1970ko hamarkada 	<p>NEOLIBERALIZAZIO DESARTIKULATUA</p> <p>“Keynesianismo berantiarren” akordio erregulatuak oraindik ziharduten. Egoera geoekonomikoa nahiko aurkakoa forma neoliberal berriak aurrera egiteko.</p>	<p>Ezgonkortasun geopolitikoari erantzunak emateko forma neokenesiarren transferentzia instituzional transnazionalen hasiera (Adibidea argia Txile eta AEBen artean. Gehitzekoa da kapital transnazionalak inbertsioak erakarri nahi zituzten krisiak kolpatutako hiri eta eskualdeak).</p> <p>Keynesianismoaren kritika ekonomiko eta ideologikoen hasiera. Mundu gerra osteko liberalismo ereduaren krisi eta aldaketak erregimen arauemailean.</p>	
1980ko hamarkada 	<p>Merkatuak gidatutako saiakera erregulatuaren areagotzea. Erreforma instituzionala eskala eta eremu estrategikoetan (AEB, Erresuma Batua, Latinoamerika)</p> <p>Politiken transferentziarako sare neokenesiarren ahultze/neke joera. Honi lotuta, akordio instituzional berrien araketa krisiari erantzuteko.</p> <p>Esperimentu erregulatuak erreforma instituzionala eta merkatura begira. Eboluzio transnazionala eta politiken estrategiak elkar konpartitzeko sareak. Puntu honetan hasi ziren monetarismoa, liberalizazioa, pribatizazioak edota aurrerago ikusiko ditugun hiri-enpresarialismoa eta gobernantza berria</p>	<p>Araudi progresista keynesiarren suntsipena, merkatuak gidatutako instituzio erregulatuak (globalak, supranazionalak eta nazionalak) birdefinituko dituen araudi berri baterantz.</p>	
1990ko hamarkadatik aurrera 	<p style="text-align: center;">NEOLIBERALIZAZIO SAKON(DU)A</p> <p>Erregulaziorako esperimentazio modu espezifikoa eta erreforma instituzionalak parametro neoliberalizatzaileen dinamikan geroz eta sakonago kokatuta daude, nahiz eta kasu batzuetan merkatuaren indarra murriztera bideratuta egon.</p> <p>Politiken transferentzia sistema neoliberalizatuak are mugikorragoak dira, batez ere krisirako tendentzietan aurrera egiteko eta merkatuak gidatutako berrestrukturazio erregulatuaren aurreko faseetan hasitako kontraesaneiei erantzunak emateko.</p> <p>Instituzio makroespazialak, zentzu neoliberalizatzaile batean, mendeko eskalengan jartzen dituzte merkatuaren parametroak esperimentazio erregulatuaren medio. Batez ere MMEak, EBak, NAFTAak, APECak, ELGAK eta G8ak markatutako baldintza eta akordioak.</p>		

Iturria: Brenner et al.-etik (2010b) moldatuta.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Irudi honen bitartez argi eta garbi ulertuko dugu nola ailegatu garen egungo benetan izatedun neoliberalizaziora arte. Hala ere, azpimarragarria da joera inbertitu egin daitekeela, kasuen analisisen atalean ikusiko dugun moduan. Egileen arabera, grisez marraztutako gelaxkek erregulazio berregituraketaren dimentsioak nabarmentzen dituzte. Aitzitik, zuriak merkatu keynesianistaren murrizketen ildotik doazen jarduera erregulatzailerako eremuak erakusten dituzte.

Irudian, lehen mailako neoliberalizaziotik – bitzita errealean soilik alderdi zehatzetan plazaratzen zena –, erabat finkatuta eta totalizatuta dagoen neoliberalizaziora arteko trantsizioa azaltzen da. Prozesu honek espazioan izan zituen, eta izaten jarraitzen duen, ondorioei buruz hausnartzeko premia ikusten dugu, batez ere garapen irregularrari eta politika publiko neoliberalizatuen ereduaren eta estrategien zirkulazio transnazionalari dagokienez, hots, hirietan eta eskualdeetan, Estatu nazionalan, ordena eskalarrean eta sortutako sare berrietan ematen diren mugimenduei dagokienez, hain zuzen.

Ikerketaren puntu honetan, agian agerikoak izan daitezke espazioaren eta erregulazio erregimenaren artean eman diren suntsipen sortzaileko prozesu berdintsuak. Izan ere, aurreko irudian azaldutako trantsizioa aztertzerakoan, suntsipen sortzaileko prozesu bat ari gara ikertzen, baina kasu honetan bere osotasunean. Hau da, ez da soilik ondorio espazialak edo tokiei berariaz lotuta dagoen momentu sortzaile baten kontua, baizik eta neoliberalizazioak egitura arautzaile fordista eta haren erakundeak erabat suntsitu dituela eta berreraiki dituela azpimarratzen dugu. Argi geratu behar da, espazioaren politikari ere eragin dion birsortze honek merkatu-diziplinara bideratutako esparru geoinstituzional berri bat eraiki duela (Theodore et al., 2011). Hala, Crottyren arabera (2003:361), *“is built on deregulation, liberalization, privatization and ever tighter global integration”* erregimen desarrollista keynesiarraren printzipioak nabarmen kontrajartzen ditu, politikoki kudeatutako egitura instituzionalen bitartez bitzita soziopolitikoak integratzeko joera nagusi batekin.

It should be recognized that the destructive and creative moments of institutional change within actually existing neoliberalism are intimately, inextricably interconnected in practice. Our use of the term “moments” to describe these interconnections is therefore intended in the Hegelian-Marxian sense of conflictual yet mutually related elements within a dynamic, dialectical process, rather than as a description of distinct temporal units within a linear transition. (Theodore et al., 2011).

Hurrengo atalean azalduko dugunez, neoliberalizazioari buruzko ikuspegi honek bere izaera heterogeneoa azpimarratzen du (Peck eta Theodore, 2007). Egia da mobilizatu diren testuinguru guztietan, neoliberalizazio-prozesuek merkaturatzea eta merkantilizazioa erraztu dutela, eta, aldi berean, toki, lurralde, eskala eta sareetan erregulazio-formen garapen irregularra areagotu dutela. Baina neoliberalizazio-

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

prozesuen izaera anizkuna azpimarratzea kontraesankorra izan daiteke erregulazio-sistemen homogeneizazio eta konbergentzia globalerako nagusitasunarekin, batez ere, eskala nazionalen azterketa egiten baldin badugu (parametrizazioaren teori buruz ari gara).

4. EGIRRAREN ADIERAZPEN BERRIAK ETA SUNTSIPEN SORTZAILE NEOLIBERALA DIMENTSIO URBANOAN

The old bugbear of uneven development refuses to go away despite the blurring of borders and extension of transnational corporations. It keeps coming back in new forms.

Walker, R. (1997).

Ikerketa honen erreferentzia-markoa zein izango den azaldu aurretik, espazioa ulertzeko moduari berriro heltzea komenigarritzat jotzen dugu, ondoren ofentsiba neoliberalari eta honen formei buruz egingo dugun irakurketarekin konbinatzeko. Alde horretatik ez gara soilik maila nazionalen edo nazioarte-mailan zentratuko, eskala hauek aski ezagunak baitira; ostera, gure kasuan, neoliberalismoak hirietan, bertako espazioetan eta egitura instituzionaletan dituen baldintzak, dimentsioak eta ondorioak azpimarratuko ditugu.

Hasieran adierazi dugun bezala, espazioa “está constituido por redes generadas socialmente y horizontes de acción social que dividen y organizan el mundo (o los mundos) material, social e imaginario, y también orientan las acciones respecto a esas divisiones” (Jessop, 2017; 182). Hau da, espazioa sozialki sortzen da (interes jakin batzuen alde) eta boterearen eztabaidarako lekua da (erregimen arautzailearena eta, azkenik, gobernantzaarena). Gainera, Lefebvrek bere obra osoan adierazi zuen bezala, espazioa hainbat eskala edo mailatan eraiki eta gobernatzen dela onartzen dugu, arlo pertsonaletik hasita, komunitatetik igarota, unibertsaleraino, eta baita planetatik kanpo⁵² ere.

⁵² Agian deigarria izan daiteke zentzu galaktikoari edo “kanpoko espazioa” estralurtarrari “egiten diogun erreferentzia. Seguruena adibide labur batekin ulergarria egin daiteke. Elon Musk enpresari ezagun zein polemikoak, beste konpainia batzuen artean Tesla eta Pay-Pal-en sortzaileak, Marte planetaren kolonizazioaren aldeko apustuari ekin dio. Berak sortutako enpresak dira (*Space X* edo *Starlink*, kasu) hemen aktore garrantzitsuenak. Azken horren ideia Lurreko biztanle guztiei Internet satelitea emango dien satelite-sare bat eraikitzean datza, hau da, lurraren inguruan orbita egingo duen satelite-konstelazio bat egitean. Honen alde kontrajarria frantziar estatuko herritxo batean gertatu da. Saint-Senier-de-Beuvron herrian

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Baina historian zehar beti existitu da espazioaren gain botere politikoa kudeatzen eta artikulatzen duen estatalitate bat, hots, botere politikoa osatzen zuten erregeen, kalifen eta abarren figuratik, Estatu gisa identifikatzen dugun irudi sinboliko eta abstraktura.

Aipatu behar da ikerketa honetan ez dugula Estatuaren kontzeptua lurralde-eremu nazionalera mugatzen, are gehiago, haren erabilera tokiko eta eskualde-mailara zabaltzen dugu, "estatalitatea" lurralde eta espazio espezifikoean arautzeko botere gisa ulertuta, funtsezko lau une espazialak kontuan izanda (Lurraldea, Lekua, Eskala eta Sarea). Lau dimentsio sozioespazial hauek espazioaren ikuskera praktikoa laguntzen digute. Aurreko atalean ikusi ahal izan dugunez, Estatu nazionalaren figura azpimarratzen dugu, fordismoan zehar izan duen erregulazio-rol garrantzitsuagatik, baina azken hamarkadetan, beste eskala eta forma estatalen mesedetan, izan duen botere politikoa eta estatalitatearen birreskalamendu edo hustutze prozesuagatik baita ere (Mayer, 1994; Brenner, 2003).

Birreskalamenduara hainbat eskalaren artean beste botere-oreka bat agertzen denean edo eraldatzen denean eman ohi da, berez, birreskalamendua ez du zertan eszenatoki egongorraga edo justuago/proporzionalagoa eraiki, nahiz eta guri interesatzen zaigun birreskalamenduak egoera orekatuago bat eraiki izana. Europako kasuari erreparatzen badiogu, adibidez, ikusiko dugu bertako Estatu nazionalak birreskalamendu prozesu dualean murgilduta daudela (Sevilla-Buitrago, 2017). Alde batetik, egiaztatu dugu nola nazioz gairik gabeko gobernuen forma berrietan birkokatu ahal izateko esparru eta politika instituzional berriak sortu behar izan dituzten. Eta, bestetik, gobernantza modu berriak errazten dizkiete tokiko eskalei, hala nola parteneriatu publiko-pribatuak (PPP) (Harmes, 2006; Franquesa, 2007; Ahedo eta Telleria, 2020), eta autonomia handiagoa eskaintzen dute plangintza ekonomikoari dagokionez. Hala, alde batetik, hirietan azpiegitura mugiezinak pilatzen jarraitzen dute (energia-iturriak, komunikazio-sareak, enpresa-egoitzak, etab.); eta, bestetik, fordismo-keynesiarraren garaian txanponaren erregulazioaz, legeriaz, gizarte-ongizateaz eta espazioaren kudeaketaz arduratu ziren Estatu nazionalak (Lefebvre, 1978:298), neurri batean, botere hori tokiko eskalari lagatzen diote, eta, jakina, nazioz gairik gabekoari (Goikoetxea, 2018).

sortutako aurkakotasuna azpimarratu nahi dugu. Izan ere, 350 biztanleko herri normando horrek uko egin dio satelite horiek kontrolatzeko enpresak instalatu nahi zituen antena eta bola paraboliko guztiak hartzeari.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

EGIrraren kristalizazio berriak benetan lizatedun neoliberalismoaren dimentsio sozioespazialean

Arautze-ahalmenaren inguruan egindako sarrera labur honen ondoren eta, oro har, arautze-erregimenen berregituraketa berriaren inguruan egindako laburpenaren ondoren, Estatu nazionalen (berr)eskalamendu horrek zer susposatzen duen ikusiko dugu. Alde batetik, fordismoaren prozesuen, dinamiken eta egituren suntsipena eta birsortze bat ematen da; eta, bestetik, lehenago garapen irregularraren kristalizazio berriei buruz adierazten genuena aintzat hartuko dugu, honek are gehiago zailtzen edo konplexuagotu egiten baitu mendebaldeko kapitalismoaren haragitzea egungo maila lokalean.

Horrela, bada, Jessopen proposamenei jarraituz, neoliberalismoak eta, oro har, kapitalismo modernoak jada aipatutako funtsezko lau dimentsio geografiko dituela baieztatzen dugu: lekua, lurraldea, eskala eta sareak (Brenner, 2001; Jessop, 2017). Aurreko ataletan aldagai horiek ikusi ditugun arren, orain arte ez ditugu behar bezala nabarmendu. Izan ere, fordismo keynesiarrean eta eraso edo ofentsiba neoliberalen aurreko urteetan existitzen zen egoera azaltzeko balio bazuten ere, proto-neoliberalismoak aurrera eramandako esperimentu arautzaileak identifikatzeko funtsezkotzat jotzen ditugu.

Aurretik azaldutako parametrizazioaren eraginari erreferentzia egiten dion ezaugarri homogeneousatzailea ukatu gabe, dimentsio sozioespazial bakoitzean EGIrraren kristalizazio berri bat gertatu dela azaldu nahi dugu. Brenner (2009) eta Sheppard (2009) egileen arabera, modernitate kapitalistan, espazio soziala edo sozioespazialtasuna batera eratzen da "lekuaren", "lurraldetasunaren", "eskalatzearen" eta "sare funtzionamenduaren" bidez. Ikus dezagun zeri egiten dioten erreferentzia termino horiek:

- **Lekua:** hurbiltasun geografikoa eskatzen du, gizarte-harremanak kokapen zehatzetan txertatzea eta zonaldeak bereizteko ereduak egotea eskatzen du.
- **Lurraldetasuna:** gizarte-harremanak mugatzea, ixtea eta zatikatzea. Garapen makrogeografikoaren alderdiei lotuta dago. Espazioaren "mugatzeari" egiten dio erreferentzia.
- **Eskalatzea:** maila globalaren, nazioz gaindikoaren, nazionalaren, eskualdekoaren, hirikoaren eta tokikoaren arteko gizarte-harremanen bereizketa bertikala dakar.
- **Sare funtzionamendua:** kokapen edo unitate antolatuen eta geografikoki sakabanatuen arteko zeharkako konexioak.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Lau eredu dimentsional horiek espazioaren izaera polimorfikoa definitzen dute kapitalismoan, eta, horren ondorioz, ezinbestekoak dira aztertzeke orduan "las geografías de cualquier proceso social como el desarrollo desigual" (Brenner, ibid.: 201). Beraz, funtsezkoa da dimentsio horietan EGIRRAREN kristalizazio eta berregituraketa berriak ezagutzea.

Lehen blokean azaldutakoa gogoratu, XVIII. mendearen erdialdeko industrializazio progresibo eta kapitalistatik, urbanizazio-prozesuak bizkortzen joan dira, kapitala eta lana eskala handiko ekoizpeneko espazio espezializatuen barruan biltzen ziren heinean (hots, hirietan). Horrela, merkataritza-sareak sortu ziren, eta kapital globalen metaketarako-espazioen eta gaitasunen arabera, lekuen mundo-matrize bat finkatu zen. Jarraian, EGIRRAREN lehen ereduaren artikulazioa nabarmenduko dugu aipaturako dimentsio sozioespazialean.

Lekuetan, EGIRRA lau modutan eratu zen eta konfiguratu jarraitzen du: a) kapitalen kontzentrazioa, bizitegi-segregazioaren, hiri-espazioaren banaketa funtzionalaren eta kapitalismoa erreproduzitzeko beharrezkoak diren hiri-azpiegitura berrien kokapenaren ondorioz; b) hiri-/landa-arrakala; c) Iparraldearen ustiapena (sinplifikatua) Hegoalde globalaren aurka, azken horiek periferiara kondentatu⁵³; eta d) lanaren nazioarteko banaketak jasaten duen suntsipen sortzailea, aldaketa teknologikoen ondorioz.

⁵³ Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harreman desorekatuak bereiztea inperialismoa sinplifikatzea da. Harveyk Prabhat eta Utsa Patnaiken *A Theory of Imperialism* liburuari egindako iruzkinetan adierazten duen bezala, garapen geografiko irregularraren eskema lehenestek ez dakar "deny at all the complex flows of value that expand the accumulation of wealth and power in one part of the world at the expense of another". Alex Callinicos (2009:186) autoreak dioen bezala, hemen honako hau adieraztea komenigarria da:

the global hierarchy of economic and military power that is a fundamental consequence of the uneven and combined development inherent in capitalist imperialism was not dissolved, but was rather complicated by the emergence of new centres of capital accumulation.

Horrela, Harvey eta John Smithen arteko egungo neoliberalismoan existitzen den inperialismoari buruzko eztabaida polemiko eta landua jasotzen dugu. Lehenengoak testuinguru berri bat onartzen du, non "desjabetzearen bidezko metaketa" (gizarte-zerbitzu eta -bermeen deuseztapena eta welfare state-aren suntsipena) nagusitzen den; bigarrenak, berriz, hori gainbalioa ateratzeko modu nagusia dela ukatu egiten du, eta Iparraldeak Hegoalde Globalaren aurka duen "superustiapena" azpimarratzen du, neoliberalismo globalaren prozesu nagusi gisa. Gure kasuan, posizio bakoitzaren ñabardurak alde batera utzita, eta "jatorrizko metaketa" marxista aitortuta, bi dinamikak suntsipen sortzaile neoliberalaren erreproduziotzat hartzen ditugu. Bi ikuspegiak bateragarriak izanik, tresna onuragarriak dituzte ulertzeko, alde batetik,

Lurraldeei erreparatzen badiegu, espazioen "mugapen" gisa ulertzen baditugu, hau da, mugen delimitazio moduan, esan dezakegu Estatuaren lurralde-antolamendu zehatzek (ez nahitaez nazionalak) EGIRRAREN formak antolatu, neurtu eta aldatu dituztela: a) desberdintasunak lurraldeetan izaten dira eta dimentsio honen gainean jarduten da (borondatearen arabera); b) mugak kapitalaren mugimenduak baino zurrunagoak dira, eta, beraz, Estatuak suntsipen sortzailerako joera murriz dezakete, kapitalaren interesek eragindako suntsipen sortzailea behintzat; c) honi lotuta, kapitalaren logikak esaten digu honek beti bilatuko dituela inbertitzeko lurralde lehiakorragoak, eta, beraz, lurraldeen kontzepzioak berak (hiriak, estatuak edo nazioz gaindiko eskualdeek, EBk bezala) ahalbidetzen du desberdintasunak sortzea; d) fordista-keynesiar aldiak erakusten digunez, Estatuak konponbide instituzionalen bidez esku har dezakete, egoerak iraultzeko edo arautzeko asmoz; horrela, Estatu-erakundeek EGIRRAREN gain eragin dezakete, industria-politiken, garapen ekonomikoko ekimenen, azpiegituretako inbertsioen eta abarren bidez.

Eskalei dagokienez, kasu honetan espazioan izaten diren desberdintasunak modu bertikalean suertatzen dira. Lekuei eta lurraldeei dagokienez, desberdintasunak modu horizontalean eta gainazalean gertatzen ziren, hurrenez hurren; eskalen dimentsio sozioespazialean, berriz, goitik behera eta alderantziz. Lanaren espazio-banaketek eta botere politiko kapitalistak industrializazioan zehar izan zuen lurraldekotzeak EGIRRAREN funtsezko hiru alderdi garatu zituen maila eskalarrean. Lehenik eta behin, eskualdeko eskala ezarri zen kapitala eta eskulana metatzeko eta kontzentratzeko, eta horrek espazio-antolaketa desberdina eragin zuen hiriarteko mailan, hau da, eremuen eta auzoen artean. Bigarrenik, eskala globala hartu zen erreferentziatzat, "behin betiko ortzi-muga geografikoak" kapitalismoa garai hartan urrutikoak ziren eremuetara hedatzea eragin zuen (horrek erraztu egingo zuen lehen aipatutako erdiguneko/periferietako polarizazioa sortzea). Hirugarrenik, eskala nazionala ezarri zen lehia kapitalistaren bitartekaritzarako eremu arautu gisa. XX. mendetik aurrera, eskala nazionala pixkanaka munduko eskala nagusi bihurtu zen, bai EGIRRARENTZAT, bai hau kudeatzeko estrategiak sortzeko. Mende amaierara arte iraun zuen horrek, dakigunez kapitalismo fordista-keynesiarraren krisiarekin erori baitzen eskala horren nagusitasuna.

Orain, testuingurua apur bat kokatu ondoren, eskalatze-prozesuek EGIRRAREN prozesu berriengan duten eragina: a) eskalen araberrako antolaketak dakarren armazoi hierarkikoak EGIRRAREN kristalizatzea errazten du eta egonkortasuna ematen dio aldaketa-prozesuen aurrean; b) eskala bakoitzak bere baitan hartzen dituen lan-banaketek ("lanaren banaketa eskalarra") batzuen eta besteen menderatzea errazten

bai tokiko/eskualdeko dinamikak, eta, bestetik, baita ekonomia politiko globalaren eremuan gertatzen diren prozesuak ere.

dute; eta c) konponbide eta akordio eskalarrek, eskalaren araberako lanaren banaketak dakarren eskalen menderatze horri eusteko funtzioa betetzen dute; d) konponbideak desegonkortzen direnean, birreskalamendu-prozesuak gertatzen dira. Ildo honetan, eskala nazionala nazioz gaindiko eta nazioz azpiko eskalek erlatibizatu eta birreskalatzen dute orain, eta, beraz, ezin dugu esan EGIrra eskala baten inguruan bakarrik konfiguratzeko denik.

Azkenik, *sareek* lotura horizontalak ezartzen dituzte sakabanatutako puntu geografikoen eta neoliberalismoaren gainazal arin eta ezegonkor baten gainean, 80ko hamarkadatik aurrera. Hirien arteko merkataritza-, garraio-, gizarte mugimendu- sareek eta abarrekoek hiri-kontzentrazioarako ereduak erraztu dituzte. Sareen eta leku, lurralde eta eskalen arteko loturak agerikoak dira, eta korrelazio horrek eragina izan dezake EGIrraren patroietan: a) sareek ezarritakoaren gainean soilik jarduten badute, egungo desberdintasun sozioespazialaren geografiak soilik indartzen dituzte; eta b) sarean antolatutako botere-hierarkia ez-demokratikoak egoteak, beraien kanpoaldearekiko baztertzailak izatea eragiten du, eta, gainera, eragile jakin batzuk baztertzea eragin dezake.

XXI. mendearen aurreko hamarkadetan gobernu tradizionaletik gobernantza eredu berrira aldatu zenean, aktore-sareak biderkatu eta eskala guztietan arteko harremanak (instituzionalizatuak edo ez) zaildu egin ziren. Horri esker, gobernantzaren boomaren aurreko botere-desoreken oinordeko den EGIrrak, desberdintasun horien erreprodukzioa betikotu ahal izango du.

Aipatzekoa da orain aurkezten diren dimentsio sozioespazial guztiak gizarte-mobilizazioetarako euskarri eta lur bihur daitezkeela, EGIrraren patroia eta dinamika zabalagoak desegonkortu edo alda ditzaketanak. Hau da, dimentsio horiek EGIrraren kristalizatzea ahalbidetzen duten aldi berean, dinamika horiek leheneratuko dituzten alternatibak sustatzeko jokalekua ere badira. Fordismo-keynesiarreko hiri industrialetan izandako EGIrraren kristalizazioa, eskala nazionalen erregulazio-botereari lotuta zegoen. Baina birreskalamendua eragin zuten sakontze neoliberalerako eta suntsipen sortzaileko prozesuek funtsezko rola ematen diete egungo hiriei (industrial edo postindustrial izateaz haratago) araututako deserregulazioan, eta EGIrra tokiko eta hirietako estatu-estrategien bidez alda dadin ahalbidetzen dute (Bartzelonan eta Bilbon ikusiko dugu).

Benetan izatedun neoliberalismoaren praktika suntsitzaile eta sortzaileak

Neoliberalizazio-prozesuen aniztasunak hainbat aldaketa dakartza berekin, eta aldaketa horiek, noski, irregularrak dira, are gehiago, metatuz gero, berariazko garapen arautzaile irregularraren forma kualitatiboan aldaketak sor ditzakete, batez ere prozesu bakoitzak espezifikazio zehatzak dituelako, *path dependence*arekin zerikusia dutenak (Brenner et al., 2010). Honek erakusten diguna zera da, neoliberalizazio sakoneko prozesuek (Taula 7) geoinstituzioen arteko bereizketa areagotu dutela. Zirkulazio sistema intereskarrez osatutako makroespazialitateen marko batek zuzendu, ekoitzi eta aldatutako beste ordena geoinstituzional bat, hain zuzen.

Kontuan izan behar dugu sistema eta marko horiek mutanteak, ez-jarraiak eta espazioan heterogeneoak direla, eta, horregatik, neoliberalizazio-prozesuak hainbat modutan garatzen direla, modu garbi eta zorrotzean haztera iritsi gabe (Amin, 2000). Neoliberalizazio-prozesuen garapen historikoa “ondulazio-fenomeno” gisa identifikatua izan da, forma irregularragatik azpimarragarria, baina gero eta sakonagoa, hedapenerako eta elkarrekiko mendekotasunerako prestatua (Sevilla-Buitrago, 2015; Simmons et al. 2008).

Los programas neoliberales de reestructuración capitalista raramente, si es que ello llega a ocurrir, son impuestos en una forma pura, porque siempre están introducidos en contextos político-institucionales que han sido moldeados significativamente por regulaciones, prácticas institucionalizadas y acuerdos políticos establecidos con anterioridad. En este sentido, la evolución de toda configuración político-institucional producto de la imposición de reformas basadas en políticas neoliberales posiblemente tenga fuertes rasgos de dependencia de la trayectoria, en la cual los acuerdos institucionales existentes limiten de manera importante el alcance y trayectoria de la reforma. (Brenner eta Theodore, 2002: 361).

Hori esanda, kapitalismoaren erakunde guneak progresiboki eraldatzen ari diren sartu-irten neoliberalak desegituratuak, patroirik gabe edo zehaztugabe daudela pentsatzea ez litzateke zuzena izango. Neoliberalismoaren ildo ideologikoen helburu estrategikoak (muga-zergen afera, birbanaketa sozioespazialeko sistemak, aurrekontu-murrizketa leunak eta konpentsazio-boterezko eserlekuak, eta abarrekoak), zein lehentasun estrategikoak (merkataritza-liberalizazioa, diziplina fiskala, enpresa- eta finantza-deserregulazioa, merkatuaren malgutasuna eta jurisdikzioen arteko lehia-harremanen sustapena, eta abarrekoak) ezartzen dituzte, normalean merkatu-aurrerapenaren defentsaren diskurtsoan ezkutatuta. Ofentsiba-une horiek bat datoz herediatutako paisaia instituzionalen ahulezia politikoko edo krisialdiko uneekin, irekiera koiunturalekin eta aukera estrategikoekin (hala nola, inflazio-presioak, langabeziaren igoera, kapitalen ihesa, industria-geldialdia, moneta-ezgonkortasuna, gobernu-

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

eraginkortasun eza, gizarte-ondoeza edo sindikalismoa). Horiek guztiek neoliberalismoari aukera ematen diote merkataritza-erregulazioko estrategietan aurrera egiteko (Brenner et *al.*, *ibid.*).

Neoliberalizazio-prozesuek, gainera, beste joera erregulatzailerik batzuetatik bereizten diren bi ezaugarrietatik nabarmentzen dira: alde batetik, bizitza sozialaren eremu guztien merkantilizazioa areagotzen dutela (Ahedo eta Telleria, *ibid.*); eta, bestetik “espekulaziorako finantza-tresnak mobilizatzen dituela kapital-metaketa nitxo berriak aurkitzeko” (Brenner et *al.* 2010b), hau espazioari buruzko kapituluan aipatu izan dugu, neoliberalismoak, merkatuaren interesetarako, espazioak espresuki eskaintzen dituen aukerak esploratzen baititu.

Horregatik guztiagatik, egokia iruditzen zaigu “benetan izatedun neoliberalismoaren” kontzeptua aurrerantzean kontuan izatea. Kontzeptu honek:

Destaca la inserción contextual de los proyectos de reestructuración neoliberal, y su dependencia de la trayectoria [...] Este concepto ofrece una base analítica a partir de la cual explorar la producción de tales proyectos al interior de contextos nacionales, regionales y locales específicos, cuya especificidad está determinada por el legado de marcos institucionales, políticas estatales, prácticas regulatorias y conflictos políticos que han sido transmitidos a través del tiempo. (Theodore et *al.*, 2011: 17-18).

Atal honen hasieran adierazi dugun bezala, Theodore et *al.* (*ibid.*) autoreen arabera, benetan izatedun neoliberalismoa edozein eszenatoki eta paisaia instituzionalera moldatzeko estrategia gisa ulertzeko (Mittelman, 2000), oinordetzan hartutako agertoki instituzionalen eta merkatura bideratutako berregituratze proiektu neoliberalen arteko ibilbidearen eta testuinguruaren mendeko interakzioak hainbat maila sozioespazialean aztertu behar ditugu (López eta Rodríguez, 2013).

Gogoeta hauek direla eta, neoliberalizazio-prozesu garaikideak, etenik ez duen espazioaren suntsipen sortzailearen katalizatzaileak dira. Hau hobe ulertzeko eta espazio berrien sorrera nola ematen den ulertzeko, Harveyk (2008), “desjabetzearen bidezko metaketaren” kontzeptuaren bitartez, lau elementu nagusi identifikatzen ditu egungo neoliberalismoa definitzeko, ez daudenak zeharo espazioarekin lotuta, baina hotza astintze aldera interesgarriak izan daitezke arlo ekonomikoan barrena abiatzen hasteko.

- **Pribatizazioak:** Proiektu neoliberalaren ezaugarri nagusietako bat errentagarritasuna bilatzetik kanpo dauden ondasun publikoak korporatibizatzea, merkantilizatzea eta pribatizatzea izan da. Era guztietako zerbitzu publikoak (ura, telekomunikazioak, garraioa), gizarte ongizateko zerbitzuak (etxebizitza soziala, hezkuntza, osasun laguntza, pentsioak), erakunde publikoak (hala nola,


unibertsitateak, ikerketa laborategiak, kartzelak), eta kasu batzuetan, gerrak ere pribatizatu egin dira hein handi batean, Iraken edo bestelakoetan aritu izan diren kontratistek eta mertzenarioek erakusten digutenez. Forma kulturalen, historiaren eta sormen intelektualaren merkantilizazioak ere (turismoaren bidez) desjabetzeen hedapena dakar, eta desjabetza horiek eragin zeharo zuzena dute adibidez hirietako espazioetan. Horrela beraz, marko erregulatzailen berregituraketarekin lan indarra eta ingurumena babesten zituzten eskubideen balioa deuseztatuz joan da. Prozesu horiek guztiek ondasun eta baliabideen transferentzia bilatzen dute, domeinu publiko eta herrikoitik, domeinu pribatura eta klase pribilegiatuetera, hain zuzen.

- **Finantziarizazioa:** 1970eko hamarkadan hasitako finantziarizazio prozesuak izaera basati eta espekulatzaila izan zuen (ikusi Joyadev et *al.*, 2018). Finantziarizazioak kapitalaren metatzea ahalbidetzen du merkantzien ekoizpenaren bitartekaritza gabe (M-D-M logika jarraitzetik, D-D logika jarraitzera⁵⁴). Estatuak zuen erregulazio boterearen deuseztapenaren ondorioz, finantza sistema birbanaketa eteteko tresna nagusietako bat bihurtu da, espekulazioaren, amortizazioaren, iruzurraren eta lapurretaren bidez (Harvey, 2019).

Bretton Woodseko akordioen suntsipenarekin (eta dolarraren askapenarekin), ikusi bezala, errendimendu finantzarioak monetaren espekulazioarekin eta truketaren igoeraren edo jaitsieraren aldeko apustuak egiten hasi ziren. Halaber, enpresa multinazionalak akzio bidez finantzatzeak, eta ez banku-kredituen bidez, eragina izan zuen. 80ko hamarkadan zehar, finantza sektorearen irabaziak –zentu zabalean ulertuta, *FIRE* sektorea bezala, hots, finantza agenteak, aseguru konpainiak eta higiezinaren jarduerak– irabazi industrialak berdindu zituzten mendebaldeko ekonomia nagusietan, 1990eko hamarkadan zehar gainditzeko (López eta Rodríguez, *ibid.*). Azkenik, etxeko ekonomien finantziarizazioa jazo zen, kredituen merkearaztea, hipoteken merkatuen erreformak eta inbertsio kolektiboko erakundearen hedapenak, zorpetze pribatuaren pizgarria izan ziren. Honek azalduko luke likidezia fluxu handiek egindako higiezinaren merkaturanzko norabide aldaketa.


⁵⁴ Harveyk (1982) adierazten duen bezala neoliberalismoak Merkantzia-Dirua-Merkantzia (M-D-M) logika (baita gero eta gehiago D-M-D logika kapitalista), Dirua-Dirua (Dirua-Dirua) logikaren ordez aldatu egiten du. Honen arabera, kapitala, diru gehiago lortzeko zirkulazioan jarritako dirua izango litzateke (Harvey, *ibid.*)

Irudia 5: FIRE sektorearen balio erantsiaren igoera (Europako ekonomia sektore guztien balio erantsiaren ehunekoarekin alderatuta)



Iturria: EU KLEMS (Joyadev et al., 2018: 362).

Irudia 6: Europako etxeko ekonomien banku-aktiboak BPGaren ehunekotan



Iturria: EU KLEMS (Joyadev et al., 2018: 362)

- **Krisien kudeaketa eta manipulazioa:** “zorraren iruzurra” deiturikoa izan da desjabetzearen bidezko metaketa ahalbidetu egin duena. Sistema finantzarioak sortutako burbuila espekulatiboen ezteandek ekarri dituzten krisiak izan dira herrialde txiroak are gehiago pobretu dituztenak. 1979an interes tasen igoerarekin, herrialde eta erakunde mailegu-emaitzaileek (NDF, Wall Street eta AEBko Erreserba Federalaren esanetara) kanpo mozkinen proportzioa handitu zuten,

herrialde mailegu-hartzaileek hartutako zorraren interesek gora egin baitzuten. Azken horiek, itota, porrot ekonomikora behartuak izan ziren, eta ondoren, egiturazko doikuntzak onartu behar izan zituzten, Mexikok edo Argentinak bezala, hain zuzen. Finantza krisiek jabetza eta botere transferentziak eragin dituzte, haien aktiboak oso-osorik mantentzen dituzten herrialdeentzat eta kreditua sortzeko moduan dauden nazioarteko erakundeentzat. Entitate supranazionalen garrantzia eta oinarritzko papera ulertzeko Grezia edo Espainiako kasu berriagoetara ere jo dezakegu. Aipatzekoa da Europar instituzioek “Beltzeko Gizonak” (*Men in black*) gisa izendatu zituztela krisian zeuden herrialdeetan neurri ekonomiko berriak ezarriko zituzten NDFko teknokratak.

- **Estatupeko birbanatzeak:** pribatizazioez gain, Estatu neoliberalak goiko klase sozialei mesedeak egiten dizkieten bestelako erremintak asmatu dituela onartzen du Harveyk (ibid.). Zerga-kodearen berrikuspena izan daiteke horietako bat, inbertsioetik atera daitezkeen etekinen alde eginez, diru-sarreraren eta soldaten orde. Edota korporazioei laguntza eta salbuespen fiskal ugari ematea. Aurrerago ikusiko dugunez, neoliberalismoaren birbanatze-taktikak zabalak dira, sofistikuak, askotan taktika ideologikoak ezkututzen dituztenak, baina suntsitzaileak ere badira herri eta lurralde kalteberen duintasunerako eta gizarte-ongizaterako. Neoliberalizazioak, kapitalismoaren egitura osoan eragin duen suntsipen sortzaileak ez du kapitalismo beraren historian sekula antzekorik izan.

Hori guztiori gutxi balitz bezala, hurrengo taulan zehaztasun batzuk hartuko ditugu laburpen gisa, kapitulu honi amaiera emateko eta fordismo keynesiarrean berme erregulatzaileak zirenak, nola neoliberalismo garaikide sakonean suntzitu eta berreraiki diren ikusteko.

Taula 7: Benetan Izatedun Neoliberalismoranzko trantsizio suntsitzaile eta sortzailea maila nazionalan

Erregulazioan parte hartzen duten forma instituzionalak edo espazioak	Momentu suntsitzaileak	Momentu sortzaileak
Soldata erlazioa	Lan hitzarmen eta hitzarmen kolektiboen aurkako erasoak. Soldata familiarren desartikulatzea eta segurtasun ekonomikoaren ezegonkortasunaren luzapena. Lan aukeren, lan segurtasunen eta lan eskubideen berdintasuna bermatzeko Estatuak aurrera eramandako erregulazioen murrizketa.	Desregulazio-lehiakorra: soldaten eta lan baldintzen negoziazio atomizatuak, enpresaren eskumenezko boterearen handitzearekin batera. Soldata-sozial forma berriak eta generoaren lan banaketa berria. Lan “malgutasun” eredu berrien sustapena.
Enpresa eredua: lehia interkapitalista	Maila nazionalan estrategikoak izan diren industriengan emandako estatu-laguntzen etete selektiboa. Politika protekzionisten desartikulazioa. Atzerriko inbertsio zuzenatarako oztopo nazionalen desagitea.	Hazkunde azkarreko industriei –telekomunikazioak edota elektronika– Estatuak zuzendutako laguntza forma berriak. Merkataritzaren Mundu Erakundeak (MME), Nazioarteko Diru Funtsak (NDF), EBk, Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Itunak (NAFTA) eta nazioz gaindiko bestelako erakunde batzuek, merkataritzaren liberalizazioaren aldeko politiken bitartez, onartutako merkatu globalen hedatzea. GATTak (Tarifen eta Merkataritzaren gaineko Akordio Orokorra) eskaintzen duen negoziazio esparruaren bitartez, - kapital-merkatu globalen ezarpena.
Enpresa eredua: monetaren izaera finantzarioa	Bretton Woods munduko diru sistemaren desagitea eta finantza merkatuaren desaratzea. Estatuaren truke-tasak kontrolatzeko gaitasunaren higadura. Mundu mailako merkatuetan, moneta eta finantza espekulazioaren aurkako araudi eta erregulazioen desagitea. Finantza eta kreditu fluxuak inbertsio produktiboen iturrietatik bereiztea.	Espekulazioan eta “estaturik gabeko” diru-fluxuetan oinarrituz, moneta merkatuen eratzea, edozein arau nazionaletik kanpo. Finantza transakzio globalak kontrolatzeko zereginean, Mundu mailako agentzien gainbegirale papera hedatzea (hala nola, Nazioarteko Ordainketen Bankua). Nazioarteko banku zerbitzuen, paradisu fiskalen eta Offshore finantza zentroen eratzea.
Estatu eta beste gobernantza motu batzuk	Eskari agregatua kudeatzeko politika keynesiarren bertan behera uztea. Ongizate-estatuaren ohiko mekanismoen desagitea. Moneta, merkataritza eta inbertsio-fluxuak erregulatzeko eskumen nazionalen hustea. Gobernu-kontrolako forma burokratiko eta hierarkiko tradizionalen murriztea. Maila nazionalan zein azpinazionalan kontrol demokratikoko mekanismo tradizionalen desagitea.	Ongizate-estatuaren gizarte-eginkizunak gobernu-maila baxuagoetara, gizarte-ekonomiara eta etxeko unitateetara itzultzea. <i>Dumping eskalarra</i> . Lurralde-lehia, berrikuntza teknologikoa eta nazioartekotzea sustatzeko estrategien mobilizazioa. Elkarte publiko-pribatuak eta sareko gobernantza-moduen ezarpena.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

	<p>Ekonomia nazionala estatuaren esku-hartzearen xede nagusizat hartzen zuen ikuspegiaren eraldatzea.</p> <p>Nazioko eta eskualdeko mailen ohiko kudeaketa- eta birbanaketa-funtzioen higadura.</p> <p>Gastu publikoa murriztera bideratutako zerga-austeritateko neurrien inposaketa.</p> <p>Enplegu publikoaren murrizketa.</p>	<p>Mota berriko autoritarismo baten aparatu estatalen eta <i>quangoen</i>⁵⁵ eratzea, kontu ematerik gabe eta kontrol publiko eta demokratiko oro alde batera utzita.</p> <p>Nazioz gaindiko eta azpiko metaketa-espazio estrategikoak lehenesteko, estatuaren esku-hartze ekonomikoaren eskalaren aldaketa.</p> <p>Estatuko sorospenen bidez, inbertsio pribatuen kostuen aseguratzea.</p> <p>Pribatizazio eta bestelako mekanismoen bitartez, tradizioz enplegu publikoko enpresak, enplegu pribatuan oinarritutako enpresetan bihurtu.</p>
Nazioarteko egitura	<p>Eskala nazionalak metaketan, erregulazioan eta borroka soziopolitikoan izan duen garrantziaren murriztea.</p> <p>Hiri, eskualde, estatu eta nazioz gaindiko eremuetan estandar erregulatzailen ahultzea.</p>	<p>"Eskalen erlatibizazioa", erakunde azpinazionalen, nazionalen eta nazioz gaindikoaren arteko harremanak etengabe berregokitzen ari direlako.</p> <p>24 orduko finantza merkatu globalek "arbitraje erregulatzaila" ahalbidetzen dute, estatuaren erregulazio ahalmena ahultzen. "Erkidentutako subiranotasuna" eraikitzen duten entitate eta organismo supranazionalak, kapital internazionalaren gaineko kontrola berreskuratzeko saiakerak egiten dituzte.</p> <p>Eskualde- eta toki-mailan, merkatua artekari izanda, lehia-harremanak sustatzeko politiken barneratzea.</p>
Espazioaren Garapen Irregularren erregulazioa	<p>Estatuak gainbeheran dauden gune eta hiriei emandako laguntzen ukatze selektiboa.</p> <p>Eskualdeetan birbanatzeko eta konpentsatzeko mekanismo tradizionalen suntsipena (<i>keynesianismo espazialarekin</i> bukatzea).</p>	<p>Estatu-politika berrien mobilizazioa, kapitalen mugikortasuna nazioz gaindiko merkataritza-blokeen artean sustatzeko eta estrategikotzat hartzen diren industrialde eta hiriguneetan (ber)inbertitzeko.</p> <p>Desparekotasun espazialaren, polarizazioaren eta lurralde-lehiaren forma berrien ezarpena maila globalean, nazionalean eta azpinazionalen.</p>

Iturriak: Harvey, (1990); Tickell eta Peck, (1995); Peck eta Tickell, (2008) Brenner et al. (2010b) eta Theodore et al., (2011).

⁵⁵ "Quasi non-governmental organisation" ingeleseko hitzetik datorren terminoa da eta nahiko zabaldua Britaina Handian. "Aginte Administratibo Independiente" gisa itzuli daiteke, horrela egiten baitute Italiako eta Frantziako estatuak. Estatu espainolean ordea *Organismo Independiente* gisa itzultzen dute, batzuren artean INE (*Instituto Nacional de Estadística*), AEMET (*Agencia Estatal de Meteorología*) edota CNI (*Centro Nacional de Inteligencia*) ditugu. Horiek botere betearazlearekiko gutxi gorabehera independenteak diren estatu-organoak dira. Administrazio erdi-publikoak eta funtzio publikotik kanpokoak, baina gobernuaren diru laguntza jasotzen dutenak. Nortasun juridiko propioa, ogasun propioa eta ondare kudeaketan autonomia osoa izan ohi dute

Doreen Masseyren arabera (1984), kapitalaren antolamendu espazialaren azterketa oro egitura sozioekonomiko eta politiko zabalagoen testuinguruan kokatu behar da. Horregatik uste dugu, iraganaz, trantsizioaz eta egungo panorama neoliberalaz egiten dugun irakurketa, berregituratze prozesu erregulatzailearen ondorioz, aldaketa eta tirabira gehien izan dituzten dimentsioen azterketarekin ongi moldatzen dela.

Aurretik egin dugun espazioaren analisiak eskaintzen duen zeharkako ikuspegia ere izango dugu kontuan. Era berean, aintzat hartu behar dugu kapital-metaketa antolaketa modu berriek ere, suntzitze-sortze prozesu horretan, espazioa berregituratzen dutela. Besteak beste, mugaz gaindiko transakzioen eta ekonomia birtualaren sorrerak iraganera mugatzen dute espazio-egitura fordista. Agian honen adierazpen nabarmenena kapital finantzario hipermugikorraren eta kapital industrialaren arteko bereizketa instituzionala izan daiteke, lehenengoa fluxuen espazio abstraktu batean mugitzen baita; eta bigarrena, berriz, bere lekuan balioztatu behar da (honek disoziazio bat sortzen du espazio/hiperespazio/hirugarren espazioren eta lekuaren artean).

7. Taula hau erreferentzizat hartuta, ondorio gisa zera atera dezakegu, neoliberalismoranzko norabide aldaketak modu askotan izan direla, izaten ari direla eta izango direla, horretarako neoliberalismoaren bariegazioan egingo dugu eten. Ondoren, neoliberalismoaren bidez, kapitalismoak azken hamarkadetan hirietan izan dituen berregituraketa erregulatzaileak sakonki aztertuko ditugu, antolaketa espazialean eta egitura sozioespazialean batik bat arreta jarrita. Hortaz, azken puntualizazioa egin ondoren, hortik aurrera, aurkeztutako testuinguru aldaketak hirietan eta hirietako gobernuetan nola eragiten duen aztertzen saiatuko gara.

Bariegazio neoliberalak

Ikerketa hau irakurtzen ari denarentzat, seguru asko ezaguna egingo zaio neoliberalismoaren kontzeptua, are gehiago, kontzeptuaz nekatuta bezain nazkatuta dagoela esan genezake. Izan ere, kontzeptuaren lauxotasunak, testuinguru konplexuak sinplifikatzeko eta delimitatzeko premia erakusten digu. Horretarako, gure azterketarako klabeak izango diren eta hala edo nola, hipotesiak erantzuteko baliagarriak izango diren zazpi puntutan laburbilduko dugu kontzeptua (Brenner eta Theodore, 2005: 102-103), hauek ere, hirietan gertatzen denarekin zeharo lotuta daude.

1. **Neoliberalismoa prozesu bat da.** Neoliberalismoa ez da azken egoera bat edo baldintza finko bat; aitzitik, merkatuak bultzatutako eraldaketa sozial eta espazialaren prozesu bat adierazten du ("neoliberalizazio" prozesua hain zuzen).

2. **Neoliberalismoa testuinguruaren araberako estrategia zehatzen bidez artikulatzen da.** Neoliberalismoa ez da forma “puru” bakar batean existitzen, beti artikulatzen da historikoki eta geografikoki espezifikoak diren eraldaketa instituzionaleko eta birartikulazio ideologikoko estrategien bitartez.
3. **Neoliberalismoa edozein eskalatako estatu boterearen mobilizazio aktiboan oinarritzen da.** Neoliberalismoak ez dakar estatuaren erregulazio boterearen “atzeratzea” eta merkatuaren “aurrerantz” egitea; ordea, estatua eta ekonomiaren arteko harremanen berreraiketa konplexua sortzen du, non estatuko erakundeak aktiboki mobilizatzen diren merkatuan oinarritutako konponbide erregulatzailerak sustatzeko.
4. **Neoliberalizazioak *path dependence*arekin loturiko emaitzak sortzen ditu.** Neoliberalismoak ez ditu emaitza berdin-berdinak (ekonomikoak, politikoak edo espazialak) sortzen inposatzen den testuinguru bakoitzean, izan ere, leku, lurralde eta eskala zehatzeko proiektu neoliberal espezifikoek oinordetzan jasotako paisaia erregulatzailerekin talka egiten duten heinean, testuinguru espezifiko horietan izandako erregulazio eredu berrantolaketa eta suntsipen sortzailea izaten duten forma instituzionaletan gauzatzen dira.
5. **Neoliberalizazioa, prozesu moduan, sarritan eztabaidatzen da.** Neoliberalizazioa –merkatuan oinarritutako konponbide erregulatzailerak eta inposatzeko saiakera gisa ulertuta– hainbat gizarte-indarrek borrokatzen dute, merkatuan oinarritzen ez diren koordinazio-moduak edo koordinazio “sozializatuak” zaintzeko ardura dutenak.
6. **Neoliberalizazioak erregulazioaren porrota areagotzen du.** Neoliberalismoaren inposatzeak ez du garapen ekonomiko egonkorreko, erregulazio politikoko edo gizarte-kohesioko markorik ezarri. Aitzitik, neoliberalizazio-proiektuak oso kontraesankorrak dira, ekonomia eta gizartea suspertzeko aurretiko baldintza ekonomiko, instituzional eta geografiko asko ahultzeko joera baitute. Hala, kapitalismo garaikidearen krisi politiko-ekonomikoaren joerak konpondu beharrean, neoliberalismoak larriki areagotzen ditu, merkatuaren hainbat porrot, Estatuaren porrot eta gobernabilitatearen porrotak aurrekoari gehituz.
7. **Neoliberalismoaren proiektuak etengabe eboluzionatzen jarraitzen du.** Neoliberalismoaren porrotek ez dute eraldaketa instituzional erradikalaren proiektuaren abandonatzea edo desagitea eragin. Aitzitik, proiektu honek bere

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

burua berrasmutzen jarraitu du –politikoki, antolaketari dagokionez eta espazioari dagokionez– bere zoritxarreko ondorio sozialei hertsiki lotuta.

Egia esan, 1980ko hamarkadan, neoliberalismoaren kontzeptuak garrantzi handiagoa izan zuen "merkatu librearen" doktrina ideologikorako adierazle kritiko gisa, batez ere mendebaldean, Friedrich Hayek eta Milton Friedmanen agindu programatikoeekin lotuta, eta politikari batzuek (Pinochet, Reagan eta Thatcher) operazionalizatutako berregituratze estrategiaren bitartez. Merkatuaren mesedetan jarduten duten erregulazio-moduak ezartzeko proiektuak munduko ekonomian sendotzen joan diren heinean, neoliberalismoaren nozioak funtzio analitikoa eta enpirikoa askoz ere zabalagoa hartu du (Brenner et al., 2010). Horrek, merkatu askearen fundamentalismo ideologikotik urrun, berregituraketa erregulatzailerak modu eta bide ugari erakusten ditu mundu osoan, "benetan izatedun neoliberalismoa" elkarrekin lotzen duten lekuak, eskalak eta sareak.

Aurreko atalean adierazi dugun bezala, neoliberalismoaren kontzeptua hurrengo hitz xumeekin defini dezakegu: polisemikoa eta polimorfikoa. Honaino, neoliberalismoan aldaketak (eta barietateak) daudela eta elkarri lotutako mundu-merkatuak daudela egiaztatu ahal izan dugu. Horregatik, puntu honetan "neoliberalismo bariegatuaren"⁵⁶ edo "koloreaniztasuneko neoliberalismoaren" (*variegated neoliberalism*) kontzeptua aurkeztu nahiko genuke. Honek ez du esan nahi neoliberalismo bat baino gehiago dagoenik (Dixon, 2011); aitzitik "producción sistémica de la diferenciación geoinstitucional" azpimarratzen du (Peck eta Theodore, 2007). Honela definienezake "bariegazioaren" kontzepzio berria: ekonomia nazionalak, tokikoak eta abar interkonexio-testuinguruetan ulertzeko tresna bat, ez baitu kontuan hartzen Estatuaren isolamendua. Hori dela eta, ezin dugu Estatu bere praktiketatik bereizi, ezta politika ekonomiatik ere.

⁵⁶ *Variegated* edo "bariegatu" terminoa naturatik eratorritako fenomeno batetik dator. Landare edo mineral berean ematen den koloreaniztasunari egiten dio erreferentzia. Hau da, hosto, zurtoin edo zain batean agertu ohi diren ñabarduretan eta kolore desberdintasunetan datza. Pigmentazio desorekak, hain zuzen. Terminoaren erabilera geografiko-sozialaren historia nahiko deigarria da. Izan ere, Jamie Peck eta Nick Theodore (2007) izan ziren erabiltzen lehenak. Baina Bob Jessopek zenbait hitzalditan kontatu duen moduan, haiek ez ziotela azalduetako esanahi hori atxikitzen argitu izan du, Peck eta Theodorenzako barietate edo aldaera soilik adierazi nahi baitzuen. Orduan Jessopek *paper* horren iruzkingilearenak egiten, terminoari buelta bat eman eta hasieran azalduetako esangura moldatu zuen. Geroztik, kontzeptuak zeharo egin zituen erroak eta autore asko izan dira ildo horretatik jarraitu dutenak, Peckek et al. (2009); Brennerek et al. (2010) edota Jessop (2011; 2012; 2014) berak, besteak beste.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Kapitalismoaren barietateei buruz hausnartzen dugunean, bereizketa nazionalen jartzen dugu arreta, eta, zehazkiago, Estatu nazionalen rolean (Taula 5 edo 7, adibidez). Irakurketa gehienak zientzia politikoan eta soziologian errotuta daude, baina puntu honetan geografiaren ikuspegia ekartzen dugu, espazio eta teoria erlazionalari merezi duen garrantzia emanaz. Irakurketa soziologikoak edo politologikoak pentsaraz diezaguke desberdintasunen identifikazioak eredu neoliberalaren barietate bat produktiboagoa edo efizienteagoa bada (termino kapitalistetan), irudira eta antzekotasunera zabalduko dela lehiaren bidez, eta/edo imitatu, esportatu edo beste leku batzuetan inposatuko dela. Errealitate oso urrun dago hau. Neoliberalismoaren ikuskera askotarikoa da, eta horrek erakusten digu eredu arteko tentsioak existitzen direla. Denboran zehar egonkortasun erlatiboan dirauten eremuak beste espazio ekonomiko batzuen ezegonkortasunarekin lotzen direla, edo horietatik haratago akaso, metatze-erregimenen eta erregulazio-moduen ekologia konplexu batekin. Eta neoliberalismoaren barietate eta eredu batzuk elkarren antzekoak diren arren (edo ekologikoki beste batzuk baino nagusiagoak diren arren), eredu nagusi prototipikoa ezin da leku guztietan gauzatu (Peck eta Theodore, *ibid.*).

Taula 8: Askotariko neoliberalismoaren analisia VS Neoliberalismo bariegatuaren analisia

	Askotariko neoliberalismoaren analisia	Neoliberalismo bariegatuaren analisia
Problematika	Ekonomia kapitalista aurreratuen arteko aldakortasun instituzionala ulertu.	Kapitalismo berantiarraren barruan eta kanpoan izan daitezkeen garapen irregularreko formak eta prozesuak.
Kasu-analisiaren justifikazioa	“Merkatu liberaleko ekonomia” ↔ “Merkatu konbinatuko ekonomia” ardatz dikotomikoan oinarritutako kasuen alderaketa.	Teorikoki sortzaileak izan daitezkeen propietateen arabera hautatutako kasu indibidualak.
Metodoa	Ekonomia politiko instituzional parsimoniatsurako joera, hautaketa arrazionalaren osagaiekin; teorizazio idealista; bigarren mailako iturriekiko eta jokoan teoriaren prozedurekiko mendekotasuna.	Ekonomia politiko instituzional/kultura nahiko ekumenikoa, kasu kualitatiboan azterlanen bidez egina; teorizazio positibista; hiri eta eskualdeen analisirako joera; indibidualismo metodologikoaren gaitzespena
Eragile pribilegiatuak	Enpresak, merkataritza-elkarteak eta politika-ekintzaileak.	Agenteek, oro har, estatus analitiko nahiko ahula dute, berregituratze-modu nagusien edo erresistentzia-forma hasiberrien eramaileak
Begirada analitikoa	Arketipo instituzional nazionalen eta ekonomia nazional mugatu samarren pribilegioa; enfasia enpresa	Ekonomia eraldatzeko eta erakundeak berregituratzeko une erabakigarriak azpimarratzea; erregulazio-proiektuak eta ekoizpenaren antolaketan ematen diren

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa


	liderretan, industria dominatzaileetan eta erakunde formaletan.	esperimentuak denbora errealean aztertzea; eskala-aniztasuna.
Denbora-dinamika	Oreka-presuntzioa hautatutako erakunde-eremuen barruan (<i>shock</i> exogenorik ez egotea); egonkortasun erlatiboa azpimarratzea, erakundeen kokalekuak indartzen dituen aldaketa inkrementala, noizbehinkako etenaldiengatik markatua.	Analisi dinamikoa, berregituratze endemikoarekiko kezka; desorekarako presuntzioa eta krisi iraunkorrerako joera
Eskala dinamika	Nazionalismo metodologikoa; erakunde-koherentzia endogenoaren eta espazio ekonomiko-nazional bateratuaren maila altuen presuntzioa; eskala nazionalen erregistratutako supermodularitatea.	Eskalaren eraikuntza soziala eta erlatibizazioa; supermodularitaterako potentzialitatea eta eskala espazial anitzetan ondorio koiunturalak (adibidez, "lekukotasun efektuak"); eskala-aniztasunarekiko kezka (adib., hibrido "glokalak" eta sare mailakatu gurutzatuak).
Ibilbide historikoa	Konbergentzia duala edo "punta bikiak"; garapen arketipikoko ereduen azterketa estatiko-konparatiboa	Garapen konbinatua eta irregularra; kontingentziarako joera; konbergentzia edo dibergentzia beharraren gaitzespena; bidea markatu eta aldatzen duen aldaketarekiko kezka.
Abstrakzio maila tipikoak	Meso mailako arkitektura instituzionaletan txertatuta dauden enpresen portaeraren kontu mikroanalitikoak.	Modu desorekatuan garatutako sistema (kapitalista) baten barruan kokatutako egoera instituzional nahiko zehatzen interpretazio mesoanalitikoak.
Poriektu arauemailea	Europako eta Japoniako erregimen estilo korporatibistak eta sozialdemokraziaren defendatza; garapen ez-neoliberalerako moduak azaltzeko premia.	Globalizazio neoliberalaren barne-kontraesanak ezagutaraztea; tokiko garapenerako modu alternatiboak (eta/edo progresistak) identifikatzea eta sustatzea.

Iturria: Peck eta Theodoretik (2007;763) egileak itzulia.

Neoliberalismo bariegatuaren analisiaren helburua, azken batean, dimentsio sozioespazialen artean dauden tentsioak aztertzea da, tokian tokikoaren berezitasuna kontuan hartuta eta mundu mailako joerak identifikatuta. Onartuta ezinezkoa dela neoliberalismo espezifikoa modu isolatuan aztertzea, ikuspegi erlazionalak egonkortasun-zonak beste espazio ekonomiko batzuen ezegonkortasunarekin lotzen direla ulertzeko aukera ematen digu, metatze-erregimenen eta espazioan desberdinak diren erregulazio-moduen arteko erlazio konplexua sortuz.

Brenner et al. (2010), 7. Taulan eta 6. Irudian aurkeztutakoa aberastuz, neoliberalismoaren garapen-prozesua eta mundu mailako ofentsiba prozesua ulertzeko hurrengo irudi hau aurkezten dute:

Irudia 7: Nazioarteko neoliberalismo bariegatuaren joko-erregelak. 1970s-2000s.
(ingelesez)



Iturria: Brenner et *al.*-etik (2010: 212) aterata.

Horrenbestez, ondorengo neoliberalizazio-proiektuak, lehenik eta behin, keynesianismoaren ahulezia estrategikoen ustiaketan oinarritu ziren, eta, gero, benetako krisietan. Krisi horiek, hain zuzen ere, merkataritza-erreforma batzuk ezartzeko aurretiazko beharrezko baldintzat hartu ziren, hau da, merkaturaren zentratutako erreforma batzuk, baina oso testuinguru espezifikoetan (Reaganen desindustrializazioa, Mendebaldeko Alemanian gerra osteko berreraikitzea edo NMFk Erresuma Batuari egindako erreskatea). Hori neoliberalismoak eta haren krisiek eragin zuten suntsipen sortzaileko prozesuen erakustaldia baino ez da, jakina oso ikuspegi globaletik begiratu.

Ildo honetatik jarraituz, Brenner et *al.* (ibid) autoreek aurreko grafikoan azaltzen duten "neoliberalizazioaren garapen irregularraren" ideia azpimarratzea merezi du; izan ere, erreferentzia paradigmatorik ez egon arren, praktika politiko neoliberal guztiek suntsipen sortzailearen logikan oinarritutako programa transnazionala bermatu zuten. Jarraian gertatutakoa izango litzateke egileek "garapen irregularraren neoliberalizazio" gisa identifikatu zutena. Aurreko atalean ikusi genuen Harveyk (2008) egungo neoliberalismoaren lau elementuak aipatzen zituela, baina hori izozmendiaren punta baino ez zen. Prozesu hori, azaleratzen ari ziren pertsuasio-zentroetan (unibertsitateak, aditu-taldeak, gobernuen ikerketa-institutuak) eta hertsaduraren (agentzia militarrek, estatuaren ezkutuko izu-aparatuak), komunitate praktikoen (administrazio-zientzia) eta esperimentazio-eremuen (nazioarteko finantza-erakundeak, diktadura autoritarioak, erregulazio-krisien agertokiak, finantza-zentro globalak, merkataritza libreko guneak) bidez sortu zen. Azaleratzen ari ziren sare horiek merkatura bideratutako erregulazio-eraldaketak hedatzea eta honen egonkortzea bizkortzeko eta areagotzeko diseinatu ziren. Herritarrek onar zitzaten sustatzeko, lege ekonomiko saihestezinen beharrezko doikuntza gisa naturalizatu ziren (Benner eta Theodore, 2002; Simmons et *al.*, 2008).

Horrela, erakunde bidez egituratutako merkatuaren aldeko esperimentazioko eta deserregulazio selektiboko "inplante" gisa sortu zena, 1990ean hasi zen erakunde anfitrioi bera berreratzen, baina inoiz ez modu ordenatuan edo antolatuan, neurri handi batean lurralde bakoitzaren *path dependence*-a delakoagatik.

The real-life chefs of neoliberalism use selective elements of the regulation spice mix to add flavour to actually existing neoliberal dishes. These chefs know all too well that regulation is a necessary ingredient to prepare these dishes. Their customers, such as the captains of industry. (Aalbers, 2016; 565).

Suntsipen sortzailearen momentuak hirietan

Orain arte neoliberalismoaren ibilbide globala eta maila globalean zein nazionalean suntsitzeko eta sortzeko estrategiak egiaztatu baditugu ere, jarraian neoliberalismoaren areagotzearekin gertatu ziren tokiko eraldaketak aurkeztuko ditugu. EGIren teoriarekin jarraituz, aurreko atalean sakonago aztertutako dimentsio sozioespazialean gauzatzen den denboran eboluzionatutako garapen irregularrak, hirietan, espazialtasunean eta tokiko Estatuaren erregulazio-moduetan ondorioak dituela ekarri nahi dugu aurrera.

Ikusi dugun bezala, neoliberalismoak, maila globalean zein nazionalean, erregulazio-eremu jakin batzuk sortzea eta suntsitzea ekarri zuen (soldada-harremana, enpresa-eredua, etab.). Horrek hirien eta hiri-espazioen rol protagonista eragin zuen. Ikusiko

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

dugunez, birreskalamenduaren ondorioz, gizarte-erregulaziorako eta gizarte-babeserako aurreko mekanismoak suntsitu izan ziren, eta neoliberalismoak berak eragindako finantzaketa- eta defizit-krisiari aurre eginez, erregulazio-estrategia berriak eraiki ziren (*roll-back neoliberalism*, *roll-out neoliberalism*), mendebaldeko hirietan lehendik zeuden gobernantza-ereduak bortxatuko zituztenak.

Gogora dezagun lurralde-testuinguru bakoitza eta eskalatzea berezia dela, eta atal honetan kontatzen dena prozesuen azterketa global baten emaitza dela. Hala ere, onartu behar dugu hiri postindustrialen kasua ez zela gutxiago izango, Estatu Batuetan emankor izan ziren joera esperimentalak Europako hirien gainbeheretan esku irekiekin jaso baitziren. Horietan, gertaera eta apustu finantzario batzuk gertatu ziren, tokiko Estatuek erakarpen- eta nazioartekotze-guneak izateko zuten interesa erakutsi zutenak. "Hiri-marka" edo *city marketing/branding* direlakoan merkatuan irudi positiboa eta sendoa sortzeko arrazoi horiek truke-balioa lehenetsi zuten, hiri-espazioaren erabilera-balioa baino gehiago, eta horrek, zalantzarik gabe, hiri-espekulazioko prozesuak, desberdintasun sozialak, hirien eta auzoen arteko desorekak eta, azken batean, "hirirako eskubidea", "hiri demokratikoa" edo "hiri-justizia" kontzeptuak urruntzea eragin zuen. Ildo horretatik, espazioen erabilera-balioa kokapenaren baldintzatzaile hutsera lotuko litzaioke, intereseko eta kontsumoko leku espezifikoaren hurbiltasunari lotuta, hain zuzen (López eta Rodríguez, 2010; 118).

Izan ere, hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasierako krisi geoekonomikoetatik aurrera, arestian aipatutako suntsipen sortzaileko prozesuak eskala geografiko askotan eta kokapen instituzional askotan agertu dira. Baina, hala ere, azken hiru hamarkadetan, hiriak estrategikoki erabakigarriak bihurtu dira, bertan suntsipen sortzailearen forma neoliberalak hedatzen joan baitira. Hiriek produkzio eta erreprodukzio sistema fordista-keynesiarretan zuten kokapen zentralak, eraisteko estrategia neoliberalerako funtsezko espaziotzat hartzea ahalbidetu du, erresistentzia handirik jarri gabe. Gainera, berrikuntzaren eta hazkundearen epizentro gisa eta gobernantza delegaturakoko eta esperimentazio instituzionaleko eremu gisa duten esanahi estrategikoak ere aurrerapen neoliberalaren abangoardian kokatzen ditu (Theodore et al., 2009).






Alde batetik, 1990eko hamarkadatik, hiriak ingurune geoekonomiko zalantzarik gabe batean murgilduta daude hurrengo ezaugarri hauengatik: diru-kaosa, finantza-kapitalaren mugimendu espekulatiboak, korporazio transnazional nagusien kokapen globaleko estrategiak eta azkar areagotzen den tokiko lehia (Swyngedouw 1992). "Desorden global-lokal" (Peck eta Tickell, 2008) horren testuinguruan, tokiko gobernu gehienek, orientazio politikoa eta testuinguru nazionala edozein izanik ere, ziurgabetasun ekonomikoaren maila handietara egokitu behar izan dute haien burua, tokiak merkaturatuz eta inbertsioak eta enpleguak erakartzeko arauak malgutuz (Leitner

eta Sheppard 1998). Bitartean, ongizate-estatuaren erregimen nazionalen eta gobernu arteko sistema nazionalen ahultzeak murrizketa fiskal berri eta indartsuak ezarri dizkie hiriei, eta horrek aurrekontu-murrizketa handiak eragin ditu, berregituraketa ekonomiko azkar batekin batera, tokiko arazo eta gatazka sozialak areagotu diren aldi honetan (Brenner eta Theodore, 2002). Eskakizun horien aldiberekotasuna eta kapitalismoak periodikoki izaten dituen krisiak aipatu behar ditugu, batez ere 2008koa (edo 2000ko lehengo hamarkadaren amaieran izandakoa), Europaren iparraldean eta hegoaldean ere eragin desberdina izan zuena, eta aurrerago ikusiko dugun bezala, *roll-out* neoliberalismoa zalantzan jarri zuena.

Bestalde, kasu askotan, logika neoliberalak hiri-gobernantzako egitura metropolitarrerenetan ere barneratu dira zuzenean (Tomàs, 2023); izan ere, udalerrien sareak norabide bakarrean saiatzen dira tokiko ekonomiak gaztetzen, deserregulazioaren, pribatizazioaren, liberalizazioaren eta zerga-austeritate handiagoaren bidez, bereziki handiegiak diren proiektuetarako kapitalak erakarri ahal izateko. Testuinguru horretan, hiriak, periferiak barne – baita udalerrri mugakideak ere – , helburu geografiko eta laborategi instituzional gero eta garrantzitsuagoak bihurtu dira politika neoliberalen esperimendu anitzetarako, lekuaren komertzializaziotik, enpresa-ekintzailetatik, tokiko zergen murrizketatik, hiri-garapenerako agentzietatik, elkarte publiko-pribatuetatik eta *workfare* politiketan oinarritutako tokiko sustapen-modu berrietatik, espazioak berrurbanizatzeko logiketatik, enpresa-inkubagailuen proiektuetatik, kontrol sozialeko eta zaintzako estrategia berrietatik, eta tokiko eta eskualdeko estatu-aparatuaren mekanismoen beste aldaketa instituzional batzuetatik.

Hiri-politika neoliberalerako esperimendu horien helburu orokorra hiriko espazioa eszenatoki gisa mobilizatzea da, bai merkatura bideratutako hazkunde ekonomikorako, bai elitearen kontsumo-praktiketarako, hiria bere herritarrengandik urrunduz eta, hedaduraz, demokrazia urbanoa ustelduz. Horrek, beste behin ere, truke-balioa lehenesten du ondasun komunaren erabilera-balioa baino, hala nola hiri-espazio publikoaren erabilera-balioa murriztuz. 8. Irudiak eskematikoki erakusten ditu azken bi hamarkadetan proiektu neoliberalak mendebaldeko hirietan kokatzeko erabili dituen mekanismo politiko-instituzional ugarietako batzuk, eta, aldi berean, partzialki eratzailak diren eta joera sortzailea duten une suntsitzaileak bereizten ditu (Brenner eta Theodore, *ibid.*).

Irudia 8: Moments, mechanisms and variables of neoliberal creative destruction in cities

Mechanisms and variables of neoliberal creative destruction in cities	Moments of neoliberal creative destruction in cities
Reconfiguration of the institutional infrastructure of the local state	<ul style="list-style-type: none"> • Dismantling of bureaucratised, ideological and hierarchical forms of local public administration. • Delegation of formerly state tasks to voluntary community networks. • Offensive against traditional institutions of local democratic control. <p style="text-align: center;"></p> <ul style="list-style-type: none"> • Advancement of new forms of local government networking based on public-private partnerships, quasi-autonomous non-governmental organisations and the “new public administration”. • Establishment of co-operative networks, consortiums and new business structures now led by private capital in local politics. • Deployment of community-based programmes with private (including charity initiative to alleviate social exclusion). • Incorporation of the interests of business elites in local policy and local development.
Restructuring of territorial development strategies	<ul style="list-style-type: none"> • Increasing exposure of local and regional economies to global competitive forces. <p style="text-align: center;"></p> <ul style="list-style-type: none"> • Free trade zones, enterprise zones, deregulated spaces. • New development areas, tech hubs and new industrial spaces at sub-national scales. • Mobilisation of new “glocal” strategies aimed at re-channeling economic capacities and infrastructure investments towards globally connected cities/regions.
Transformations of the built environment and urban form	<ul style="list-style-type: none"> • Elimination of urban public spaces and/or intensification of surveillance of these spaces. • Destruction of traditional working class neighbourhoods to make way for speculative redevelopment. • Retrenchment of community-oriented planning initiatives. <p style="text-align: center;"></p> <ul style="list-style-type: none"> • New privatised spaces for elite and corporative consumption. • Large-scale megaprojects aimed at attracting corporate investment and reconfiguring land-use patterns. • Creation of “purified” gated communities. • Gentrification and intensification of socio-spatial polarisation. • Adoption of the “highest and best use” principle as the basis for major land use planning decisions.
Re-representation of the city	<ul style="list-style-type: none"> • The post-war image of a working-class industrial city is reframed by emphasising urban disorder, 'dangerous classes' and economic decline. <p style="text-align: center;"></p> <ul style="list-style-type: none"> • Mobilisation of business discourses and representations centred on the need for revitalisation, reinvestment and renewal in major metropolitan areas.
Reprocessing of labour market regulations	<ul style="list-style-type: none"> • Dismantling of traditional public funding programmes for education (job training, youth training, etc.). <p style="text-align: center;"></p> <ul style="list-style-type: none"> • Creation of a regulatory environment in which temporary employment agencies and others can proliferate. • Job training programmes aimed at the forced acceptance of low-paid jobs. • Growth of informal economies.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

<p>Inter-local policy transfer</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Erosion of environmentally sensitive approaches to local policy making. • Marginalisation of locally-rooted solutions to market and governance failures. • Blocking of dynamics that ensured a certain degree of participation or collaborative co-governance. <p style="text-align: center;">↓</p> <ul style="list-style-type: none"> • Generic and prototypical approaches to “modernising” reforms, pursuing quick fixes to local social problems (city marketing strategies, “zero tolerance” policies on crime, etc.). • Decontextualised models of “best practices”. • Empty and inefficient models of collaborative governance. • New leadership of the third social sector in networks. • Promotion of new forms of coordination and networking between previously independent local state intervention organisations.
<p>Privatisation of the local public sector and collective infrastructures</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Removing state monopolies in public services (facilities, health, public safety, public transport, etc.). <p style="text-align: center;">↓</p> <ul style="list-style-type: none"> • Privatisation and competitive contracting. • Creation of new markets for the provision and maintenance of infrastructures. • Creation of privatised urban infrastructure networks aimed at (repositioning) cities in supranational capital flows. • Creation of new regional institutions to promote place marketing, metropolitan space and intergovernmental coordination.
<p>Restructuring of urban housing markets</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Destruction of social housing and other forms of affordable housing. • Elimination of rent controls and subsidies for the construction of housing projects. <p style="text-align: center;">↓</p> <ul style="list-style-type: none"> • Creation of new opportunities for speculative investment in the inner city housing market. • Transitional “emergency” solutions for the homeless. • Introduction of market and tenant-determined rents in low-rent niches of urban housing markets.
<p>Re-regulation of urban civil society</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Destruction of the liberal city in which all are entitled to civil liberties, social welfare services and basic political rights. <p style="text-align: center;">↓</p> <ul style="list-style-type: none"> • “Zero-tolerance” policies towards crime, based on “broken windows” hypotheses. • New forms of surveillance and control. • New policies to fight social exclusion by reintegrating individuals into the labour market.

Iturria: Egileak egina Theodore et *al.* (2009; 9); Brenner eta Theodore (2002; 144-147); Brugué eta Gomà (1998); Davies eta Blanco (2017); Gough, 2002; Jessop, 2002b; Jones eta Ward, 2002; Leitner eta Sheppard, 2002) egileetan oinarrituz.

Estatu nazional mailan hainbat erregulazio-eremu onartzen baditugu (soldata-harremana, enpresa-eredua, etab.), Estatu lokal-mailan ere lokalizazio neoliberalerako mekanismoak daude, erregulazio-esparruei hiru dimentsiotan presioa egiten dietenak (suntsitzaileak eta sortzaileak): dimentsio ekonomikoa eta laborala, dimentsio soziokulturala eta hiri- eta toki-dimentsioa (Brugué eta Gomà, 1998). Gure kasuan, hiri- eta toki-dimentsioari erreparatuko diogu, tokiko gobernuek eta tokiko gobernantzak baitute autoritate handiena dimentsio horretan. Gainera, dimentsio horretan gertatzen dira aldaketa hautemangarri handienak hirietan, bai maila espazialean, bai maila sozioekonomikoan. Hala eta guztiz ere, politika publikoen eta prozesu sozialen zeharkakotasuna onartuta (González, 2012), aurkeztutako 8. Irudi honetan gehien egokitzen diren ekonomia- eta lan-dimentsioen eta dimentsio soziokulturalen suntsipen sortzaileko mekanismoak ere ageri dira. Garrantzitsua da irudi hori Estatu lokalen ideia erregulatzailerak zehazten duten aldagaiak identifikatzeko erabiliko dugula kontuan hartzea.

Garrantzitsua da azpimarratzea 8. Irudian deskribatutako lokalizazio neoliberalerako prozesuak nahitaez garatzen direla leku bakoitzeko forma eta konbinazio espezifikotan, lurralde-testuinguru partikularren barruan (gogora dezagun azaldu berri dugun bariegazioa). Izan ere, lehen garatutako benetan izatedun neoliberalismoaren kontzeptualizazioan oinarrituta, esan genezake edozein tokiko-testuingurutan lokalizazio neoliberalerako patroiak modu egokian uler daitezkeela soilik haien interakzio konplexu eta eztabaidagarrien esplorazio baten bitartez, hau da, oinordetzan hartutako erregulazio-paisaiekin eta haien *path dependence* delakoarekin. Hori hurrengo kapituluaren landuko dugu, baita hiri-erregimenak aztertzeko aldagaiak azaltzen ditugunean ere. Gainera, garrantzitsua da kontuan hartzea EGIrrak lehen aipatu ditugun dimentsio sozioespazialean izan ditzakeen kristalizazioak; izan ere, bariegazio neoliberalak berak behartzen gaitu espazio espezifikoko bakoitzerako horietan pentsatzera.

Zazpigarren irudian, benetan izatedun neoliberalismoaren garapenaren trantsiziorik garrantzitsuenak 1980. eta 1990. hamarkadetatik aurrera identifikatzen ditugu (Brenner eta Theodore, 2002; 373-375). Taula hori hirietan gertatutako garapen sozioekonomikoari ere aplikatu dakioke, batez ere, neoliberalizazio sakonduaren lerroa esanguratsua da. Alde horretatik, lehenik eta behin, *roll-back* edo “atzerapenezko neoliberalismo” une bat izango genuke. Une horretan, gero eta udalerrri gehiagok kostuak murrizteko hainbat neurri hartu behar izan zituzten, hala nola zergak murriztea, lurrak ematea, zerbitzu publikoak murriztea, instalazioak eta azpiegiturak pribatizatzea eta abar, kostuak murrizteko eta kanpoko inbertsioa sustatzeko. Hori, herrialde garatuagoetan 1980. urtearen hasieran gertatu zen (Taula 5), Espainiako Estatura

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Francisco Franco diktadorea hil eta ia bi hamarkada geroago iritsi zen, eta ia gizarte-prozesu guztiek bezala, hainbat fase ditu.

Baldintza horietan, asko jo ziren hirietan enpresa-giro ona sustatzeko “best practice” gisa (World Commission Urban21, 2000), hala nola administrazio-eraginkortasunaren hobekuntza, *New Public Management* (NPM) eta korporazio handien zuzeneko eta zeharkako estatu-sorospenak, bai eta gizarte-erreproduziorako funtzioen gero eta pribatizazio handiagoa ere (Lekue, in press).

Une horren ondoren, *roll-out* neoliberalismoa edo “hedapen neoliberalismoa” finkatuko zen. Denboran zehar izandako atzerakadaren “atzerapenezko neoliberalismoak” zenbait kontraesan eta krisi-joera eragin zituen, eta proiektu neoliberalaren bilakaera eta berreratzearen bidez konpondu ziren. Hirietako espazio (ekonomikoa) hazkunde kapitalistarako, merkantilizatorako eta merkatu-diziplinarako gune araztu gisa mobilizatzeko oinarritzko inperatibo neoliberalak, proiektu politiko nagusia izan zen udal-gobernuztat munduko ekonomia osoan. Horrela ere erdiguneko eremu deprimituetako espazio potentzialki errentagarriak kapitalizatzeko modu gisa ikusi zuten, batez ere eremu postindustrialatan (lehenengo grafikoa). Hiri-inguruneen suntsipen sortzailea gai-zerrendan zegoen, eta sustapen eta lehiakortasun ekonomikoaren baldintzak bultzatzeko asmoz, zenbait irizpide administratibo, sozial eta ekologiko birkontzeptualizatu ziren.

Beraz, aurrera eginez, hemen hiri-espazioa suntsitzeko eta sortzeko epeetan klabeak diren bi haustura-une ikusten ditugula adieraz dezakegu (Irudia 9): neoliberalizazio sakonerako trantsiziotik eratorritako lehenengoa, hau da, fordismo keynesiarren egiturazko krisitik metaketa malgura doana, espazio keynesiarretik espazio globalera hain zuzen. Eta, beste alde batetik, bigarren haustura 2000. urtearen amaierako hamarkadako finantza-krisian identifikatuko dugu, kasu honetan koiunturala. Krisia, izatez bada, eskala guztietako neoliberalizazio-moduak areagotzen direlako eta suntsipen sortzailearen dinamiketan sakontzen delako, baina sistema ekonomikoaren edo EEGEren egitura-aldaketarik ez da gertatzen (nahiz eta egiturazko ñabardurak egon daitezkeen EEGEren testuinguruaren eta orientazioaren arabera).

Beraz, aurkeztutako eskema eguneratuz, 2008ko krisi ekonomiko ezagunaren hiri-dimentsioari erreparatuko diogu. García eta Igleziasek (2015) eta Oosterlynckek eta Gonzálezek (2011) adierazitakoaren arabera, akademiak hiru ikuspuntutatik azaldu du krisiaren fenomeno hiri-urbanen bitartez; b) krisia hiri-eraldaketa postneoliberal progresiborako aukeratzat hartuta, nagusi den hiri-hazkundearen ereduaren gehiegikeriak geldiarazteko gai dena; eta c) krisia neoliberalismoaren berregituratze etengabearen beste fase baten moduan ulertuta,

eta, zehazki, azken krisi hori, neoliberalizazio hibrido edo bariegatuaren parametroetan. Azken irakurketa horrekin bat gatoz gure analisisian, neoliberalismoaren krisi-prozesuak ulertzeko aukera emango digu, arreta nagusia soilik ekonomiaren finantzazioan eta espekulazio-burbuilan jartzen duten azterketa ekonomikoetan jarri gabe, edo krisiak hiri-eraldaketarako ematen duen aukera bakartzat jotzen duten teoriak kontuan hartu gabe. Ez diogu krisiei dagokien garrantzia kendu nahi, teoria horien puntu batzuek zentzua baitute, baina, gure ustez, krisiak ez dira hiri-aldaketa politikorako aldagai erabakigarri bakarrik, ikerketa honetan ikusiko dugun bezala⁵⁷ (Harvey, 2007; López eta Rodríguez; 2010, Naredo eta Montiel, 2011).

Horrela, orain arte krisiaren alderdi sozioekonomikoan zentratu bagara, bloke honetatik abiatuta erakunde-egituretan eta ibilbideetan izandako aldaketetan zentratu ahal izango gara. Zehazkiago, dinamika neoliberalak gobernu-moduetan, gobernantza berrian eta hiri-politika publikoak gauzatzeko moduan duten eraginean jarriko dugu arreta. Honek hiri-erregimenen ibilbide historiko bat eraikiz, eraldaketak osotasunean ulertu ahal izateko aukera emango digu.

Atzeraldi ekonomikoa, sakontze neoliberalak eta austeritate-hirigintza

Kapitulua amaitu aurretik, aurkeztutako hausturen bigarren uneari erreparatuko diogu; izan ere, lehen unea nahiko gai mandatua da, eta bere ondorioak zeharo ezagunak dira. Esan bezala, Espainiako estatuan neoliberalismoaren atzerapen- eta hedapen-dinamikak askoz beranduago iritsi ziren Erresuma Batura, Frantziara edo Ameriketako Estatu Batuetara baino. Are gehiago, gure azterketa-kasuetan ikusiko dugun bezala, bai Bilbon, bai Bartzelonan, 1980ko hamarkadako ibilbideak auzokide elkarte-sareen eraginez markatuta daude, nahiz eta desidustrializazio prozesuek aurrera egin, figura sozial askoren asimilazio eta eskakizun sozialen instituzionalizazioa ere suposatu zuen. Udal-egitura instituzionalik ezaren ondorio ziren logika koiunturalak izan ziren –gaitasun txikiko Estatu espainiarraren ondorioz– eta auzo-mugimenduen botere-paradigmaren ondorioz (Zubiaga, 2008; Telleria, 2012; Aheta Telleria, 2016). Bi hiri-erregimenen azkenaldiko ibilbide osoa aztertuz gero, atzeraldi ekonomikoaren ondoren zer gertatu zen ulertuko dugu, eta neoliberalismoak hirietan izan dituen erasoaldiak eta atzera-egiteak ikusiko ditugu.

⁵⁷ Bigarren bloke honen amaieran, krisialdiak maila ekonomikoan duen dimentsioari buruz hausnartzen da, maila global-lokalean duen garrantziari buruz, eta testuinguruan kokatzen da krisialdi garaietan gobernantzan izandako aldaketak aztertzeko.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Orain, bada, atal honetan, finantza-krakaren ondorio handiei buruz egin diren irakurketei eta erakunde publikoek emandako erantzun "austerizistei" erreparatuko diegu, Europako hainbat herrialde eta hiritan bat egin baitzuten (Bussu et al. 2022) eta modu batean edo bestean konponbide parametrizanteak izan ziren berriz ere.

Lehenik eta behin, azpimarratu beharra dago neoliberalismoaren garapena ezin dela modu hertsian hartu eta datak itsumustuan jarraitu. Neoliberalismo bariegatua aztertzeko metodoa erreferentziazat hartzen badugu (8. Taulan aurkeztua), aurreko tauletan azaldutako patroiak kasu zehatz bakoitzerako mugikorak direla konturatuko gara. Hala ere, 2008an piztu zen krisiaren aurreko egoera sozioekonomikoa, eta, batez ere, instituzionala, neoliberalizazio sakonduaren fase hasiberri eta aurreratuan zegoela baieztatu dezakegu. Aurrerago aipatuko diren "enpresa-hirigintza" eta "hiri ekintzailea" (Harvey, 1989; Jessop, 1997), tokiko Estatuaren kudeaketaren eta gobernuaren erreferente gisa, tokiko neoliberalismoaren modu instituzionalizatuak dira, eta 90eko hamarkadatik aurrera neoliberalizazio-prozesuen emaitza, etorkizuneko zikloetan gauzatu eta mantendu zirenak. Baina egia da, oro har, geroztik dinamika neoliberal horien intesifikaziorako joera existitu zela. Dinamika neoliberal horiek garai horretan oraindik ere eusten zioten berme arautzaileak suntsitu zituzten, eta merkatuaren interesekin bat zetozen arautzeko modu berriak sortu zituzten.

Hortaz, esan dezakeguna da krisiak modu horiek azkartu zituela, eta agertutako "konponbide instituzional" berriak bide horretatik zihoazela, hiri-espazioa ekoizteko eta arautzeko modu berri honi "austeritate-hirigintza" gisa ezagutzen dugu. 2008ko finantza-krisiak Estatu neoliberalaren ohiko funtzionamendu-moduei aurre egin zien, eta, era berean, zalantzan jarri zituen merkatuaren desarautze selektiboaren estrategiak eta mekanismoak. Peckek (2012) dio erronka horiek batez ere gobernu-maila azpinazionala sentitu zirela, bereziki hiri-inguruneetan kokatutakoetan, zerbitzuen horniduran (azpi)kontratutako elkarteak eta antolaketa-moduak kontzentratu baitituzte (aipatutako partzuergoen, partenariatuen eta abarren bidez). Peckek berak "dumping eskalarraren" kontzeptua erabiltzen du arreta hirietan jartzeko arrazoiak azaltzeko. Haren arabera, krisi garaitik eratorritako murrizketek eragindako gizartegatazken kudeaketa beherantz eramateko joeraren ondorio izango zen (Peck, 2012:647). Hori, benetan, bat dator Estatu nazionalen birreskalamendu- eta hustetze-joerekin.

Baina austeritate-hirigintzak suposatzen zuen horretan sartu aurretik, beharrezkotzat jotzen dugu krisiaren kontestualizazio txiki bat egitea. Horretarako, López eta Rodríguezek eskaintzen duten aipatutako ikuspegia erabiliko dugu (2010). Gogora dezagun, bi egileentzat, 2000ko hamarkadaren amaieran mendebaldeko herrialdeak jo

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

zituen finantza-krisia berregituraketa eta berregokitze neoliberalaren olatu berri gisa ulertu behar dela.

Depresio ekonomikoak antzeko ondorio sozialak ekarri zituen (eta sozialak izan zirela azpimarratzen dugu, ez baitziren produkzio-sisteman hainbeste nabaritu), Europako periferietan kokatutako herrialdeetako desindustrializazio garaian izan ziren antzekoak, hain zuzen. Krisiaren ondorioak lanaren banaketa globalarekin ulertu behar dira. Horren ondorioz, AEBetan sortutako krisiaren hedapen-olatuak hainbat eragin izan zituen Europako eta munduko hiri, eskualde eta herrialdeetan. Aurreko kapituluan aipatutako EGlrraren ondorio horiengatik.

Torresek (2010) dioen bezala, mendebaldean garatutako herrialdeak atzeraldian sartu ziren, eredu komun bati jarraituz. Dena finantziazio-urritasunarekin hasiko zen, eta horrek inbertsioa murriztea eta, ondoren, langabezia handitzea ekarriko zuen. Arestian aipatutako “konponbide instituzionala” (*institutional fix*⁵⁸) gobernu nazionalak gastu publikoa handitzeko eta jarduera ekonomikoari berriro ekiteko politikak abian jartzeko saiakerarekin etorri zen. Hala ere, espainiar estatuan, finantza-krisi globalari higiezin burbuila baten eztanda gehituko zitzaion.

Kasu honetan interesatzen zaiguna gobernuek ezbehar ekonomiko horien aurrean nola erreakzionatu zuten izango litzateke, zein gaketan eman ziren erantzun politiko nagusiak eta, azkenik, nola egokitzen den krisi hau hiri-neoliberalismoaren periodo eta zikloetan. Egoera *markoen analisiaren* ikuspegitik aztertuta, hemen agertzen dira, hain zuzen ere, *there is no alternative* bezalako diskurtsoak edo austeritatea irtenbide bakar gisa aurkezten duten arrazoibideak (Farnsworth eta Irving, 2018). Logika horrek eztabaida ideologikoa urruntzen du, eta austeritatea amildegitik irteteko aukera bakartzat jartzen

⁵⁸ “Konponbide espazialen” antzera, Jessop autorearen ustez (2017:206):

un arreglo institucional es un conjunto complementario de instituciones que, por medio del diseño institucional, la imitación, la imposición o la evolución fortuita, ofrece (dentro de unos límites paramétricos dados) una solución temporal, parcial y relativamente estable para los problemas de coordinación que implica el mantenimiento de un orden económico, político o social. Con todo, no es algo puramente técnico y, en lugar de proporcionar una solución a posteriori a problemas de coordinación predeterminados, es en parte constitutivo de este orden.

Esan bezala, aurreko kapituluetan azaldutako “konponbide espazialak” edo “konponbide denbora-espazialak” gogorarazten digun termino horiekin bateragarria da. Are gehiago, konponbide instituzional batek espazioaren eta denboraren aldaketa/konponketa ekar dezake berekin, edo ez; eta alderantziz. Baina, egia esan, “konponbide instituzionalaren” kontzeptua Estatuaren egiturari eta estrategiari modu zabalagoan egiten dio erreferentzia, hala nola krisialdiei eta arazoei emandako erantzunei, espazio hutsetik harago. (Jeesop eta Sum, 2016).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

du⁵⁹ (Janoschka eta Mota, 2021). Erakunde transnazionalak, adibidez Europar Batasunak eta Nazioarteko Diru Funtsak, inposatutako austeritate hierarkiko horrek, gobernantzan instalatutakoak, hainbat neoliberalizazio bariegatu mota eragin ditu (Bua et *al.*, 2018), oro har neoliberalizazio-olatu berri bat dakartenak (Davies eta Blanco, 2017), eta "neoliberalizazio sakonduaren sakontze" gisa identifika genitzakeenak.

Lehenik eta behin, Davies eta Blancok (ibid) ongizate publikoaren murrizketa eta herritarren erantzunik eza nabarmentzen dute, nahiz eta azken batean horiek izan krisiaren ondorioak jasan izan dituztenak. Merkatuaren deserregularizazio selektiboaren aurrean erantzuteko ezintasun horrek "active destruction or discreditation of Keynesian-welfarist and social-collectivist institutions" (Peck eta Tcikell, 2002:37) azelerazioa ekarri du. Horri esker, berehala ondoriozta dezakegu austeritate-hirigintzak, lehenik eta behin, atzerapeneko, eraispeneko edo "roll-back neoliberalism"erako neoliberalismoaren ofentsiba bat eragin duela.

Bestalde, estrategia neoliberalak, hiri-testuinguruan, gizarte-politikan nolabaiteko oreka mantentzearen garrantzia identifikatu dute; horregatik, batzuetan kontratuzko aliantzak eraiki dira hirugarren sektore sozialarekin, baita austeritatearen aurkako aktibistekin⁶⁰ ere, baina atzerapen eta suntsipen ukazina geldiarazi gabe. Askotan, hirugarren sektorea baliagarria izan da aurretik, ongizate-estatuan, zeuden kalitate-estandarrek betetzeko (Swyngedouw, 2005).

Azkenik, Davies eta Blancok (ibid), hainbat autorerekin bat etorri (Bua, 2019; Parés, 2016; Bua et *al.*, 2018), "collaborative moment"^{a61} murriztu eta geldiarazi izana nabarmentzen dute. Joera hori erakundeei eta mekanismo parte-hartzaileei emandako

⁵⁹ Marko horiek aldiro errepikatzen dira historian zehar. Margaret Thatcheretik tesi hau idazten ari garen uneetan bizi dugun "permacrisis"era arte, COVID-19aren pandemiaren eta Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerra-gorakadaren ondorioekin, ezartzen diren diskurtsoak ez dute proposatzen konponbide deliberaturik, aitzitik zera azpimarratzen dute, botere politikoak ez duela mugitzeko edo eragiteko gaitasunik korporazio eta erakunde global handien exijentzia ekonomikoen aurrean.

⁶⁰ Hemen aipatzen ditugun aliantza horiek izango dute eraginik handiena aurrerago egingo den gobernantza kolboratzailearen analisisian eta tokiko araubideetako dimentsio parte-hartzailearen errealitateen analisisian ikusi dugu sakonean

⁶¹ Termino horrek XX. mendearen amaieran eta XXI. mendearen hasieran sortutako gogo biziari egiten dio erreferentzia, sareek zenbait eragileren irisgarritasun faltaren aurka borrokatzeko (hautakortasun estrategikoa) eta, oro har, gobernagarritasuna hobetzeko tresna gisa duten potentzialaren inguruan. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi Bua et *al.*, (ibid) edo Bua eta Bussu, (2021) edo hurrengo kapituluaren amaiera berrikusi, non gobernantza kolaboratiboaren eta parte-hartzearen testuingurua aztertzen den.

garrantzi politikoaren murrizketan islatu zen, partaidetzan inbertitutako energia politikoa eta haren eraginkortasun soziala murriztuz. Hori dela eta, egile horiek ondorioztatu dute, efektu praktikoetan, demokratikoki parte-hartzaileagoa den gobernantza baten potentzialtasuna, hots, herritar guztiek hirirako duten eskubidea betetzen lagun dezakeena, hertsiki lotuta dagoela leku bakoitzaren baldintza eta errealitate ekonomikoekin, batez ere tokiko eskalan eragiten duten mekanismoekin, hain zuzen.

Erantzun austerizida aho batez eman zen. Haren bidez, hirigintza-eredu propioa ezarri zen. Horrek, krisialdiaren aurreko urteetan oraindik gera zitekeen *welfare*-a suntsitzeko erasoaldiak jasotzeaz gain, berekin dakar krisiak berak izan ditzakeen ondorioen ikuspegi eskalatua. Orain arte aurkeztu dugun azterketa osoan esan dugun bezala, hiriak, birreskalamendua, Estatu nazionalaren hustubidea, eta *dumping* eskalarra medio, edo, besterik gabe, esperimentatzeko espazio gisa ulertuta (alor erregulatzailan eta ekonomikoan), analisiaren lehen lerroan agertzen dira. Álvaro Sevilla-Buitragoren ustez, 2008ko finantza-krisiak berriro ere jomugan jarri zituen hiriak, eta tokiko eskala izan zen biktima nagusia epe ertain eta luzera, honako hau eragin baitzuen:

Un mayor impacto de la desaceleración en la construcción ante la escasez de crédito por el rol que este sector juega en sus economías, incluyendo la recaudación de ingresos públicos a través de tasas; el estado general de consumo deprimido impacta también en sectores fundamentales de la economía urbana, como el turismo y el consumo conspicuo. Por otra parte, las ciudades son más vulnerables a la crisis de reproducción social desencadenada por los recortes en el sector público; a diferencia de las zonas rurales, donde las redes sociales de apoyo pueden ser más estrechas, las poblaciones urbanas son más dependientes de los mecanismos formales de reproducción social proporcionados por los servicios públicos (Matsaganis, 2011; Hall et al., 2013). Por último, existe una tendencia a desplazar hacia abajo la gestión de los conflictos sociales producidos por los recortes. Sevilla-Buitrago (2015b: 42-43)

Jamie Pecken ideiei jarraituz, geografo britainiarrak zerga-austeritateak estrategia eta proiektu neoliberaletan izan duen ondorioetako bat deszentralizazioaren sakontzea izan dela adierazi du, zerga-politika deszentralizatuen edo "aurrekontu-neurri bigunen" bitartez.

Estrategia horiek zerbitzuak ematearen finantza-arriskua banatzen dute, maila nazionaletik eskualdekora eta tokikora (deskarga); eta honek, erkidegoko edo hirugarren sektoreko erakundeetara eta sektore pribatuko kontratistetara (deskarga). Pecken ustez, azken batean, *dumping* eskalar gisa, austeritate-hirigintzak "que otros paguen el precio de la reducción fiscal" lortu nahi du (Peck, 2012:632), edozein ekintza-eskalatan. "Beste batzuek" (estatalak ez diren eragileek) "prezioa ordaintzeko" moduak testuinguruaren araberakoak dira. Testuinguru hori honela definitzen da: *path*

dependence, ideologia politikoa, gobernuaren baliabideak, ekonomia eta parte-hartzea edo ekintza kolektiboa. Faktore horiek benetan izatedun neoliberalismoari buruzko eztabaidetan onartu dira (Brenner et al., 2010b; Guarneros-Meza eta Geddes, 2010; Bayirbag et. al, 2017) (Telleria eta Lekue, 2020):

En conjunto, estos fenómenos crean las condiciones para el surgimiento de un “urbanismo de la austeridad” con manifestaciones diversas pero características comunes relacionadas no sólo con los elementos estructurales compartidos por las ciudades, sino también con su rol como espacio de oportunidad para superar la crisis. (Sevilla-Buitrago, ibid.).

Desindustrializaziotik 2008ko finantza-krisira: krisia, neoliberalismoaren zikloak eta suntsipen sortzaileko prozesu berriak hirietan.

Neoliberalismoaren suntsipen sortzaileko prozesu bortitzenek hirigunearen dimentsio materiala, instituzionala eta kognitiboa eraldatu dituzte. Hala, espazioak, produktu sozial edo egitura egituratzaile gisa, suntsipen sortzaileko prozesuak izan ditu maila guztietan (Irudia 8).

Neoliberalismoak hiri-espazioen erabilera-balioaren gaintik jartzen du truke-balioa. Ikusi dugun bezala, horren ondorioz, hiriek kapitala erakartzeko esfortzuak egiten dituzte. EGirraren estrategia aprobetxatuz (eskala anitzeko ikuspegi batetik, ez soilik tokiko eskalan enkistatutako prozesu gisa), hiriek beren espazioak (industria-eremuak, auzoak, kaleak, plazak, etab.) nazioarteko hiriburuen interesen eta suntsipen sortzailearen mugimendu pendularren zerbitzura jarri dituzte: industrializaziotik, urbanizazio handia gertatu zen momentutik (non espazioa egitura egituratzaile egituratua zen garaiko beste kosmo ikuskera batera igaro zen); gaur egunera arte, espazioa merkantzia aldagarria bihurtuz eta produktu sozialaren dimentsioa ahalik eta gehien atomizatuz, espazio lefebvriarrak monopolizatuz ikuspegi hegemoniko bakarraren bidez.

Indeed, hegemonic visions should always be critically analysed in order to identify how they privilege ‘... some material and ideal interests, identities, spaces, temporalities, etc., over others...’ (Jessop 2010: 48). Mulvad, 2015: 207.

Hala ere, kontuan izan behar dugu neoliberalismoa ezin dela merkatuaren deserregularizaziora sinplifikatu (Slobodian, 2018) edo merkatuaren balio individualizatzaileen aurrerakadara, ezta hiri-espazioaren suntsiketara eta sorrerara ere. Ezin dugu neoliberalismoa desarautzera murriztu; izan ere, erakunde bat behar da (tokiko Estatuko gobernu) deserregularizazio hori arautzeko, baina, aldi berean, dialektikoki haren ahalmen arautzaileen suntsipen sortzailea jasango du. Aalbersen

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

(2016) "deserregulazio arautua"ren (*regulated deregulation*) ideiak balio digu erakundeek eta gobernantzaren konfigurazioek espazio zein egiturak suntsitzeko eta eraikitzeko orduan duten garrantzia azpimarratzeko.

The point is that there is no inherent rejection of regulation per se. Deregulation does not necessarily facilitate neo/liberalization, privatization, re/commodification or financialization. Some form of regulation is often needed to facilitate market making, shaping and liberalization. For both "roll-back" and "roll-out" neoliberalism (Peck and Tickell 2002), regulation is crucial as a facilitator. (Aalbers, 2016; 566).

"Deserregulazio arautua" deituriko oximoronaren pean, eragile ekonomiko batzuek askatasun handiagoa dute Estatuaren kontrolatik ihes egiteko, baina hala ere, merkatuaren markoa, arauak finkatuz eta sistema osatzen duten erakundeek, tresnen eta merkatuen funtzionamendua kontrolatzeko diseinatutako mekanismoak ezarri araututa dago⁶². Hala, Aalbersen ekarpenak ikerketa honetan "deserregulazioa" deitzen dugunaren ñabardura bat dakar; izan ere, Estatuaren izaera interbentzionistaren birdefinizioa azpimarratzen du, baita Estatuaren ikuspegi hegemoniko neoliberalak merkatuaren aldeko deserregulazioa arautzeko ere.

Ferreri eta Sanyalek (2018) adierazten digutenez, adibide argi bat mundu osoko hirietan izan diren lege aldaketa berriak dira, Airbnb bezalako plataforma digitalen ekonomia handien ugaritzea ahalbidetzen duten merkatu-arauak birmoldatzeko izaten diren lege-moldaketak, hain zuzen. Horiek hiri-plangintzari dagokionez araututako deserregulazioaren adibide bikain gisa ikus daitezke; autore berek tokiko gobernuek jarduteko bi modu identifikatzen dituzte. Mutur batean, *laissez-faire* edo ekintza-ezaren ikuspegia hartzen duten hiri-gobernuak daude. Horietako batzuk erregulazio berriak sortzeko prozesuarekin esperimendatzen saiatu dira, plataformekin lankidetzan, politika ez oso murriztaile batzuekin esperimendatuz, azken batean, zerbitzu horiek tokiko erregulazio-inguruneak modu autonomikoan eta autonomoan berregiteko ahaleginean praktika berriak estabilizatu daitezten ahalbidetuz. Beste muturrean, "lankidetzak-ekonomiako" plataformen operazioak eta intentzioak mugatzeko edo zuzenean baztertzeko existitzen diren mekanismo arautzaileak erabili dituzten gobernuak daude.

Bestalde, Kitchinek (2014:10) irakurketa egokia eginez, deserregulazioan oinarritutako erregulazioak dakarren arriskua identifikatzen du. Izan ere, "the danger here is the creation of a corporate path dependency that cannot easily be undone or diverted", plataforma horietan informazio eta ezagutza ugari baitago, eta horrek rol pribilegiatua

⁶² Gehiago sakondu nahi bada eta kasu praktikoak aztertu nahi badira, Aalbersen lan horretan "deserregulazio arautuko" kasu espezifiketako erregulazio-interbentzionistako mekanismoak aztertzen dira.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

ematen die eragile horiei egungo hiri-gobernantzaren sareetan. Beharbada, pribatasunaren ildotik jarraituz, ibilbide honek hurrengo hamarkadetako eztabaida politikoa marka dezake.

Haatik, Ahedo eta Telleriak (2020) adierazten duten bezala, neoliberalismoa eskala guztietan historiografikoki aztertzeke orduan, garrantzitsuena ez da Estatu nazionalak edo tokikoak kuantifikatzea, ezta horiei kentzen zaizkien erregulazio-ahalmenei buruzko espekulazioa egitea ere; aitzitik, atzerakada eta ofentsiba ziklo bakoitzean zer forma eta zer instituzionalizazio mota hartzen dituzten jakitea da. Honek, prozesu horiek agentzian eta egituran sortzen dituzten emaitzak ulertzeko aukera emango digu.

Laburpen gisa, eta bigarren bloke hau ixteko, bigarren bloke honetan azaldutakoa aldi baterako sinplifikatzen duen hausnarketa bat egingo dugu. Honetarako 4. eta 7. Irudiei gehituta, 9. Irudia aurkezten dugu lerro historiko-praktikoa hobeto ikusteko. Egiaztatu dugun bezala, lehen olatu edo ofentsiba neoliberalak, hasiera batean suntsipen sortzailea eragiten duenak, Estatu nazionalen ahalmen arautzaileei egiten die erreferentzia nagusiki. Beraz, protoneoliberalismoak edo neoliberalismo desartikulatuak, ekoizpen- eta erregulazio-eredu espezifikoko baten amaiera ekarri zuen: fordismo keynesiarrarena, hain zuzen. Horren orde, metaketa malgu gisa identifikatutako ekonomia- eta ekonomia-politikoko paradigma berriak eraikiko ziren. Erregulazioari dagokionez, aldaketak nola gertatu ziren ikusi dugu, baina hiri-mailan suertatu ziren erantzunak edo ondorioak sakonki ikusteko oraindik pixka bat gehiago itxaron beharko dugu. Espazioen (batez ere industrialak) suntsipen sortzaileko prozesuak aurreragoizango baitute haien *peak moment*-a.

Izan ere, *roll-back neoliberalism*aren lehen faseak pobrezia eta desberdintasun sozialaren arrakalaren handitzea ekarri zuen. Horietako hiri batzuk egoera birmoldatzea lortuko zuten *roll-out neoliberalism*ak tokiko estatuen esku jartzen zituen sorkuntzarako neurri arautzaile berriak berenganatuz. Egia da garai hartan Estatu lokalek egun baino autonomotasun eta garrantzi pixka bat gutxiago zutela, nahiz eta Estatu nazionalen birreskalamendu eta hustutze prozesua jada hasita egon.

Hiri batzuek, baina batez ere zenbait Estatu nazionalak, nahiz eta deserregulazio estrategia bortitzak eta tatcherismo klasikoaren "best practice"ak aplikatu, hamarkada bat itxaron behar izan zuten espero zituzten emaitzak lortzeko. Izan ere, Harveyk (2005) dioenez, mundu anglosaxoiko Clinton-Blair binomioak antzeztu zituen *roll-out neoliberalism* delakoaren "kimu berdeak".

Again, this is a strongly path - dependent trajectory: while first deployed as a strategic response to the crisis of an earlier political - economic framework (Fordist-Keynesian capitalism), neoliberal policies were subsequently modified qualitatively to confront any

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

number of governance failures, crisis tendencies, and contradictions, some of which were endogenous to neoliberalism as a politico - regulatory project itself, and some of which followed from context - specific regulatory dilemmas confronting particular hybrid formations. The transition from the orthodox, radically anti - statist neoliberalisms of Reagan and Thatcher in the 1980s to the more socially moderate and ameliorative neoliberalisms of Blair, Clinton, and Schr ö der during the 1990s may therefore be understood as a path - dependent adjustment and reconstitution of neoliberal strategies in response to endogenous disruptions and dysfunctions. (Theodore et al., 2011: 19)

Horrela, egile horien logikari jarraiki, hedapen-kapitalismoak edo -neoliberalismoak "benetan izatedun neoliberalismoa" ezartzea lortuko zuen, eta hiri-espazioen garrantzia areagotuko zuen.

Agenda neoliberalak ere, helburu nazional eta globalekin, inpaktu hasiberriak izan zituen, "hiri-enpresarialismoaren" (urban entrepreneurship) aurrekoak, hirietan, Sevilla-Buitragok dioen bezala (2015:37):


La administración local debía no sólo esforzarse por crear un buen clima de negocios a través de toda clase de incentivos al capital, sino también vender la marca de la ciudad como un importante centro cultural³ y, por supuesto, como un suculento nicho para la inversión inmobiliaria (Greenberg, 2008).

Baina une hartan, neoliberalismoaren erreprodukzio soziala gero eta handiagoa zen momentu zehatz hartan, guztia lehertu zen. 2007-2008an hasitako krisi sozioekonomiko eta finantzarioaren ondorioz, politika ekonomikoa eta joera globalak birplanteatu ziren. Krisialdiak, Estatu nazionalen baina, batez ere, Estatu lokalen ahalmenen deserregulazio arautuak markatutako krisialdiak, krisi-aurreko urteetan zehar eraikitzen joan ziren forma eta egitura berriak ezarri zituen atzerapen-aldi bat eragin zuen. Krisi aurretik planteatutako zenbait dinamika saiatzeko eta esperimentatzeko momentu aproposa zen. Berriz ere, suntsipen sortzaileko prozesua hainbat eremutan nabaritu zen, bai zentzu materialean eta espazialean, bai zentzu instituzionalean eta kognitiboan. Beraz, beste behin ere bat gatoz Sevilla-Buitragorekin (ibid.: 18), honako hau adierazten duenean:

Cada etapa, cada régimen regulatorio privilegia ciertas escalas, territorios y agencias en el despliegue de nuevas rondas de destrucción creativa del espacio en tiempos de crisis. Las ciudades y el proceso urbanizador, en consecuencia, adoptan diversos roles en momentos sucesivos de reestructuración económica y espacial; las técnicas urbanísticas, por su parte, son reimaginadas en las diversas estrategias destinadas a gestionar y superar épocas de depresión.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Irudia 9: Historiographical summary of neoliberal cycles



Iturria: Egileak egina.

Krisiak eta kapitalaren erreproduzioa espazioan. Hiriko- enpresarialismoaren paradigma berri baterantz?

Krisi motak eta fordismo keynesiarraren egiturazko krisia azaltzerakoan aipatu dugun bezala, gauza bera egin behar da 2008ko finantza-krisi globalarekin, baina, kasu honetan, Estatu Espainolaren kasuan jarriko dugu arreta. Izan ere, gai garrantzitsua izan daitekeenez testuinguruan jartzeko premia ikusten dugu, puntu erabakigarriren bat izan baitaiteke gure ikerketan aztertzen ditugun kasuak ulertzeko.

Gaur egungo kapitalismoa, sakontze neoliberalerako fasean kokatuta, modu bariegatuan erreproduzitzen dela ulertzen badugu, zenbait estatutan (tokikoak edo nazionalak) izan diren krisiak ere zentzu berean izaten dira. Hori dela eta, egokitzen jotzen dugu, alde batetik, finantza-krakak Estatu Espainolaren (krisiaren aurretik, krisialdian zehar eta ondoren) izan zituen ondorio espezifikoak ulertzea; eta, bestetik, gure ustez krisiaren "konponbide espazial-temporalen" inguruan rol erabakigarria izan dezakeen Estatu espainiar beraren dimentsio eskalarra ulertzea.

Jada 2007an herrialde anglosaxoiatan (bereziki Erresuma Batuan eta AEBetan) nabaritzen hasia zen krisiak ondorio larriak izan zituen, batez ere gerora Europako hegoaldeko herrialdeetan. Hala, Torresek (2010) Estatu Espainolak jasandako krisiaren ondorio handiak azaltzen dituzten bost arrazoi nagusiak identifikatzen ditu: a) likidezia gehiegi metatzea eta zorrak gainezka egitea; b) higiezinaren burbuilaren eztanda, jada

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

aiptua; c) krisiaren nazioarteko hedapena kontuan izanda, kanpoko doikuntza bat egiteko aukera blokeatzea; d) 2003tik gora egiten ari den desberdintasun sozialaren arrakalaren handitzea; eta e) Espainiako Bankuaren permisibitatea Espainiako ekonomiarako neurrigabekoa zen zorrari eusten saiatzerakoan.

Bost arrazoi horiek azaltzen dituzte krisiak Estatu espainolean izan zituen ondorio nabarmenenak eta hondamenak: etxegabetzeak, langabezia, prekarietatea, ordaindu gabeko lana, hezkuntza-, osasun- eta elikadura-gabeziak eta abar. 2000. lehengo hamarkadaren amaierako finantza-krisiaren kalte handiei dagokienez, asko dira material akademikoa argitaratu duten egileak⁶³.

Kokatzeagatik, jakin behar dugu 2009rako Estatu espainiarrean langabezia-tasa ia % 20koa zela eta enplegua suntsitzen zuten bultzadetek eraikuntzatik haratago egiten zutela aurrera, kontsumo-ondasunen industriari eta merkatu-zerbitzuei eraginez. Aldi baterako eta iraupen laburreko kontratuak zituzten langileen proportzio handiaren ondorioz, enpresek azkar murriztu ahal izan zituzten haien plantillak, oso kostu txikiarekin, eskariaren beherakadari erantzuteko. Aldi berean, jaitziera hori are baxuagoa izan zen langabeziaren gorakadaren ondorioz, 25 urtetik beherakoan artean % 40tik gorakoa izatera iritsi baitzen. Gainera, aurreko hazkunde ekonomikoa, nagusiki eraikuntzaren sektorean oinarrituta (eta haren deribatuetan, *FIRE* sektorean) akastun erori zen, BPGren 7,7 puntu murriztu baitzen, gehienekotik gutxienekora, eta 2006ko zerga-superabita, BPGren % 2koa izanik, % 11tik gorako defizit batean zen 2009an (López eta Rodríguez, 2011).

Estatu mailan, José Luis Rodríguez Zapaterok zuzendutako PSOEn gobernua murrizketetarantzko ziabogari ekin zion, eta hasieran krisia sozializatzeko politika bat zirudiena, NDF-EBZren komenientziarekin autoinposatutako murrizketa-boladarekin amaitu zen. Lan-merkatuaren austeritate- eta berregituratze-politikak honako hauek izan ziren: % 5eko soldata-murrizketa sektore publikoan, prestazioen eta pentsioen murrizketa, inbertsio-proiektuen deusteztatzea, erretiro-adinaren igoera, soldata-negoiazio mailen murrizketa eta kaleratzearen sinplifikazioa. Estatu Espainoleko sindikatu nagusiek, batez ere neurri handi batean Alderdi Sozialistarekin elkartuta zeudenek, epeltasunez erantzun zuten, eta horrek protesta-uholde handia eragin zuen. Aski ezagunak dira 2011ko 15Mko mobilizazio masiboak Madrilan eta Bartzelonan.

⁶³ Ia ezinezkoa litzateke denak biltzea, teoria kritikoarekin lotutako ikuspegietan kokatutako egileetatik hasi eta Munduko Bankua bezalako erakunde globaletara arte.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Harveyk (1982) eta dagoeneko azaldu ditugun "spatial fixes"ek diotenari jarraiki, normalean egoera hauetan krisi kapitalistak konpontzeko joera existitzen da, espazio-berregituraketak bilatuz (barnekoak eta/edo kanpokoak), kontraesan neoliberalak aldi baterako eta geografikoki konpondu ahal izateko⁶⁴. Azken krisi honetan (2008koan) izan diren konponbide espazialek, berregituraketa- eta birreskalamendu-une batean gertatzen direnak, eta, aldi berean, gatazkak eskala baxuagoetara, hau da, *dumping eskalalarraren* bidez lekualdatzen direnak, aurreko krisialdian hasitako dinamikak luzatu dituzte, batez ere 80ko hamarkadaren amaierako eta 90eko hamarkadaren hasierako hausturaren azken unean hasitakoak. Horrek, azken batean, hiri- eta toki-erlaketan eta transformazioen areagotzea dakar (maila guztietan).

Sevilla-Buitragoren ustez (2015:43), zaila da haustura-uneen data finkoak edo espezifikoak ezartzea, baina, Estatu Espainolaren kasuan, neoliberalizazio sakoneko zikloan krisi honen une suntsitzailea aztertzen saiatuz, *roll-back* une honetan, fordismoaren "hirigintza publikoa" deritzonaren desegitearen jarraipena gertatzen dela baieztatzen du, aurreko krisialdian hasi baina ez zena bukatu. Xahutze honen azken helburua administrazioaren tamaina murriztea izango litzateke, NPM eta NUP (*New Urban Policies*) teorien birmoldaketatik abiatuz:

Los bienes, servicios y equipamientos públicos están en el frente de este nuevo ataque contra las ya de por sí escuetas formas de bienestar, especialmente en nuestro país: el patrimonio y las empresas públicas se venden, ceden o desmantelan [...] Los bienes, servicios y equipamientos públicos están en el frente de este nuevo ataque contra las ya de por sí escuetas formas de bienestar, especialmente en nuestro país: el patrimonio y las empresas públicas se venden, ceden o desmantelan. (ibid.).

Une sortzaileari dagokionez, ez da aurreko sormen-dinamikekiko haustura berritailerik edo sakonik hautematen; aitzitik, Sevilla-Buitragok dio (ibid.: 43-44), hiri-mailako berregituraketa-prozesua eta arautze-prozesua aurretik ezagunak ziren enpresa-hirigintzaren edo hiri-enpresarialismoaren parametro berberetan mugitzen direla. Ildo horretan, garai honetan indartzen diren krisi-ondoko eta "roll-back neoliberalism"-eko zortzi alderdi identifikatzen ditu, austeritatearen eta publikoaren murrizketaren logiketan sakontzen dutenak eta ikerketa honetan zehar agertzen direnak, hirien eta hiri-erregimenen egitura espazialarekin eta instituzionalarekin lotuta baitaude:

⁶⁴ Krisi-kasu espezifikoaren azterketan gehiago sakondu nahi bada eta kapitalak EGirraren eredu espezifikoak nola erreproduzitzen dituen ikusi nahi bada (Bigarren Inperioko Paristik Haussmanekin, eta 29ko "crash" -etik azken finantza-krisira arte), ikus Sevilla-Buitrago (2015: 34-41).

- **Hirigintza aurrerakoia merkantilizazioa:** hemen ez zaio erreferentzia egiten espazioa merkantilizatzeari, hirigintzak industrializazioaren garaitik gaur egunera arte egiten duen bezala, baizik eta merkantilizazio-modu berriei. Hala, sustapen pribatuak honako estrategia hauek merkaturatuko ditu: ingurumenaren aldetik bereziak diren espazioak, berdeguneak, espazio publiko berriak, hiri-berritzeak (espazio espezifiko ez-integralak), hala nola hiriguneak eta errentagarriak diren eremu historikoak.
- **Soft-urbanism:** kapitalak, azken krisiagatik edo atzeraldi-urteak baino lehenagoko beste arrazoi batzuegatik, interesik ez badu edo (apustu absoluturik ez badago) eraikuntzan eta *FIRE* sektorean zentratutako bigarren kapital-zirkuitu baten alde egiten badu, litekeena da "hirigintza biguneko" formula osagarriak agertzea. Horrek inplizituki ekarriko du aurreko blokean kapitalaren hirugarren zirkuitu gisa edo IKTen (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia) eta I+G+b gisa identifikatu dugunaren aldeko apustua. Ildo horretan balioa sortzeko aukerak hiria edukiontzi elektronikoa eta komunikazio-zerbitzu bihurtzea ekarriko luke, Smart Cities edo Big Data ekimenean bitartez.
- **Ikuskizuneko hirigintza:** hiri-ekonomia politikoak gero eta babes handiagoa aurkitu du kapital pribatuan, eta ez soilik hirien gobernantza berregituratu duten parteneriatu publiko-pribatuen zabalkuntzan, baita une jakin batzuetan ekimenean eta proiektu handien lidergoan ere, hala nola megaekitaldietan; izan ere, hiri-espazioaren erabilera publikoak privatizatzeaz gain, hiriak "hiri-marketinaren" lehiaketan estatus handiagoa lortzearen alde borrokatzera bultzatzen dituzte.
- **"Adreilua 2.0":** "soft-urbanism"aren aldeko apustua egin arren, higiezinaren merkatuek hiriaren puntu espezifikoetan, hiriburuetako premium eremuetan eta gama altuko eremu turistikoetan jarriko dute arreta, eta atzerriko inbertsioen bidez berraktibatuko dira (inbertsio-funtsak edo *FIRE* sektoreko enpresak).
- **Kapitala erakartzeko borroka:** kapitalak erakartzeko estrategiek markatuko dute hiriarteko lehia, aurretik azaldutako hiri-espazioaren ikusgarritasunetik harago. Berrorkatzeko mekanismorik ez dagoenez, hirien eta eskualdeen arteko garapen irregularrak (baita herrialde edo eskualde handiagoen lurralde-mugen barruan ere) batzuen eta besteen arteko egiturazko desberdintasunak larriagotuko ditu. *City boosterismoa* hasiko da hemen.

- **Arrakala sozioespazialaren handitzea:** zenbat eta desberdintasun sozial handiagoa eta lurralde-segregazio handiagoa, orduan eta espazio baztertzailer gehiago (Taula 3). Zerbitzu publiko tradizionalak klase eta auzoaren arabera segmentatzeak eta horien kalitateak lehendik zegoen espazioaren banaketa sozialean sakonduko dute.
- **Gentrifikazioa eta hiri-errebantxismoa:** administrazioekin eta tokiko edo eskualdeko erakunde- eta estatu-egiturekin ahulduta eta suntsipen sortzaile neoliberalerako estrategia apurtzaile neoliberalerara bideratuta, kalterako izango litzateke zenbait guneren sozialki-bidezkoa izango litzatekeen birkualifikazioa sustatzea. Agenda instituzionalen hiri-berroneratzearen borondateari esker, kapitalak aukerak eta maukak aurkituko ditu, sektore publikoak diruz lagunduta, egon daitezkeen *rent gap*ak ustiatzeko (gehiago sakontzeko ikusi Irudia 1). Dinamika horietan garrantzi handia du "sormen-klasearen" (*creative class*) agerraldiak, gune estrategikoak biztanle berriez betetzen saiatzeko.
- **Tokiko gobernantzaren liberalizazioa:** hurrengo blokean ikusiko dugunez, aldaketa eta eraldaketa-prozesu askok liberalizatzen dute tokiko estatuen gobernu-egitura. Baina Sevilla-Buitragoren ustez, proiektu espezifikoa inbertsio publiko-pribatuak konbinatzea bilatzen duten logikak dira nagusi (ez dutenak zertan espaziorikin espezifikoki lotura izanik), hau da, binomio edo parteneriotza publiko-pribatua sustatzean datza. Hala ere, egia esan, nahiko harreman akastuna da; izan ere, jakina da etekinak eta enpresa-gidoia sektore pribatuaren kargu daudela, baina sektore publikoak bere gain hartzen dituela kostu eta arrisku posibleak.

Hiri- eta espazio-aldaketetan oinarritutako esparru teoriko honen lehen puntua orain arte aztertu ondoren, mendebaldeko hirietan izandako ibilbide eta aldaketen oinarriak ezartzen saiatu gara. Horrela, hurrengo atalean, erakunde-egituretan eta ibilbideetan izandako aldaketetan zentratu ahalko gara, eta, zehazkiago, dinamika neoliberalerako, gobernu- eta gobernantza-moduetan, eta historikoki espezifikoki izan diren ibilbideen mendeko hiri-politika publikoak gauzatzeko moduetan duten eraginean.

Irakurleak antzemateko aukera izan duen bezala, orain arte espazioaren oinarriko kontzeptuetik abiatuz Teoria Urbano Kritikoaren (CUT) osotasunera egin dugu salto. CUTaren ezaugarrietako bat teoria askoren ekarpenak biltzeko gaitasuna da, horregatik

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

“instituzionalismo berria”ren ekarpenak eta erregulazioaren teoriaren funtsezko ideiak agertu izan dira. Hurrengo atalean, ordea, CUTak neoliberalismoaren inguruan eskainitako ekarpenak kontuan harturik, erregulazioaren teoriara jauzi egingo dugu. Noski, horrek ere ñabardura asko ditu eta zabalegia izan daiteke, horregatik, jada markatutako ildo beretik jarraitzen saiatuko gara, espazioa, neoliberalismoa, agentzia-egitura, eta abarreko kontzeptu aberatsak albo batean utzi barik.

III. BLOKEA: GOBERNANTZA, BERREGITURATZE INSTITUZIONALA ETA TOKIKO ESTATU-POLITIKAK

5. GOBERNANTZARAKO TRANTSIZIOA HIRIETAN ETA HIRI ERREGIMENEN KONPLEXUTASUNA

In the modern state, governance straddles the conventional public-private divide and may involve 'tangled hierarchies', parallel power networks, or other linkages across tiers of government and/or functional domains.

Bob Jessop (2016: 10)

Lehen eta bigarren blokean aztertu dugun bezala. *Path dependence* delakoak eta suntsipen sortzaileko prozesuek eragin zuzena dute hiri-espazioak eta hiriak ekoizteko moduetan. Oraingoan, eta azterketarekin amaitzeko, aurreko bi multzoak kontuan hartuta, tokiko gobernuek eta, oro har Estatu lokalek edo hiri-erregimenek, izan dituzten aldaketak eta berregituraketak landuko ditugu, bai maila estrategikoan, bai antolamendu eta operazio-mailan.

Badira urteak “governantza” hitza gure gizartearen egunerokotasunaren parte bihurtu egin dela. Ez bakarrik erakunde publikoetan, enpresa munduan ere governantzari zeharo lotuta dauden “estruktura”, “saretze”, “horizontaltasun” eta bestelako kontzeptuen erabilera areagotu egin da. Honek kontzeptuen lausotzea ekarri du eta ondorioz, governantza hitz beraren zentzuaren barreiatzea.

Kontuan izan behar dugu governantza, berez, gizarte konplexu baten emaitza eta ondorioa dela. Paul Cilliersi (1998) egotzen zaio *sistema konplexuen* ezaugarrien azalpen argiena, eta nahiz eta askok soilik biologia edo natur zientziekin erlazionatu, Edgar Morinen (1990) konplexutasunaren inguruko obra kontuan hartzen badugu, gizarte zientziekin lotura estua duela hauteman dezakegu. Cillersek identifikatutako hamar ezaugarrien artean, hurrengo hauek dira azpimarragarrienak: sistema konplexuak irekiak dira eta ingurunean dutenarekin harremanetan daude; elementu askok osatzen dituzte eta elkarreragin iragazkorrak eta dinamikoak izan ohi dituzte; kausa-ondorio

erlazio proportzionalak ez dauka hauetan izaterik, edozein elementuk alterazioak sor ditzakeelako, mugimendu txiki baten bitartez, neurrigabeko aldaketak; normalean sistema osatzen duten elementuek ez dute haien burua sistemaren elementu gisa ikusten, beraien nortasun propioaren ikuskera, haien errealitate hurbilenera murrizten baitute. Honen guztiaren ondorioz, sistema konplexuak historiaren emaitza besterik ez dira, aldaketak izan eta egoera berrietara moldatzeko gaitasuna duten heinean.

Hala, Torfing eta Ansellek (2018:1) adierazten duten bezala, “There is no single “theory” of governance, but rather many overlapping theoretical discussions and debates”. Autore berek, gobernantzaren kontzeptu konplexua nolabait definitzen saiatuz eta ikuspegi laburregiak saihesteko, gobernantza generikoa honela definitzen dute: “the process of steering society and the economy through collective action and in accordance with common goals” (Torfing et al. 2012). Era berean, adierazten dute gobernantza bera ez zela sortu kontzeptu teorikoetatik, baizik eta arazo praktiko batetik, honako galdera honi erantzun behar zitzaion testuinguruan: *nola gobernatu dezakegu modu eraginkor eta demokratikoan, agintaritza politikoa, gaitasuna eta boterea, zatikatuta, banatuta edo murriztuta dauden mundu bat?* Gobernantza da, lehenik eta behin, Estatuaren boterea husteko bide eta aukera bakarra, baina kontuz, honek ez baitu halabeharrez demokraziaren txikitze bat esan nahi.

Nolabait esanda, Durkheimen *gizarte konplexuak* gobernantza sistema konplexua sortu du, non zenbait elementu, agente, aktore, ingurune, etab., koiuntural zein estruktural, bata besteari elkarri eragiten dioten, denbora eta espazio zehatzetan aldaketak sorraraziz. Konplexutasun hori bizitza ekonomikoaren, politikoaren eta sozialaren gobernagarritasunari buruzko kezketan islatzen da globalizazioaren eta gatazkan dauden identitate subalternoen aurrean. Honek esan nahi du arazo berri eta garrantzitsuak sortu direla, Estatuaren goitik beherako plangintzaren bidez edo merkatuak bitarteko duen anarkia bidez erraz kudeatu edo konpondu ezin direnak eta grisen eskala batean mugitzera behartzen gaituena. Horrek grabitasun-zentro instituzionala (edo “erakargarritasun instituzionala”) aldatzea eragin du, eta horren inguruan politikak formulatzeko arduradunak, funtsean, koordinazio-modu posibleen artean aukeratzera behartuta daude (Jessop, 2003b), gobernantza-eredu zehatzak sortuz.

Era berean, aurreko ezaugarriak kontuan izanik, *governantza* hitzaren erabilera hutsalak deuseztatzea agerikotzat jotzen dugu⁶⁵. Izan ere, alor zehatzetan izaten diren sistema

⁶⁵ Torfing eta Ansellek (ibid.: 3) gobernantza hitza eta kontzeptua korapilatzen dituzten zenbait aurrizki identifikatzen dituzte:

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

ereduak ez lirateke zatien batura besterik izango, eta osotasuna sortzeko batuketa soila baino gehiago izan behar da kontuan. Horregatik, Teoria Kritikotik abiatuta, erregulazio ekonomikoaren eskolaren eta *Urban Regime Theory*-aren berrikuspenetik eratorritako erreminta-kutxa erabiliz, gobernu tradizionaletik gobernantza erduetara igaroko gara. Trantsizio horretan, orain arte azaldu eta aurkeztu ditugun gaiak izango ditugu kontuan eta makro ikuspegitik, mikro ikuspegiarantz abiatuko gara, hots, politika ekonomiko globala gogoan izanda, hiri-goberantzara eta hirietan izan daitezkeen eredu zein estrategietara hurbilduz, hain zuzen.

Bestalde, gobernantzaren nondik norakoak aztertu ondoren, azken urteotan, ofentsiba neoliberalaren barne, luzaro gertatu izan diren, eta batez ere 2008ko krisia eta gero nabariagoak izan diren aipatutako "austeritate hirigintza" estrategiak eta hiri enpresarialismoan oinarritutako politikak ikertzea izango dugu helburu, ez soilik arestian aipatutako espezifikotasun espazialak eta ondorio materialei erreparaturaz, baita estruktura instituzionaletan eta politika egiteko formetan arreta jarriz ere.

Ildo honetatik jarraituz, aurreko blokeetan ere jorratu dugun birreskalamenduaz gain, Jamie Pecken (2012) "austeritate-hirigintzak" dakarren funtsezko kontzeptuari esker, hiri-gobernantzak dituen egungo erronketan koka gaitezke. 2008ko finantza-krisiak, European eta Estatu Batuetan, Estatu neoliberalaren funtzionamendurako ohiko moduak desafiatu zituela aipatu dugu. Esan bezala, Estatu neoliberal horrek lehendik ere suntsipen sortzaileko eta aurreko sakontze neoliberalerako zikloen eraginez gertatutako aldaketak izan zituen, eta, ondorioz, desregulazio arautuak funtzionatzeko estrategiak eta mekanismoak zalantzan jartzeko gai izan da.

Hence, "good governance" tends to refer to the endeavor of international organizations such as the United Nations and the World Bank to assess and measure the quality of governing institutions in developing countries in terms of their stability, interaction, transparency, responsiveness, procedural fairness, effectiveness and adherence to the rule of law. "Global governance" refers to attempts to devise regulatory policies in response to global problems such as AIDS, terrorism, poverty and global warming in the absence of an overarching political authority. "Corporate governance" refers to the institutionalized interaction among the many players—including shareholders, management, boards of directors, employees, customers, financial institutions, regulators and the community at large—involved in the process of directing and controlling private firms. "Multi-level governance" refers to a system of continuous negotiation among nested governments at the local, regional, national and supranational levels. Last but not least, it should be mentioned that "new governance" has been a buzzword in public sector reforms inspired by New Public Management (NPM). The governance literature contains many other conceptual constellations that further expand the application of the notion of governance. However, adding a particular prefix to the notion of governance does not help us in defining what governance per se means.

Irtenbide edo soluzio espazialak, ildo horretatik, eskala lokalean gauzatzen dira, beste inon baino gehiago (Peck, ibid.). Horregatik, kapitulu honen eta, oro har, bloke honen helburua gobernuen eta gobernantzaren ibilbidea neoliberalismoaren ibilbide historiografikoan ulertzea izango da. Kontua hemen gobernantzaren portaerak aztertzea izango da, batetik, 2008ko krisiaren ondoriozko austeritatearen aurreko uneetan; eta, bestetik, egitura instituzionalek eta egitura publikoek gerora izan zuten asimilazioa kontuan izanda. Izan ere, erakunde eta egitura instituzional eta publikoen estruktura, neoliberalismoa (autorregulatua edo erregulatua) sendotzeko estrategia eta proiektu estatala zuen Estatu lokal baten ikuspegi hegemonikoaren menpe geratu baitziren.

Gobernu (tradizionaletik) gobernantza eredu berrira

Gobernantzaren konplexutasunean bete-betean sartu aurretik, testuingurua kokatzea eta Jessopek (2017:238) aurkezten dituen azalpen sakon bezain aberatsak ulertzea merezi du. Egileak gobernu-sistemetatik (*polity*) politikara (*politics*) eta praktika politikora (*policy*) gertatutako trantsizioaren inguruan hausnartzea proposatzen du, hau da, Keynesiar garaiko estatalitateak, neoliberalismoaren sare-gobernantzara eta koordinazio-sistemetara edo heterarkikora egindako ibilbideak ekarri zituen aldaketen inguruan gogoeta egitea. Garrantzitsua da 1970eko eta 1980ko hamarkaden artean "gobernutik" "gobernantzara" egin zen trantsizioa kudeaketa eredu berrien suntsipen sortzaileko prozesu gisa identifikatzea⁶⁶, eta are gehiago, gaur egun etengabe moldatzen eta aldatzen ari diren gobernantza eredu espezifikoetan. Hala baieztatzen du Jessop berak ere (1997:62):

We can now attempt a re-interpretation of the changed economic agenda of economic partnerships in contemporary western capitalism. It was always one-sided to suggest that local growth coalitions were oriented primarily to property development. For during Fordism, as now, strategies pursued by local authorities and agencies of local governance were numerous, spatially and temporally specific, and divergent. But it is fair to say that the local coalitions were oriented to specific models of development which generally complemented the dominance of Atlantic Fordism and its distinctive forms of uneven development. Thus local states under Fordism typically provided a local infrastructure to support Fordist mass production, promoted collective consumption, implemented local

⁶⁶ Horrek ez du esan nahi gobernantzak gobernu ordezkatuko duenik; aitzitik, funtzio berriak ematen dizkio, eta askotan publikoaren eta pribatuaren artean izan daitezkeen harremanen ikuskatzaile edo erreztatzaile roletara baztertzen du, Torfingek eta Ansellek (2018:5) adierazten duten bezala: "governance did not replace government, but rather supplemented and transformed it".

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

welfare state policies, and, in some cases (especially as the crisis unfolded), engaged in competitive subsidies to attract new jobs or prevent the loss of established jobs. Whilst local economic conditions clearly shaped how individual local governments saw their respective *economic* roles, there was an almost universal commitment to the Keynesian welfare *social* policy role. These generalizations apply most strongly, of course, to trends in Europe.

Baina lehenik eta behin, komeni da "gobernu tradizionala" zer den jakitea. Subirats eta Parések (2014: 99-100) eredu honen 5 elementu bereizgarri nabarmentzen dituzte:

1. **Demokrazia liberal-ordezkatzailea:** Modernitatearen berezko gobernu-ereduetan, ordezkartza-sistema baten bidez hautatzen dira gobernariak, politika publikoak diseinatzeko eta gauzatzeko prozesuetan erabakiak hartzeko eta prozesu osoaren erantzukizuna beren gain hartzeko hautatuak izaten dira. Aldizkako eta lehiatzeko hauteskundeak dira herri subiranoak gobernariaren ekintzak kontrolatzeko erabiltzen duen (ia) mekanismo bakarra.
2. **Hierarkia:** Estatuak da (batez ere eskala nazionalan) erabakitzaile publiko bakarra, eta bere erabakiak logika hierarkiko baten arabera hartzen ditu. Hierarkia hori errepikatzen da, bai antolaketa-mailan (Estatuaren barruan, dinamika bertikalen bidez antolatzen da), bai harreman-mailan (Estatuaren eragile guztiekin lotzen da bertikalki, baita herritarrekin ere). Ildo horretan, nabarmendu behar da Estatuaren solaskide nagusi eta ia eksklusiboak gizarte-eragile espezifikoak –sindikatuak eta patronalak– direla. Horiekin, merkatu librekoa izaten jarraituko duen eredu ekonomikoaren eta gizarte-ereduaren arteko oreka ituntzen da. Eredu hori ongizate-eredu keynesiarraren ezaugarri birbanatzailean oinarritzen da.
3. **Burokrazia:** Administrazio publikoa egitura hierarkiko baten bidez ere antolatzen da, eta egitura horren ezaugarriak dira prozedura esplizitu eta erregularizatuak, erantzukizunen banaketa eta lanaren espezializazioa. Antolaketa-egitura zurruna eta autoritarioa da, harremanak inbertsonalak dira eta ez dago espaziorik espiritu kritikorako, sormenerako eta berrikuntzarako. Burokrazia klabea da NPMaren hedapenerako.
4. **Eskumen eta gaitasunen espezializazioa:** Administrazioa zein politika publikoak elkarren artean loturarik ez duten sail estankoen arabera egituratu ohi dira, zeharkakotasun administratiboaren logikarik gabe eta arazo konplexuak diagnostikatzeko eta erantzun integralak planteatzeko gaitasunik gabe.

5. **Estatu Nazioa:** estrategia eta esku-hartze politiko gehienak nazio batekin identifikatzen den Estatu baten arabera egituratzen dira. Biztanleria eta lurralde-mugak, arazoak identifikatzeko eta konponbideak diseinatzeko espazio gisa asimilatzen dira, eta, aldi berean, administrazio publikoaren eskumenen eta ahalmenen muga espazialak mugatzen dituzte. Beste gobernu-maila batzuekiko harreman-logika, bereziki tokiko mailarekiko, hierarkikoa da gehienbat, eta honek gobernu lokalak periferia eta mendekotasuneko egoeran jartzen ditu

Gobernu tradizionalen ezaugarri nagusiak aurkeztu ondoren, guri interesatzen zaigun trantsizio-prozesua (*from government to governance*), egile askok identifikatu eta aztertu dutela adierazi behar dugu (Blanco eta Gomà, 2006; Kooiman, 1993; Pierre, 2000; Rhodes, 1996). Garrantzitsuenetako bat Clarence Stone (1989) izan da, hiri-erregimenei⁶⁷ buruz egindako teorizazioaren bitartez. Hala ere, gure ikerketarako Jessopek (Stonei jarraipena eginez) iragarritako puntuak azpimarratuko ditugu.

"Gobernu forma tradizionaletatik" "tokiko gobernantzarako" trantsizioa gertatu ahal izateko lehen arrazoia Estatu nazionalaren *deshierarkizazioa* da, hots, ikerketa honetan "birreskalamendu" gisa ere aurkeztu izan dena. Ildo honetatik, gizartearen eta lurraldearen gaineko kontrola mantentzeko edota berrezartzeko saiakeran, Estatu nazionalak gobernatzeko beste modu batzuetara bideratu ditu bere ahaleginak, gobernuen arteko lankidetzetan (eskala anitzekoak) eta lankidetzeta publiko-pribatuetan oinarrituta, Estatu-proiektuak eta -politikak definitu eta gauzatzeko lankidetzan arituz.

Prozesu horri lotuta, Jessopek botere-estatalak nolabaiteko *birkalibrazioa* jasan izan duela nabarmentzen du, eta horrek gobernuak (tokikoa, eskualdekoa edo nazionala izan), gizartearen konplexutasun gero eta handiagoaren aurrean eraginkortasun politikoari eusteko bitarteko gisa, sareak eta gobernantzarako beste modu batzuk era zabalagoan erabiliz, beheragoko mailetan gobernu-modu berriak indartzen dituela esan nahi du. Pixkanaka egitura burokratiko hierarkikotik aldenduz eta forma konplexuagoak, deszentratuagoak eta pluralistagoak dituzten akordioetara hurbiltzen ari garela sumatzen du Jessopek berak.

⁶⁷ Tesi honen hasieran eta beste punto askotan zehar azaldu dugun bezala, ikuspegi horretatik egindako ekarpenak bilduko ditugu, gobernantzaren forma instituzionalei buruzko azterketa aberatsagoa egiteko oinarriak finkatzen baitituzte. Erreferentzia gisa, "hiri-erregimenei" definizioa dakargu, hautakortasun estrategikoak eta horren erreproduzioa ahalbidetzen duten gobernantzaren eta informaltasunaren garrantzia nolabait azpimarratzen duena: "the informal arrangements by which public bodies and private interests function together to make and carry out governing decisions" (Stone, 1989:179).

Lurraldetze-prozesuen (*territorialisation processes*) garrantzia eta kapitalismoarekin duten lotura ulertzeko, Lefebvrek (1974) egindako baieztapena gogoratu behar da (giltzarria, bestalde, CUT eratzeko), "espazioan gauzak ekoiztetik espazioaren ekoizpena" izandako transformazio historikoa identifikatzen duenean. Bestela esanda, kapitalismoak espazioa sortzen duela aitortu dezakegu, hala izanda, bere garapen-fasearen arabera, espazioak eta eskalak esanahi desberdina izango dute. Jessopek (1998; 90) adierazten duen bezala, *Lurraldetasunaren momentua* globalizazioaren egungo zikloan, ezegonkorra dela esan dezakegu: "en contraste con los privilegios que gozaron la economía y el Estado nacionales en el periodo del fordismo atlántico, en la actualidad no hay escalas espaciales privilegiadas".

Horrela, bada, birreskalamenduaren ideia honela uler dezakegu: Estatuaren ikuspegi eskalarretik espazio pribilegiatuen haustea; eta horrekin batera, beste maila batzuetan, bai goragoko baita behegoko mailetan, gaitasunen (zenbat eta zer botere edo gobernu-ahalmen duten) eta gobernatzeko moduen egokitzapenen (lan honetan interesatzen zaiguna) eta "gobernantza modu" deritzogunaren) bilaketa (Telleria eta Lekue, 2020). Estatu nazionalak prozesu honetan izan duten subiranotasun-galera ukalezina (Wriston, 1992; Ohmae, 1995) Estatu espezifikoen botere politiko eta ekonomikoari egozten zaio, estatu-gaitasunak eta harreman-baldintza "selektiboak" (*Ikuspegi Estrategiko-Erlazionala*) direla eta, kapitalaren interes ekonomikoen aldeko ahultze erlatiboa ahalbidetu baitute (Jessop, 1990; 1994; 2016).

Hirugarrenik, Jessopek politikaren *desestatalizazioa* nabarmentzen du, eta, bestetik, *boterearen despoltizazioa*. Hau da, aurreko puntutik eratorrita, ulertzen da, *estatu-modu hierarkiko* batetik *saretze gobernu-sistema* batera igarotzerakoan, arreta- eta autoritate-zentroa lausoagoa bihurtzen dela. Estatu eremu politikotik "erretiratzeak", beste indar politiko batzuei funtzio garrantzitsuagoa betetzeko gonbita eginez edo aukera emanaz eta, arazo jakin batzuei erantzuteko, teoriarik apolitikotik diren erabakihartze-eredu egokiagoak definitzea, garrantzia kentzen dio Estatuaren rolari.

Azkenik, *gubernamentalitate*⁶⁸-forma (neo)liberal aurreratuetarantz egindako aldaketa bat aitortzen da, gizarte-harremanak urrutitik gobernatzen saiatuz, agintaritzaren subirano

⁶⁸ Foucaulten gubernamentalitate kontzeptua erabiltzen da hemen, *gobernantzaren* noziora nolabait hurbiltzen dena, baina honekiko desberdintasunak dituena. Liberalismo aurreratuagoaren etapa jakin bat ulertzeko proiektu baten zati gisa garatua, gubernamentalitateak hiru gauza adierazten ditu: lehenik eta behin, gobernatzeko egintzaren nozioa; bigarrenik, arlo ekonomikoak arlo politikotan eta arlo politikotik arlo ekonomikoan duten zeharkagarritasuna (horri dagokionez, Foucaultek idatzi zuen: "la introducción de lo económico en el ejercicio de la política [era] la cuestión esencial del gobierno y la gubernamentalidad"); eta,

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

baten mandu eta kontrol zuzenaren bidez gobernatu beharrean. Adi, azken honek ez du zertan demokraziarekiko kontraesanik ekarri.

Una teoría del gobierno comprende al Estado como un conjunto de instituciones que sirven como asiento y base de la autoridad, por eso atiende cuestiones tales como la legitimidad, las diferentes modalidades que el Estado puede adoptar (democracia, populismo, totalitarismo, etc.) o el alcance de las potestades legislativas, punitivas y regulativas. En cambio, una analítica de la gubernamentalidad no parte del supuesto de la unidad del Estado, sino que atiende a la multiplicidad de prácticas que configuran la racionalidad gubernamental. Desde una analítica de la gubernamentalidad, el Estado ya no puede interpretarse como la sede y el origen del gobierno, sino únicamente como el lugar de su codificación. El problema al que atenderá la perspectiva gubernamental ya no será la naturaleza ni las características del Estado, sino las prácticas de gobierno y su correlato en los procesos de gubernamentalización estatal. (Botticelli, 2016; 92).

Horrek esan nahi du azken finean gubernamentalitateak definitzen duela Estatuak; izan ere:

Es la táctica de gobierno lo que permite la continua definición de lo que debe o no debe estar dentro del dominio del Estado, lo que es público y lo que es privado, lo que está y lo que no está dentro de las competencias del Estado, etc. Por tanto, [...] la supervivencia y los límites del Estado deben entenderse a partir de la base de las tácticas generales de gubernamentalidad. (Foucault, 2006; 144-145).

Blancok (2009) adierazten duen bezala, faktore ekonomikoez harago, praktikan, gizarte-eta espazio-egituren eta egitura sozialen zatiketak eta geroz eta konplexuagoak diren bazterketa sozial urbano berrien agerpenak, gizarte-premien heterogeneotasunarekiko eta lurralde-berezitasunekiko sentikorragoak diren gizarte-politika berriak bultzatzeko

hirugarrenik, izaera espezifikoko arrazionaltasun politikoa den barne-logika bat (Bonnafous-Boucher, 2005).

Por “gubernamentalidad” entiendo el conjunto constituido por las instituciones, los procedimientos, análisis y reflexiones, los cálculos y las tácticas que permiten ejercer esa forma bien específica, aunque muy compleja, de poder que tiene por blanco principal la población, por forma mayor de saber la economía política y por instrumento técnico esencial los dispositivos de seguridad. Segundo, por «gubernamentalidad» entiendo la tendencia, la línea de fuerza que, en todo Occidente, no dejó de conducir, y desde hace mucho, hacia la preeminencia del tipo de poder que podemos llamar ‘gobierno’ sobre todos los demás: soberanía, disciplina, y que indujo, por un lado, el desarrollo de toda una serie de aparatos específicos de gobierno, [y por otro] el desarrollo de toda una serie de saberes. Por último, creo que habría que entender la «gubernamentalidad» como el proceso o, mejor, el resultado del proceso en virtud del cual el Estado de justicia de la Edad Media, convertido en Estado administrativo durante los siglos XV y XVI, se ‘gubernamentalizó’ poco a poco. (Foucault, 2006: 136).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

presioa egiten dute (Brugué eta Gomà, 2006). Garrantzitsua da hori kontuan izatea neoliberalismoaren bariegazioak ulertzeko.

Pragmatikoak izanik, ondorioztatzen dugu, Estaturen (nazionalen) ahalmenei dagokienez, Estatu horien kontrol-galera hainbat eta hainbat politika publikotan agerikoa dela, bereziki Europar Batasunaren esparruan (Goikoetxea, 2018; Taibo, 2016; Krasner, 2001), eta, oro har, ekonomiaren gainerako nazioartekotze-prozesuekin eta nazioarteko agentziekin (Bua, 2019; Hernández, 2017; Sassen, 1996).

Estatu nazionalaren birreskalamenduaz eta “hollowing out” delakoaz gain, hausnarketa interesgarri bat ekarriko dugu burura; izan ere, prozesu honen bitartez herritarren (edo, behintzat, herritarrek aukeratutako ordezkari politikoek) erabaki ahalmena nabarmen urruntzen bada ere, hirien ikuspegitik ate batzuk ireki daitezke. Estatuaren ahultze eta birreskalamendu erlatiboak tokiko eta eskualdeko gobernuentzako kudeaketa-gaitasunari zenbait aukera ireki diezazkioke, *policy network*-ek (politika publikoen sareak) dakarten sastraka horretan, baina, batez ere, *network governance*-etan (governantza-sareak) modu positiboan aritzeko (Subirats, 2016).

Taula 9: Gobernu eredu tradizionaletik Governantza eredu berrira

Neurgailuak	Gobernu tradizionala	Governantza
Inplikaturako aktoreak	Estatua.	Estatua, gizarte zibila eta interes taldeak.
Egitura	Burokratikoak. Hierarkia eta autoritatea.	Sareak eta lankidetzak publiko-pribatuak. Koordinazioa eta negoziazioa.
Estatuaren rola	Ezaguna: hornikuntza, agintzea eta kontrola.	Ezezaguna: lidergoak, zuzendaritza, ahalbidetzea, kolaborazioa, koordinazioa, etab.
Erabaki hartzea	Prozedura administratiboak. Erabaki unilateralak. Goitik beherakoa.	Deliberazioa. Erabaki multilateralak. Goitik beherakoa edo behetik gorakoa.
Ondorioak	Legalitatea. Arrazionaltasuna. Zurruntasuna. Sinpletasuna.	Malgutasuna. Berrikuntza soziala. Ezgonkortasuna. Konplexutasuna.

Iturria: Egileak egina Cárdenasen (2011) oinarrituta.

Ikuspegi Estrategiko Erlazional-(Espaziala)

Gobernantzaren konplexutasunak direla eta, azalpenak bilatu behar ditugu eta gobernantza eraikitzeke erabiltzen diren joko-arauetan sakondu behar dugu. Gubernamentalitatearen kontzeptua kontuan hartuta, hemen Estatuaren gizarte-harremana dela defendatzen dugu, hau da, eragileen eta aldagaien arteko harreman konplexuen ondorio, ekoizle eta edukiontzia. Gramscik, Estatuaren horrela aztertu zuen, eta Estatuaren boterearen egituraketan, alde batetik, instituzio pribatuak, erakundeak eta mugimenduek, eta bestetik, aliantza politikoen eraketak eta indar subalternoen desantolaketak duten zentraltasuna nabarmendu zuen. Horrek esan nahi du Estatuaren (modernoaren) zera dela: "una relación de fuerzas políticas mediada por la materialidad institucional del sistema estatal. [...] Como una relación social trenzada en una complicada red de contradicciones, dilemas, tensiones y antagonismos."⁶⁹ (Jessop, 2017:22).

"Estatuaren ez da tresna bat, ez subjektu bat, baizik eta gizarte-harreman bat" (Poulantzas, 1978:154) dioen baieztapen enigmatikoa azter daiteke, baldin eta ulertzen badugu Estatuaren honako hau baino ez dela: (a) erakunde bati ematen zaion botere-erabilera, lurralde espezifiko batean legitimatutako sinbolo gisa (b) eta instituzioen bidez eta diskurtsiboki d) indarren oreka aldakor baten kondentsazioa, (e) ingurune natural eta sozial zabal batean (f) aukera eta murrizketa egoera koiuntural jakin batzuetan (g) erakunde-antolamenduaren, politikaren eta politiken moduetan, helburuetan eta edukian eragina izan nahi duena (Jessop, ibid.; 97). Horrek guztiak, esan dugun bezala, aukera ematen digu Estatuaren lurralde-mugak lausotzeko, nazioari hertsiki lotutako zerbait gisa ulertu ez ezik, lurralde jakin bateko indar-harreman kondentsazio moduan hartuz (Brenner, 2003b; Harvey, 1989b; Lefebvre, 1978).

Recordemos que estas dimensiones no deben ser estudiadas exclusivamente en un nivel nacional, puesto que, incluso en el apogeo del Estado territorial nacional, la política también se articulaba sobre otras formas de organización de área y otras redes escalares de la práctica política. (Jessop, 2017: 105)

Hau esanda, IEE-E (Ikuspegi Estrategiko Erlazional-Espaziala) aurkeztu dezakegu. IEE-E, alde batetik, Jessopek (1990) "hautakortasun estrategikoa" deritzogun horretan, eta, bestetik, "Estatu erlazional" beraren teoria gramscianoan oinarritzen da. Estatuaren gizarte-harreman gisa ulertzeak aukera sorta zabala irekitzen digu benetan estatalitatea zer den ulertzeko, eta onartzen dugu estatalitatea, iraganeko borroken (eta *path*

⁶⁹ Ikerketa honetan ezinbestekoa da hori ulertzea; izan ere, "Estatu nazionala" terminotik "tokiko Estatu" edo "Estatu lokala" terminora igarotzen da askotan, eta horrek nahasmena edo gaizki-ulertuak eragin ditzake.

dependence delakoaren) kondentsazioa izateaz gain, egungo borrokei erantzuteko modua ere badela. Ikuspegi horretatik, Estatua eta bere erakundeak prozesu dinamiko, dialektiko eta polimorfiko gisa ulertzen dira, historia baldintzatzen dutenak eta, aldi berean, historiak berak Estatua ere baldintzatzen duena (Jessop, 2007; 2017).

Honaino iritsita, eta Estatua harremanetan oinarritzen dela ulertuta, IEE-EA ulertzeko bide luzea dugu. Estatu erlazionalaren ikuspegi hori osatzen duen beste zatia "hautakortasun estrategikoarena" da. Azalpen gisa, adierazi nahi dugu IEE-Eren bigarren "E"-a Estatuaren dimentsio erlazionalari erreferentzia egiten badio, lehenengoak erlazio horiek gertatzen diren logikei egingo die erreferentzia (horregatik azaldu dugu lehendabizi bigarrena "E", eta ez gara lehenengotik hasiko).

Ikus dezagun, beraz. Estatua gizarte-harreman bat dela ulertzeak, esan nahi du politika publikoen balantza eta, azken batean, gobernantzaren beraren balantza desorekatzen duten botere-asimetriengatik gurutzatuta dagoela onartzea, gizarte-harremanetan eragileen artean gehienetan botere-desorekak egon ohi baitira. Alde horretatik, agentziaren eta egituraren birformulazioa ematen da termino erlazionalan. Hala, agentearen arabera aldakorrak diren mugek eta aukerek determinatuko lukete egitura; eta, aldi berean, agentzia, egituraren arabera eta inplikaturako eragileen arabera aldakorrak diren gaitasun estrategikoen mende egongo litzateke. Testuinguru horretan aurkeztu zuten Jessopek (1990) eta, ondoren, beste egile batzuek (Hay, 1995, 2002; Brenner, 2004b; Heigl, 2011; Clark eta Jones, 2012; Valler et al., 2013; Boukalas, 2013) "Ikuspegi Estrategiko Erlazionalaren" ideia. Azken batean, teoria hau *Estatuaren* eta bere proiektuen formen, funtzioen eta efektuen aldaketak aztertzeke baliagarriak izango diren tresna teoriko eta metodologikoak garatzen saiatuko da.

Horrela, "hautakortasun estrategikoaren" ideia, Claus Offeren⁷⁰ hasierako hipotesian oinarritua, honako honetan oinarrituko litzateke: estatu modernoak, tokioa zein

⁷⁰ 1970eko hasieran, alderdi politikoek eta beste eragile batzuek Estatuako politikan esku hartzeko, erreformak sustatzeko eta Europako Ongizate Estatuaren izenekoaren krisi politikoak kudeatzeko modu "selektiboan" zituzten mekanismo instituzionalak eta ordezkari-mekanismoak identifikatu eta aurkeztu zituen. Askotariko mekanismo horiek, hasiera batean, administrazio publikoak eta Estatuako administrazioak kontrolatzen zituen, eta kapital-metaketa eta krisi ekonomikoak eragindako desorekak "zuzendu" nahi zuten esparru politikoan (González, 2017). Hala eta guztiz ere, Offeren "hautakortasun estruktural" bat zegoela defendatuko zuen, ez estrategikoa (garai hartan garatu gabe zegoen), eta horrek jarduteko eta egiturak eraldatzeko tarte gutxi uzten ziola agentziari adierazi zuen. Azkenik, Offeren ustez, "hautakortasun estrukturalak" Estatuako botereari datxekion logikari egiten dio erreferentzia. Horrela, Estatua

nazionala, ez da beti bere estrategien hautaketa arrazionalaren bidez definitzen (edo enpresa- eta errentagarritasun-logiken arabera soilik, estatu kapitalistaren kasuan). Estatua lurralde jakin batean erabaki kolektibo lotesleak definitzeko eta aplikatzeko eginkizuna duten erakundeek eta/edo gizarte-erakundeek arteko harreman-multzo gisa ulertzen badugu, ulertuko dugu ezen, aktore-sareek haien baitan jazotzen dituzten botere-asimetrien ondorioz, ohitura eta kapital sozial jakin batzuek markatutako talde jakin batzuei aukera errazagoak edo handiagoak ematen zaizkiela, beste talde batzuek baino errazago irits daitezten estatu-agintaritzara, politika publiko batzuk erraztuz beste batzuen aurrean (Telleria eta Lekue, *ibid*)⁷¹.

Hautakortasun estrategiko honek, azken batean, esku-hartze sozioekonomikoko eredu jakin batzuk eta eredu erregulatzaile zehatzak sustatze aldera, Estatu instituzioak mobilizatzeko ekimenen ezarpena ekarriko luke (Jessop, 1990:196). Horrek Estatua *estrategia-edukiontzi, -sortzaile eta -produktu* gisa identifikatzera garamatza (Taylor, 1994). Lehenik eta behin, erregimen mota bat (Estatu-eredu mota jakin bat) eskuragarriagoa izango delako indar batzuentzat beste batzuentzat baino, Estatuaren boterea irabazteko hartzen dituzten estrategien arabera. Bigarrenik, *estrategien sortzailea* izango da, zenbait gizarte-indarrek metatze-estrategiak eta/edo proiektu hegemoniko zehatzak mobilizatzeko aukera duten heinean. Estatuaren jarduteko bi modu horiek botere-tresna gisa dakarren erraztasunari egiten badiote erreferentzia, hirugarren moduak aipatutako *path dependence*ari egiten dio erreferentzia, horren arabera ulertzen baita Estatua bere antolamendu-egituren eta oinordetzan hartutako esku-hartze moduen emaitza dela (Brenner, 2003b).

Puntu honetara iritsita, Jessopen esparru teorikoa zabalduz, Jonesek (1997) estatu kapitalisten *hautakortasun espaziala* proposatzen du. Horrek "espazioa errazteko eta artikulatzeko" prozesuei egingo lieke erreferentzia (Jones, *ibid.*: 851). Prozesu horien bidez, erakundeak eta politikak lurralde-espazioan desberdintzen dira, eta eremu

kontrolatu nahi zuten indar sozialek modu partikularrean jardun behar zuten, bai Estatuaren aparatua erreproduzitzen, bai kapitalaren interesak zerbitzatuz (Jessop eta Morgan, 2021).

⁷¹ Agian adibide baten bitartez errazago ikusten da. Jakin badakigu, erroldatuta ez dagoen etorkin batek ez duela herritartasun estatua izango, eta, beraz, parte-hartze instituzionaleko edozein prozesutatik kanpo geratuko dela automatikoki. Era berean, ez dituzte aukera berberak izango baserriar edo etxeoandre batek, zuzenbideko irakasle batek edo enpresaburu batek. Erakunde sisteman sartzeko eta eragiteko aukera baldintzatzen duten faktore legal, ekonomiko eta kultural batzuk daude. Beraz, parte-hartzeaz eta Estaturako sarbideaz hitz egiten denean, modu multidimentsionalean aztertu behar dugu, bai esturktura aldetik bai agentzia aldetik agertu daitezkeen sesgo eta *cleavage*ak kontuan izanik, hots, arrazaren, generoaren, klasearen, adinaren eta kapital kulturalaren araberrako zapalkuntza moduak ere, nola lotzen diren eta nola eragiten duten hautakortasun estrategikoaren eraikuntzan buruan izanda (Mériada, 2022).

geografiko jakin batzuetan jartzen dute arreta, fordismo-keynesiarrean gertatzen zen bezala. Ikuskera hori, ikerketa honen ildo nagusietako bati dagokionez (EGIr), baliagarria izango litzateke, Brenneren arabera (ibid.), Jessopen IEE-Ea modu emankorrean espazio-berregituraketaren kontzeptualizazio espazializaturako oinarri gisa erabil daitekeela iradokitzeke.

Irakurketa honen ondoren, Brennerrek berak (ibid.) IEE-Eren "hautakortasun espazialaren" garrantzia aitortzen du. Batez ere, kapitalismoaren pean Estatu-geografietan interakzio dialektiko bat dagoelako herediatutako espazio politikoaren partizioen eta hura berregituratzen saiatzen diren Estatu-geografiaren proiektu eta estrategia espazialen artean. Beste modu batean azalduta, aldi berean Jessop Estatuaren Teoriak (1990) oinarri hartuta, eta Brennerrek aurkeztzen duenaren alderantzizko bidea eginda (ibid.: 204), baieztatu dezakegu, azken beltzean, hautakortasun estrategikoa zuzenean "estatu-estrategien" mende dagoela, eta estrategia horien helburua, azken batean, garapen ekonomikoko eredu jakin batzuk sustatzea dela, esku-hartze sozioekonomikoko modu jakin batzuen ezarpen zehatzaren bidez. Metatze-estrategia bat eta gizarte-oinarrirako onura materialen fluxua bultzatzen dituen erregulazio ekonomikoz eta gizartean esku hartzeko eredu zehatzez ari gara; gainera, sektore eta talde sozial espezifikoak sistematikoki botere politiko eta ekonomikoko espazioetara iristen laguntzen dituen ordezkartza-moduak eraikitzen dituen (Jessop et al., 1988; MacLeod eta Goodwin, 1999). Estatu-estrategia horiek "estatu-proiektu" goren baten ideiarri erantzuten diote, antolamendu-esparru komuna eta helburu politiko partekatutako dituen estatu-jarduera multzo baten ideiarri, hain zuzen.

De este modo, se considera al Estado como un ensamblaje institucional distintivo (jerárquico) en un contexto mayor de fuerzas sociales. [...]El objetivo de los proyectos estatales es garantizar esa estabilidad e influir en la sociedad a través de los denominados "efectos de Estado" (Jessop & Sum, 2006). Mediante estos efectos se pretende mostrar no solo que las instituciones estatales denotan por sí mismas coherencia e integridad, sino que, al mismo tiempo, connotan la idea –producen el efecto– de que la unidad del Estado va de la mano de la integración y cohesión de la sociedad. 573 Volviendo a la premisa que planteaba Jessop sobre la separación entre la forma del Estado y la forma del capital, las "estrategias estatales" pueden definirse como aquellas iniciativas que permiten movilizar a las instituciones del Estado para promover formas particulares –selectivas y discrecionales– de intervención socio-económica. Estas iniciativas buscan la articulación del Estado con las instituciones no-estatales y tratan de instrumentalizarlo para regular el circuito del capital y para modificar el balance de fuerzas en el contexto de la sociedad civil. (Elimbaun, 2018: 572-573.

Hortaz, aldagai espaziala gehitzen badugu eta "hautakortasun espaziala" posibletzat hartzen badugu, "estrategia espazial estatal" espezifikoak, modu batean edo bestean, garapenaren geografiak (industrialak ala ez), azpiegiturako inbertsioak eta borroka

politikoak moldatzen saiatzen direla ulertuko dugu. Hori nazio, eskualde edo toki mailan gertatzen da, baina birreskalamendu eta birkalibrazioko testuinguru batean, Estatu lokalak pisu eta arreta handiagoa hartzen du. Estatuko estrategiek gertatzen den bezala, estrategia espazialak ere "Estatu-proiektu espazialak" deiturikoen ondorio dira. Ildo beretik, lurralde jakin bateko espazioaren kohesio geografikoa, Estatuko egitura eta geografia politikoei eragiten dieten programa eta ekimen espezifikoek emaitza da. Estatu-proiektuek nazio-azpiko administrazio-eskalak antolatzeko modua zehaztu badezakete ere, funtzionamendu-arauei (deszentralizazioan edo zentralizazioan oinarritutako estatu-formak⁷²) eta Estatuaren esku-hartzearen geografiak birkonfiguratzeko moduei ere egiten diete erreferentzia.

Irudia 10: IEE-E osatzen duten zatien bereizketa

Ikuspegi Estrategiko Erlazionala-Espaziala = Estatu harreman sozial gisa + Hautakortasun estrategikoa + Hautakortasun espaziala

Iturria: Egileak egina.

Keynesianismotik globalizaziora: estatu estrategia berrien eraikuntza

Brenneren ekarpen berria, aurreko puntuan azaldu duguna, baliagarria egiten zaigu fordismo-keynesiarraren estatu-estrategia espazialak eta, Brennerrek berak, tokiko estrategiak eta joera globalak inbrikatzen diren "globalizazio-testuinguru" gisa identifikatzen duen estatu-estrategia espazialak bereizteko.

⁷² Honek zentzu handia izan dezake hurrengo lerroetan; izan ere, estatu-proiektu espazial deszentralizatuagoari eusteak beste gobernantza kolaboratiboagoa izatea eragin dezake. Ildo beretik, adibide gisa, auzo mailan modu komunitarioan lurraldetuta dauden tokiko erakundeek udalerrri bateko administrazio zentralarekin izan dezaketen harremana har dezakegu. Egoera honek gobernantza-eredu kolaboratiboagoa erraztu dezake, deszentralizatorik gabeko egoera batek baino. Zentralizazioak, ordea, udalerrri edo lurralde horren barruan Espazioaren garapen irregularra produzitzeko aukera ematen du. Hautakortasun estrategiko eta espazialaren arrazoiak direla medio, Estatuko botereari (Udala) eragile batzuen interesak beste batzuen gainetik eta espazio batzuk beste batzuen gainetik bultzatzea komeni dakiokelako (are gehiago, eragile horien interesa espazio espezifiko horiekin lotzeko aukera existitzen bada). Ondorio praktikoetan, higiezinaren sustatzaileei eta FIRE sektoreko enpresen mesedetan abandonatutako espazio postindustrialak suposatzen duten aukera-espazioak lagatzeak, Estatu- eta espazio-proiektu mota jakin bat erakusten du.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Lehenengo kasuan, lan osoan zehar esan dugun bezala, "keynesianismo espazial" gisa ezagutzen duguna, EGIraren ondorio nazionalak/eskualdekoak arintzen edo ahultzen saiatu zen lurralde konpentsazio-politiken aktibazioaren bitartez, industrializatu gabeko eremuak industrializatzen saiatuz eta espazioa berrantolatuz soluzio eta konponbide espazialen bidez.

Glokalizazioaren kasuan, administrazio azpinazionalaren mailetara rol eta erantzukizun berriak transferitzea izan da proiektuaren oinarria, eta, bestalde, glokalizazioaren estrategia espazialak, tokiko eta eskualdeko aktibo espezifikokoak sustatzen saiatzean eta hiri eta eskualde jakin batzuetan industria-garapena eta inbertsio ekonomikoak birkontzentratzean oinarritu dira, aldi berean, leku hauek Europako eta munduko fluxu ekonomikoetan estrategikoki posizionatu ahal izateko (Jessop, 1990). Horrek, lehen blokean ikusi dugun bezala, hirietako EGIrari ere eragiten dio, eta inbertsioak hiri berbereko zonalde batzuetan fokalizatzen ditu, beste batzuen kaltetan.

Taula 10: Keynesianismo espazialaren VS Glokalizazioaren estrategiak

	Keynesianismo espazialaren estatu-estrategiak	Glokalizazioaren estatu-estrategiak
Testuinguru geoekonomiko eta geopolitikoak	Liberalismo kontrolatu eta nazioartean sistema ekonomiko nazionaletan banatuta. Bloke geopolitikoak. Gerra Hotza.	Tentsio global-lokala. Eskualde- eta toki-mailan menpekotasuna eta dependentsia sortzen duten korporazioen bitartez sortutako nazioarteko integrazio ekonomikoa. Gerra Hotzaren bukaera eta AEBen lidergoa.
Helburu espazial pribilegiatuak	Ekonomia nazionala.	Hiri- eta eskualde-ekonomiak.
Xede nagusiak	Biztanleriaren, industriaren eta inbertsioaren deskontzentrazioa. Lurralde-oreka bilatzea. Azpiegitura-zuzkiduren sistema estandarizatua ekonomia nazional osoan. Ekonomia nazionalaren garapen irregularra murriztea.	Biztanleria, industria eta azpiegiturak hiri-ingurune estrategikoetan birkontzentratzea. Fluxu ekonomiko europar eta globaletara bideratuako eta tokira egokitutako inbertsioak sustatzea. Espazioen arteko lehiaketa. EGIrra hazkunderako oinarri bideragarri gisa
Garapen ekonomikoaren espazio-denboralitatea	Ekonomia nazionala, lurralde-unitate integratua, autozentratua eta bere baitan itxia. Garapen lineala.	Espazio ekonomiko nazionala zatikatzea eta desbateratzea aktiboak, lehiatzeko abantailak eta garapen-ibilbide espezifikokoak dituzten hiri- eta eskualde-ekonomietan.
Politika nagusiak	Lokalizatorako politika subsidiarioa. Tokiko ongizate-politikak eta kontsumo kolektiboko inbertsioak. Eskualdeko politika birbanatzaileak. Espazio-plangintza nazionala.	Deserregulazioa eta ongizate-estatuaren murrizketa. Erregulazio-eredu berriak. Politika sozialak, ekonomikoak eta erantzukizun fiskalak deszentralizatzea. Hiri- eta eskualde-politika nazionalak hautakortasun espazialaren arabera. Leku espezifikoki bati berariaz atxikitutako eskualdeko eta tokiko industria-politikak.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Kontsigna nagusiak	Garapen nazionala; hazkunde orekatua; urbanizazio orekatua.	Globalizazioa; lehian ari diren hiriak; garapen endogenoa.
---------------------------	---	--

Iturria: Brenneren (2003b: 207-208) oinarrituta.

Beraz, glokalizazioak ekonomia nazionala tokiko ekonomietan zatikatzea eragiten du. Zatiketa hori ikerketa honetan *suntsipen sortzaile* gisa aurkeztu dugunarekin zeharo lotuta dago. Keynesianismo espazialean aipatutako Estatuaren erregulazio-jarduera partzialki suntsitzen da, eta partzialtasunarena nabarmentzea gustatuko litzaiguke; izan ere, suntsitze hori "tokiko eta eskualdeko erreregulazio marko berrien" sorrera gisa izendatu dugun horretan gertatu da (ikus Taula 7 eta Irudia 8).

Swyngedouwek (1996; 1997), ildo beretik, *glokalizazioak* tokiko eskalak joera ekonomiko globalak harteari erreferentzia egiten diola proposatzen du. Alde batetik, horrek industria eta biztanleria hiri-eremuetan birkontzentratzea dakar, eta horrek, eremu edo hiri garatuagoak beste batzuetatik bereiztea ekarriko luke (lurralde nazionalaren barruan ere bai), EGIrreko prozesuak errazten eta azeleratzen.

Bestalde, logika honen arabera, hirien kudeaketa eta gobernantza politika ekonomiko nagusiaren mende geratuko litzateke, eta horrek, berekin, historikoki (birreskalamendura arte, hain zuen) eskala nazionalak kudeatu eta ezarri duen ongizate-estatuaren murrizketa eta erantzukizun fiskalen deserregularizazio handiagoa ekarriko luke (Brenner, 2003b; Peck, 2012). Beraz, paradoxikoki, estatu-nazionaletatik hiri-estatueta pasatutako autonomia horrek *a priori* azken horien autonomia beraren murriztea ekarri du⁷³. Horrela dio Sojak (2000:218):

The practices of daily life, the public domain of planning and governance, the formation of urban community and civil society, the processes of urban and regional economic development and change, the arena of urban politics, the constitution of the urban imaginary, and the way in which "the city" is represented, are all increasingly affected by global influences and constraints, significantly reducing what might be called the conceptual autonomy of the urban.

Alde horretatik, oso interesgarria da glokalizazioak, *neoliberalismoaren urbanizazioaren*⁷⁴ logikaren arabera, nola funtzionatzen duen jakitea (Beck, 2000;

⁷³ Aurrerago ikusiko dugu zein puntutaraino hau eztabaidagarria izan daitekeen.

⁷⁴ Lehenengo *roll-out neoliberalism* delakoaren prestakuntza-testuinguruaz ari da, zeinetan hiriak, esperimendu politiko neoliberalerako, helburu estrategiko bihurtzen hasi ziren. Terminak lehen aipatutako inkubagailuaren rola nabarmentzen du, domeinu neoliberalaren jarraipena ahalbidetzen duten estrategia politiko eta ideologiko nagusietarako (Smith, 2002; Brenner eta Theodore, 2002).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Brenner, *ibid.*). Glokalizazioa globalizazioaren eta tokiko eta lurraldeko birkonfigurazioaren prozesu konbinatuari erreferentzia egiteko sortu bazen (Robertson, 1992; Swyngedouw, 1997), berregituraketa, elkarlotura eta birbereizketa gatazkatsu eta espazio-eskalen dinamika bat egotea dakar. Honela, kapitalismoaren antolakuntza eskalarraren lausotze berri honengatik, egokiagoa ikusten dugu *glokal* terminoaren erabilera. Hori erabilgarriagoa egiten zaigu nazioz azpiko zenbait espazio (hiriak, eskualdeak, etab.) nazioz gaindiko zirkuituetan (europarrak edo globalak) kokatzeko (Brenner, *ibid.*) helburua duten hainbat estrategia politikok dakartzaten joerak azaltzeko.

Beraz, nahiz eta Brenneren arabera (*ibid.*: 208):

glocalization strategies do not represent a unilinear resurgence of local economic governance, but entail, rather, a recalibration of national geographies of state power in ways that target the local and regional scales as strategic sites for regulatory experimentation.

Guretzat, sareen, aktoreen eta estrategien konplexutasun eta transformazio multzo horrek guztiak, publikoaren kudeaketa, tokiko gobernutik hiri-gobernantza berrira transferitzea lagatzen duela baieztatu dezakegu (Jessop, 2016; Somoza, 2013). Trantsizio hori, "gobernetik" "hiri-gobernantzara" eta "keynesianismo espazialek" "glokalizaziora" doana, 9. Irudian identifikatutako suntsipen sortzailearen lehenengo unearekin bat dator. Hiri- eta toki-mailan, suntsipen sortzailearen bigarren unea 2008ko finantza-krisiarekin lotzen dugu, eta, dakigun bezala, krisi horrek, aurreko uneko dinamiketan sakontzeaz gain, hiri-austeritatea eta beste enpresarialismo eredu batzuk utziko lituzke.

Baina eredu keynesiarraren gobernatzeko eta erregulatzeko eredia, metaketa malgu edo glokalizazioko eredu baterantz aldatu, eraldatu edota, kasuak kasu, guztiz apurtu egin denez, kontuan izan behar dugu askotariko formak produzitu direla suntsipen sortzaile horren arabera (ikus Taula 8). Jessopen ustez (2002), suntsipen sortzaile hori Keynesiar Ongizate Estatu Nazional (KWNS, ingelesezko siglen arabera) gisa identifikatzen duena, Lan/*Workfare* Erregimen edo Estatu Posnazional Lehiakor Shumpeterianora (SWPR, ingelesezko siglen arabera) aldatzean oinarritzen da. Fordismo keynesiarraren aldaera espezifikoa dauden bezala, SWPR baita desberdinetan eman daiteke. Joera ekonomiko eta politikoak desberdinak jarraibide estrategiko espezifikoei lotuta daude, indar diferenteei ekonomia global berrian gatazkan dauden joerei eta kontrajoerei zentzua eman nahi dieten heinean.

Horrela, Jessopek (*ibid.*: 259), tendentzia globalak gobernatzaeko erabiltzen diren tokiko estatu-estrategien sailkapena egiten du. Egileak, moldagarriak eta tipiko-idealak diren

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

lau forma identifikatzen ditu; horiek, aldi berean, proiektu estatal eta espazial espezifikoak produzitzen dituzte.

Jessopek nabarmentzen du, "neo" aurrizkia erabiliz, komunitarismoa gizarte-formazio kapitalistetan instituzionalizatzeko aurretiko ahalegin keynesiarrei eta oro har, fordismoari lotutako KWNSko erregimen liberal, korporatibo eta estatistekiko haustura eta etena. Tokiko gobernantza ulertzeko, lau Estatu-estrategia identifikatzen ditu suntsipen sortzaileko aro berri honetan: Neoliberalismo purua, Neokorporatibismoa, Neoestatismoa eta Neokomunitarismoa.

Lehena *neoliberalismo purua* izango litzateke. Ikerketa honetan zehar ikusi dugun bezala, neoliberalismoak merkatuak bultzatutako erregimen ekonomiko eta sozial berri baterantz trantsizioa sustatu nahi du. Montesek (1996) identifikatu zituen neoliberalismoaren politika ekonomiko nabariena aplikatzen zaien gai edo mekanismo nagusiak har genitzake: soldadak, prestazioak eta gizarte-zerbitzuak, kontraerreforma fiskala, lan-merkatuaren deserregulazioa, pribatizazioak eta monetarismoa (horiek, nolabait ere, forma instituzionalen edo espazioen gain eragina duten erregulazioei buruz, 7. Taulan azaldutako trantsizioen sinplifikazioa baino ez dira). Neoliberalismoaren atzerakadez eta ofentsibez gain, kanpoko eta barruko inbertsio gisa, espazio ekonomikoa nazioartekotzeari eta merkataritza liberalizatzeari ongi etorria ematen dien ikuspegi kosmopolita ere eskatzen du horrek (Jessop, *ibid.*).

Jessopek berak dioen bezala, baina, kontuz ibili behar dugu neoliberalismoak merkatu askerantz eta estatu liberalerantz itzulera dakarrela esateko orduan. Hori ez baita guztiz egia. Alde batetik, estrategia neoliberalak, bere jardun-eskala globala dela eta, enpresa txiki eta ertainak lehia monopolistikoaren forma berrien mende jartzen ditu. Eta, bestalde, kasu honetan gehiago interesatzen zaigun zerbait, nahiz eta Estatu nazionalek edo tokiko Estatuak *laissez-faire* logikak ezarri merkatuaren dinamikak ez oztopatzeko asmoz, kontuan izan behar dugu Estatu horiek behar bezain sendoak (eta esku-hartzaileak, nolabait esanda) izan behar dutela, bai erregulazio sozialaren antzinako modua desegin eta ordeztzeko, bai eta askotariko presio politikoei aurre egiteko (Jessop, *ibid.*: 260).

Neokorporatibismoa, KWNS SWPRra egokitzeko, neoliberalismoaren desorekak doitzen saiatzen den estrategia berria da. Interes pribatuen eta gizartean araututako ekonomiaren arteko oreka bilatzen saiatuz, lankidetzaren publiko-pribatua da estrategia neokorporatibistaren ezaugarri nabariena. Lankidetzaren edo partenariotza horrek, esan bezala, eragileen indarrak eta botere-desorekak berronkatzeko ahalmena du, hainbat faktore eta subalternitate kontuan hartzen badira eta proiektu hegemoniko demokratizatzaile bat badago ere (Martínez-Palacios, 2019).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Hala ere, Jessopen arabera, estrategia neokorporatibistaren errealitatea kontrakoa da. Egia da helburua lehiaren eta lankidetzaren arteko oreka bilatzea dela, baina goraka doan SWPR batean, irtenbide neokorporatibistak, zuzenago eta esplizituago berrikuntzaren, ezagutzaren ekonomiaren hedapenaren eta egiturazko lehiakortasunaren garrantzira bideratuta daude. Neokorporatibismoa enpresa-elkarteetatik eta fordismo keynesiarreko sindikatuetatik harago hedatzen da, sistema funtzionalak ordezkatzen dituzten politika-komunitateak barne-hartzeko (adibidez, zientzia, osasuna, hezkuntza, zuzenbidea). Politikak ezartzea eta erabakiak hartzea malguagoa da "autoerregulazio arautuaren" eta "interes pribatuko" gobernuaren bidez; horrela, Estatuak zuzeneko parte-hartze txikiagoa izango luke ekoizpenaren eta ekonomiaren kontrolean, eta era berean, indar handiagoa izango luke industria-politika pribatuetan.

Tokiko, nazioko edo nazioz gaindiko mailan, Estatu neokorporatibista globalizazio-prozesuen parte da (neoliberalismoan eta neoestatismoan bezala). Hala eta guztiz ere, bere baliabideak eta ekintzak, batez ere negoziazio korporatibistaren bidez lortutako erabakiak babesteko erabiltzen dira, erabateko deserregulazio neoliberala edo ekimen autonomo, eta ez proaktibo eta neoestatistak sustatzeko. Era berean, horrek esan nahi du, Estatu-politiken eta erabakien betetzea, autoaraututako eta estatus publikoa duten erakunde korporatibisten ekintzen mende dagoela, eta hortaz, ez Estatuaren beraren legitimitatearen mende.

Estrategia *neoestatistak*, izenak berak dioen bezala, (merkatura bideratutako) berrantolaketa ekonomikoan, funtsezko rola eskaintzen dio Estatuari. Estatuaren aparatua, bere mekanismo, baliabide, ezagutza eta erakunde propioen bidez, suntsipen sortzailerako mekanismo berriak hedatzeko propulsaile izango litzateke. Estatuak (tokikoa, eskualdekoa, nazionala edo nazioz gaindikoak) erregulazio-ahalmen handiagoa hartzen du hemen, hiperdeserregulazioa (deserregulatua) eutsiz eta plangintza bertikalerako gaitasuna aprobeztatuz. Kasu honetan, botere publikoek lankidetzaren publiko-pribatuko dinamikak gehiago kontrolatzen dituzte, eta, aldi berean, politika protekzionisten eta krisiaren osteko susperraldi ekonomikoaren ondorio izan ohi dira.

Estrategia honetan kokatzen diren diskurtsoak honako hauekin lotutako helburu estrategikoetan oinarritzen direnak izan ohi dira: teknologia berriak, teknologiaren transferentzia, berrikuntza-sistemak, azpiegitura eta ezagutzan oinarritutako ekonomia emergentearen egiturazko lehiakortasunari eragiten dioten beste faktore batzuk. Lurralde-estrategia aktibo baten alde egiten dute, berrikuntza-ingurunek, industria-klusterrak, "hiri ekintzaileak" eta abarrekoak sustatuz.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Joan den mendeko desindustrializazioak fordismo keynesiarraren berme-sareak erabat suntsitu zituen eskualdeetan, azaldutako neoestatismo-estrategiekin bat etorri ohi dira. Estrategia horietan, honako hauek bultzatu izan ohi dira:

An active labour market policy to reskill the labour force and to encourage a flexi-skill rather than flexi-price labour market; it intervenes directly and openly with its own political and economic resources to restructure declining industries and to promote sunrise sectors; and it engages in a range of societal guidance strategies based on its own strategic intelligence and economic resources to promote specific objectives through concerted action with varied policy communities that embrace public, mixed and private interests. (Jessop, *ibid.*: 263).

Estrategia horien helburua espazio espezifikoak eta ekonomia domestikoak balio-zirkuituetan berriro sartzea da, ekoizpen teknologikoko hierarkietan kokapen altua ezarriz eta produkzio-oinarri koherente eta lehiakorra sortuz eta mantenduz, goi-teknologiako sektore espezifikoetan espezializazio malguko Estatu-estrategiak jarraituz.

Azkenik, estrategia *neokumintarista* globalizazioaren dinamiken ordezkoko aukera bezala aurkeztu daiteke, baina gobernu aurrerakoiagoekin lotzen bada ere, ezin dugu ahaztu ideia neoliberalen testuinguru hegemonikoa ia esfera, eskala eta egitura instituzional guztietan sartzen dela.

Hala ere, tentsioa dago ideia deserregulatzailen eta erregulatzailen artean (adi! ez da lehen "deserregulazio arautuari" buruz aurkeztutako eztabaidarekin nahastu behar); izan ere, neokomunitarismoak erabilera-sozialaren-balioak truke-balioaren aurrean duen garrantzia jasotzen baitu⁷⁵. Horrela, ekonomia sozialago baten defentsak neoliberalismo suntsitzaileago eta globalago baten estrategia ekonomikoetan eragiten du, lurraldeari lotutako erreproduktio sozialeko erritmoak proposatzen saiatuz, eta ez kapital finantzario digitalizatuari loturikoak.

Hala, KWNSri historikoki lotutako zerbitzu publikoak eta ongizate-bermeak, hala nola hezkuntza, osasuna, kultura, etxebizitza eta abar, modu kontrolatuan merkantilizatzen dira, merkatua erregulatuago baten indarren mende.

Taula 11: gobernantza lokalaren estrategia estatalak suntsipen sortzaileko garaietan

<i>Neoliberalismoa</i>	<ul style="list-style-type: none">• Liberalizazioa: lehia askea sustatzea.• Desarautzea: legearen eta Estatuaren eginkizunen murriztea.• Pribatizazioa: sektore publikoaren salmenta.• Nazioartekotzea: barruko eta kanporako fluxu askeak.
-------------------------------	--

⁷⁵ Espazio sozialaren inguruan aritu garen lehengo blokean ere egiten den bereizketa da hau.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

	<ul style="list-style-type: none"> • Zuzeneko zergen murriztea: kontsumitzaileen aukerak areagotzea
<i>Neokorporatibismoa</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Lehia eta lankidetzak/kooperazioa berriro orekatzea. • "Autoerregulazio arautu" deszentralizatua. • Zabaldu pribatu, publiko eta bestelako "talde interesdunen" aukera sorta. • Lankidetzak publiko-pribatua zabaltzea. • Ekonomia globalean oinarritako sektore ekonomikoak babestea. • Zerga tasa altuak inbertsio soziala mantentzeko.
<i>Neoestatismoa</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Gobernua agenda-egile gisa, planifikatzailea izan beharrean. • Estrategia ekonomikoaren orientabide. • Sektore pribatu eta publikoen errendimenduaren kontrola. • Estatuaren gidaritzapean lankidetzak publiko-pribatua. • Oinarritako ekonomiaren ikuspen neomerkantilista. • Baliabide kolektibo berrien rola zabaltzea.
<i>Neokomunitarismoa</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Desliberalizazioa: lehia askea mugatzea. • Ahalduntzea: hirugarren sektorearen zeregina indartzea. • Sozializazioa: ekonomia soziala zabaltzea. • Erabilera-balio sozialari eta gizarte kohesioari garrantzia ematea. • Bidezko merkataritza, ez merkataritza librea, <i>Think Global, Act Local</i> ideiak. • Zergen berbideratzea: herritarren soldata, zaintzaileen laguntzak.

Iturria: Jessopetik (2002:262) egileak itzulia.

Kasu hauetan gertatzen den bezala, tipologia hori aipatutako estrategien eredu ideal eta itxia baino ez da. Izan ere, praktikan estrategiak konbinatu egiten dira, eta testuinguru berean bizi diren hainbat elementuren sinbiosia sortzen dute. Jessopek berak Europar Batasunaren kasua jartzen du adibide gisa; izan ere, liberalizazioaren, deserregulazioaren eta nazioartekotzearen bidez EB osoan merkatu bat sortzeko estrategia neoliberalak, EBren beraren bidez (eta erakunde publiko eta pribatuen laguntzarekin), hainbat Estatu-kidetako gobernu-mailak elkartzen dituzten sareak koordinatzen diren neoestatismo-estategiekin batera gertatzen dira.

SWPRren lau ezaugarri eta/edo estrategia berriak argi eta garbi ageri dira munduko gobernu-elkarteek argitaratzen dituzten txostenetan. Jessopek (ibid.) dioen bezala, hiriak nabarmen ikusten dira hazkunde ekonomikoaren eragile gisa, berrikuntza ekonomiko, politiko eta sozialerako funtsezko zentro gisa, eta nazioarteko lehiakortasuna sustatzeko eta finkatzeko eragile klabe gisa.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Gainera, aro industrialetik postindustrialera igarotzean, jakintzaren eredu ekonomikoaren sorrerarekin eta informazioaren-gizarteak etengabeko ikaskuntzarako dituen eskakizunekin, hiriak lehen baino motor garrantzitsuagozat jotzen dira berrikuntzarako eta lehiakortasunerako. Egia da txosten horietan ohikoa dela hainbat hiri-mota bereiztea, hiperhazkunde informalean oinarrituak, berrikuntzan eta ikaskuntza dinamikoan oinarrituak, hazkunde fordista zaharkituaren ereduaren gainbeheran dauden hiriak eta abar; eta guztientzako erantzunak gomendatzen dituztela hautematzea.

Baina, egia esan, hainbat egokitzapen dakartzaten arren, desafio-multzo bererari egiten diote aurre. Hala, premisa beti da arazoak ahalik eta mailarik baxuenean konpondu behar direla, baina goiko administrazioen ahalmen eta finantza-laguntzarekin, hara, *dumping eskalar* izenez ezagutzen dugunaren beste agerraldi berri bat. Hau aurrera eramateko, gobernu-mailen artean integratutako ekintza behar da, erantzukizunak eta baliabideak behar bezala esleituta. Horrela, hiriek funtsezko zeregina dute tokiko ekonomiaren eta fluxu globalen arteko kudeaketan; tokiko jasangarritasunaren eta tokiko ongizatearen eta nazioarteko lehiakortasunaren eskari (potentzialki kontrajarrien artean; gizarte-bazterketaren eta polarizazio globalaren erronken eta liberalizazio-eskaeren, merkatuko onura korporatibistenganako deserregulazio arautu handiagoen, zerbitzu publikoen pribatizazioen, eta abar etengabeen artean.

Jessopen iritziz, aztertzen ari garen kasu zehatzerako:

For the mature but declining cities of the Atlantic Fordist regions, the primary emphasis falls on neo-liberalism [...] recommends other projects to produce "active and productive citizens" who will not burden the state or demand entitlements without accepting corresponding responsibilities. Thus education and informal self-help are the key to survival and sustainability and, in principle, education should be made available to all. Cities should develop their stock of indigenous 'human capital' and their local labour markets in order to promote local well-being as well as international competitiveness. (Jessop, 2002b: 465;467)

Baina kontuan izan behar dugu hori analisi-proposamen bat baino ez dela, eta ez direla, inola ere, lurralde-errealitate espezifikoei (analisi xehatu gaberik) aplika dakizkiekeen ereduak. Izan ere, ikerketan zehar esan dugun bezala, kasu indibidualetan aurkituko diren estrategia partikularren konbinazioak erakundeen herentzien (*path dependency*), indar politikoen orekaren eta Estatu-estrategien xede diren egoera ekonomiko eta politiko aldakorren araberakoak izango dira.

Azkenik, ezin dugu aipatu gabe utzi Rodríguez et al. (2001) esaten dutena. Horiek aipatutako guztiarekin bat etorritik, hirian esku-hartze publikoa gero eta konplexuagoa dela azpimarratzen dute; izan ere, haustura-une honek (KWNStik SWPRko eredu berrietara) hirietako espazio sozialak sortzen dituen estrategia eta egitura berrietan

benetan eragina izan dezaketen zenbait eragileren sarrera ahalbidetzen baitu, agian, alde aurretik ordezkaturak ez zeudenak edo aukerarik ez zutenak dinamismorik ez zuen estatu-egitura askoz ere zurrunago baten menpe zeudelako (Telleria eta Lekue, 2020; Lekue, 2021).

Gobernantza eta haren moduak

Harveyk (1989), ikerketa honetan proposatzen dugunaren ildotik, hiri-gobernantzaranzko birorientazioa, fordismo-keynesiarraren gobernu-egitura instituzionalen suntsipen sortzailearen adibide bat dela adierazten du, SWPRrako eta globalizazio-estrategietarako eraldaketa-unean kokatzen ditugun gobernu-forma neoliberalagoetara bideratua. Era berean, hiri-“gerentzialismotik”, non gizarte-erabakiak gizarte-unitateetako gerenteen interakzioen ondorio diren, aipatutako hiri-enpresarialismoaren lehen urratsetaranzko desplazamendua izan zela mantentzen du. Azken horrek ere zerikusia du, noski, aurreko multzoetan aipatutako suntsipen sortzaileko prozesuekin. Aurrerago ikusiko dugun bezala, hiri-enpresarialistak estatu-botere nazionalaren geografia "globalizatu" berriak finkatzen diren agertokia dira; izan ere, estatuz-gaundiko hainbat erakundek hiri-gobernuak "ekintzaile"agoak izatera eta hiriak zirkuitu lehiakorretara hurbilduko dituzten kudeaketa-moduak bilatzera behartu dituzte (Harvey, 2007), kokatuta dauden Estatu nazionalaren aberastasunean eta irudian zuzenean eta zeharka eragiteko.

Gobernutik gobernantzarako pausoak aldaketa bat erakusten du autoritatearen erabilera ulertzeko moduetan, bai eta eragile berri zein zaharren erabaki estrategikoak hartzeko eta horiek praktikara erameko artikulazioa ulertzeko moduetan (García eta Iglesias, 2015). Goodwin eta Painter egileek (1996) aldaketa azaltzen duten lau arrazoi identifikatu dituzte: tokiko finantza-sektorean kontrol zentralaren areagotzea; zerbitzu publikoen pribatizazioa eta merkantilizazioa; Estatu-lokalaren autonomiaren galera gainerako zerbitzu publikoen gain; eta hautatu gabeko agentzia azpizionalen hedapena. Ñabardura aldakor horiek Estatu-proiektu eta -estrategia espazialekin eta espezifikoekin bat badatoz ere, hautakortasun estrategikoa eta espaziala nola sortzen diren ulertu nahi badugu, kobernu-sare horietako eragileen arteko harremanak gertatzen diren moduak aztertu beharko ditugu (Kooiman, 2003), oro har, zehatzagoa izanda, gobernantza gisa ezagutzen duguna. Egia esan, aipatu beharreko lehen mailako gobernantza-eredu batzuk daude (primitiboak ere deitu daitezkenak); izan ere, horiei ematen zaien ikuspegiaren arabera, kudeaketa-eredu neoliberalagoa edo, aitzitik, parte-hartzaileagoa, demokratikoagoa eta inklusiboagoa aurkituko dugu.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Subirats, Parés eta Blancok (Parés, 2009) Kooimanen tipologia laburbiltzen dute (2003). Bertan, gobernantza ulertzeko lau modu bereizten dira: *autogobernantza*, *governantza hierarkikoa*, *merkatu-governantza*, eta, azkenik, *sare-governantza* edo *ko-governantza*.

*Autogobernantzak*⁷⁶ erakundeek bere burua modu autonomoan gobernatzeko duten gaitasunari egiten dio erreferentzia. Esan dezakegu gobernantza-sistema "autonoma" dela, hau da, osagai interaktiboek behin eta berriz prozesu-sare bera sortzen dutela; sistema hori operatiboki itxia da, inolako sarrera edo irteerarik gabe, eta horrek nolabaiteko eztabaida sor dezake. Sistema sozialen izaera *autopoietikoa* interesgarria da gobernu-testuinguran. Izan ere, sistema horietan, soilik gobernu-boterea kokatzen den ikuspegitik ikusten dena interpretatzen baita, hortaz, besteen ekarpenak komunikazio edo mezu hutsetara mugatzen dira.

Governantza hierarkikoari dagokionez, etengabe sortzen eta aldatzen ari diren gobernu-moduen eta Estatuaren kontrol hierarkikoaren konbinaziotik eratortzen da. Esan genezake "Estatuaren eta norbanakoen, taldeen edo gobernu-erakundearen arteko interakzio-modua dela, klasikoena eta bereizgarriena" (Kooiman, ibid.: 69). *Top-down* harremanak lege- eta administrazio-arau, -politika eta -erregulazioei jarraitzen die nagusiki. Gobernu-modu hierarkikoak burokrasian oinarritzen dira. Hau izan zen gizarte-bizitza koordinatzeko modu hierarkikoei(/burokratikoari) buruzko teoria guztien agertokia. Hierarkia ez da alde-bakarreko kontrol gisa ikusten, *continuum* gisa baizik. Hierarkiak dituen akatsak orekatzeko, gutxieneko solidaritate bat edo beste koordinazio-mekanismo batzuk instituzionalizatu daitezke.

Sare-governantza edo *ko-governantza*, aktore nagusi edo menderatzailearik gabe, eragileen arteko lankidetzaren eta kooperazio moduak sortzen dituen da (Parés, 2009:371). Kooimanek (ibid.), kogobernantzaren kontzeptua zehatzago azaltzeko, balio diezaguketen hiru maila sozial identifikatzen ditu: mikro, meso eta makro.

Lehenik eta behin, gobernantza-sistema hori mikro mailan azaltzeko, "lankidetzaren" (*cooperation*) kontzeptua erabiltzen du, hau da, eragileen artean garatzen den interakzioa. Kontzeptu honen arabera, intentzio-mailako eragileak banakakoak dira, eta, oro har, egitura-mailakoak, berriz, lantalde edo proiektu gisa ere har daitezke. Meso gizarte-maila, "koordinazioaren" bidez antolatutako erakundeek osatzen dute. Intentzio-maila akordio bidez lankidetzan aritzeko prestasunak markatzen du. Akordio horiek, egiturari dagokionez, ez dira zertan gizarte-sektore batera mugatu, hau da, akordioak erakunde barruan gertatzen dira, baina baita erakunde artean ere.

⁷⁶ Autore askok, Jessopek edo Rhodesek adibidez, ez dute modu hori erabiltzen, erredundantea izan daitekeelako.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Azkenik, maila makroaren ezaugarria Estatuaren, merkatuaren, hierarkien, sareen eta abarren arteko akordioak dira. Merkatuko eragileek, hala nola industria-sektoreek, gobernuekin (EB, nazionalak, eskualdekoak, tokikoak) negoziatzen dute, eta maila anitzeko ondorioak dituzten araudiak eta akordioak ezartzen dituzte.

Azken puntu horretatik eratorriko da *merkatu-gobernantza*. Ko-gobernatzeko moduen teorizazio sakonago batean, Estatuak, merkatuko aktoreen eta logiken aurrean, protagonismoa galtzeko joera duela ikusten dugu. Publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak edo koordinazio modu horiek, harreman eta akordio jakin batzuen estimulazio edo eragozpenen arabera dira. *Lankidetzak publiko-pribatuari* buruz dagoen literaturaren bidez, hobeto ezagutu ditzakegu honen arrazoia eta testuingurua, oztupoak eta horiek gainditzeko egon daitezkeen irtenbideak, eta lankidetzak hori errazten duten esku-hartzeak eta rolak (Huxham et al., 2000).

Gobernantza-modu horiek, oro har, lagungarriak izan badaitezke ere, IEE-Ek esaten diguna da, gobernantza, izatez, "espazio-denborazkoa" dela. Ez gobernu-ekintzak eta sor daitezkeen sareen harremanak espazio eta denbora jakin batean kokatu behar direlako, baizik eta denbora, baina batez ere espazioa, modu erlazionalean ulertzen baditugu, borroka politikorako hondarrak direla ulertuko dugulako.

By way of illustration, the discursive constitution of the boundaries and nature of the (local) economy affects the temporal dimension of strategy-making as well as its spatial scale. This is quite explicit in many economic strategy documents -- with powerful players seeking to shape both the spatial and temporal horizons to which economic and political decisions are oriented so that the economic and political benefits are 'optimized' (on the case of the East Thames Corridor in Britain, see, e.g., Jessop 1996b). The match between spatial scale and time horizon may be a crucial factor shaping the success or failure of local economic development strategies associated with urban regimes. Stable modes of local economic growth typically involve building a structured complementarity (or coherence) between the local economy and one or more of its encompassing regional, national, and supranational accumulation regimes. This structured complementarity can only be secured in time and space. Since capitalism is always marked by uneven development and tendencies towards polarization, the success of some economic spaces (and the success of the spaces whose growth dynamic is complemented by their own) will inevitably be associated with the marginalization of other economic spaces. This is seen in the changing hierarchy of economic spaces as capitalist growth dynamics are affected by the relative exhaustion of some accumulation strategies and modes of growth and/or the dynamic potential of innovations in materials, processes, products, organization, or markets. Nonetheless, when space and time horizons are articulated more or less successfully, economic development will occur within relatively stable 'time-space envelopes' (cf. Massey 1994: 225; Sum 1995 and this volume). (Jessop, 1999b:7).

Honek guztiak inplikazio garrantzitsuak ditu gobernantza-mekanismoak eta horiek, gaur egungo hirietan, dituzten erronkei aurre egiteko duten gaitasuna ulertzeko orduan.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Lehen esan bezala, IEE-Eren arabera, praktika, erakunde, instituzio eta gizarte-sistema guztiek denbora-forma eta forma-espazial espezifikoak dituzte, estrukturalki denboran zehar txertatuta, eta denbora-ekintza eta ekintza-espazial bereizgarrietara bideratuta daude, Jessopek berak adierazten zigun bezala. Hala, sistema ekonomikoek zein politikoen estrategia batzuk lehenesten dituzte beste batzuen gainetik, indar batzuk beste batzuen gainetik, interes batzuk beste batzuen gainetik, koalizio-aukera batzuk beste batzuen gainetik, eta, jakina, ekintza-eskala espazial batzuk beste batzuen gainetik eta denbora-horizonte batzuk beste batzuen gainetik.

Muga eta eragozpen estrukturalak modu selektiboan jarduten dute beti. Esan gabe doa eragozpen horiek ez direla absolutuak eta baldintzarik gabekoak, beti espezifikoak dira denboran, espazioan, agentzian eta estrategian. Estrategiak, era berean, estrukturalki inskribatutako (edo gizartean txertatutako) espazio- eta denborazko-hautakortasun horiek eraldatzera bidera daitezke. Horrek ere, *metagobernantzaren* atalean aztertuko dugun bezala, gobernantza arrakastatsua, praktika sozial errotuetan eta sozialki egonkortutako itxaropenetan eragina duten hautakortasun formen monitorizazioaren eta eraldaketa autoerreflexiboaren mende egon daitekeela iradokitzen du (Jessop, 2000; 2004). Egia esan, gobernantzaren analisi estrategiko-erlazionala are urrunago eramán daiteke aktore indibidualak eta kolektiboek beren estatu-estrategiak bideratzen dituzten identitateei eta interesei buruz egin dezaketek *autohausnarketa* azpimarratzen bada, ikusiko dugu nola lotzen den hori gizarte-eragileek gobernantza demokratizatzeke momentuan izan ditzaketek estrategiek, edo nola ahalbidetzen duen gobernantzak (eta ez bereziki gobernu-boteratik eratorritako eragileak) gizartea demokratizatzea.

Azterketarekin (eta autohausnarketa estrategikoarekin) aurrera eginez, ikerketa honen gakoetako bat identifikatzen dugu; izan ere, ikertzaileak (kasu honetan guk) eragileen ibilbide, gobernantza-modu eta estrategia estatalen artean aldatzeko gaitasuna aztertzen duenean (eragileek beraiek eraikitzen duten bitartean), gauza interesanteak gertatzen eta agertzen dira. Politikak formulatzeko, koordinatzeko edo krisiak konpontzeko edozein modu espezifiko bere dilema, kontraesan eta ahulezia bereizgarriak dituzenez, haien artean aldatzeko gaitasunak gizarte modernoetako barne- eta kanpo-arazoei erantzun eraginkorrak ematen dizkie (Jessop, *ibid*). Horrela justifikatzen dugu ikerketa honetarako elkarrizketa-tresnaren erabilera eta hautatu diren elkarrizketatuen profilak.

Hona ekarri behar dugu Masseyren (1984), "inbertsio-geruzei" (*layers of investment*) eta tokiko Estatuen ibilbide eta dinamiken hausturei, eta haien estrategia hegemoniko eta ekonomiko buruzko teoria. Geografo britainarraren arabera "the structure of local economies can be seen as a product of the combination of 'layers' of the successive imposition over years of new rounds of investment, new forms of activity" (Massey, *ibid*:

114). Horrela, inbertsio-geruzek aldi berean irudikatzen dute (1) industria-hazkundearen lehen erronda historikoetan espazialki errotutako ondare geografikoa, (2) egungo lan-banaketa espazialen oinarri geografikoa, eta (3) etengabe aldatzen ari den eta geografia ekonomiko berriak eratzen dituen leku emergente bat (Elinbaum, 2018). EGIrraren erreproduzio-erronda horiek eta lanaren banaketa espazialak aukera ematen dute tokiko Estatuaren espazioa eraldatzeko eta berregituratzeko prozesuak, nahiz eta eboluzionatzen joan, behin eta berriz errepikatzen diren erregulazio-zikloen estratifikazio edo sedimentazio gisa ulertzeko (Peck, 2003).

Hiri-gobernantzaren eta gobernu-praktiken tipologia klasikoa

Azterketa-puntua berreskuratuta, agian interesgarria izan daiteke merkatu-logika horien analisisan geldialdi bat egitea. Eta, neoliberalismoak zeharka eragiten duela hirietan onartuta, puntu guztietara iritsiz eta eraldaketa-estrategia berrien pean (neokorporatibismoa, neoestatismoa edo neokomunitarismoa), agian komenigarria da Pierrek (1999) identifikatutako hiri-gobernantzaren lau eredu handi eta ikonikoak aurrera ekartzea: *gerentziala*, *korporatiboa*, *hazkundekoa* eta *ongizatekoa*. Eredu teoriko bakoitzaren laburpen labur bat egingo dugu, eta Jessopek (2017) proposatzen dituen eredu berriekin alderatuko ditugu, hiria kudeatzeko moduak sailka ditzakegun tipo idealak nolabait kategorizatzeke.

Lehenik eta behin, "eredu gerentzialaren" helburua zerbitzu publikoen ekoizpenaren eta entregaren eraginkortasuna hobetzea da, bai eta harreman publiko-pribatuen lausotzea ere, administrazioa soilik merkatuaren logikari eta interesei jarraituz koordinatuta. Bezero-printzipio horren pean, parte-hartzea profesionalizatu egiten da, "kudeaketa kudeatzaileei soilik utziz" (Osborne eta Gaebler, 1993). Jessopek (ibid.) horrela "truke eredu" gisa identifikatzen du, eta baliabide eskariaren aurrean, helburu edo *output*-en (erabakia) arteko lehia nabarmentzen du.

Bigarrenik, Jessopek "aginte eredu" enpresa-logikan oinarritutako gobernantza-modu gisa igartzen du. Ildo beretik, Pierrek honela definitzen du gobernantza korporatiboa: sektore publiko handia, birbanatze-politikak eta ongizaterako estatu-zerbitzuen xedapen integralak dituen sistema politiko bat, baina *top-down* logika hierarkiko-arrazionalaz markatuta dagoen heinean, desorekak sortzen dituen interes espezifiko mesedegarriak dituzten eragileen eta gutxietsitako interesak dituzten talde sozialen artean.

Era berean, Jessopek Estatuaren⁷⁷ hautakortasun estrategikoa azpimarratzen du hemen. Gogorarazi behar da, honek ez duela zuzenean esan nahi gobernu-sistemak (Estatua) bere estrategiak modu arrazionalen –edo enpresa-logiken pean soilik– aukeratzen dituenik; aitzitik, zeharkatzen duten botere-asimetriak direla-eta, talde jakin batzuk beste batzuk baino errazago irits daitezkeela estatu-agintaritzara, politika publiko batzuk sarrituz beste batzuen aurrean. Egia esanez, hau zeharkakotzat jotzen dugu gobernantza-eredu guztietan. Dena den, hurrengo atalean jorratuko dugu.

Hirugarrenik, “hazkunde” edo “elkarrizketan” oinarritutako gobernantza-modua aurkituko genuke. Kasu honetan, badirudi bi egileek beren diskurtsoa bateratzen dutela, eta biek lotzen dute "gobernantza demokratikoaren" edo “elkarlanean” oinarrituriko sistemarekin, gaur egun mendebaldean paradigmaticoa dena (Ansell eta Gash, 2008; Bradley, 2012; Emerson et al., 2012). Gobernantza eredu gerentziala baino gutxiago elitista izanik, hazkunde ekonomikoan oinarritzen da, baina modu iraunkorragoan. Gobernantza-modu honek eztabaidarako eta negoziatorako mekanismoak zabaltzen ditu, interes komunen inguruan eta aurrez zehaztutako hierarkiarik gabe eragileak koordinatzen saiatuz. Pierren arabera, ereduaren funtsezko tresna asoziazionismoa da, nahiz eta Jessopek honekin bat ez egin. Azken horrek, kasu honetan, sarea proposatzen du harreman-esparru gisa.

Azkenik, "ongizate-gobernantza" ageri zaigu. Pierrentzat, goragoko eskalen aldean, tokiko botereei erabakitzeke ahalmen handiagoa ematean oinarritzen da. Ez da aurreko ereduaren oso bestelakoa, zuhurragoa baita harreman publiko-pribatuekin, eta inklusiboagoa eragile kaltetuenekin, orain bai, gobernu-sarea funtsezko tresna gisa ezarriz. Kasu honetan, helburua ez lukete enpresa-interesek zehaztuko, guztion ongiak baizik. Azken horrekin bat dator Jessop, zeinak “elkartasun” eredia aurkezten duen. Hau demokrazia erradikaletik gertuago dagoen eredia izango litzateke. Horrela, elkartasuna funtsezkoa izango litzateke eragileen arteko erabateko konfiantzan oinarritutako gobernantza-eredu hau eraikitzeke. Eredu honetan, leialtasuna ez ezik, sareko eragileen arteko baldintzarik gabeko konpromisoa ere behar da.

Aurreko lerroetan egiaztatu ahal izan dugunez, egile bakoitzak gobernantza-eredu bakoitzerako proposatzen dituen izenez gain, Jessopek saltsa mehe egiten du, eta arreta

⁷⁷ Beste behin ere gogorarazi nahi dugu Jessopentzat Estatuak ez duela erreferentzia bakarra/esplizitua egiten Estatu-nazioari, eta are gutxiago Estatu-nazioaren gobernuari; aitzitik, lurralde jakin batean erabaki kolektibo lotesleak definitzeko eta aplikatzeko eginkizuna (sozialki onartua) duten erakundeen eta/edo gizarte-erakundeen arteko harremanen multzoari egiten dio erreferentzia (hortik dator "erlazioanalarena"). Beraz, esan genezake, testuinguru globalizatu honetan, eskala bakoitzak bere Estatu-aparatua eta bere gobernu-sistema dituela.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

osoa aktoreen artean sortzen diren interakzioen formetan eta kalitatean jartzen du. Pierrek, aldiz, sareen zuzendaritza eta kudeaketara zuzentzen du bere azterketa, tokiko politika publikoen ekoizpena aztergai hartuta. Hori dela eta, bi egileen konbinazioak gerora oso lagungarria izango zaigun esparru analitiko bat sortzea ahalbidetuko digu.

Bestalde, hiri-gobernantza mota bakoitzak bere gobernu-praktikak dituela nabarmendu behar da, bai eta bere herritarrak erakunde publikoekin erlazona daitezen hainbat modu ere. Hala, Parések (2016), gizarte zibilaren parte-hartzea erreferentzia gisa hartuta, batetik, eta erakunde publikoen esku-hartze handiagoa edo txikiagoa bestetik, tokiko gobernuen jardunbideak azaltzeko lau kategoria bereizten ditu:

- Gobernu tradizionalaren praktikak: ordezkartzan oinarritutako gobernu sendoak.
- Harreman-gobernuko praktikak: parte-hartzea txertatzen duten gobernu sendoak.
- Sektore pribatuak menderatutako praktikak: merkatuari lekua uzten dioten gobernuak.
- Gizarte-berrikuntzako praktikak: gizarteari lekua uzten dioten gobernuak.

Aipatu behar da kategoria horiek, aurrekoak bezala, eredu teorikoak direla, eta, hiri-gobernantzaren moduak lausotu eta zentzu batzuetan bat eginda ager daitezkeen bezala, gobernu-praktikek ere berdin egiten dutela.

The theory of the integral state highlights that they simultaneously embody coercive, trust-based, and contract relations, becoming hybrid configurations of hierarchy, market, and network; neither one thing nor the other, but all three [...] [Y de acuerdo también con el propio Davies] Consequently, the challenge for governance theory may be less in categorizing institutions as ‘hierarchies’, ‘markets’, or ‘networks’ than in explaining how, why, and where they embody particular mixes, how configurations change in space-time, and what the direction of travel might be. (Davies, 2012: 2700).

Tokiko gobernantzaren formak eta suntsipen sortzailea. Krisiak: une erabakigarria?

Puntu honetara iritsita, “negozio-giro” (Wang eta Leng, 2012) ona sortu nahi duten hirien kudeatzaileen egungo testuinguru globalari buruzko gure ikuspuntua bikain jasotzen duen aipamen bat jasotzen dugu:

Las ciudades y ciudades-región –y por tanto las políticas y programas urbanísticos [sujetos a estrategias y proyectos específicos]– han cobrado un papel protagonista, a medida que

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

las agendas económicas nacionales se re-escalaban para aprovechar las ventajas competitivas de sus activos territoriales más estratégicos en un nuevo mapa de lucha global por la localización de capitales (Brenner, 2004; Brenner & Theodore, 2002). (Sevilla-Buitrago, 2015c: 130).

Baina aldaketa estrategikoez haratago, hirietan gertatzen diren gobernantza-ereduen aldaketak ulertzeko, ezinbestekoa da hiri bakoitzaren egitura-baldintzei eta tokiko testuinguru instituzionalari erreparatzea. Eredu horiek ez dira gobernu-aldaketa soil batekin (edo gobernu tradizionaletik tokiko gobernantzarako trantsizioarekin) inposatzen, denboran zehar instituzionalizatzen baitira hirien barruan mugimendu edo eragile sozialentzako eta eragile pribatuentzako aukera-esparruak sortuz.

Sevilla-Buitragok berak adierazten duen bezala, tokiko gobernantza-ereduen sorrera Estatu nazionala berregituratzeko prozesuaren zati gisa interpreta daiteke. Prozesu horretan, hiriek eta eskualdeek erregulazio-modu propioak garatzen dituzte, lehiakortasuna bermatzeko, printzipio neoliberalerik determinatuta gero eta egituratuagoa dagoen esparru global batean. Honaino hainbat orrialdetan azaltzen eta agerian uzten saiatu garen puntu bat. Hala ere, kontuan izan behar dugu eredu horiek tokiko testuinguru instituzionalari ere erantzuten diotela, bai eta eragileek erantzun politiko zehatzak antolatzeke eta hiriari buruzko adostasunak garatzeko duten gaitasunari ere; beraz, ofentsiba neoliberalerik testuinguru batean jardun arren, jarduteko zenbait modu daude. Talde bakoitzaren boterea, erabakiak hartzeko prozesuak artikulatzeko prozedurak eta indar politikoen korrelazioa, funtsezko faktoreak dira tokiko analisisietan (Díaz-Orueta et al., 2018).

Hasieran adierazi bezala:

obviously the specific forms of governance will vary with the nature of the objects to be governed: effective governance of local economic development, hypermobile financial capital, international migration, universities, medical practice, the nuclear power industry, and cyberspace, for example, would entail very different sets of partners and practices. (Jessop, 2003b, 147).

Horrela, gobernantzaren kontzeptua gobernu-mailetan ere aplikatzen da, gobernantza globalaren dinamiketarik hasi (Held, 1997) eta aipatutako autogobernantzaraino (Parés, 2009), gizarte-erakundeek beren burua modu autonomoan gobernatzeko duten gaitasunari erreferentzia egiten dion hori. Hiriek esperientziaz neoliberalerik duten rol pribilegiatua dela eta, gobernantzaren kontzeptua mikro-mailara "tokiko gobernantza" edo "governantza lokala" gisa jaitsi dela ikusi dugu, antzeko hurbilketak integratuz, hala nola "lurralde-governantzarena" (Romero eta Farinós, 2011), "hiri-governantzarena" (Blanco, 2009) edo "metropoli-governantzarena", hiriez harago, beraien eskualdeak ere bilduz (Subirats eta Tomás, 2007) (Telleria eta Ahedo, 2016). Tipologia klasikoena eta,

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

agian, desgaurkotuena ikusi dugun arren, jarraian, gure ikerketarako eztabaida interesgarri eta emankorrenetan jartzen dugu arreta, sinplifikazio eta lerrokatze hain teorikoetan erori gabe, egungo joerak argitzen saiatzen diren eztabaidetan, hain zuzen.

Lehenik eta behin, tokiko gobernantzaren ibilbidea, zalantzarik gabe, dagoeneko azalduta dauden Estatuko birreskalamendu-prozesuek eta *roll-back* eta *roll-out* neoliberalismo momentu ekonomiko batzuek markatzen dutela onartu behar dugu.

Une horien ondorioz, tokiko gobernuak kudeatzaile izatetik, tarte handiagoarekin jarduten duten merkatuaren interes berrien sare batean, erantzukizunak hartu behar izatera igaro dira. “Espazioaren ekoizpen” berri baten testuinguru honetan (ikus I. Blokea), tokiko gobernuak geografikoki irekiagoa den eta merkaturan oinarritzen den metaketa-modu malgu batekin bat datozen hiri-inguruneak produzitzea bilatu dute (Harvey, 1989:360).

Nahiz eta zaila izan suntsipenaren hasierako edo amaierako une espezifikoak, edo une sortzaileen hasiera identifikatzea, hirietan eta hiri-gobernantzan, enpresarialismoaren eta honen gobernatzeko moduen eta austeritatearen aldeko gobernu-moduen artean sinbiosia gertatu da, hauek akaso, fase edo momentu horiek identifikatzeko lagungarriak izan daitezke. Bi gai horiek aurreko atalean landu izan dira, produzitutako espazioari eta hiri-espazioei eta horien erabilera estrategikoei buruzko ikuskera berriei dagokienez, baina ez Estatu-proiektuari dagokionez.

Austeritatea krisi-aldiei berehalako erantzun gisa hartzen badugu, hiri-enpresarialismoa, ibilbide luzeagoa izan arren eta suntsipen sortzaileko uneetan agertu arren, *roll-back* aldien ondoren, aginte estrategikoa gauzatzeko beste modu batzuk ezartzen ditu.

Murrizketen neoliberalismoak hainbat unetan eragiten dituen momentu suntsitzaileen ondoren, *roll-out neoliberalism* izenekoak 2008ko krisia baino lehen hiri-enpresarialismoak haztatu zituen ereduak sendotzen ditu (Jessop, 1998). Kudeaketa-modu neoliberalak normalizatu ondoren, teknokraten bidez, ekonomia despolitizatu nahi da. Proiektu liberal klasikoaren berreraikitzearen aurrean gaude instituzioen esku-hartze erraztatzaileari esker. Beraz, proiektu neoliberal eraberrituaren erakunde sormenaren aurrean gaudela baieztatu dezakegu (Jones eta Ward, 2002). Premisa horren aurrean, erakundeak, edozein eskalatan, sistema erregulatzen saiatu dira, dagoeneko ezagunak diren konponbide instituzionalen (*institutional-fixes*) bidez.

Soluzio horiek KWNSren berezko ongizate-estatuari mesede egin diotela pentsatzen badugu, Jessopek, aurreko erregimenaren patroiak SWPRren patroiek ordezkatu dituztela nabarmentzen du. Ildo horretan, estatuak –tokikoa edo nazionala izan– KWNStik SWPRrako trantsizioetan, lehiaren sustapenean duen zeregina edo rola

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

indartzen du (ez bakarrik enpresa eta konpainia nazionaletan, baita produkzio-sisteman eta bestelako sektore guztietan ere). Beraz, konponbide instituzionalak, iraunkortasun zalantzarikoa adabaki gisa, erakundeen berrikuntza sustatzera bideratuko lirarteke, beren ekonomien egiturazko lehiakortasuna sustatzeko, eredu berrien alde, aurreko marko politikoak deseginez (Brenner eta Theodore, *ibid.*). Era berean, nabarmentzekoa da hiri-mailan gertatu diren erakunde-berregituraketak aldatu egin daitezkeela krisi edo gorabehera-unearen arabera, eta, gainera, ahultasun-puntuak eskaintzen dituztela, hiriak demokratizatzekeo arrakala demokratiko gisa balio dezaketenak.

Oosterlynck eta Gonzálezek (2013) krisiaren garrantziaz eta, bereziki, 2008ko krisi ekonomiko-finantzario globalaz, tokiko gobernantza eta Estatuetan oinarrituz, egiten duten analisiari erreparatuko diogu bereziki. Irakurketa hori interesgarria da bi arrazoiengatik: batetik, azterketaren atzerabegirakotasunagatik, *a posteriori* egiten baita, krisia piztu zen momentutik tarte nahikoa utziz honen ondorioak ulertzeko; eta, bestetik, krisiaren osteko politiken eskalaritateari ematen zaion garrantziagatik, arreta nagusia bi organo garrantzitsutan jarriz: OECD (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea) eta bere enplegua eta ekonomia garatzeko LEED programa, eta URBACT, hiri-garapena sustatzeko Europako programa.

Horrela, esan genezake hurrengo zera ere bilatzen dutela: "understand the specific role played by the production of urban space in bringing on and lessening the effects of the crisis" (Keil, 2010:941), hau da, espazioak krisiaren ondorioekiko izan duen paper motelgailu klabea aztertzea. Lehenik eta behin, garapen irregularraren kontzeptuaren bidez eta kontzeptu horretatik eratortzen denaren bidez argibidea ezarri behar dugu, hau da, azken urbanizazio prozesuei eragiten dien finantziarizazio geografiko irregularraren ondorioak izan behar ditugu kontuan. Egileek Rutland (2010: 1175-1176) hartu dute erreferentziatzat, honako hau parafraseatuz:

Contemporary urban design ideals and 'creative city' strategies that have [...] collectively enlisted public consent for pro-development, anti-political regulatory changes. With potential political opposition eviscerated, financial capital can now move more quickly and comfortably into the downtown core, filling in a pre-ratified built form whenever the expected returns might appear favorable relative to other opportunities.

Hiru dira Rutlandek berak (*ibid.*) identifikatzen dituen mugimenduak, kapital finantzarioak higiezinaren garapena kudeatzen duten gobernantza-sareetan nola parte hartzen duen eta bere interesa nola finkatzen duen azaltzeko.

Lehenik eta behin, ikerketa honen lehen blokean aztertu dugunez, 80-90 urteetako produkzio-eredua aldatzea bedeinkazioa izan zen hirigune nagusietako higiezinaren garapenerako. Etengabe hazten ari ziren finantza-konpainiek toki ospetsuetan

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

kokatutako bulego-espazioen eskaria bultzatu zuten; azken hamarkadetan industria pisutsuak ihes egiten ikusi zituzten udalerrak, berriz, motel mugitzen joan dira berhazkunderako proiektu garestiak sustatzeko, subsidiatzeko edo laguntzeko, enpleguak sortzeko eta beren zerga-oinarria berreraikitzeko. *Win-win* estrategia.

Bigarrenik, orain moneta-politikek prezioen mailen ordeztan, finantza-burbuilak maneiatu nahi dituzten heinean, krisi baten ondorioz gertatutako balore-merkatuaren beherakadak jabetza-erosketen olatu handia eragin dezake banku zentralen interes-tasak murriztearen ondorioz.

Azkenik, kontuan hartu behar dugu higiezinaren garapenaren industriaren egitura aldatu egin dela eta, orain, hein handi batean, hiru eragile-mota daudela: merkataripromotoreak (instituzio finantzieroei edo "property holding companies" delakoei saltzeko jabetzak eraikitzen dituztenak, inbertsio gisa mantendu beharrean); megapromotoreak, tokiko enpresa txikiagoak dituzten proiektu partikularretan sartuta (lehenengoek kapital-merkatuetarako sarbide zuzenagoa eskaintzen dute, eta besteek ezagutza eta tokiko harremanak eskaintzen dituzte); eta, azkenik, tokiko/eskualdeko oinarria duten promotore-jabeak (aurrera jarraitzen dute, nahiz eta gero eta erronka handiagoak izan kapitala kostu lehiakor batera lortzeko eta diru gehiago duten lehiakideek nabarmen kontrolatutako merkatuetako krisiei aurre egiteko).

Ez da kasualitatea industria eboluzionatu izana kapital finantzario globalarekiko harkorrako bihurtzeko, eta, aldi berean, hiri partikularretan presentzia iraunkorra izatea. Woodek (2004) azpimarratzen duen bezala, ez du axola zein globalizatu bihurtu den jabetzaren finantzarizazioa; garapena oraindik tokiko ezagutzaren mende dago, hau da, merkatuaren ezaugarriekiko, aprobazio-prozesuekiko eta balizko oztopo politikoekiko dependientea da. Hori guztiz erabakigarria da gure ikerketan aktoreek duten rola identifikatzeko orduan. Kapitala lekuz aldatu nahi bada, laburbilduz, tokian tokiko anfitrioiak behar dira, tokiko espazioa eta testuinguru politiko-ekonomikoa ezagutzen duten eragileak hain zuzen.

Oosterlynck eta Gonzálezek (2013) azterketari helduz, hemen interesatzen zaiguna balizko haustura-unea da (suntsipen sortzailearen mugimendu pendularrean), ikusi dugun bezala existitzen dena, baina ekoizpen-eredu neoliberallean ibilbidea aldatzeko egiturazko krisia izatera iritsi gabe. Finantza-krisiak hirigintza neoliberalaren dinamikan sakontzea dakarrela onartu behar badugu ere, bat geroz Sourel eta Younekin (2009). Izan ere, Brenner eta Peck autoreek zehazten dutenaren ildotik, onartzen dugu krisi geokonomikoak ez duela 1970 osteko urbanizazio hiperpolarizatuaren barruan zeuden joera basatietako bat ere eten. Zentzu horretan, zuhurrak gara eta Gramsciren (1971) baieztapenekin ere bat geroz. Honek ohartarazten

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

zuenez, krisi ekonomikoek berez ez dute krisi politiko organikorik eragiten eta, gainera, krisi politikoek ez dute zertan korrelazio zuzen bat izan behar borroka militanteen sorreran.

Oraingoan, krisiak, hiri-gobernantzek izan duten ibilbidean, eragiten duen transformazioetan jarri nahi genuke arreta. Izan ere, Oosterlynck eta González egileen logika benetan egokia da. 70eko hamarkadan hasitako krisi estrukturalak hiriak, esperimendu neoliberal gisa, epizentroan jarri zituela ulertzen badugu, bai maila espazialean bai instituzionalean; logikoena da 2008ko krisiak, nolabait “koiunturalagoa” izan arren, bi esparru berdinetan eragitea eta ondorioak izatea. Galdera da ea bi dimentsioetan krisi-ondorengo arrazionaltasun berriak sortu diren ala ez. Ikusi dugun bezala, dagoeneko ezagunak ditugun dinamika neoliberalen sakontzea da espazioan gertatu dena, ikus dezagun bada zer gertatu den gobernu-egiturekin eta gobernantzarekin.

Hori aztertzeko, egileek *glokalizazio*-estrategien ideia eta erakunde globalek (OECD eta URBACT) hiriei krisi-ondoko aldietan nola jardun eskatzen dietela azaltzen dute. Ateratako ondorioa interesgarria da; izan ere, instituzio eta erakunde globalentzat hiriak oraindik ere leku estrategikoak direla neoliberalizazioan sakontzeko eta hedatzeko aitortzen dute, eta ez da, inola ere, krisiaren aurreko ordena benetan aldatuko lukeen alternatibarik planteatzen, hala nola esperientzia arautzaile posneoliberalak. Hala, *spatial fixes* posibleak gertatzen dira, baita krisiaren olatuko goiko partean berriro jartzeko eta aurretiko neoliberalismoa berreskuratzeko balizko konponbideak hobetzeko proposamenak ere.

Overall, it seems clear that we are not witnessing a questioning of the neoliberal economic and policy principles that put the process of urbanization at the centre of the 2008 crisis spiral. Instead we see a relatively geographically uneven process of refining neoliberal local policy solutions that will supposedly allow the most competitive cities to ride the wave of the crisis into a reassembled form of neoliberalism. (Oosterlynck eta González, 2013: 1081).

Ildo horretatik, bat gatoz, halaber, Colin Hay autoreak berak (1999) krisiei eta estatuen ibilbideei buruz egiten duen teorizazioarekin. Honen ildotik, krisia Estatuaren boterea birkontzentratzeko prozesu gisa ulertzen dugu (azken kasu honetan, tokiko Estatuena), non, “the state is constituted anew through crisis” (Hay, *ibid.*, 338). Distentsio- eta egonkortasun-aldietan, aldiz, Hayk eragile eta sareei erabakiak hartzeko eta tokiko kudeaketarako sarbideen irekitzea identifikatzen du, eta “the former unified and centralised agency of the state dissolves into a multitude of interdependent, yet none the less relatively autonomous, agencies” (Hay, *ibid.*). Lan hau argitaratu baino pixka bat lehenago, Hay (1996) autoreak, krisiei buruzko teoria Gramsciarrari jarraiki, esaten zuen estatu-berregituraketak, eta, beraz, erregimenen benetako eta guztizko aldaketak krisia

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

bera lehertzen den uneetan gertatzen zirela; bestela, krisia, soilik aldaketa posiblea egin dezakeen beste aldagai metagarria besterik ez litzateke izango:

The above analysis would in fact suggest that the struggle to impose a new trajectory on the structures of the state is lost and won not in the wake of the crisis moment but in the very process in which the crisis is constituted. Gramsci's 'war of position' is in fact a war of competing narratives, competing constructions of crisis, increasingly fought out in the media between conflicting political Elites.

Lehiakortasunaren guruak eta “sormena” krisiaren aurkako gobernu-estrategia gisa

Azpiatal honetan, Schmidek (2012) “new metropolitano mainstream” gisa identifikatzen dituen ildoetako bat garatu nahi dugu. Termino hori interesgarria da; izan ere, laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik “governantzen jardunbide egoki” (*best practices*) edo hiri-gobernu gisa (governatzen den espazioari dagokionez, jakina) finkatu diren gehiengoaren diskurtsoak eta hirietako krisiei modu glokalean aurre egiteko proposatu diren konponbide espazialak bildu eta berreskuratu nahi baititu.

Hiri-plangintzarako eta -diseinurako, “significant ideological impact in urban policy in cities around the world” (Schmid, *ibid.*: 53) dituzten arau eta prozesu batzuk dira. Horrela, aipatutakoaren inguruan zabaldu diren diskurtsoetako batzuk jaso nahi ditugu, governantzen eta “hiri-ereduen” jardunbide egokiak edozein tokitan erreproduzitu ahal izateko oinarriak ezarri dituztenak. Erreferentzia nagusitzat hartuko dugu hirigile ezagunenetako bat, zeinak, gainera, mendebaldeko hirietan krisiei aurre egiteko eredu prototipiko ospetsua ematen duen.

Richard Florida “hazkundearen hirigintzaren” erreferente ezaguna da, eta krisiaren osteko hirigintzarako egindako ekarpenengatik eta konponbideengatik ere txalotua izan da. Haren ospea eta proposamenen erreproduzio ia akritikoa lan ezagun batzuen argitalpenaren mende dago, hala nola: *The rise of the creative class* (2002) edo *The new urban crisis: gentrification housing bubbles growing inequality and what we can do about* (2017).

Floridaren teoriak hirietako politika publikoetan kapitalaren suntsipen sortzailearen diskurtsoak eta interesak finkatzen dituzte, eta, ondorioz, gobernuetan, gobernatzeko moduetan eta, azken batean, tokiko gobernuak ideologikoki lortu nahi dituzten Estatu eta hiri-erregimenaren ideietan eta proiektuetan. Krätkeren ustez (2012:138), Floridaren teoriak epai ideologiko oso argiak dituzte:

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Florida deals with the specific attraction factors of cities for the members of the creative class and recommends that political decision makers supply a high standard of living and leisure amenities for the creative class, since this group is said to attract further creative activities and is thus of great importance to future regional development.

Ikus dezakegunez, Floridak (2002; 2017) aipatzen dituen hiri-sormenari buruzko teoriak eta estrategiak ikerketa honetan jada aztertu dugun hiri-enpresarialismoarekin lotuta daude, eta oso ondo funtzionatzen dute hurrengo hauekin: “the grain of extant neoliberal development agendas, framed around interurban competition, gentrification, middle-class consumption, and place-marketing” (Peck, 2005:740). *Roll-out* neoliberalismoaren forma berrietarantz mugitzean datza, hots, krisialdiak dakarren suntsipenaren aurrean sorkuntzari berriro heltzea.

Baina maila instituzionalean proposatzen dena kontuan hartuta, Floridaren teoriaren atzean ideologia, ondorio eta aktore onuragarri batzuk (beste batzuen kaltetan) dituzten politika publikoak ezkututzen dira.

With apologies to Florida, creativity is not something that can be simply imported into the city on the backs of peripatetic computer hackers, skateboarders, gays, and assorted bohemians but must be organically developed through the complex interweaving of relations of production, work, and social life in specific urban contexts. (Scott, 2006: 15).

Estrategia horren adibide dira Baltimoren 2004an eman ziren diskurtso instituzionalletako batzuk:

In 2004, the Baltimore Mayor’s Office of Community Investment announced and officially launched the ‘Creative Baltimore Initiative’, an initiative aiming “to devise a co-ordinated and comprehensive strategy that positions and promotes Baltimore as a diverse, creative, and opportunity-rich city in order to attract, engage and retain creative class residents (more specifically, artists, students, young professionals, creative entrepreneurs and empty nesters) (Mayor’s Office of Community Investment, 2004). (Ponzini eta Rossi, 2010: 1046)

Ponzini eta Rossik “Creative Baltimore Initiative” delakoari buruz egiten duten azterketan, bi ardatz dituen hiri-gobernantzako beste egitura bat sustatu zuela adierazten dute: alde batetik, arautzeko eta erabakitzeko botereen deszentralizazioa suposatzen duen, eta, bestetik, tokiko elite politikoaren esku utzi ziren eginkizun garrantzitsuenak, bereziki, alkatearen lidergoa azpimarratzen dute. Gobernantza kreatiboaren estrategia horrek nazioartekotze lehiakorrarekin, ekintzaitzarekin, arteekin eta abarrekin lotutako proiektuak (batez ere ekonomikoak) bultzatzeko hainbat modu ezarriko lituzke. Azken batez, Ponzini eta Rossik (ibid.) adierazten duten bezala, “klase sortzailearen” (*creative class*) ideiak inplementatu diren modu berean, gobernantza-modu espezifiko bat ezarri da.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

In this context, urban governance has not to be seen as a fixed repertoire of institutions and organisations and related contractual relations, but as a specific perspective from which one might make intelligible the diversity of attempts by authorities and their collaborators to shape the action of 'others' (even those others such as the artistic communities whose agency is apparently detached from material and instrumental goals) in relation to objectives of economic growth and competitiveness, urban regeneration, neighbourhood revitalisation and the building of political capital through dynamics of network formation. [...]). A creative class policy activates procedures and practices of urban governance being inherited from the local policy context, as we will show with reference to Baltimore and its 'shadow government' legacy. (Ponzini eta Rossi, *ibid.*: 1043).

Hau da, hiri-gobernantza (bere osatusunean ulertuta), "klase sortzailea" handitzearen ideia dakarren hirigintza enpresarialista estrategiaren pean, lortu nahi diren helburu eta xedeak lortzeko tresna bat baino ez litzateke izango.

Marko teoriko honen amaieran argudiatzen ari garen bezala, *roll-back* eta *roll-out* neoliberalen uneek tokiko gobernuaren bestelako rola dakarte; hala, berretsi egiten dugu hedapen edo susperraldi uneetan, tokiko gobernuen rol neoliberalara erantzukizunak eskuordetzea dela dioen hipotesia. Hala eta guztiz ere (eta askotan errepikatu dugun bezala), horrek ez du esan nahi tokiko gobernu eragile ahul eta botere-gabea bihurtu denik hiri-eremu publikoan (ez *roll-back*, ezta *roll-out* momentuetan); aitzitik, "recent urban history in Baltimore has reproduced the long-term feature of the city 's urban politics: the leading power of the mayor' s office." (*ibidem*: 1045). Autore berek diotenez, alkateen figurak funtsezko zeregina hartu du hiri-erregimenak eratu, babestu, egonkortu edo ordezteko, eta, askotan, figura horien mende egon da eragile subalternoek (klase sortzailatik askoz haratago) hiri-gobernantzaren egitura izan duten irisgarritasun handia edo txikia.

Bitxia da sormenaren ideian oinarritutako hiri-berroneratzeko plan eta estrategiek suntsipen sortzaileko aldiekin duten lotura. Baina, pentsatzen hasten bagara, argi dago ez dagoela sormenik dena sortuta baldin badago, eta dena sortuta ez badago, itxuraz, inork asmatu ez duelako edo suntsitu egin delako da. Nolanahi ere, erantzunek beti daramatzate etiketa "berritzaileak" edo, hobeto esanda, "ekintzaileak", nahiz eta errepikatzen dena, hiri-espazioen arteko desberdintasunak areagotzen dituzten konponbideak eta estatu-estrategia neoliberalaren zerbitzuetara jartzeko kontrolatzen saiatzen diren gobernantza-sareak diren. Horiek "hirirako eskubidearen" aldeko estrategiak hiri-erregimenen ikuspegi hegemonikoetatik urruntzen dituzte (Mayer, 2012).

Hala, ondoriozta dezakegu, garai bateko egitura-krisiak, Estatu nazionalen berregituraketa eta birreskalamendua kontuan hartuz, eta hiri-eremuak neoliberalismoaren lurralde-eremu gisa hartuta, tokiko gobernu tradizionalen orde

network governance eta *policy network* direlakoak ezarri zituela, eta halaber, hiri-enpresarialismoaren printzipioetara iristeko helburu paradigmatico berriak ezarri zituela. 2008ko finantza- eta mundu-krisiak tokiko estatu-botereak tokiko eragile politiko-instituzionalen figuretan birkontzentratzea ekarri zuen, beste eragile batzuei atea itxiz eta eragile horiek hautakortasun estrategiko berriak ezartzeko duten gaitasuna zalantzan jarriz (izan ere, *roll-out neoliberalism* uneetan, agenteek sartzeko aukera gehiago izan dezakete distentzio momentua delako); hala, are deserregularizatzaileagoak diren jardunbideak sustatu zituen, hala nola hiri-enpresarialismo berriarenak eta “hiri-sortzaileenak” (*creative cities*), berriz *roll-out neoliberalism* politiken alde egiten hasiko liratekeenak.

Austeritatea eta hiri-enpresarialismoa. Roll-back eta roll-out neoliberalismoarekin bueltaka

2008an hasitako krisi ekonomikoaren joera suntsitzaileak eta austeritate-politiken bidezko kudeaketak, tesi honen irakurlearentzat ziurrenik berria izango ez den desberdintasun sozialaren hazkunde handia eragin du, bai eta herritarren sektore zabalen kalteberatasuna ere. Krisi guztiak bezala, kolektibo guztiei berdin eragitetik urrun, krisiaren kostu sozialak diru-sarrera txikiak dituzten talde sozialetan eta hirigune behartsuenetan kontzentratu dira, baita klase ertain zabaletan eta gastu publikoaren murrizketen, enpleguaren prekaritatearen eta oinarritzko ondasunak (etxebizitza, adibidez) eskuratzeko gero eta zailtasun handiagoen ondorioak jasan dituzten eremuetan ere (Blanco eta Gomà, 2020). EGirraren ondorioak, besterik gabe.

Testuinguru honetan, austeritate-gobernantzaren ezaugarrietako bat aktoreen arteko lankidetzarik eza da, erabakiak hartzeko orduan hierarkia zehatz batean oinarritzen da, eta horrek, une batez, beheko gizarte-geruzetarako deliberazio aukerak urrundu egiten ditu, eta gobernu aparatu zentralizatuenetan kontzentratzeko joera errazten du (Donald et al., 2014). Azken horiek, era berean, kapitalaren eta inbertitzaileen interesen alde gehien egiten duten hautakortasun estrategikoa indartzeko joera dute, eta horrela, erakunde boterea eta malgutasuna (modu sektorialean edo autonomoagoan antolatua) berriz kontzentratzen dira. Kostuak minimizatzeko helburua duen joera horren adibide bat gastu publikoaren murrizketan datza, udaletan eta eskualdeetako gobernuetan sail, departamentu eta abar estrategikoak (adibidez, ekonomia- edo finantza-politikarekin lotutakoak) alkatearen edo eskualdeko lurraldeko arduradun gorenaren figuran biltzen direnean gertatzen da.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Rancièren (2014) pentsamendu politikoaren ildoak jarraituz, egungo demokrazia adostuetan austeritate-gobernantza menderatze-ordena oso naturalizatutzat har daitekeela esan dezakegu, "politikoa denaren" izaera natural gatazkatsua baztertzeko gai dena arrazionalismo ekonomikoaren izenean. Hertsadura, orokorrean, betidanik neoliberalizazioaren zati integrala izan bada ere, deliberazio-praktikak baztertzearen ondorioz, austeritate-garaietan hiri-gobernantza hierarkikoagoa izan ohi da (Bayirbag et al., 2017; Davies eta Blanco, 2017; Lippi eta Tsekos, 2018; Janoschka eta Mota, 2021).

La política de austeridad puede interpretarse como una ofensiva estratégica a largo plazo diseñada para reorganizar la matriz institucional y el equilibrio de fuerzas a favor del capital. (Jessop, 2017:310).

Jonathan Davies (De Monfort University) eta Ismael Blancoren (UAB) taldeek elkarlanean egindako proiektuak, (aipatu berri den aipua jasotzen du artikulua), gobernantzaren eta austeritate-hirigintzaren inguruan eta bi fenomeno horiek hirietan izan dituzten ondorioak laburbiltzen dituen orain arte eragin handiena izan duen obretako bat da. Neoliberalismo bariegatuaren dinamikak eta Europako zenbait hiritako austeritate-estrategia puntuala alderatuz egindako azterlanak, austeritate-gobernantzaren ezaugarrien eta hirietako neoliberalizazio-prozesuetan honek duen inplikazioaren arteko lotura azaltzen duten bost puntu identifikatzen ditu.

Lehenik eta behin, aplikatu ondoren austeritate-neurriak azkar hedatzearen arteko lotura nabarmentzen dute. Alde horretatik, garrantzitsua da, alde batetik, austeritatearen aldeko diskurtsoak duen egokitzapen azkarra eta hegemoniko bilakatzeko duen abiadura. Baina, bestalde, merkatuaren autoerregulazioari espazioa nola lagatzen zaion azpimarratzen da, Estatuko erregulazio-neurri keynesiarren kaltetan. Horrela, Peck eta Tickellekin bat etorri (2002:37), austeritate-hirigintza neoliberalismoaren ("atzerakada") eta "active destruction or discreditation of Keynesian-welfarist and social-collectivist institutions" ren bultzatzaile indartsua da.

Lehenik, behin aplikatzen direnean, austeritate-neurrien hedatzeko abiadura azpimarratzen dute. Alde horretatik, garrantzitsua da, batetik, austeritatearen aldeko diskurtsoak duen egokitzapen azkarra eta hegemoniko bihurtzeko duen abiadura gaitasuna. Baina, beste alde batetik, merkatuaren autoerregulazioari lekua nola lagatzen zaion azpimarratzen da, estatu-erregulazio-neurri keynesiarren kaltetan. Horrela, Peck eta Tickellekin (2002:37) bat etorri, austeritate-hirigintza *roll-back* neoliberalismoa delakoaren bultzatzaile indartsua da eta "active destruction or discreditation of Keynesian-welfarist and social-collectivist institutions" suposatzen du.

Bigarrenik, jarraian ikusiko dugun hiri-enpresarialismorako bideari ekiten dioten joeren apustua nabarmentzen da. Davies eta Blanco burutzat duen taldeak egindako

azterlanean, 2008ko krisi-osteko aldiaren ikertutako hiri guztiek lehiakortasunerantz eta hazkunderantz egindako mugimendu bat igartzen da, hiri-hierarkien merkaturaren goreneko mailan kokatzen saiatzen direnak, hain zuzen. Hiri-espazioak merkantilizatzeko modu horrek, espazioari lotutako lehen atalean ikusten genuen bezala, baliabide eta ondasun publikoak espekulazio-jardueretara desbideratzea ekarri ohi du, eta batzuetan zor publikoa handitu egiten da. Hala eta guztiz ere, uste dugu krisiari emandako erantzunaren parte dela hori, *roll-out neoliberalism* egoeretara ahalik eta lasterren aldatzeko kontratendentzia-dinamikak baitira, hau da, zaharkituriko eta pitzaturiko (edo suntsituriko) egiturak sostengatuko dituzten egitura berriak lehenbailehen sortzeko.

Hirugarrenik, gure ustez gobernantzaren azken boladako azterketetan oso interesgarria den puntuetako bat identifikatzen da. Egileek udal-gobernaren eta hirugarren sektorearen arteko aliantzak aipatzen dituzte, (baita austeritatearen aurkako aktibistak ere), hain zuzen ere, austeritate-politikek eragindako erreproduzko krisiari aurre egiteko aktore garrantzitsu gisa. Hemen agertzen hasten dira bariegazioaren adibide nagusiak, eskubide sozialdemokratekin, identitate nazionalekin, klientelismoarekin, erlijioarekin eta abarrekin lotutako tradizio neoliberalarekin zerikusirik ez duten jardunbideekin.

Laugarrenik, eta aurreko puntuaren ildoari jarraituz, Walliserrek “hiri-aktibismo berri” gisa identifikatu zuena ekartzen dute aurrera (Walliser, 2013). Neoliberalizazio bariegatuaren testuinguruan, mugimendu horietako askok sortutako autolaguntza-praktika efimeroa izan zuten ibilbide iragankorra sintetizatzeko balio du kontzeptuak; izan ere, mugimendu horiek oso gutxitan izan zuten legitimazio eta ibilbide nahikoa hiri-gobernantzaren eskemetan sartzeko.

Nahiz eta *a posteriori* mugimendu horiek eragin handia izango zuten Estatu espainolean, non praktika prefiguratibo horietako batzuk ordezkari politiko handiko alderdi mugimenduetan instituzionalizatuko ziren (PAHTik Podemosera). Aztertu gabe geratzen dira mugimendu horien dinamika demokratizatzaileak, norabideak (*top-down* edo *bottom-up*) eta politika aurrerakoiak erakunde heredatuetan izan zuten errotzea. Hurrengo atalean sailtuko gara errotze hori noraino heldu zen ulertzen.

Azkenik, austeritate-aldietan gobernatzeko modu parte-hartzaileen blokeoari eta, batzuetan, atzerakadari buruz hausnartzen da. Hiri bakoitzak bere ibilbidea duela egia bada ere, gizarte zibilak eta Estatuak aparatuek beste eskaera eta jarduerak batzuetan oinarritu zuten beren energia politikoa. Hala, parte-hartzeari lotutako erakundeek aktibisten eta elite politikoen interesa galdu zuten, hauek ez zuten partaidetza-prozesuen bidez haien politikak legitimatzeko beharrik ere ikusten.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Gainera, jada aipatu dugun hirugarren sektoreak austeritatearen babesle gisa izan zuen eginkizunaz gain, austeritatearen ondorioak arintzeko ko-kudeaketa eta lankidetzak izan ziren Erresuma Batuko hiri askoren ezaugarri nagusietako batzuk (Orozco, 2022), beti ere goitik beherako logiketan mugituz. Hala, Jonathan Davies eta Ismael Blanco egileek ondorioztatzen dute gobernantza parte-hartzailea, aurretiko lankidetzarako edo ko-gobernantzarako tradizio bat zegoen kasuetan baita ere, suntsipen sortzailearen eta 8. Irudian aipatu diren neoliberalizazio-ereduen beste biktima bat izatera igaro zela.

Azkenik, ez dugu alde batera utzi behar Blanco et al. (2019) austeritate-hirigintzak eta -governantzak eragiten dituzten kontrapartiden inguruan esaten dutena, austeritate neoliberalerako politikek eragindako klaseen muga-jasangarriaren gainditzeak hiri-politika-forma alternatiboak sor baititzake. Jamie Peck (2015:20) berak ohartarazten duenez:

inescapably, austerity urbanism is politically controversial, and the animation of resistance politics might be considered one of its double-movement contradictions. [...] Instability and uncertainty beck-on. New terrains (and stakes) of struggle will be shaped in this process.

Horregatik, ez da baztertzeko austeritate-politikek epe ertaineko hirien ibilbideetan eta hiri-politiken bilakaeran izan dezaketen eragin anibalentea. Kontuan izan behar dugu baieztapen horek ez duela inola ere kontraesanean jartzen neoliberalizazioaren eta austeritatearen prozesu suntsitzaileen sakontzeari buruzko aurreko premisa; izan ere, hiri-ibilbideen balizko hausturak, suntsitze-prozesu horien ondorengo uneetan kokatzen baititugu, are gehiago, prozesu horien ondorioztat har daitezke.

Hau esanda, gure ikerketari dagokionez, kontuan hartuko dugu, egoera espezifiko jakin batzuetan, erakundeen prozedura eta konponbide nagusiak, subjektu politiko eta sozial berriek eta/edo aurreko politika espazialekin eta hautakortasun estrategikoekin kontraesanean dauden proiektu politiko erradikal berriek desafiatu ditzaketela. Hala, Blanco et al.-ek (ibid.: 5) "hiri errebeldeei" edo *fearless cities* delakoei buruzko hausnarketa interesgarri bati atea irekitzen diote:

because cities have been a que, en 2012; Peck, 2015; Because cities have been a, in the development of neoliberalization, they may aly become a central stage for the building of its political alternatives (Dikeciu & Swyngedouw, 2017; Harvey, 2012; Peck, 2015).

Ondorio gisa, eta "denbora" aldagaiari dagokionez, Jessopek (2017: 307-308) adierazten du Estatuetan austeritatea agertu den hiru modu daudela (eskala edozein dela ere). Lehenik eta behin, "koiunturazko austeritate-politikak" identifikatzen ditu, izenak adierazten duen bezala, epe laburreko edo berehalako aldi baterako konponbideak izango liratekeenak. Bestalde, krisi kronikoei erantzuteko "austeritate iraunkorrerako politikak" edo "austeritate iraunkorra" aurkitzen dugu, indarren oreka kapitalaren alde

berrantolatzea bilatzen duena. Eta, azkenik, Jessopek “austeritateko gobernu-sistema” identifikatzen du. Azken hori aurreko bi praktiken metaketatzat har daiteke, eta erregimen aldaketa eta nazioarteko merkatuaren interesak asetuko dituen estrategia aldaketa dakar⁷⁸. Hori, zalantzarik gabe, proiektu bakoitzaren denbora-horizonteekin eta lehen aipatu dugun estatu-estrategia eta proiektuekin lotzen da.

Orain arte aztertutakoarekin bat etorritz, Harveyk aldi baterako erantzun koiunturalak aipatzen ditu, hala nola *spatial* edo *institutional fixes*. Konponbide horiek 2008ko finantza-krisiari aurre egiteko arazoak hedapen geografikoari esker eta espazioa berrantolatzeko modu berri baten bidez konpontzen saiatuko lirake. Ildo beretik, tokiko-eskalan, 1970-1980 hamarkadako industria-krisiaren ondoren hasitako espazio-denborazko doikuntzek edo konponbideek zuzeneko lotura dute, erakundeak *tokiko kudeatzaile* izatetik, gobernantzaren zati eta *hiri-enpresarialismo* forma errepikakorren parte izatera ahalbidetu duten erakundeen ikuspegi aldaketaren hasierarekin (Martínez et al., 2018).

Jarraian, gobernantza enpresarialistaren modu horren ezaugarriak laburbilduko ditugu (Harevy, ibid.; Peck eta Tickell, 2002) (hiri-inguruneko suntsipen sortzaile espazialaren uneetatik haratago, aurreko blokean azaldu dugun bezala, Sevilla-Buitragoren ekarpenen bidez), orain arte azaldutako austeritate-aldiei erabat lotuta baitago. Mendebalde osoan zabaltzen den gobernantza-modu horrek jada aipatutako “hiri ekintzailea” ere sortzen du (Cortina i Oriol, 2013), eta bi krisi-garaitatik eratorritako bi “une sortzailetan” du indarra: garai postindustrialean (Martí-costa eta Tomàs, 2016) eta 2008koaren ondoren izan zen perfektzionamendu edo erasoan (ikus Irudia 8). Nahiz eta austeritate-gobernantza batekin konbina daitezkeen goreneko momentu sortzaileak izan, egia da konponbide errepikakor eta fluktuatzailea dela, eta suntsipen-uneen edo *roll-back* uneetan ere irauten duela.

- **Espazioaren antolaketa berria:** Gobernutik gobernantzara igarotzean bertan, eragile sozial berriak sartzan dira hiri-eremua antolatzeko borrokan. Ildo horretan, estrategia-enpresarialistek klase-aliantzak eta koalizio-politikak ekarri ohi dituzte berekin, ingurune ekintzailea bultzatuko duten politikak gauzatzeko.

⁷⁸ Ezinbestekoa da kontuan hartzea aipatutako azken denbora-patroiak ateak irekitzen dizkiola, hainbat krisiren ondoren, krisi politiko, ideologiko, hegemoniko eta organikoaren testuinguruan, erantzun autoritarioak emateari. Atsekabea taktika teknokratikoen eta plutokratikoen bidez bideratzen duten erantzun autoritarioei hain zuzen. Ildo horretan, Europako herrialde batzuetako kasuak azter daitezke, hala nola Melonirena Italian.

- **Aliantza publiko-pribatuak:** kanpoko finantzaketa erakartzeko, parteneriatu publiko-pribatuak tokiko ehun ekintzaile tradizionalaren interesen pean gertatzen dira, tokiko gobernu-botereen eta kanpoko finantzaketa-iturriak dituzten inbertitzaile berrien bidez. Diseinu eta gauzatze espekulatiboetan oinarrituriko enpresa-logiken arabera, sektore publikoak arriskuak bere gain hartzen ditu (apustua) eta pribatuak irabaziak (apustuaren irabaziak) jaso/banatzen ditu.
- **Tokian VS Lurraldean oinarrituriko ekonomia politikoa:** gobernantza-enpresarialistak lekuak sortzen ditu (edo “ez-lekuak”, kasu batzuetan), eta balio handiagoa ematen dio truke-balioari erabilera-balioari baino. Hau da, politika lokalak hiri-espazio espezifikoean zentratzen dira, eta ez hainbeste lurralde-dimentsiodun etxebizitza, hezkuntza eta abarrei loturiko gaitan. Hiriaren mugak muga jurisdikzionaletatik haratago ulertzen duen lurraldearen ekonomia politikoa alde batera utzita, agerian geratzen da inbertsio pribatua erakarriko duen eta kapitala espazioan erreproduzitzeko duen hiri-irudia sortzeko interesa.
- **City-marketinean oinarritutako lehia:** Dinamika enpresalistek hiriak haien arteko lehia-espiraletan sartu ohi dituzte, erakarpen-polo/aktibo bihurtzeko helburuarekin. *City-branding* helburua duten tokiko ekintza eta politika guztiak *boosterism* estrategiaren pean daude. Horrek, nazioartean, lanaren nazioarteko eta espazioko banaketa eragiten du, eta hirien merkatu espezializatua sorrarazten du.

Hiri-gobernantzaren teoriaren eta ereduaren berrikuspen kritikoa: horizonte berrietarantz hiri-erregimenen teorian

Jessop (1997) autoreak dioen bezala, eta azken atal honetan ikusi dugunez, ezin ditugu tokiko Estatuetan eta hiri-erregimenetan izandako aldaketak krisi ekonomikoko garaiei eta ekoizpen-moduen eraldaketei soilik egotzi.

Arreta berezia jarri behar diogu arazo ekonomikoak eta suntsipen sortzaileko prozesuak (ikus 8. Irudia) nola eszenifikatzen diren, lehenago, Estatuaren ekintzarako (zentzu inklusiboan) arazo politikoetan eta, nola araututa dagoen, haien konponbidea estrukturaliki inskribatuta eta estrategikoki selektiboa den hiri-erregimenen naturagatik.

Hau da, gobernantza-modu espezifikoko ahalbidetzen dituzten koalizio moten eraketan ere jarri behar dugu arreta, gure azterketari gobernu-erakunde hutsetatik eta horien

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

egituraketatik haratago doan ikuspegia emanez. Izan ere, Stonek berak (1993) adierazten du hiri-erregimenen bilakaera politikoa koalizioen osaeraren, eragileak erlazionatzeko moduren eta horiek botere-harremani ematen dizkieten baliabideen araberakoa izango dela⁷⁹.

Stonek (1989) erakusten duen eta ikerketa honetan zehar adierazi den bezala, hiri-erregimenak tokiko Estatuetakoko gobernuak, ibilbide neoliberalak eta aipatutako globalizazio-dinamikak direla eta, egoera modu autonomoan gobernatzeko ahulegiak direlako eraten dira, gizartearen segmentuekin aliantzak sortzeko beharrak hainbat gobernantza-modu sortzen ditu.

Hiri-erregimenen teoriatik egin den ekarpen interesgarrienetako bat tokiko boterearen bost mota identifikatzea izan da (Marti, 2004; Casellas, 2005; Díaz-Orueta, 2010): “botere sistemikoa” (*Systemic power*); “aginte-boterea” (*Command power*); “koalizio-boterea” (*Coalition power*); eta “botere estrategikoa” edo “ekoizpen-sozialekoa” (*Preemptive power*).

Lehenengoa, “botere sistemikoa”, elite ekonomikoak eta agintaritza politikoak, baliabide produktiboen eta hiri-lurzoruaren jabetzari esker, tokiko agenda politikoaren gainean egiten duten kontrolari dagokio. Stonek adierazten duen bezala (1989), enpresaburu handien eta tokiko familien metaketa historikoagatiko abantaila ekonomikoa, eta politikarien sostengu ekonomiko arrazionala, funtsezko elementuak dira botere sistemikoa eratzeko.

Normalean, botere horretan parte hartzen dutenek ez dute ahalegin kontzientea egin behar botere garrantzitsu bat gauzatzeko aukera emango dien abantaila-posizio estruktural bat lortzeko (Casellas, 2005; 143); horregatik deitzen diogu sistemiko. Bestalde, garapenezko hiri-erregimenaren ereduarekin oso lotuta dagoen botere-mota bat da (hurrengo lerroetan azalduko dira eredu motak). Erregimen horiek industria-hirien beherakadan izan zuten unerik gozoena, eta erregimenaren ereduak berriitu zituzten aro postindustrialetan.

Bigarrenik, “aginte” edo “kontrol sozialeko” boterea dugu. Erabat hierarkikoa, aginte-botereak, X talde bat beste talde baten kontrola eta menderatzea dakar, baliabideak mobilizatuz (dirua, informazioa, prestigioa edo ezagutza); beraz, boterearen ikuskera weberiar samarra dela esan dezakegu (Martí-Costa: 2005; 91). Estatuaren eta gainerako eragileen gaitasunak oso lausotuta dauden sare-gobernantzako botere-mota hori,

⁷⁹ 12. Taula aurkezteko aukera aprobetxatzen dugu hemen. Ikusiko dugunez, gure azterketa alderdien arteko borratatik haratago doa. Taula hau izango da gure azterketa analitikoaren egiteko erabiliko dugun gidalerroa.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

benetan, zaila da gertatzea, baina uste dugu noizean behin harreman desorekatuetan aginte-boterearen ezaugarriak ahalbidetzen dituzten aldagaiak daudela (adibidez, gehiengo absolutua lortzen duen udal-gobernua). Hala, gure ustez, gobernantzaren beraren mikrosareetan egon daitezke, denboran esporadikoki harremanak dituzten eragileen artean, hain zuzen.

“Koalizio boterea”, “aginte boterea” gobernantzari lotuta dauden arrazoiengatik ezartzea ezinezkoa denean agertzen da. Tokiko egitura instituzionalen zatikatzeak eta konplexutasunak direla eta, aginte-ahalmena dutenek eta haien baliabide aktiboen mobilizazioa eraginkorra ez denean, beste eragile batzuekin negoziatu eta konponbide adostuak bilatu behar izaten dituzte. Horrek esan nahi du hiri-agenda negoziatua ere agertzen dela. Gutxitan edo inoiz ez da koalizio boterea *motu propio* eragile baten borandatez agertu. Dena den, koalizio boterea ez du zertan aginte-botere zapuztu-batetik eratorri, antzeko helburuak partekatzen dituzten eta koalitu nahi/ahal diren edozein tokiko eragiletatik sor daiteke.

Azkenik, “botere estrategikoa” edo “ekoizpenekoa-sozialekoa” dugu. Lidergoa kontrolatzeko aukera ematen duten tokiko baliabideen bidez lortutako lidergo intentzional eta aktibo bati lotuta, botere hau, sistemaren aldaketa eta eraldaketei egokitzeko, denboran zehar posizio estrategiko bat izatean eta mantentzean datza. Botere estrategiko horrek aginte- eta koalizio-botere handia eskatzen du, eta sistematikoki eta estrategikoki txandakatuko dira. Alde horretatik, “hiri-erregimenen teoriak” egiten duen ekarpen handia da, egungo gizarteetan beharrezko gobernagarritasun-funtzioei eusteko eta horiek sortzeko, lidergo-botere hori ezinbestekoa dela aitortzea. Honek aginte- eta koalizio-posizioetan dauden eragileak behartzen ditu *power over* izatetik, *power to* izatera. Ikuspegi honek gobernantzaren konplexutasuna are gehiago aberasten du, baina, aldi berean, tokiko egitura instituzionalen orientazioan izandako aldaketak erakusten ditu. Izan ere, eragileen arteko sareen multilateralitasuna adierazten du, eta ez horizontaltasuna, eta boterea posizio instituzionaletatik harago ikustea ahalbidetzen du.

Tokiko botereak xehetasunez azaldu ondoren, adierazi behar dugu, botere-jokoa izugarria izan arren, hiri-erregimenak epealdi luzeetan eraikitzen direla, eratzen diren koalizioak oso sendoak izan ohi direla, eta, ondorioz, denboran irauteko eta politika espezifikoak sortzeko joera dutela. Stonek (1993) lau hiri-erregimen tipologia nagusi identifikatu zituen: mantenukoa, garapenekoa, aurrerakoia eta erradikala (*maintenance regimes, development regimes, middle-class progressive regimes* eta *lower-class opportunity expansion regimes*).

“Mantenuko hiri-erregimea” edo “kontserbadoreak”, printzipioz, ez du ezarritako praktika sozial eta ekonomikoa aldatu nahi. Horren harira, baliabide pribatuak modu oldarkorren mobilizatzea ez da beharrezkoa eta ez da eragileen portaeran funtsezko aldaketarik egin behar. Mota honetako erregimenak ohiko zerbitzuak ematean oinarritzen dira eta hautestontzietan soilik behar dute aldizkako onarpena. Motibazio-eskaerak oso txikiak dira eta eszeptizismoa edo axolagabekeria ez dira arazo. Gobernuz kanpoko eragileentzat, mantenuak, gauzak dauden moduarekin pozik egotea exijitzen du.

Bigarrenik, “garapeneko-erregimena” erraz identifika daitekeela baieztatu dezakegu; izan ere, hiri-espazioaren erabilera aldatzeaz arduratzen dira nagusiki, hazkundera sustatzeko edo gainbeherari aurre egiteko. Erregimen eredu ohikoa da hiri eta eskualde postindustrialetan. Ildo honetatik, ezarritako eredu sozial eta ekonomikoak aldatzeko ahaleginak egiten dituzte eta inbertsio pribatua ekintza publikoarekin lotzea bilatzen dute. Krisialdi momentuetan, inbertsiogile pribatuek beren baliabideak arriskuan jar ditzaten, aldaketa positibo bat egingarria dela pentsatu behar dute, horretarako ekintza publikoek bideragarritasun hori bermatzeko beharrezko isladapena eman ohi dute. Urrats horiek lurren erosketa eta garbiketaren (industria-eremuetan batez ere), instalazio publikoen eraikuntzan edo beste subsidio banaketan oinarritu daitezke.

Garapeneko-erregimenek tokiko proiektu ekonomikoetan aldaketak dakartzate, eta horrek oposizioa eta arriskuak eragin diezazkie gobernuko eragileei eta azken batean, bestelako eragileei ere. Kasu horietan, garapeneko-proiektuari lotutako jarduerak herriaren kontrolatik eta herritarren benetako parte-hartzetik isolatuta egon ohi dira. Bestalde, esan dezakegu, erakundeen arteko eta eskala anitzeko koordinazio handia eskatzen dutela.

Garapeneko-dinamikek pizgarri selektibo ugari eta aukera espazial espezifikoak sortzen dituzte, hala nola enpleguak, kontratazioak, zergak, zerbitzuak edo azpiegiturak. Horiek oso lagungarriak izan daitezke gatazka maneiatzeko eta oposizioa leuntzeko edo zatitzeko, eta oro har hauteskunde-porrotik ez jasotzeko. Agintaritzaren handiena duen eragileak hurrengo baliabideak mobilizatzeko gaitasunak behar izango ditu: inbertsio pribatua erakartzeko gaitasuna, garapenaren esperientzia, eta enpresa-sektoreko eragileekiko eta funts-publikoekiko lotura estuak.

Hirugarrenik, Stonek (ibid.) honela identifikatzen du “klase-ertaineko erregimen progresista” hainbat neurritan oinarritutako hiri-erregimena, hala nola: ingurumenaren babesa, babes historikoa, etxebizitza eskuragarria, hirigintza-diseinuaren kalitatea eta hainbat helburu sozialetarako diru publikoa. Beraz, mandatu aurrerakoiek elite instituzionalen ekintzak monitorizatzea eta pizgarriak eta zehapenak neurtzea eskatzen

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

dute, jarduera eta murrizketaren arteko konbinazio egokia lortzeko. Gobernatzeko zeregina erregulazio-forma konplexu bat da, gobernantzaren suntsipen sortzaile-prozesuen eta krisien ondorioz koskatu daitekeena.

Bassolsen ustez (2021:43), formula hori ezkerreko klase ertaineko taldeek, artistek, unibertsitarioek eta intelektualek osatutako diskurtso posmaterialista batean oinarritzen da, enpresa-hiri baten edo kapital-hiri baten iruditeriarekin aurrez aurre. Ildo honetan, egileak dio erregimen mota hori arrakastatsuagoa izan dela hiri txiki eta ertainetan, trinkoak eta sakabanatu gabeak, eta metropolitanizazio prozesuen ezaugarri den hiri-dispersiorik gabeak.

Azkenik, azpimarratu behar da erregimen aurrerakoiak hautesle arretatsuak eskatzen dituela. Agindu progresistak herri-babes aktiboan oinarritzen dira askotan, udal-hauteskundeetara mugatzen ez diren partaidetza-mekanismoekin.

Azkenik, nekez ikus daitezke “klase baxuentzako aukerak zabaltzeko erregimenak”, “erradikalak” ere esaten zaienak. Erregimen kontserbadoreen kasuan bezala eredu puruak izanik, mota honetako erregimenak justizia sozialaren, oreka espazialaren, hiri-demokraziaren eta abarren printzipioetan oinarritzen dira. Praktikan, eskala esanguratsu batean egiteko sektore pribatuko jardunbideak aldatu behar dira, inbertsioa alde batera utzi gabe. Ildo berean, neoliberalizazio sakoneko 4. Irudian aurkeztutakoaren aurkako dinamika baterantz jo beharko litzateke.

Zentzu berean, erregulazio-mekanismoak keynesiar zentzuan berreskuratu beharko lirateke, gero joera publiko komunitarioetara jo ahal izateko eta tokiko joeren aurkako sozializazio sakon baterantz jo ahal izateko. Hala bada, ondoriozta dezakegu erregimen hauek politika neoliberalari aurre egin diezaioketen “hiri errebeldeak” eraikitze gaitasuna dutela (Harvey, 2013).

Hemen aurkeztutako sailkapenari eta tipologiari erreparatzen badiogu, arazo bat aurkituko dugu: "It is not enough to acknowledge the influence of the market economy on local political processes, it is also necesario sary to explain how fluctuations in the economy enable and constrain political options" (Davies, 2002:13). Hau da, hiri-erregimenak berak eratzeko eta mantentzeko analisi honetan, faktore ideologiko eta politika ekonomiko orokorraren ikuspegi eza identifikatzen dugu (Davies, *ibid.*; Davies eta Blanco, 2017).

Horregatik, hemen, ikuspegi neo-gramscianorarekin⁸⁰ aberastutako ikuspegi berritzaile bat ekarriko dugu. Ikuspegi honek, ordena politiko bati eusteko lana eta borondate politikoa behar dela onartzen badu ere, ahalegin ideologiko eta politiko etengabea eskatzen duela azpimarratzen du (Davies, 2011; 2012). Ildo beretik, Imbrosciok (2003) argudiatzen du hiri-erregimenen teoriak, neurri handi batean, prozesu ekonomikoen azterketa alde batera utzi duela, eta deskuidu horrek, bai termino enpirikoetan, bai preskriptiboetan, teoria mugatu egin duela, hirien garapen ekonomikoa globalizazio-testuinguru batean aztertzea zailduz. Ezusteko hori konpontzeko asmoz, Imbrosciok ikerketa-agenda bat proposatzen du, garapen ekonomikoko estrategiak identifikatze aldera, hiriek nazioarteko presio eta dinamika ekonomikoei ematen dizkieten erantzunak aztertzeko. Horrela, Imbrosciok (ibid.) sei elementu identifikatzen ditu, hirien garapen ekonomikoa markatzen duten ildo estrategikoak eta paradigma ekonomiko alternatibo berrien aukerak behar bezala identifikatzeko:

1. **Giza kapitala (*Human capital*):** komunitate jakin baten lan-indarrarekin lotutako trebetasunen eta gaitasunen mailari dagokio. Kapital fisikoaren kasuan bezala, giza kapitalaren maila handiagoek produktibitate ekonomikoaren maila handiagoak eragiten dituzte. Baina, aldi berean, giza kapitalaren maila altuak tokiko garapen ekonomiko jasangarria eta justuagoa ere eragin dezake (Casellas, ibid.).
2. **Egonkortasun komunitarioa (*Community Stability*):** Erkidegoaren egonkortasun ekonomikoa baldintza bat da, non hiriek, EGIrraren eragin handirik izan gabe, denboraldi jarraitu batean, bere biztanleei bizi-maila duina emateko lan-aukerak eta jarduera ekonomikoaren maila orokor egokia dituzten.
3. **Balantze publiko arduratsua (*Public Balance Sheets*):** erantzukizuna neurtzeko modu bat “public balance sheet” delakoen bidez egitea da. Horiek inbertsio-prozesu pribatuen edo publiko pribatuaren benetako kostuak eta onurak aztertzeko aukera ematen dute, eta alternatiba posiblei atea irekitzen diete (Imbroscio, 2004). Casellasek berak adierazten duen bezala (ibid: 147.), kontua

⁸⁰ Hiri-erregimenen teoria eta ekonomia politiko marxistaren analisisa ez dirudi, *a priori*, guztiz bateragarriak direnik, praktika teorikoa teoria praktikoaren aurrean, ekintza eta egituraren aurrean; baina ikusiko dugunez, ikuspegi hibrido eta pragmatikoak daude, estatuen, hiriburuen eta gizarte zibilen arteko harremanak hiri-espazioak nola kohesionatzen eta zatikatzen dituzten aztertzeko balioko digutenak. Egia esan, erregimenaren teoriak tokiko politika bera helburu gisa ulertu eta hobetzeko atea ireki nahi baditu, ekonomia politiko marxista hiri-garapen kapitalistaren kontraesanak hobeto ulertzeaz arduratzen da, hura ordeztzeko (Bua eta Davies, 2022).

litzateke “incorporar el modelo de estudio de coste beneficio social, el cual contabiliza los costes y beneficios sociales de las políticas locales junto a la inversión y desinversión del sector privado”.

4. **Denboran zehar produktiboak diren aktiboak (*Asset Specificities*):** hemen garapen ekonomiko arrakastatsua, neurri handi batean, harreman sozial errotuen indarretik sortzen dela azpimarratzen da, hau da, epe luzeko garapen ekonomikoa espazio eta denbora jakin bati lotutako produkzio-aktiboetan dauden gizarte-harremanen sendotasunetik sortzen da (lehenengo blokean aipatuta dago espazioaren balioarekin). Casellasek (ibid.), Imbroscio oinarri hartuta, adierazten du hiri-eredu ekonomiko alternatibo batek kapitalaren erabilera-balioa lehenetsi beharko duela truke-balioaren gainetik lankidetzan eta konfiantzan oinarritutako gizarte-harremanen balioa, produkzio-prozesu espezifikoaren esperientzia eta tokiko eragileen nortasuna eta idiosinkrasia azpimarratzeko helburuarekin.
5. **Lokalismo ekonomikoa (*Economic localism*):** bi aldagai garrantzitsu daude hemen. Alde batetik, tokiko ekoizpena defendatzea, tokiko premiak esportazio-estrategien aurrean bete ahal izateko; eta, bestetik, kanpoko kapitaleko inbertitzaileak erakartzea bilatzen duten politikak murriztea, tokiko garapen ekonomikoa bultzatuz. Lokalismo ekonomikoak tokiko eragile ekonomikoen arteko interdependentzia-maila handitzen du, eta, horren ondorioz, jarduera berri bakoitzak jarduera gehiago sustatuko ditu tokiko ekonomiaren bidez erreproduzitzen den heinean. Politika mota horren aurrean, atzerriko kapitalaren finkapen espaziala dago, baina horrek ez du sustraitze ekonomikorik eragiten.
6. **Erakunde alternatibo berriak (*Alternative institutions*):** aldaketak edo jarraipenak errazago ikusten dira egitura eta aparatu instituzionaletan, eta, beraz, enpresa-jabetzako formak pribatutik publikora edo forma kolektiboago batera aldatzea –edo, alderantziz– aldaketaren seinale bat da. Ildo berean, garrantzitsuak dira krisialdi ekonomikoaren ondoren gertatzen diren gizarte-berrikuntzako esperientziak. Zehaztu behar dugu, gobernantzari eta tokiko garapen ekonomikoari dagokienez, enpresen jabetzak komunitarismoarako joera izateak, jarduera ekonomikoa modu seguruagoan errotzen duela komunitateetan, eta era berean, kapitalen ihesa mugatzen duela, hirien egonkortasun ekonomiko komunitarioa eta EGIrrearekiko egonkortasuna hobetuz.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Atal-bilduma honen helburua Jessopen ikuspegi neogramscianoa ezartzeko beste modu bat aurkeztea da. Berria. Hiri erregimenen teoria klasikotik harago doana. Gure idea da, hiri-gobernantzako moduei (berriak izan ala ez izan) forma ematen dieten tokiko erregimenak eta mekanismo eta prozesu konplexuak aztertzeko tresnak topatzea.

MacLeod eta Goodwinen (1999) proposamenari jarraituz, argudiatzen dugu ezen, hurrengo taulan aipatutako aldagai guztietan oinarrituta eta, proiektuen, estrategien eta Estatuaren ikuspegi hegemonikoaren azterketarekin batera, gobernuek nola bilatu duten, hurrenez hurren, "egiturazko zehaztapen" bat eratzea azter daitekeela. Haren helburua aktoreen arteko desorekak modu iraunkorrean eraikitzea da (Jessop et *al.*, 1988). Aurrez aurre, sare berrietako eragileak, haien aukera murrizak eta gobernantza neoliberal hegemonikoaren perbertsioa kontuan hartuta, dinamika hauek iraultzen saiatu direla aurkitzen dugu. Ikuspegi horri esker, halaber, lidergo politikoa eta intelektuala dutenek zenbateraino Estatuaren hautakortasun estrategikoa nahita susta dezaketen hausnartu ahal izango dugu.

Orain bai, Davies et *al.*-en (2020) proposamenari helduko diogu, eta, ikerketa honetan aztertu diren puntu guztiak biltze aldera, beste egile batzuen elementu batzuk gehituko ditugu,. Azken batean, ikerketa honen helburu handietako bat da, tokiko estatuen suntsipen sortzaile neoliberalesko prozesuetan izandako aldaketak eta transformazioak ulertzea eta alderatzea, bai eta gobernantzaren dinamika historikoetan eta sektibitate estrategikoetan aldaketak egotea eragiten duten baldintzak identifikatzea ere.

Taula 12: Conceptual framework for understanding processes of change and continuity in local states

Local regime scale	Delimitation and characterisation of the specific urban area.
Structurally inscribed conditions for local action	<ul style="list-style-type: none"> • Deindustrialisation • From government to governance • Productive trajectories of capital in space (see Irudia 2). • Contextualisation of the trajectory of decline or success of urban movements, trade unions, etc. Tarrow's cycles of mobilisation/protest. • Contextualisation of the economic and financial crisis of 2008: general economic variables that explain the moment.
Strategically (and spatially selective) hegemonic strategies	<ul style="list-style-type: none"> • Power and resources.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

	<ul style="list-style-type: none"> • Hegemonic vision, strategic and spatial selectivity deriving from state projects (such as neo-corporatism or neo-statism). • Layers of investment.
Regulative idea	<ul style="list-style-type: none"> • Processes of spatial and institutional destruction and creation (see Irudia 8). • Responses through regulative idea of post-industrial creative destruction processes: continuation of tendencies towards entrepreneurialism and austerity VS counter-liberalising institutional fixes. • Regulation through municipal ordinances and legislative mechanisms.
Economic development strategies	<ul style="list-style-type: none"> • Economic policy behind specific strategic plans. • Emphasis on responsible public balance sheets, local productive assets and new alternative institutions. • Capital fixation in different economic circuits.
Resistance and containment	<ul style="list-style-type: none"> • Strong/weak state and accessibility of demands. Social control and policing model. Metropolice. • Embeddedness of participation and meta-governance. • Coalitions, party system and administrative organisation (districts, assemblies, etc.). • Imbalances in the correlation of forces
Contradictions and pathologies	<ul style="list-style-type: none"> • Future windows of political opportunity in the transformation of urban trajectories.

Iturria: own elaboration based on the practical analysis of the city of Leicester by Davies et al. (2020) and the theoretical contributions of Imbroscio (2003) and different authors mentioned throughout the research.

Taula honetan lausoa dirudien arren, marko honetan politika publikoen azterketaren hiru dimentsio klasikoen azterketa ere jasotzen da: dimentsio sinbolikoa (ideiak, printzipioak, diskurtsoak), dimentsio substantiboa (hauteskunde politikoak, edukia eta emaitza enpirikoak) eta dimentsio operatiboa (sareen osaera, egitura eta dinamika). Egia esan, kasu espezifikoeetan edo X edo Y politika publikoaren analisi mikrokonparatiboetan sartuko ez garen arren, taula honetako neurgailu eta aldagaien bidez aipatutako eremu guztiak modu holistikoagoan aztertuko ditugu, eta arestian espazioari eta neoliberalizazio-dinamikei buruz egindako ekarpen guztiekin lotuko dugu.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Taula puntuz puntu aztertzen badugu, kontuan izan behar dugu, lurraldea eta haren estatu- eta kudeaketa-eredua aztertu aurretik, hiri-eremu jakin batera mugatu behar dugula azterketa. Ipar Amerikako azterlanetan metropolian zentratzen badira ere, Europako kontinentean zailagoa izaten da hirigintza-figura metropolitara finkatuak aurkitzea (halakorik egon arren); horregatik, ohikoagoa da arreta udalerrri baten gobernagarritasunera bideratzea, gobernu-egitura administratiboaren arabera (gure kasuan, udaletara).

Bigarrenik, errotutako ekintza-baldintzez ari garenean, gobernu-moduez eta espazioan edo denboran errotutako egiturez ari gara, tokiko estatuaren gobernagarritasunean baldintza espezifikoak ezartzen baitituzte. Fordismo-keynesiarraren krisiak eta suntsipen sortzailearen ondoriozko egituraketa espazial eta instituzional berriak mugarri bat ezartzen dute hiri askotan, tokiko erregimen askoren dinamika enpresarialismorantz zuzentzea eragin baituzten (hirigintzan eta gobernantzan). Ikusi dugun bezala, une horretan gobernutik gobernantzarako aldaketa izan zen, eta Coxek (1993) identifikatu zituen *New Urban Policies* izenekoek markatzen dituzten formak agertu ziren.

Bestalde, 2008ko finantza-krisiak, oraindik noraino hel daitekeen errotzera ikusi ez diren aldakuntzak eragin ditu neoliberalismoan eta suntsipen sortzailean, baina *a priori* eta orokorrean, neoliberalismo sakonduaren sakontzea ekarri du.

Beraz, aztertu beharreko hiri-lurraldeen ibilbideak testuinguruan kokatzea da kontua. Helburua da gatazkaren dinamiken, baldintza ekonomikoen, hauteskundearen eta alderdien eta kasu-azterlanen irudi labur bat ematea irakurleei, gero hiri bakoitzaren berezitasunetako batzuk uler ditzaten.

Aztertu beharreko hirugarren puntua ia aho-korapiloa dela dirudi. Hitz bakoitzari arretaz erreparatzen badiogu, gogora ekarriko dugu Jessop eta Brenneren IEE-Eri egiten diola erreferentzia. Hala, hemen estatu-proiektua eta estatuko estrategia espazialak hartu behar ditugu kontuan. Baliabide garrantzitsuenak mobilizatzeko boterea non dagoen identifikatzeak lagunduko digu Estatuko proiektuetatik eratorritako ikuspegi hegemonikoa, selektibitate estrategikoa eta espaziala ezagutzen (neokorporatibismoa edo neoestatismoa, adibidez). Hainbat aldagai, hala nola jardunbide egokien eskuliburuak (politika ekonomikoan) hartzea, tokiko lehiakortasunaren sustapena, gobernuaren eta haren koalizioen kalkulu estrategikoa, hiri ekintzailearekiko harremana eta abar, identifikagarriak izango dira lurraldeen estrategia hegemonikoak eta aztertu beharreko hiri-tako eragileen eta espazioen arteko hautakortasun estrategikoaren dimentsioa ezagutzeko. Estatuko proiektuei eta ikuspegi hegemonikoari buruz ikerketa honetan azaldu den guztiaz gain, Mulvadek (2015) aurkezten duen taula gida baliagarria egingo zaigu hiriak konparatzeko.

Taula 13: Operationalising state strategies for empirical analysis

Theoretical concept	Empirical focus
Accumulation strategy	What policies should be pursued in order to ensure a profitable insertion of local assets into global networks of production?
State project	What role should the state play in organising society (including the sphere of production)?
Hegemonic vision	What principles for the distribution of economic wealth and political power will lead to 'The Good Society'?

Iturria: Mulvad (2015: 207).

Daviesek "erregulazio-ideiari" buruz duen ideia hartzen dugunean, "deserregulazio arautua" kontzeptua ere datorkigu burura; izan ere, ñabardura garrantzitsua da merkatuaren interesekin bat etorri diren gobernuaren ibilbideak aztertzea, baina nolabaiteko esku erregulatzailea egon den tokiko estatuen jarduerak kontuan izanda. Horrela, lehenik eta behin, gobernu-jardunbideen irudi orokor bat identifikatu nahi dugu (tradizionala, harremanetakoa, etab.), eta, ondoren, 8. Irudian aurkeztutako suntsipen sortaileko uneei nola aurre egiten zaien (edo ez) jakin nahi dugu.

Neoliberalismoaren dinamikak biltzen dituzten mekanismoen azterketak zer gobernu-jardunbide mota lortu nahi diren adieraziko digu. Oro har, erregulazio ideiak bi multzotan bana ditzakegu: lehenengoa, enpresa-espituaren araberako hazkundera eta garapena bilatzen duten estrategiak bilduko lituzkeena; gogora dezagun ez dela haustura-une baten berriazko zerbait, baizik eta globalizazio-estrategietan zehar mazeleratzen dena; eta, bestetik, globalizazio horren aurrean kontrol-mekanismoak mantentzen saiatuko litzatekeena.

Garapen ekonomikoko estrategiei dagokienez, ez dugu Imbrosciok (2003) identifikatutako sei puntuen azterketa sakonean egingo, egileak berak Stonek (2004; 2005) egiten duen zientzia politikoaren azterketa zurrunegiaren aurrean proposamen alternatibo gisa identifikatzen baitu bere sailkapena. Azken beltzean, hiriek nazioarteko presio eta dinamika ekonomikoei ematen dizkieten erantzunek argiago azalduko dizkigute garapen ekonomikorako dituzten estrategiak, eta taula honen testuinguruan aztertu ahal izango ditugu. Hala, "while these concepts stand as neither necessary nor sufficient for such a substantial and significant intellectual project, taken together they provide a suggestive starting point" (Imbroscio, ibid. 276).

Bestalde, ez ditugu alde batera utzi nahi kasu praktikoetan ikusiko ditugun plangintza estrategikorako tresnak, hiri-ekonomiak izan behar dituen norabideak adierazten dituzten tresnak dira hauek. Kontua zer inbertsio ekonomiko mota lehenesten den

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

ulertzea da, ez hainbeste noren laguntzarekin egin dituen inbertsio horiek edo zer ondorio zuzen izan ditzaketen espazio espezifikoei.

Erresistentziaz eta euspenaz hitz egiten dugunean, azterketa-puntua gehiegi lausotzeko arriskua dugu, eta puntu honetara iritsita, ez zaigu interesatzen. Horregatik, aztertzen ari garen tokiko estatuak (eta estatu-proiektuak, berez) izan ditzakeen mehatxuei erreparatuko diegu hemen, egon daitezkeen kontrako eragile eta horiei erantzuteko moduari. Hiri-erregimen mota bakoitzak gizarte zibiletik edo sektore pribatutik datozen oposizioei aurre egin behar die (modu bortitzean edo adiskidetzailan).

Ilido horretan, estrukturalki errotuta dauden tokiko ekintzen baldintzen atalean azpimarratukoan gelditzean datza. Alde batetik, gobernu-koalizioak (horien iraunkortasuna) eta horien izateko arrazoia, eta, bestetik, gobernu-posizioak osatzen ez dituzten eragileen aurkakotasun-dinamikak ikusiko ditugu (hemen ere baloratu daiteke eragile horien erresistentzia iraunkorra edo ez).

Pisu handia du hemen (gobernuz kanpoko taldeen erresistentzia-mekanismo gisa eta era berean, gobernuak haien posizioei eusteko modu gisa): gobernuaren kalkulu estrategikoa, parte-hartzearen eta kudeaketa ekonomikoa legitimazio iturri moduan edo adituak buru diren krisi-uneetan izaten den gobernantza hierarkikoa (Bayırbağ et al., 2017). Ilido beretik, Kriesiren (1991) erreferentzia hartuko dugu kontuan oposiziogile-taldeek Estatu egiturara duten sarbide-mailari buruz hausnartzeko. Horrela, Estatu indartsu edo ahul batek, gaitasun handiko/txikiko Estatu batek eta gizartearen eskarietara irekitzeko edo ixteko alde aurretiko jarrera duen Estatuak ekintza kolektiboa eta egon daitezkeen erresistentzian duen eragina jakingo dugu. Alde horretatik, garrantzitsua da proposatzen diren polizia-ereduak eta krimena kontrolatzeko hiri-erregimenetan denboran zehar ezartzen diren estrategiak ezagutzea; izan ere, horrek, taldeen eta aktoreen irisgarritasunean eragiteaz gain (ordenamendu-arauak eta espazio publikoaren erabilera-arauak), harremanak are gehiago hierarkiza ditzakete edo, alderantziz, horizontalizatu eta lasaitu (García, 2021). Hau da, "metropoliceation"⁸¹ak lankidetzak-ereduak eta elkarlaneko gobernantza-ereduak ezartzeko zailtasunean eragiten du, eta hurrengo atalean azalduko dugun errotze demokratikoaren finkatzea eragozten duen oztopoetako bat da.

Azkenik, kontraesan eta patologien puntua dugu. Hemen, gobernantza-ereduak berak eta tokiko estatuak sor ditzaketen inkoherentziak eta arazoak bilatzen saiatuko gara.

⁸¹ Ikerketa honetan asmatutako kontzeptua. Garcia et al.-en (2021) "Metropole" hitz-jokoan oinarritua, hirien eta hiri-gizartearen kontrol (polizial eta teknologiko) handiagorako joerari erreferentzia egiteko balio digu.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Proiektu hegemonikoaren disfuntzionalitateak, krisi-aukerak eta unitate intelektual eta moralean duen unibertsaltasuna identifikatzea da helburua (Gramsci, 1971). Krisi ekonomiko batek ez duela nahitaz krisi politiko bat ekarri behar jakinda. Gune honek etorkizuneko ikerketa-ildoak eta aztertuko ditugun bi hirien ibilbideen norabideak sumatzeko balioko digu.

Azken batean, Davies et *al.*-ek (2020:71) adierazten duten bezala, onar dezakegu.:

dimensions of Gramscian regime analysis contribute to disclosing structural and constructive dimensions of urban power. They are a lens through which to explore historical conditions and contemporary political economies of normalization, crisis, resistance, and transformation (Peck, 2017).

Tokiko politika publikoak egiteko modu eta metodoak bat datoz, neurri handiagoan edo txikiagoan, tokiko Estatuak gobernantza-moduak eraikitzeke funtsezko eragile gisa duen funtsezko zereginean (Rhodes, 2007). Horregatik, gatazka neoliberal eta hiri-gobernantza erregulatzeko moduei dagokienez, aldaketarako eta jarraitutasunerako joerei buruzko hausnarketa argiago eta esplizituagoa txertatzeko erronka teorikoari aurre egiteko, marko hau (Taula 12) betaurreko gisa proposatzen dugu. Horien bidez hiri-aldaketa politiko espazialaren eta instituzionalaren joeren analisi ulerkorra, sistematikoa eta konparatiboa egiteko aukera izango dugu. Era berean, hauen bitartez, zein neurritaraino den posible oinordetzan jasotako ibilbideak eraldatzea edo mantentzea edota beste berri batzuk sortzea ikusiko dugu (Blanco, 2009; Lowndes, 2005; Merida eta Telleria, 2021).

Hiri-erregimenen demokratizatzea. Lankidetzarako bidea: parte-hartzea, errotzea, mihizatzea eta metagobernantza

Askotan aipatu dugun bezala, gobernuak eta, aldi berean Estatuak bere aurreko egiturak eta dinamikak oinordetzan hartuz, diseinatutako estrategien arabera, zenbait eragilek Estatuko aparatuan sartzeko erraztasun handiagoa dute. Horrela, Estatuak ordezkartza-sistema eta gizarte-eragileak baldintza ditzake, baina azken horiek, Estatuaren *erlazionaltasuna* kontuan hartuta, Estatuaren esku-hartzea baldintzatu eta zehazteko aukera ere badute, eta, beraz, ekintzek egiturazko mugak gainditu, saihestu edo ahultzeko marjina bat ezartzen da (Jessop, 2017:100) (Merida eta Telleria, *ibid.*).

Ikusi dugun bezala, gobernantzaren azterlanek, oro har, koordinazio estrategikoko gaiekin lotutako fenomeno komun gisa aztertzen dute, Estatuaren gai espezifiko gisa baino gehiago. Kontuan izan behar dugu gobernantza-sareen handitzeak ez duela zertan

ekarri gobernuaren boterearen galera bat, boterea zero baturako baliabidea balitz bezala gizarte-harreman bat izan ordez ulertuz (Jessop, 2002c). Egia esan, “proiektu hegemoniko” partikular bat artikulatzeko ahaleginaren bitartez, Estatuaren botereaz eta gobernuaz arduratzen diren indar sozial eta politiko nagusiek esfortzuak egingo dute Estatuaren egitura eraikitzeke eta subalteenidadeei sarbidea emateko edo ez emateko. Ildo horretan, argudiatzen dugu prozesu horiek giltzarriak direla hiri- eta eskualde-gobernantzaren berregituraketa berrien zati handi bat ulertzeko orduan (MacLeod eta Goodwin, ibid.).

Testuinguru horretan agertzen dira parte-hartzearen potentzialtasuna eta gobernantza parte-hartzailea⁸². Gobernantzari edo partaidetzari buruzko ikerketei lotutako azterlanetan dauden korranteak jasoz, Sonia Bussuk eta Adrian Buak azterketa deduktiboagoa egitea erabaki dute. Hasteko, *a priori* gobernantza parte-hartzaileari buruzko bi ikuspegi dikotomiko handi bereizten dituzte, eta, bukatzeko, erakunde-egituran eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzearen integrazioaren/“errotzearen” (*embeddedness*) garrantzian jartzen dute arreta. Hori ez dela ikuspegi erabat berritzailea esan beharra dago, duela hamarkada batzuk garrantzi handia izan zuten eztabaidak berreskuratu nahi baitira, baina gaur egun hainbat testuinguru ditugu, non parte-hartzea Europako hiri-erregimen askotan instituzionalizatu den, tokiko gobernu eta gobernantza-sare motek modu anibalentean erabiltzen duten mekanismo gisa.

Horrela, bada, esan bezala, Bussu eta Buak (2021) gobernantza parte-hartzailea konfiguratzeko bi bloke handi garatzen dituzte, eta, oro har, ezagunak zaizkigu. Lehenengoa da “gobernantzak bultzatutako demokratizazioa” (GDD, ingelesezko siglen arabera: *Governance-Driven Democracy* edo *Democratization*, baldin eta demokratizazioaren potentziatzailetzat hartzen bada). Gobernu-modu edo *policy making* modua, mende aldaketako “deliberative moment” gisa ezagutzen den horretatik sortzen da. “Gobernantzak bultzatutako demokratizazioak” gobernantza parte-hartzailea *top-down* ikuspegitik eta modu teknokratikoan ulertzen du, hau da, eliteetatik. Helburuak, alde batetik, erakundeen legitimitate-krisiari aurre egitea eta, bestetik, politika publikoen elaborazioa “hobetzea” izango lirakeke, ahots eta interes berriak sartuz eta informazio-iturri berriak eskuratuz. Hemen jarriko genuke “gonbidapen bidezko parte-hartzea” deritzona. Hala, badakigu GDDak aukera-leiho

⁸² Ez dugu jasoko, eta ez gara sartuko partaidetza merkantilizatzeari buruzko eztabaida inbrikatuetan, ezta forma antidemokratikoak ezkutatzeko dituzten politika publikoak justifikatzeko metodo edo estrategia politiko gisa instrumentalizatzeari buruz existitzen diren eztabaidetan ere. Baina kontuan hartuko dugu ea partaidetza-ereduek berrikuntza demokratikoak sartzeko errazten duten edo, aitzitik, parte hartze eredu arauemaile (edo neoliberal) baten instituzionalizazioarekin jarraitzea ahalbidetzen duten. Gaia gehiago aztertu nahi izanez gero, Jone Martínez-Palaciosen lana gomendatzen dugu (2021; 2018; 2018b)

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

batzuk irekitzen dituela gai jakin batzuetan eta politika oso espezifikoetarako. Beraz, ekintza kolektiboa despolitizatzeke eta kooptatzeko arriskuarekin batera, benetako demokratizazioaren aukerak muga ditzake.

Gure eremura ekarriz gero, GDDk ez du, berez, aldi eta espazio jakin batean hautakortasun estrategiko espezifikoaren ohiko ildoekiko hausturarik eragiten. Izan ere, egileek Warrenen (2014) GDD ereduaren kritika jasotzen dute. Eredu honek, eliteek bultzatutako GDDaren izaera beraren ondorioz, herritarrak manipulatzeko eta asimilatzeke ekar dezakeela onartzen du. Mikro-gertakari horietatik haratago, ikerketa honetan eta, batez ere, lehenengo bi blokeetan garatutako begi kritikoak lurraldearen inguruko ekonomia politikoari erreparatuko lioke. Buaren eta Bussuren ustez (ibid.), azken 30 urteetako gobernantza parte-hartzailearen eraginaren berrikuspen batek enfasia handia jartzen du helburu funtzionalistetan, adibidez, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako partaidetza-prozesuen helburu edo izaera demokratikoekin alderatuta. Hala, GDD herritarren eguneroko arazoak konpontzearekin konformatzen da, beraz gizartea eraldatzeko eta boterea eta aberastasuna birbanatzeko gaiak ia ez dira bere erretorikan eta praktikan agertzen.

Era berean, Bussu eta Buak “demokraziak bultzatutako gobernantza” kontzeptua sartzen dute (ingelesezko siglen arabera, DDG: *Democracy-Driven Governance*), eta, bertan, mugimenduek eta gizarte-eragileek gobernantza parte-hartzailerako espazio berriak irekitzeko egiten dituzten ahaleginak aipatzen dituzte, bai eta daudenak herritarren eskaerei erantzuteko, erreklamatu, eraldatu eta forma eman ere. Kasu honetan, DDGk orientazio kritikoagoa du, *bottom-up* logiketarik mugituz.


Egileen arabera, herri-mobilizazioaren, “Estatura sartzeko” (eta ez alderantziz) gizarte-mugimenduen saiakeren eta gobernantza parte-hartzailea erradikalizatuko duten helburu eraldatzaileak lortzeko partaidetza-egiturak aldarrikatu eta berrasmatzearen bidez sortzen da DDG. Kasu honetan, hautakortasun estrategiko “kontinuista” edo normatiboa zalantzan jar liteke partaidetza-prozesuetatik abiatuta (horrelako esperientziei buruz gehiago jakiteko, ikusi: Mérida eta Telleria, 2021; Mérida, 2022)

Horrela, gobernantza parte-hartzaileak, politika hobeak garatzeko eta erakunde tradizionalak legitimatzeko behar funtzionalistari (GDDari) erantzun diezaioke; edo, bestela, justizia sozialean aurrera egiteko eta demokrazian sakontzeko asmo eraldatzaileagoari (DDGari) erantzun diezaioke. Gure ustez, ekarpen hori funtsezkoa da hiri-erregimenak eraldatzeko existitzen diren aukerak ulertzeko.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

Hurrengo diagramak demokrazia “kontinuista”ren (*incumbent democracy*) eta demokrazia kritikoaren (edo erradikalenaren) eta ohiko partaidetza-moduen arteko elkarguneetan gertatzen diren gobernantza-moduak erakusten ditu.

Irudia 11: Locating GDD and DDG spaces of democratization



Iturria: Bua eta Bussu (2021: 720).

“Ohiko parte-hartzearen” ezaugarri nagusia da parte hartzeko eta erabakiak hartzeko prozedura instituzionalizatuak daudela, aldaketak izan ditzaketenak baina nolabaiteko jarraitutasun-maila dutenak. Ikus dezakegunez, diagramak GDD eta DDGaren arteko puntu komun batzuk nabarmentzen ditu. Biek ala biek bilatzen dute gobernantza parte-hartzailea sustatzea edo herritarrak administrazio publikoaren lanean parteh artzea “ohiko parte-hartzearen” bidez, hau da, biek erabiltzen dituzte prozedura eta arau definituak deliberazio parte-hartzaileko eta erabakiak hartzeko. Hala ere, GDDk ez bezala, argi eta garbi demokrazia kontinuitaren edo *incumbent democracy*⁸³ barruan sartzen dena), DDG zirkulu berdinetik (*incumbent democracy*) sartzen da, baina urrunago doa, demokrazia kritikotik igaroz eta ohiko parte-hartzera iritsiz. Azken horrek

⁸³ “Incumbent democracy” erakundeak zaintzeko eta hobetzeko kezka nagusia duten prozesu demokratikoei egiten die erreferentzia; “critical democracy” kontzeptuak, aldiz, erakunde tradizionalak desafiatzen dituen ekintza politiko prefiguratiboko “une demokratikoak” inplikatzeko ditu.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

egiten duen ibilbidea klabea da, ohiko demokraziara heltzeko demokrazia kritikotik pasatzen baita.


“Gobernantza demokratiko anarkokomunitario” gisa identifikatzen dena demokratikoki gobernatutako taldeek, mugimenduek edo elkarteek hartutako erabakiak hartzeko moduei eta araei egiten die erreferentzia. Askotan hauek ez dute administrazioarekin zuzenean harremanak izatea begi onez ikusten, asimilazioa saihesteko estrategia da. Politika publikoetan eragina izateko edo ikusgarritasun publikoa lortzeko, talde horiek, “oposizioko protesta-politiken” bidez (*Oppositional protest politics*) agentzian parte har dezakete, eta eragile horietako batzuek kargu instituzionalak ere bete ditzakete, edo gobernuko edo Estatuko erakundeekin lotura estuagoa bilatu, hasiera batean kontraesankorra badirudi ere.

Egoera erreal batera hobeto egokitzen den 12. Irudiak berriz, harreman dinamikoagoak erakusten ditu, non hainbat eragilez osatutako eta zenbait agentziaz informatutako GDD eta DDG (*top-down* eta *bottom-up*, hurrenez hurren) parte hartzeko oso ohiko lekuak erabiltzen dituzten. Herri-dinamikak, zirkulurik handienak erakusten duen bezala demokrazia kritikoaren esparruan sendo errotuta daudenak, (gobernantza demokratiko anarko-komunitarioa eta oposizio-protestako politikak biltzen dituena), DDGaren parte-hartze instituzionalizatuagoa bihur daitezke, non herritarrek ohiko partaidetzaren lekuak eskatzen eta eraldatzen dituzten⁸⁴.

⁸⁴ Egileek eurek jarri dute adibide gisa aurrekontu parte-hartzaileen kasua:

Participatory budgeting (PB) in Porto Alegre, Brazil, is another seminal case that can help illuminate these relationships (Baicocchi 2005). PB can be understood as a case of DDG regime, where bottom-up action from grassroots movements (popular spaces), supported by sympathising political forces (the Workers Party) that won the elections after the fall of the military dictatorship in the late 1980s, embedded forms of routinised participation (i.e., including non-organised citizens in policymaking) within the yearly budget cycle. One might also argue that Porto Alegre’s DDG regime has been stifled overtime by the council’s technocrats and diminished political will to support bottom-up engagement, raising the possibility that DDG can transform into GDD, as well as vice-versa. (Bua eta Bussu, 2021:721).

Irudia 12: GDD and DDG in dynamic relationship



Iturria: Bua eta Bussu (2021: 721).

Dinamika parte-hartzaile bakoitza kokatzen den ardatzei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu GDD ezkerreko goiko koadrantean kokatzen dela, hau da, ohiko parte-hartzearen eta demokrazia kontinuitatearen arteko elkargunean, non herritarrak, zilegitasuna handitzeko eta politika hobek sortzeko tresna gisa politikara eta erakunde publikoetara hurbiltzen diren. DDG, aldiz, ohiko parte-hartzearen eta demokrazia kritikoa baten arteko elkargunean kokatzen da; izan ere, kasu honetan, gizarte-mugimenduei eta tokiko gizarte zibilari tokiko estatu-erakundeetan sartzeko aukera zabaltzen zaie, erakundeen birmoldaketarako parada edukiz.

Hala ere, ondorio praktikoetarako "errutinizazioaren" beraren arau-orientazioa desberdina da; izan ere, GDD, nagusiki, erabaki eraginkorrak hartzean eta zerbitzuen erabiltzaileen abantaila epistemikoetan zentratzen da, eta DDGk, berriz, herritarren eskubideak eta justizia soziala azpimarratzen ditu. DDGren originaltasuna erakundeak agentziari eta herritarrei modu zabalagoan irekitzeko ahaleginean datza, gobernantza parte-hartzailea tokiko prozesu politikoan txertatuz eta espazio kritikoak babestuz, gizarte-mugimenduek administrazioaren kontrapisu gisa joka dezaten.

The conceptualisation of DDG helps us address this question because it provides a conduit for the interaction of incumbent and critical spaces. Blaug (2002: 104) describes democratic progress as 'an ongoing struggle between incremental advances in the institutionalisation of accountable elite rule, and extraordinary movements of revolutionary mobilization, which raise popular consciousness and force elites to grant reforms'. (Bua eta Bussu, 2021: 719).

Beraz, DDGk bitarteko termino gisa aurkezten da, GDDren parte-hartze “kontinuista” edo hiperinstituzionalizatuaren eta une demokratikoetako parte-hartze “kritikoaren” artean. DDG kontzeptualizatzean, onartzen dugu espazio horiek, dikotomikoak izan beharrean, askotan elkarrekin bizi direla eta etengabe elkarri eragiten diotela, eta, aldi berean, elkarrekin eratzen direla. Azkenean, estatu-proiektu bat eratzen duten dinamikak erreproduzitzen dituzte, egitura, demokraziarekiko ikuspegi hegemonikoa eta lidergo bihurtzeko estrategiak batuz. Hausnarketa horrek azpimarratu nahi dugun bigarren puntura garamatza: “governantza parte-hartzailea” dauden governantza-ereduetan errotzeak (*embeddedness*) duen garrantzia; hori izango da, azken batean, hautakortasun estrategikoak eta espazialak sendotuko dituen edo ezarritako dinamikekin haustea ahalbidetuko duena.

Sonia Bussu et al. (2022) autoreek lantzen duten bigarren ideia horrek bereizi egin nahi ditu, batetik, prozesu parte-hartzaileekin askotan lotzen diren instituzionalizazio-dinamikak, eta, bestetik, espazioari, denborari eta praktikari dagokienez, egitura instituzionalean benetan errotzea lortzen dutenak. Hau da, governantza parte-hartzailea indartzeko eta integratzeko forma instituzionalak edo arau formalak kodetzeko joeraz harago, kultura-aldaketako eta “berrikuntza-modu demokratikoak”⁸⁵ ingurune instituzionalera egokitzeko prozesu zabalagoi erantzutea da kontua.

“Parte-hartze integratu” edo errotu hori (*embedded participation*) zaila da governantzaren instituzionalizazioaren interpretazio instituzionalista berriek espektro zabala hartzen duten testuinguru batean kokatzen. Alde horretatik, Polanyik landutako “sustraitzearen” edo “errotzearen” kontzeptua berreskuratu du Bussuk, eta instituzionalizazioa demokrazia errotzera edo deserrotzera bideratuta egon daitekeela adierazten du. Hau da, governantza parte-hartzailea instituzionalizatzeak sarbideen integrazioa edo sustraitzea zaildu egin dezake, baldin eta gizarte zibileko eragile jakin batzuen interesak alde batera uzteko edo desbideratzeko diseinatuta badago. Era berean, integrazioa oztupoa izan daiteke, baldin eta partaidetza politikoen formulazioan eragin txikia izateko diseinatuta badago (erabaki ez-lotesleak hartzea, adibidez); horrela, *policy making* prozesu bat legitimatzeko baino ez litzateke erabiliko,

⁸⁵ Ikerketa honetan, Elstub eta Escobar (2019) oinarri hartuta, “berrikuntza demokratikoen” lau forma nagusi aitortzen ditugu, era berean, horien barruan beste tresna eta aldaera espezifikoago batzuk har ditzaketanak: mini-publikoak, erreferendumak, governantza kolaboratiboa eta aurrekontu parte-hartzaileak. Argi dago ikerketa honetan, governantza kolaboratiboak hiri-erregimenen demokratizazioari dagokionez eskaintzen dituen moduetan mugituko garela.

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

eta, aldi berean, erabakiak hartzeko lekua opakuago eta herritarrengandik urrutiago ezartzeko.

Horrela, instituzionalizazioak errotze prozesuekin harreman anibalentea du. Oro har, partaidetza-prozesuak ingurune instituzionalean integratzea susta dezake, baina ez da baldintza nahikoa, eta, batzuetan, haren aurka ere joan daiteke.

Egileak nabarmentzen duen bigarren aldea da integrazioa (\neq instituzionalizazioa) gertatzen denean “errotzerako” nolabaiteko lehengo pausoa ematen dela⁸⁶. Baina, egia esan, instituzioekiko integrazio hori zaila da ekimen parte-hartzaile gehienentzat; izan ere, desafiatzaileegiak bihurtu ez badira ere, eta instituzionalizatuta badaude ere, askotan beste erakundeen agindu edo beste interes batzuen alde beren gomendioak alde batera uzten dituzte,.

Embeddedness edo sustraitze terminoa sakonki ulertzeko, hiru dimentsio edo aldagai aurkezten dira (Bussu et al., 2022): denborazkoa, espaziala eta praktika.

- **Denborazkoa:** Gobernantza parte-hartzailea bakarra eta *ad hoc* izateagatik askotan kritikatu izan da, horrela botere handiegia eman zaie erakunde sustatzaileei. Baina errotze terminoak errepikapena dakar, “integrazioa” politika publikoen zikloaren zati iraunkorra bihurtuz, hau da, salbuespenekotasunetik iraunkortasunera igaroz. Horrek eragileen parte-hartze politikoarekin zerikusia duen esperientzia bakoitza aztertze aukera ematen du.
- **Espaziala:** Prozesu parte-hartzaileak erabakiak hartzeko boterea baliatzen den lekuetan integratu behar dira nagusiki, parlamentuetan, espazio exekutiboetan edo administraziokoetan. Batzuetan, erabakiak hartzeko espazioa ez da partaidetza integratu behar den espazio bakarra izango; izan ere, gobernantza

⁸⁶ Parte-hartzearen sustraitzearen adibide argi bat hauteskunde parlamentarioak, erreferendumak edo protesta-eskubidea dira. Horiei ez zaie inola ere eskatzen errentagarritasuna frogatzeko (ez soilik ekonomikoa). Kontrakoa ere gertatzen da, adibide honetan azaltzen den bezala:

It is important to stress that this limited ‘rootedness’ does not only concern institutional forms of participatory governance. Elections, for instance, are not always rooted, and therefore embedded, even when institutionalized within established democracies. A good example is the elections of Police and Crime Commissioners in Britain, in which few people vote and which could quite easily be abolished by the government of the day, in all likelihood without generating a public backlash or having a substantial effect on the perceived legitimacy of the police. Like the normative aspect of embeddedness, rootedness is also a relational concept that requires an assessment of how participation interacts with its context.

parte-hartzailea askotan erakunde politiko eta arautzaileen joera oligarkikoei erantzuteko defendatzen da. Hala, gerta daiteke parte-hartzea ez izatea erakunde politikoetan txertatu behar dena, baizik eta erakunde politikoak partaidetza-sistema zabalago batean integratu beharko liratekeela, komunitatea prozesu politikoetan abangoardiako aktore gisa jarritz.

Normalean, tokiko eskala da herritarren hurbileko gaietan arazoak modu praktikoan konponduz parte hartzeko aukera ematen duena. Baina kontua da deliberazioaren integrazioak gai sorta handi bat hartu behar duela eta ez dela gai bakar edo problematikoetara mugatu behar. Hau da, sustraitzea ez da berez gertatzen hiri-espazio espezifikoko batean edo auzo batean X arrazoik eragindako auzo-erkidego batean prozesu parte-hartzaile bat (edozein motatakoa) egitea proposatzen denean.

- **Praktikoa:** berrikuntza demokratikoari lotutako errotze-dinamikak diseinu instituzional espezifikokoetan kokatzen dira, hala nola minipublikoetan edo aurrekontu parte-hartzaileetan. Horiek *input-output* terminotan pentsatuta daude, baina integrazio hori garrantzitsua bada ere, egileek politika interaktiboak egiteko integrazio instituzionaleko praktika informaletan jartzen dute arreta, non irisgarritasunean dauden botereak, asimetriak eta desorekak hutsaldu egiten diren. Adibide gisa, Bartzelonara eta hautagaitza municipalistek gobernatutako beste udalerrri batzuetara jo ohi da. Bertan, parte hartzeko narratiba eta praktika informal berriak sortu ziren, parte hartzeko erakunde eta eredu formaletatik aldenduz. Gizarte-mugimenduak gizarte zibilaren barruan integrazio-maila bat lortu zuten ikuspegi berritzaileak garatzeko gai izan ziren, hirian gobernantza parte-hartzailearen berrikuntzari eutsi zioten protoerakundeak sortuz.

Ondorio labur gisa, eta luzatzen saiatu gabe, agerikoa da partehartzearen integrazioa edo errotzearen ideiak lotura duela lehen aurkeztutako DDG logikekin. Parte-hartze errotuak, demokraziak bultzatutako gobernantzaren testuinguruan, eragileen eta erakundeen arteko elkarreragin produktibo eta iraunkorra inplikatzeko du, eta era berean, prozesu eta kultura parte-hartzaileak hiri-araubidearen egituraren eta tokiko arau-estatuan errotzea suposatzen du, eta horrek denboran zehar iraunez gero 12. Irudian identifikatutako zirkulu batzuen dimentsioak alda ditzake.

Halaber, hiri-errealitate konplexuetan gerta daitezkeen gobernantza kolaboratiboko gradu eta uneekin hemen garatutako kontzeptuek duten inplikazioa aintzat hartzen dugu. Hau da, eragileen eta interesen arteko gatazka edo tentsioa arindu beharrean,

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

governantza kolaboratiboak, parte-hartzearen sustraitzearen bidez, ekintza kolektiboari eusteko aukera eman dezake (Emerson eta Nabatchi, 2015; Ahedo et al., in press).

Parte-hartzea garrantzi handiko faktorea bada ere hiri-erregimenen beraien hautakortasun estrategikoen, estatuko proiektuen eta estrategien aldaketetan, 12. Taulan ere agertzen diren eta kontuan hartu behar ditugun faktore asko daude.

Izan ere, pentsa dezakegu finantza-krak globalak DDGren agerraldirako funtsezko zeregina izan zuela Espainian, ekonomia politiko kritikoan oinarritutako teorien garrantzia azpimarratuz (Bebbington 2004). Hemen, DDG agertzeak dakarren inflexio-puntua gisa, *shock* ekonomikoetan jartzen dugu arreta (ez hiri-erregimenaren haustura edo egiturazko krisi baterantz, esan dugun bezala). Bibliografiak dio botereari aurre egiteko aukeraren kostua txikiagoa dela aldi baterako talka ekonomiko negatiboen ondoren, demokratizazio handiagoa ekar dezaketen inflexio-puntuak eragin baititzakete (Acemoglu eta Robinson 2001).

Gure azterketaren arabera, hemen aztertutako mekanismoez gain, hiri-politikako eta tokiko gobernantzako adituek sarritan aztertutako aldagaiak, hala nola elkartedentsitatea (Putnam 1993; Fung 2003), gobernu-maila gorenen autonomia (Le Galès 2002) eta tokiko testuinguru ekonomiko eta politikoa (Bua et al. 2018), dinamikekin eta krisi ekonomikoekin elkarreragiten dute erregimena aldatzeko. Bestalde, azpimarratu behar da DDGren kontzeptua beste testuinguru soziopolitiko batzuetara ere zabal daitekeela. Hala, adibidez, hondamendi klimatiko batek, agian, DDG beste leku batzuetara eramango duten ondorioak susta ditzake (Bua eta Bussu, 2021), espazioaren garapen irregularraren dinamikei ere aurre egiteko aukera zabalduz.

Mihiztatzea: metagovernantza eta kolibrazioa borrokatzeko aukera

Azken atal honetan, gure ustez tokiko Estatuaren egituretan eta dinamiketan gerta daitezkeen aldaketak identifikatzeko funtsezkoak diren eztabaida, tresna eta kontzeptuetako batzuk bildu nahi ditugu. Izan ere, eta ekintza-esparru jakin batzuetan ezartzen diren politika publiko jakin batzuen ibilbideak kuantifikatzea eta neurtzea benetan egingarria bada ere (adibidez, legegintzaldi batean zenbat bizikleta-bide estreinatzen diren), politika publiko horien zirrikituak ezagutzea ere interesatzen zaigu, hiri-erregimenen joeren aldaketa ez-puntualen atzean dagoen zergatia ezagutzea.

Horrela, bada, tokiko gobernantzaren esparruan berrikuntzak ekar ditzaketen hiru kontzeptu aurkeztuko ditugu hemen, orain arte aurkeztutako gobernu-modu eta gobernantza-ereduekin hausten dutenak. Lehenik eta behin, Hans Asenbaumek (2023)

azalduriko mihizatzea edo “democratic assemblage”-a nabarmentzen dugu. Mihizatzeak, parte-hartzea hautakortasun estrategiko-espazialen aurka borrokatzeko metodo gisa errotzeko beharraz gain, pieza eta aktore guztiak ahokatzeko beharraz ere hitz egiten du, 11. Irudian agertzen diren figurak denboran eta espazioan modu iraunkorrean hitz egitera eramango dituen egitura erretikular bat sortuz. Kontua sareko aldagai eta aktore guztiak aintzat hartzea da. Baina arazo bat dago, ez baitago mihizatzerik, hori lortzeko borondate politikorik gabe. Hau da, botere handiagoa edo txikiagoa duen eragile batek erabakitzen badu, inola ere, ez duela lankidetzaren publiko-komunitario batean (adibidez) parte hartuko, zaila izango da gobernantza kolaboratiborako modu bat sortzea, gutxienez modu demokratiko-berritzailean⁸⁷ (Elstub eta Escobar, 2019).

Une honetan, metagobernantza baten existentzia eta kolibraziorako aukera identifikatu behar ditugu, *sine qua non* tresna gisa, benetako mihizatadura eta tokiko gobernuaren egituren demokratizazio errotua gertatzeko. Gobernantza-ereduei eta eragile instituzionalen eta/edo ez-instituzionalen arteko harremanei eustea askotan zaila dela eta aldaketak eta hutsegiteak (konfiantzakoak edo adostasunekoak) izateko joera dutela aitortzen badugu, metagobernantzaren existentzia eta beharra hobeto ulertuko dugu. Azken hori “autoerregulazioaren erregulazio” gisa aurkezten da (ez du zerikusirik lehen aipatutako deserregulazio arautuarekin) (Jessop, 1998b; 2016). Horrela, matriosken logikaren antzera, gobernantza “arrunta”tik haratago, gobernantza-dinamika handiagoak daudela proposatzen da, gobernantzari zuzendaritza politikoa emateko aukera zabaltzen baita⁸⁸.

Daviesek (2012: 2700-2701) [Marsh (2011) oinarri hartuta] metagobernantza “*government + governance*” gisa sinplifikatzen du, erlazio dialektiko batean oinarrituta. Alde batetik, interesgarria da ikuspegi hori, tokiko gobernuaren rola aitortzen baitu (*roll-back* edo *roll-out* aldietako huste- edo distensio-uneetatik harago): “the role of the state in securing coordination in governance and its use of negotiation, diplomacy, and more informal modes of steering” (Rhodes eta Bevir, 2010:86). Metagobernantzaren azterketa honek Estatukoak ez diren eragileei autoerregulatzeko ahalmena aitortzen die, eta Estatutik bereizten ditu; horrela, Estatuak bere autoerregulazioaren gaineko makrokontrola gauzatzeko espazioa sortzen du (Rhodes, 2012). Metagobernantzak,

⁸⁷ “Berrikuntza demokratikoak” definitzeko, honako azalpen hau hartuko dugu erreferentziazat: Democratic innovations are defined as: processes or institutions that are new to a policy issue, policy role, or level of governance, and developed to reimagine and deepen the role of citizens in governance processes by increasing opportunities for participation, deliberation and influence. (Elstub eta Escobar, 2019: 11).

⁸⁸ Sare, hierarkia edo merkatu-gobernantza ereduak izan (Jessop, Rhodes, Subirats eta abarrek azaldutako eztabaidei eta lehen mailako gobernantza-ereduei erreferentzia eginez).

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

azken batean, Estatuak gobernagarritasunean esku hartzen duten gainerako eragileak gobernatzen dituela esan nahi du. Bestela esanda, metagobernantzak Estatuaren gobernu-rola berrasmatzean, honen itzulera iragartzen du; “bringing the state back in (yet again)” (Jessop 2007b: 54).

Marshek adierazten duen bezala (ibid.) Fawcett (2009), metagobernantzan errepikatzen dira iraganeko borroka estrategikoak islatzen dituzten erlazio asimetrikoak. Beraz, jakin behar dugu metagobernantza berez ez dela ez positiboa ez negatiboa. Kontua da neoliberalismoaren parametro hegemonikoen arabera zuzentzen bada, non sareek mendeko subjektuen interesak eta eskaerak ahultzeko joera duten (Davies 2012), metagobernantzak gobernantzaren blindaje gisa ere funtziona dezakeela. Hau da, estatuaren rola, nolabait, selektibitate estrategiko historikoak betikotzea eragin dezake. Fawcettek (2009:37) modu distiratsuan laburbiltzen du zer den metagobernantza:

Jessop is specifically concerned with analysing how the state is involved in managing, blending and asymmetrically privileging the organization of the conditions of governance and the relative mix between hierarchy, markets and networks, which are understood as different forms of coordination. Metagovernance therefore not only indicates a continued role for the state in the regulation of self-regulating governance networks, but it also casts doubt on the view that the vertical hierarchies of the old social structures of the state have been replaced or subsumed by such networks. In this way, the Strategic Relational Approach argues that power is much more concentrated than the networked polity model or the differentiated polity model would suggest.

Hori esanda, gure interesa Estatuak erregulatzaile gisa duen funtzio espezifikoan oinarritzen denez, funtzio hori bera eta, beraz, gobernagarritasun eratorria eztabaidatzeko irekitzen den aukera da guretzat garrantzitsuena. Esan nahi duguna da “Estaturako itzultze” horrek metagobernantzaren praktikari buruzko “aholkularitza politikorako” aukerak irekitzen dituela. Izan ere, metagobernantzaren agertoki horretan gertatzen dira botereen arteko gatazkak, eragileen desberdinen esku-sartze eragingarriak interakzio eta erabaki batzuk edo beste batzuk erraztu ditzake, eta, azken batean, ikuspegi hegemoniko motak eta Estatu-proiektu eta -estrategiak ezartzen dira, epe luzera eta beste aldagaiekin, hiri erregimena osatzen dutenak.

Beraz, gobernantzaren erregulazioa gauzatzeko, tokiko gobernuak eragile bideratzaile gisa duen funtzioa funtsezkoa da. Arautze hori, esan bezala, eragile espezifikoaren interes ideologiko-hegemonikoei men egingo lieke. Horrela adierazten du Marshek ere (ibid. 44): “governments oversee the various modes of governance through a process of

Continuities and ruptures in urban regimes in a context of variegated neoliberal deepening: Bilboko eta Bartzelonako kasuen azterketa

metagovernance”⁸⁹. Une horretan, Jessop eta Dunsire (1990; 1993; 1996) autoreek kolibrazioa proposatzen dute gobernantzaren kalitatea bermatzeko metodorik eraginkorra gisa. Metagobernantza agertokia bada, kolibrazioa ekintza arautzailea da.

It has been adapted and applied by Jessop to refer to the ways in which political authorities in, and across, all political levels have become increasingly involved in providing the ground-rules for governance (Fawcett 2009: 42).

*Librazio*⁹⁰ terminotik eratorrita, politika publikoen eta horien praktiken koordinazioan oreka justua antolatzea ahalbidetzen duen tresnari egiten dio erreferentzia “kolibrazioak”, onura komuneko helburu batera iristeko eragileen baldintzak aldatzen saiatuz. Beraz, “modify the relative weight and targets of exchange, hierarchy, and networking in the overall coordination of relations of complex interdependence” aurrera erameteko saiakera da (Jessop 2004:62).

A priori, badirudi gobernutik gobernanzarako trantsizioaren aurkako jardura dela (edo erreakzionarioa⁹¹), baina ez du gobernantzaren existentzia ukatzen, eta ez du hura suntsitzeko asmorik; metagobernantzaren alderdi askotan gobernuak betetzen duten funtzio nagusi eta gero eta handiagoari egiten dio erreferentzia (governanzarako funtsezko arauak ematen dituzte; gobernantza-erregimenen bateragarritasuna bermatzen dute; interesdunen arteko elkarrizketaren antolatzaile nagusi gisa jarduten dute; eta abar).

Planteamendu horren funtsezko oinarria (metagobernantzan erreproduzitutakoa) hautakortasun estrategiko desberdinaren aurkako borrokarako tresna erabilgarria izatea da.

Kasu honetan, Estatuko botereak (eta tokiko gobernuak) kontrola hartu eta prozesuak koordinatu behar ditu, tentsioak nahita suntsitu gabe, eta, horrela, egoera ahulenean dauden eragileen ordezkariak bermatuz, eta, aldi berean, gobernantzaren akatsak eragiten dituzten mesfidantzak, konpromisoak eta hierarkiak aldatuz, gobernantza demokratikoa lortuz.

